



TWIST

HARKAITZ CANO

HARKAITZ CANO

Twist
-izaki intermitenteak-



Liburu honen salneurria: 3,54 €.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2011 Harkaitz Cano

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2011ko abendua

Edizio hau: 2011ko abendua

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Heriotzak esna mantentzen nau.

JOSEPH BEUYS

Cambalache, 1983

Gaua da kanpoan, gaua izatea merezi du.

Lurraren erraietan beti da gaua, satorren ordua da satorraren domeinuetan. Axola dio ezer egun-argiak lurpean bizi denari? Ez gehiegi. Bat eginda zaude aspaldi honetan lurrarekin eta batere ez mugitzea zenukeela onena iruditu zaizu hasieran. Zure erraiak eta lurrarenak errai berak ez dira bada? Ahots teluriko batek diotsu: abandonatu zeure hezurak betiko, zer arraio. Ez al dira hezurak danbor-jotzailearentzako makilak, txirulariarentzat txirulak? Hainbesteko atxiki-mendua diezu honezkero tinbala kolpatzeko ere nekez balio lezaketen humero pareari eta tibia horiei? Nola egongo zara, etzanean baino hobeto? Lo egin ezinik dabiltzan milaka gizaki kezkatu ados egongo dira honetan: lo zauden orduak dira onenak. Baina hainbeste urte mugitu gabe egoteak ezin du ona izan. Inurriturik dituzun gorputz-adarrak dantzatu nahi zenituzke, hatz puntak apur bat esnarazi. «Ahal banitu hatzetako hezurak bere loturetatik aska eta haiek kraskatuz ostera ere kateatu!». Matrailezurren orde z haginlariak moldea ateratzeko erabili ohi duen igeltsua ote duzun

sentipena; begiak zabaldu ere kostata, zure artean, «ez zuan oso arteza baltsamatu ninduen morroia», lurra baino sikuagoa den hauts zuri batek hartua dizu garunaren parte bat: desmemoria, magnesioa, karea.

Zenbat denbora behar du gorpu batek usteltzeko? Sei, zortzi, hamar urte? Antropologo forentseek diotenez, hezetasunaren arabera. Proba egin nahi? Akabatu katu bat eta utzi leihoko freskuran, ea.

Ezin ezer oroitu. Zuri-zuri duzu burua, tabula rasa egin balizute bezala. Baina hain arrasekoa ere ez da izan buru-garbiketa. Argitxo bat bada tunelaren amaieran; pospolo hari horixe hartu hatz artean eta tira matazari apurka-apurka, hain fina den hariño atzemanekin hori desegin ez dakizun, kontu handiz. Zerbait-zerbait gogoratzen duzu, bai: esaldiak eraikitzeko eta hitzak lotzeko gai zara. Sintaxia zara. Gramatika hutsa. Nortasunik gabeko hitz saldoa. Laster berreskuratuko duzu berriz ere memoria. Amnesia handi samar bat besterik ez da, kolperen bat jasoko zenuen, auskalo, nagiak kendu behar dituzu, esnatu berriaren aje trumoitsua uxatu, tekila mozkorraldi baten bestondo bortitza, tekila edo zena zela, duela hogeitaka urte edaten zenuen pozoi destilatua. Ez, dagoeneko jabetu zara horretaz: zurea ez da belarreta-

tik altxatu, praktetako belar-izpiak astindu eta bidezidorrean gora *Xarmengarria zira* txistuka jarraitzea bezain erraza izango.

Kosta behar zaizu ederki kanpora irtetea.

Kanpoan zer? Norbait duzu zain? Izpilikuak, pinu moztakak, txilarra nonahi, fruitua emateko lain hazi ez diren pikondo kimuak, eguzkiak mailukatu eta harrespilen inguruetan euren burua babes bila makurtzera derrigortu duten arbolak, jaio izanaren damu diruditenak, euren baitara bilduak, euren buruei itzala emateko trikututako zuhaitzak; masustarik gabeko sasiak, sasi asko, eukaliptoren bat asko jota, izeiak. Eta gainerakoan basamortua. Itsasotik gertu sarkorragoa da lurraren usaina. Sargori dago eta ur gezaren faltak gehiago pisatzen du mihiaren irrikan kresalaren kontsolamenduak eta kaio-brisak baino. Galipot txaplatez jositako errepide komarkalak. Mihilua eta salbia bezalako belarren usainak errepide bazterrean, anis eta hondar. Hor daude erromero orratzak ere, hatzak haietara inguratzen dituenarentzat ziztagai. Itsasotik ez datorren arren, haizea dabil zirimolan, tramontana ez baizik eta hegoa, hautsa gora altxatuz. Beha sugandilen lorik eza, hozkailuetako imanak bezala arroketan nola geratzen diren geldi: gora eskuak. Mexiko-

ko basamortu baten hain ezberdina ere ez. Hemen ez da han adinako sargoririk, jakina. Kaktusak ere ez hain nabarmenak, ttipiak eta tartekatuagoak.

Mexiko, tekila? Zertara dator hainbeste aipamen ozeanoaz bestaldera, güerito? *iNo mames, guey!* Hi ez haiz eta inoiz Hego Amerikan izan! Memoriaren bide-seinaleren bat izango duk, agian. Narratzaile hau bere buruaren bila dabil: pistaren bat, hika edo zuka hitz egin behar ote dizudan argituko didana. Hainbeste zakurkeria egin dizkizut. Ez naiz beti ongi portatu zurekin, gorrotatuko nindukezu bizirik bazina. Egon adi buruak uzten dizkizun arrasto itxuraz inkoherenteetara ere, irakurle. Botila hautsiren baten hondakin porrokatuak, bart gaueko egur kiskaliaren aire urruna, *scouten* kanpalekuren bat behiala gitarra hippy zahar txo baten abaroan, anaitasunezko kantuak, «zergatik galdu itxaropena berriz ikusteko, zergatik galdu itxaropena berriz elkartzeko», etorkizuneko enkontru gauzatu ezinak ospatuko dituen jendea, hain gutxi iraun eta hain azkar itzaltzen da udako adiskidetasun bi astez eternala. Segitu, segitu aurrera: belar luze berdotsak, ifrentzu glaseatuko menda-belar bakanak, alkohol edo brea usaina, ez gasolina bezain bereizgarri, ez hain sakonki gogaikarri. Itsaso kutsatua eramanga-

rriagoa da errepideko aire gasolio usainekoa baino. Haizeak hautsa altzarazten du berriz, ez da inor ageri. Hara, hara: Mexikoko Futbol Mundialetako kamiseta bat zeneraman soinean. Hori zen orduan! Ez zara inoiz Mexikon izan, baina Mexikoko Mundialetako xirta zeneraman eskuburdinez lotuta, zapatak arrastaka eramanean zintuztenean oinez lotuta (berriro lotuta? Bai: bi, hiru, lau aldiz lotuta, oso lotuta, hagitz lotuta, orkatiletan hogeitau urte geroago min emateko moduan lotuta, gertatu zaizuna inori kontatuz gero hark ere bere orkatilak lotuta sentitzeko moduan lotuta). Sastraka hauetan barrena eramanean zintuztenean peiotearen abantailetan pentsatuko zenuen agian. «Mendi Errusiar batean banengo, bidaia lisergiko batean banengo, gezurra balitz hau dena!». Ez, ez dut uste... Ez dirudi bizirik zinenik hona ekarri zintuztenean. Ala bai? Lekuan bertan eman zizuten tiroa buruan? Hilik ekarri zintuzten hona, gorpu zendu, betazal erori? Ekarki zintuztenek, orduan, eskuburdinen premiarik gabe ekarki zintuzten? Demagun baietz, demagun hala izan zela: eskuburdinarik gabe ekarki zintuztela hona, eskuburdinak, euren serie-zenbakiak, urte askoren buruan ere zantzu bat izan daitezkeelako errudunak aurkitzeko. Edo agian bizirik ekarki zintuzten, baina begiak tapa-

tuta, ahoa tapatuta, eskumuturrak izara apurtuz este-
katuta. Krudelak eta burutsuak ziren zure borreroak.
Krudelkeria maila batetik aurrera koska bat areago es-
tutzeko burutsua izan beharra dago derrigor, gustatu
edo ez halaxe dira kontuak, ondo daki hori Deabruak.

Entzuten da itsasoko olaturik hemendik? Ez. Itsa-
soa gertu samar dago, baina ez nahikoa, Mediterrane-
oa edukiontzi isila da gaur. Eta ez zaitezte engaina:
itsasoa asmazio bat, ez da besterik hildakoentzat.

Sastraka batzuk eta soilgune bat. Eta sastraka
gehiago, gu gogaitu eta gure pazientzia proban jarri
beste zereginik ez dutenak. Hondarra dago soilgune-
tan eta horrek sortzen du hanka hutsik joatea posible
deneko ilusioa, gero agertzen diren arren berehala ha-
rriak, txintxarrak eta ez hain txintxarrak, arroka txi-
kiak eta ez hain txikiak. Bidezidorretik apartatzeko
unea. Sasi hauek ez dira Kantauri isurialdekoak beza-
lakoak, sareagoak dira, hosto berde distiratsurik ez,
menda-belarraren ifrentzua dirudien kolore zuri mate
batez daude estaliak berde oro, *hor* eta *hor* eta *hor*,
zigor edo fusta antzeko sastraka idor zutak, harri pila-
tu zapalez egindako hesiak; gizonak pauso seguruz
datoz, lehenbailehen bukatu nahiak urduritasuna disi-
mulatzen laguntzen die. Beharbada lehendik ezagu-

tzen du lekua haietarik batek. Lan lohiren bat egina du lehen ere hemen. Zer lan lohi, ezin jakin zer lan lohi. Bakarrik edo besteren laguntzarekin. Bakarrik edo lohiaren laguntzarekin. Errepidetik urrun gaude? Kilometro batera? Kilometro eta erdira? Kilometro erdira bakarrik? Ez dago hainbeste urrundu beharrik ere, errepidetik hiru pausotara irten, eta jada jendearen ohiko ibilbide eta azturetatik urrun ezartzen duzu zeure burua. Bi pauso aski izaten dira gehienetan denonbide usatu eta sarrietatik aienatzeko. Amildegia- ren ertzera erortzeko aski da pauso bakarra.

Gaua delako. Gaua izatea merezi du eta gaua da. Errepidea ez da nagusietakoa. «Putakume honek ez dik ongi ezkuta dezagun ere merezi», pentsatu du norbaitek. «Zakur deslaia, farola batetik urkatuta zintzilik utzi behar genikek, ohartu nahi duenarentzako zentzagarri, arratoi lehertua bezala errepide bazterrean uztea merezi dik, Trotarekin horixe egin zitean, errepide ertzean lehertu; aurki dezatela bera ere erre- pide bazterrean oka egitera geratu diren turista ger- maniarrek euliak ahoan birundan dituela».

Baina kontua ez da zuk merezi duzuna.

Honek ez dauka zerikusirik zuk merezi duzunare- kin, *hai*ek ezkutatu nahi dutenarekin baizik. Alibi ego-

kia eta segurtasuna, norbere larrua babesera eta segurutik izatea, orain eta hemendik hogeitaka urtera ere berdin, eskuak eta espedientea zuri. Legeak eta zigorrak eta memoriak preskribatu artean, segur. *Eskua joan zitzaigun*. Eskua joan zitzaien eta oraindik ez zaie etorri bueltan. Eskua. Non?

Hemen.

Agian autoz heldu dira haraino, agian lepoan hartuta ekarri zaituzte, paradoxa latza litzatekeena, arima zeken horiek zu lepoan hartuta segitzea aurrera. Baina nor da zeken eta norena da zekenkeria? Ulertuko zenituzke agian, ulertu behar zenituzke, beren larruan bazeunde. Haien pare zinateke haien larruan bazeunde, haien *haiek* eta haietako bakoitzaren zirkunstantzia. «Ni neu naiz eta neronen zirkunstantzia. Ene zirkunstantzia salbatu ezean, ez naiz ni salbatuko». Filosofo ezagunaren esaldiaren bigarren parte ahaztu egin ohi da beti, auskalo zergatik. Baina inor ez dago inoren larruan. Nork bere larruan galtza bete lan badugu beste inorenean sartzen hasteko. Ezberdintasuna da zu zerorren hezurretan zaudela, eta ez zeure larruan honezkero.

Maletategia dzart ireki da. Edo furgoneta bat da, agian. Laurogeiko hamarkadako furgoneta, Ebro bat,

suspentsio eskasekoa, eta -goma gastatua dutenez gero- euri-eskuila hala moduzko eta kirrinkariak dituen. Hautsa eta hondarra nahasten diren zokoan zantulu egin du ibilgailuak. Maletategiko gorpua mugitu egin da, burua inerte linterna baten argitara, zauri sakon bat du bekainean. Berehala estali zaituzte, manta nabarra larruorde.

Bai, jabetu naiz. Oraingo eusten diot tentazioari eta zuka egiten dizut, ez dakit zergatik, hala ateratzen zait hildakoekin.

Hildakoak; asko dira, eta beti eskertzen dute entretenimendu apur bat.

Hemen. 80ko hamarkadan gaude. Lan egiteko adinean daudenen bostetik bi langabezian Espainiako Estatuan, beti ere datu ofizialen arabera; Björn Borg tenislari suediarra erretiratu da aurten, Martina Navratilovak irabazi du Flushing Meadowsko lehia; Antartikako Vostok basean 89,2 gradu Celsius harrapatu dira zeropean, inoiz lurrean erregistratu denik eta tenperaturarik baxuena; sei urte bete dira Elvis Presley hil dela, esnatu behar luke hark ere inoiz; Bartzelonako Bellvitge ospitalean espainiar estatuko lehen gibel transplantea egin da, dena ez da txikizio eskalpeloak haragia irekitzen duenean; martxoaren 8an, emaku-

mearen egunerako, Ronald Reaganek Sobietar Bata-
suna «gaizkiaren inperioa» dela esan du; irailaren le-
henean ehiza-hegazkin sobietarrek abioi komertzial
hegokorearra bota dute errakuntza malerus bat dela
medio, 269 hildako malerus eraginez maleruski. Ten-
nessee Williamsen heriotzaren urtea da, Desio New
Orleansko auzo baten izena da. Bere arbasoek gaizki
egindakoak zuzendu dituenik ere bada, berandu, bai,
baina bada zerbait -ez esperantzarik gal, inkisizioaren
peko sorgin garaikide kiskaltzen hasi berriok, eutsi!-;
maiatzaren 9a da eta Joan Paulo II.ak, doan lekura
doala makurtu eta lurra musukatzen duen Aita San-
tuak, duela bi urte Mehmet Ali Agca sikario turkiarrak
zerbitzu sekretu bulgariarren eta KGBren enkarguz ia-
ia hil zuen berberak, Galileo Galileiren kontrako kon-
dena erretiratu du, palazzoko kontuak, jakina da,
piano-piano, baina azkenean lontan; *Aspaldian espe-
ro zaitudalako ez nago sekula bakarrik*, izan zitekeen
Galileok esandako esaldia, baina Arantxa Urretabiz-
kaiak aurten argitaratutako liburuaren izenburua ere
bada; Margaret Thatcherrek irabazi ditu Britainia Han-
dian hauteskundeak, eta ene, bai aise irabazi ere; sei
urte joan dira Frantzian azken lepamozketa egin zute-
la gillotinaz, bi urte baino ez Eliseoak gillotina abolitu

duenetik (*la mort de la mort*), nahiz eta frantziarren %62 erabaki horren kontra egon, nahiz eta frantziarren %61i Mitterrandek bere garaipena ospatzeko askatutako 5.000 presoan liberazioa gehiegizkoa iruditu, nahiz eta eta nahiz eta, politikariak liderrak direlako oraindik eta karismak inkestek baino gehiago ahal duelako.

Aurten, 1983an, atera da kalera Michael Jacksonen *Thriller* arrakastatsua, *Iratze okre geldiak* kalera-tu du Imanolek; Anjel Lertxundik *Hamaseigarrenean aidanez* argitaratu du, Madonnak *Holiday* abesten du zilborra jada agerian duela; *Superman* filmaren hirugarren zatia egin du Christopher Reeve aktoreak, oraingoan gaiztotu egingo da eta gero berriro zintzotu, noski; urtebete da «Por el cambio» lemapean Espainiako presidente dela Felipe Gonzalez, «Adelante», hitz hori baino ez zuen esaten telebistarako egindako spotean, «Adelante»; hiru urte joan dira gerrillari argentinarrek Paraguaiko Francisco Franco abenidan Somoza Nikaraguako diktadore exiliatua hil dutenetik, gorpua kiskalita geratu da, baina Mercedesaren motorra martxan, «izan ere, auto alemaniarrekin fida zaitzke».

RDA ez da txantxa eta ez da parke tematikoa, sei urte falta dira Berlingo harresia erortzeko, urtebete Europa ekialdeko atleta diziplinatu eta hormonatuek Los Angelesko Olinpiar Jokoetan domina parrastada irabaz dezaten eta beste hainbeste Carl Lewis *Haizearen Semea* ezagutu dezagun. Frankizien negozioak eta haiekin etorriko diren zinpeko guardak orokortu gabe daude artean, zinpeko guardak furgoi blindatuetan bakarrik ezagutzen ditugu oraindik, *film noire*tako glamurra iradokitzen dute eta ez hogeita bost urte gerroagoko erruki mileurista. Filmetan ikusita soilik dakite umeei *pizza* bat zer den, fotokopiak luxu kosmikoa dira, ez da hain erraza gauzak kopiatu eta multiplikatzeko, ez da hain erraza, erraza ere ez batere, multikopistak erabiltzen dira oraindik, tintaren toxina sarkorragoa da, makinaz idazten dugu eta makinaz idazten dugunean ikatz-orria jartzen dugu folioaren azpian, dokumentu garrantzitsuen kalko-orriak izateko tipulorrietan, ditxosozko kalko orriak, kalko orri bedeinkatuak; jada idatzi duen arren ez diogu oraindik Borgesi irakurri ispiluak eta kopulatzea nazkagarriak direnik, edo Benedettiri, jatorrizko bekatua ez baizik eta fotokopiak direla okerrena; egurrezko leihoak dira nagusi, PVCa eta kristal bikoitza ez ditugu ezagutzen, titanioa

zientzia fikzioa da, aluminioa da oraindik populuairen baitan prestigio gehien duen aleazioa, fundizioetako labeetan amiantoa darabilte bizkotxoak balitz bezala; hatza diskoaren zuloan sartu behar da telefonoak markatzeko, erro karratua ateratzen duen kalkulagailu bat da etxe gehienetan dagoen konputagailurik sofisticatuena; *marketing* hitza hitz modernoegia da, eskaparateak salgaiak pilatzen diren almazen ilun sobietarrak besterik ez dira, *bestaldera* joan beharra dago benetako eskaparate bat, gustuz jarritako erakusleihu apain eta argitsu bat ikusteko, Lafayette galerietara eta horietara (ez ahaztu pasaporteak); bestaldean bitxi-denda dirudite supermerkatuek gure begietara, Europa behazuna isurtzen ari baita artean, mugaz eta txarrantxaz. Bandoaren kontrako irrintzia baino zerbait gehiago delako oraindik kontrabandoa, ofizio bizi bat eta kartzelara joateko arriskua.

Mediterraneotik gertu eta ehiza eremu babestuetatik gertu dagoen leku honetara ekarri zaituzten gizonak oraindik ez dute pairatu behar izan ingeles akademien eskaerarik, beharrianik eta derrigortasunik euren lanpostuetara iristeko. Ez jakiteagatik, ez dakit *X marks the spot* hitzen esanahia oraindik, ez dituzte filmak gurean -gurean?- azpigitulaturik ematen, eta

horren truke ezabatzaile ejertzito ederra daukagu -*bi-koizleak* esaten diete- inork esandakoak feriante aho-tsarekin ezabatzen dituen ejertzittoa, 90etako erakusleihen koloretsu eta aldirietako galeria komertzial erraldoiak irudikatzea kosta egingo litzaieke akademia grisetan egurraren lengoaian hezitako poliziei; trenbidearen zabalera diferentea da hemen duela zortzi urte ohean hil zen diktadoreak hala erabakita; zergatik? Frantziako mugatik haratago, tren atzerritarrak, etiketa atzerritarrak dituzten kontserba atzerritarrak eta ideia atzerritarrak eta saltoki baino gehiago bitxidenda diruditen supermerkatuetako Danone jogurt atzerritarrak etor ez zitezten diktadura koxkorraren goxo gordinera, horregatik; herrialde zaharkitu bateko erakunde zaharkitu bateko esaneko gizonak dira botekin hondarra harrotzen duten presati horiek, bi urte barru NATOn sartuko den estatu bateko musketierrak, hiru urte barru Europako Ekonomi Elkartera sartuko den estatu batekoak, ezpatariak izan nahi baina beranduegi jaiotzea tokatu, lastima; gau-txandan lan egiten dute hamabi orduz, eskua joaten zaie batzuetan, ulertzekoa -lotu beharko lukete pita bat hatz lodiaren bueltan, gero atzera ekartzeko; atzera arrantzatzeko joaten zaien eskua-. Diktadura batetik eta

bere arauetatik datoz. *Araua* dioenak erraia ere badio. Hortxe lurperatuko zaituzte. Zuloan. Haiek bakarrik dakite non. Lurraren erraietan.

- Itxura penagarria dute, ezin ditugu horrela utzi: desager daitezela.

- Zenbat eta jende gutxiagok jakin, hobe.

Sasiak ere begiak baditin. Hiruk sekretu bat gorde dezakete haietako bi hilik badaude. Baina ez gaitezen desbidera. Non geratu gara?

Hemen. *X marks the spot*. Altxor baten bila zulatzen duenak bezala hasi dira zulatzen. Ez, gezurra: altxorrik topatuko ez dutela dakitenek zulatzen duten bezala hasi dira zulatzen. Bi dira, edo hiru, agian. Kale jantziz doaz *-de paisano-* eta ez da galoiduna bereiztea erraza. Baina galoiduna dirudienak ez du aginduak eman besterik egiten. Egiten dutena egiten dute zer egiten duten gehiegi pentsatu gabe. Mekanikoki, baina hildako bat kokotean zuri begira izateak eman dezakeen hozkirri erantsiarekin. Izua da. Presa da. De-sosegu da. Hildakoaren begirada kokotean. Hildakoa hilik egon arren, manta nabarra larruorde duen arren, haren begiak ikusten ez dituzten arren. Zure begiak ikusten ez dituzten arren. Ilargirik ez dago, gaitz erdi. Gaua barea da, kilkerrak eta txitxarrak entzuten dira

pala hotsek hondar kutsuko eta hauts kutsuko eta idor kutsuko lur neutroa klask zulatzeari uzten diotenean. Adam armatuak dira: Adam omen bere lorategian zulatze lanak egin zituen lehena, hala diote, pala bat armatzat har badaiteke, bera izan zela lehen lagun armatua. Lorazainetik ehorzlera ez dagoela, alegia, alderik apenas: Adamen oinordekoak bi-biak, armatuak bi-biak. Esaneko gizonari bizkarra izerdiarekin umel-tzen hasten zaionean, pikatxoari eman eta emanka, zerbaiten zentroa kalkulatz metal puntadunak lurra zulatzen duenero, «ez dadila behintzat aukeratutako lekuan harririk agertu, otoi», erregutzen du. Nori erregutzen dio, ordea? Gauari, gauekoei erregutzen die.

Hotz egiten du, izerditan dituzte hortzak.

Lurruna ahotik joan-etorri azkarrean. Gauean zuri. Beltzean lauso. Itzalian ke.

Izarniaturik gaua, baina haiek ez daude izarretarako.

Lehenbiziko lana, zuloa egitea. Zulo egokia. *Egokitzeko* moduko zuloa. Zu lo etzanean kabitzeko modukoa. Edo belaunak kizkurtuta, ez da exajeratu behar. Gainera, denok kizkurrarazten gaitu ilunabarrak amiñi bat, denok neurtzen dugu zentimetro bat gutxiago gauean, oherakoan, goizean jaikitzean baino. Profita

dezagun gauak eransten digun umildade hori hilobia txikiagoa izan dadin, gutxiago zula dezagun. Eta gaua da, gaua izatea merezi du. Kalkulu azkar bat eta, «hobe dugu eskas ez geratu, jarraitu zulatzen». Alferrikako lanaren enbarazua esaneko gizonek orain, «putakume honek lanak eman behar zizkiguk», edo, beste hizkuntza batean, «este hijo de puta nos está haciendo sudar más que la gorda Mariluz», etc. Meretriz ezaguna denentzat, Mariluz, nonbait. Eta esaneko gizonetan gazteenak, Hernandez delakoak, Mariluz ezagutzen ez badu ere, barre egiten du ozarki, besteek marikoitzat har ez dezaten. Marikoitzat har ez zaitzaten barre ozarrak egiten hasi eta Adamen oinordekoak ez daki inoiz zein krimen egiten bukatuko duen. Lorazainaren bokazioa hortxe amaitu zaio Hernandezi, lagun armatuak halakorik izan bazuen sekula.

Mamuek haize hegoa nahiago ote dute? Sosegatuagoak ote dira Mediterraneoko mamuak? Iparraldeko Europan mamuak estridenteak direla diote, beldurgarriak, desafinatuagoak haien uluak, hotzagatik. Erraza da mamu nordikoak, irlandarrak, estoniarrak, alemaniarrak labana eskuan dutela azalpenik gabe zu erasotzen irudikatzea. Mediterraneoko mamuak,

ordea, ez dira horren tetriko, ezin inoiz serioskiegi hartu, hiltzen zaituztenean ere, txapuza eginez zaituzte hiltzen, Don Juan Tenorio eta halakoak, komikoak dira, bufoak, haien komikotasunak egiten ditu batzuetan beldurgarriago, lepoa egingo genuke labanaren orde z pandereta dantzarazi baietz, haiekin basoerdiak hartzeko modukoak dira Mediterraneoko mamuak. Fantasmas devotos de Frascuelo y de María. Bada Espainiako literaturan fantasma serio eta benetan beldurgarririk? Eta Euskal Herrian? Zeintzuk eta nolakoak dira euskal mamuak?

Hemen?

- Zuloa prest dago, nagusi.
- Gehiago zulatu.

Hogeigarren mendea. Hara. Halogenoa? Zer da hori? Horixka edo azula da leihoetako argia, eta funditu da bonbilla, eta aldatu dugu bonbilla. Batere igogailurik gabeko zenbat etxe. Edo zenbat etxe bere ate bakarreko igogailuekin. Gure amaren beldurrekin igogailua hartzen genuenero: ez gehiegi hurbiltzeko, besoa moztu behar izan ziotela igogailuaren atea martxan harrapatuta ondoko atariko norbaiti. Eskurik gabe geratu, eskua joan eta eskua bueltan ekartzerik izan ez. Kale peatonala? Zer da hori? Hogeigarren

mendea. Gu harexek harrapatu gintuen, hogeigarren mendeak, pintzadun sagu-tranpek sagua nola: bizirik eta bete-betea. Eta sagu-tranpan dagoen saguak denbora pasatzen ikusten duen bezala, guk ere ikusten dugu hogeita batgarren mendea pasatzen, baina sagu-tranpako pintzak gauzka hogeigarrenean iltzatu-ta. Eta luze izango.

Cambalache, siglo veinte.

- Gehiago zulatu.

- Baina ez al da nahikoa?

- Gehiago zulatzeko, ostiala! Bi kabitzeko moduan!

Manta marroi batean bilduta ekarri zaituzte agian? Manta nabarra dela ez dago zalantzarik. Odola koagulatuz aspaldi, tantarik ez darizu, ezpada odolbilduaren gatzatu solidoari sortzen zaion izerdi biziarena. Napoliko San Jenaroren figurari bezala, beste santu edo beste mamu mediterraneoar bat, odol malkoak ateratzen baitzaizkio hari lantzean behin, hala diote mirarrietan sinesten duten katoliko napolitarrek. Baina negar malko eskarlatarik ez dario zure gorputzari. Hilik zaude azken tantaraino. Jada ez zaude hor. Hor ez. Eta hor ere ez eta hor ere ez. Zure familiak jakin nahi luke non zauden, ordea. *X marks the spot.* Urte

asko pasatuko dira jakingo duen arte, eta non zauden ez jakitearen larritasun hori aurpegiko zimur bakoitzean zizelkatzen doakiela zahartuko dira zure ahai-deak. Mihilu eta txilar eta izpiliku eta erromero usainak iraungo du, turistak eta errepide nagusiak gertuago egongo dira eta zabalagoak izango dira karreterak, konurbazioak, zirkunbalazioak, errotondak. Lehen kapilar zena zain zabala eta ziztaerra da orain: organoak komunikatzeko modu bat omen dira errepideak, laurogeietan ez zegoena... Laurogeietan zezenaren isatsa eta zezenaren gibela eta zezenaren urdaila eta zezenaren bihotza eta zezenaren begiak eta zezenaren hesteak ez zeuden komunikaturik ezpada kapilar sigi-sagatsuekin, zirkulazio txarra, bere kasa zebilen organo bakoitza, herri bakoitza, bi koloreko *doscaballosak* -beltz eta granate-, eta *seiscientosak* -zuriak- eta *miniak* -sagardo botilen kolorekoak- eta *dianseisak*. Laurogeietan irrati programetan horrela egiten zuen diosal goizeko esatariak: «Día soleado en toda la piel de toro, queridos oyentes». Queridas, hori geroago etorri zen: burges adulteroak apartamentua jartzeko emakume hura zen orduan *querida*.

Cambalache, siglo veinte.

Urteen buruan, gaua izan arren ez da gaua hain iluna izango, fluorargiak agertuko dira tarteka, pabilioi industrial sofistikazio gradu ezberdinekoak 90etan, epaile eta forentse demokratiko batzuk musua garbi etorriko dira zu hobitik ateratzera teknika artetsuz eta profesionaltasun ostentagarritz, tabako beltzaren ordeztubioa patrikan, edo agian ezer ez, nikotina partxeen tirania. «Guk bazakiagu geure lana egiten, ez trabatu bidea eta utzi profesionalei». Haiek badakite latexez jantzitako atzamarra begian nola sartu. Haie-tako batzuk, gauetz zu lurperatzera etorri ziren mamu berberak izatea ere litekeena da, volver, volver, y las nieves del tiempo blanquearon mi sien (zuritu beharrik ez zureak, karez baitziren enpo). Baina ez dezagun sobera aurrerratu denboraren gurpila, oh, qué será, qué será, horretarako urteak falta dira oraindik, gutako inor ez da narratzaile orojakile anpulosa, gurrpil horren jabe erabatekoa.

Momentuz hiesa zerbait berria da European, AEBetan hitz egiten da zerbait horretaz, nahiz eta Europa-ko Parlamentuko Komisioak ere hura ikertzeko eskara lausoa egin duen aurten estreinakoz. Gizon esane-koetako batek makurtzean erromero adar batean ziztatu du hatza, odol analisirik ez du aspaldi egin. Ho-

geigarren mendean gaude, sagu-tranpan iltzaturik, gure sagu-begiak erne, laurogeiko hamarkadan bizi gara, nork ez du lagunik galdu heroinaren erruz, GIB birusak harrapatuko du beharbada gizon esanekoa hemendik urte gutxira Miranda de Ebroko putetxe batean bere gau librean larru-aldi tristea izan ondoren Chuecan jaiotako prostituta heroinazale batekin -nork daki, agian Mariluz? Ene kandelargia!-; handik hemezortzi hilabetera hilko da tximistak jota baino lasterrago, argiaren abiadan, eskumuturrak oilo fameliko baten zarpa estu, «para una vez que la meto en caliente, me voy a poner yo el gorro en la polla». Ez genuke egon nahi bere larruan. Berak ere ez, bere larruaren sakona zoko eta moko ezagutuko balu, baina batzuetan bigarren larru bat jartzea norbere buztanari on da bizirauteko, nola den on nork bere buruari ematea bigarren larru bat zoramenaren mende ez erortzeko.

Nork egon nahi luke norbere larruan norbere burua azken zirrikituraino ezagutuko balu?

Baina hori narratzaile orojakileak bakarrik daki eta lezake, eta nor dago askojakin horren larruan? Norberak badu aski daukanarekin. Ez da komeni dena jakitea ere.

Autoko, furgonetako, ibilgailuko atea ireki dute, manta marroia destolestu Vargasek eta Hernandezek, pentsatu ere egin gabe la piel de toro izan daitekeela destolestean duten mantatzar hori. Bueno, bonito, barato, paisa. Gutxi dira oraindik etorkinak Espainian, nahiago dute Frantzia magrebtar eta subsahararrek, etorkin gutxi horiek bataiatzeko «etorkin» hitza asmatu ere ez da egin izatez, erlojuak saltzen dituzte eta pitxiak, gutxiengoa direla uste dugu, exotikoak direla, hain xaloak gara, hain urrun dago Kamerun eta hain urrun bizitakoa denbora errealean kontatzeko antsia. Ibaiek gainezka egin dutelako erditze asko aurreratuko diren arren 83ko uholdeetan, oraindik etortzeko dago benetako oldea, olde afrikarra, patera hitza eta cayuco hitza ez ditu inork entzun. Etsaia etxean dago eta udan meloiak saltzen dituztenak ijitoak dira oraindik. Marokoarren auto zamatuena ilara itzelek zezen-larrua zeharkatzen dute udako oporretan, Hispania Una Grande Libren oin-puntetan txiza egitera bakarrik geratuz, autoko barraskilo-sabaian olana estuz trakets bildurik daramaten altzari pila erraldoiari eusten dioten Citroën, Peugeot eta Renault zaharren pneumatiko gastatuek asfaltoarekin duten kontaktua baino harreman handiagorik izan gabe Castillaren larru gogo-

rrarekin. Gaztela? Bai, hori aurrerago. Oraingoz Castilla Castilla da. «Zer ziren horiek, ama?». «Marrokiak». «Nora doaz, ama?». «Etxera». «Zer zeramaten mai-ruek auto gainean?». «Telebistak, alfonbrak, irratiak, altzariak, mantak».

- Ez, mantak ere desagertu behar du. Ez dugu arrastorik utzi behar. Arrasto txikienik ere ez dugu utzi behar.

Zure gorpua bota dutenean zulora, hezurrek kras-ka, hauts, hondar, lur hartu dute.

Orduan heldu da bigarren ibilgailua. Gidaria trake-tsagoa da, ez da sasiak inguratzeaz arduratu eta haien gainetik doa zuzen lehen ibilgailuaren argiek iluminatzen duten zuloraino. Piszina rustiko zaintsua, lur koloreko zulo ttipi bat bustitzen dute autoaren argiek. Piszina hutsa konikoki isuritako argi beilegiz blai. Hilo-bi bat, hagitz erregularra espero zitekeenerako, gauez zulatzea zailagoa dela kontuan hartuta. Ez da hain tra-ketsa trapezoidea. «Bikain, bikain. Lan ona egin duzue, mutilak».

- Bi kabitzeko moduan!

Baina, hemen dator lehen ezustekoa, film ameri-
karretako hamabigarren minutua baino lehen derrigor
agertu behar duen *femme fatale* hori bezala, gidoiak

edo gidoilariaren talentu faltak hala eskatutako ilehoria nola, halaxe.

Beste bat dakarte bigarren ibilgailuan. Haren larruan egongo bazina bezalakoa da. Hark ere ez du larurik. Hura ere zure laguna zen. Mina, mamia.

Belauniko dator, begiak trapuz itsututa. Lehen tiroa ez da nahikoa izan. Bigarrena azkar kontatuko dugu, mingarriegia da. Kontatutzat eman eta kito.

Batera lurperatuko zaituztete jada minik sentitzen ez duen mamirik gabe biok. Laster hezur zifratu izango dira zuen gorpuak. Zuen gorpu dezifraezinen mezurik ez da. Ezin duzue esan, demagun, «detaile bat izan da zuen aldetik hain sakon zulatzea, arazoaren sakontasunera heldu nahi izatea zeuenkoikeria hutsez izan arren, detaile bat izan da laguna nirekin batera lurperatzea, hezurra hezurri besarkatuta lagun minak beti, mila esker, zenbat zor dizuegu, ezingo dizuegu sekula zor hau ordaindu, kitatu, likidatu. Zuek guri egin diguzuena ere ezingo duzue ordaindu, kitatu, likidatu; demagun, igande arratsaldeko karrusel deportiboan irratiko oihuek beste oihu batzuk ekarriko dizkizuetelako gutxien esperotakoan burukominera eta buruko muinera. Gu bakean gaude. Sendiak -zue-nak eta gureak- borroka egin beharko du mamuekin».

Etorkizunak borroka egin beharko du mamuekin. Bar-
kuetan ekarriko dituzten dozenaka psikoanalista ar-
gentinarrek, cambalache, siglo veinte, vibrante, bár-
baro, borroka egin beharko dute mamuekin. Zuen
seme-alabek borroka egin beharko dute mamuekin.
Hor konpon etorkizuna eta etorkizunekoak, izorrai
denbora futuroa, ongi ibili eta hanka hautsi. *Break a
leg*, ikasiko dute polizia modernoek ingeles akademie-
tan, Home English. Mucha mierda, bai, hala diote ak-
toreek, mucha mierda. Kakatzarra. Hainbestetan be-
zala beste hizkuntza batean erosoago, beste hizkun-
tza batean a mí como si te meten un yunque por el
culo, etc., Mariluz. Zer uzten diguzue? «Zer uzten di-
zuegun? Gure mamuak uzten dizkizuegu herentzian.
Gutxi iruditzen, ala? Esker txarrekoak zuek». Ezikusia-
rena egin dezakezue, auzoz, bizilagunez, jagole eta ja-
saile sentimentalez, hiriz alda zaitezketek, baina gu-
txien espero duzuenean agertuko zaizkizue mamuak.

«Merezita heukan, herorri henbilkion patuari segi-
ka».

«Bizi hadi horrekin, izorrai».

«Bizi hadi horrekin hemen».

«Amen».

Baina lana ez dago amaituta. Kare biziaren ideia ez dakigu nork izan duen. Vargas, Hernandez, elkarri deituratik esaten diote, nahiz eta teniente koronelak espresuki debekatu dien. Arrastorik ez, garbia omen, dena erretzen du kareak. Zakurrek ere ezingo lituzkete topatu.

Gero hautsak eta urteek egin dezatela egin beharrekoa. Folio zuri bat.

«Oraindik ez al dakizu zer bilakatuko zaren, Soto? Esatea nahi? Ez dut uste entzutea gustatuko zaizunik. Hala ere? Benetan esatea nahi? Ongi da, Soto. Hara. Esango dizut. Bilakatuko zara martiri guztiak bezala hasieran herriaren adrenalina. Eta bilakatuko zara martiri guztiak bezala gero herriaren anestesia. Formula aipatzea krudelegia litzateke, eta bestalde, herria hitza bera jarriko dute urte gutxi barru formoletan. Zergatik esaten dudan hori? Zentzua galduko duelako herri hitzak, lagun maitea, cher ami, my friend. Tuberkulu itsusi baten pare erabiliko dute hitz hori, bai, ez harritu, ez begiratu niri horrela... Baina gauza berri gehiegi kolpe batean ezin azalduko dizkizut, ezta? Hobe isiltzea... Herria, hitz hori erabiliko dut oraingoz, apurka-apurka ohitzen joan zaitezten. Eta esan dut bilakatuko zarela martiri guztiak bezala hasieran herria-

ren adrenalina, eta bilakatuko zarela gero herria den tuberkulu zatar horren anestesia. Adrenalina lehenbizi, desarrazoiaren kontrako ikur, haserre askoren hodi-eroale zarelako. Ezteiek eztei berriak eta hiletak hileta berriak egiten dituztelako. Anestesia gero, beste gauza askoren arrazoia zure larruan bilatuko dutelako askok urte askoan. Adrenalina eta anestesia, akaso biak aldi berean. Jendeak indarra behar duenean zuen hilobi ezezagunean sartuko du burua, zuen urmaelean, zuen pizina horretan hartuko du gorroto eta kemen bustialdia, «a bai, gure mutilek egin duten hau ez dago ondo, baina hara zer egin zuten Sotorekin eta Zeberiorekin... Ahaztu duzu, ala? Ez dituzu Soto eta Zeberio maite, ala? Herriak ez du ahaztuko, herriak ez du barkatuko».

Dzart itxi da lehen atea, kopilotuarena gero. Dzart. Linternak itzali dituzte autoetan sartzera. Bigarren autoa eta bertan doazen esaneko gizonak, dela portieran dela mugimenduan, lehen autoaren itzal besterik ez dira. Egiten dugun guztia egina du beste norbaiten lehenago. Zu egongo zaren lekuan, egona da beste bat lehenago.

Isilik doaz ibilgailu barruetan esaneko gizonak. Leihoak itxita, kilkerak eta txitxarrak entzun gabe.

Norbait urduritu da, kontzientzian harramazka hasten den arratoia duzue isiltasuna.

- Jarri irratia norbaitek, demonio! Honek hileta bat ematen dik!

Edo: «Zigarro bat inork?». Auto barruan erretzeko enpatxurik ez garai hartan. Hogeigarren mendea, siglo veinte. Sagu-tranpa hori. Haietako bakarren batek ez du erretzen, baina are gutxiago du eskaintzen zaion zigarroari uko egiteko aldarterik, Vargas, Hernandez, beste hainbat, bi hilotz lurperatzetik datozen gizon esanekoak direla kontuan hartuta. Hiru ipurtargi eta kea, autoko leihatilak itxita. Nork bere burutazioak. Eskuak garbitzeko gogoak denek. Gai transzendentetatik egunerokotasunera jauzi egiten dute otupen freudiarrek: humanoak dira, jakina humanoak direla, humanoegiak, heriotza atzean utzi dute eta Anís del Mono kopa eta Lagarto xaboia eskatzen dizkio gogoak polizietako bati (lagarto, lagarto), larrua jo gabe daramatzen egunak («sin meterla en caliente») gogora ekartzen beste bati, haurraren sukarra eta emaztea esna egoteko aukera urriak hirugarrenari, haserretuko ote litzaiokeen esnarazi eta atzetik joko balio larrua berriz ere bere larruan sentitzeko, barruko arroparik kendu gabe larrua jo, kuleroa doi aparta-

tuz eta kotoiaren frikzioa buztanean sentituz. Komisarian ala nork bere etxean garbituko dituzte eskuak? Denek garbituko dituzte birritan? Txandaka? Hatzak eramango ote dituzte sudurrera eskuak txorrotaren pean busti aurretik? Ba ote dakite *Zorionak zuri* hiru aldiz abestu behar dela eskuak garbitu ahala bakteriaz guztiek alde egin dezaten?

«Una mano lava otra mano; dos manos lavan la cara».

«Los uniformes de diario no se llevan a casa, se lavan en el cuartel, ¿no conoce las reglas?».

Baina kale jantzian doaz. *De paisano*.

Lehen ibilgailua urrundu da. Bigarren ibilgailua urrundu da. Demagun hau: esaneko gizonetako bat hamabi urte geroago Nerjako karezko etxe batean oporretan. Eguzkiak karean sute egiten du eta blai itsutzen da esaneko gizona, berun urtua dirudien brandy trago luzearen bultzada pixgarri alkoholikoak esaten dion bitartean, ez nahi bezain kontsolagarri inoiz:

- Egin behar huena egin huen.

Kareztatutako horma zuriak esango dio:

- Egin behar huena egin huen.

Torturatzailleak bestelako kezka domestikoak izango ditu aurki: semea langabezian, andrearen diabetesa, tumore bat, heriotzari begiratzeko beste modu batzuk, beste prisma bat.

- ¡Decansen, armas!

- Obediencia debida, no es gente: es gentuza; diligencia, ejecución, un trabajo como cualquier otro, combatir limpiamente la escoria.

- Sí, mi comandante.

- ¡Firmes!

- Itxura penagarria dute, ezin ditugu horrela utzi: desager daitezela.

Hemen.

Eskerrak inork nahi ez duen altxor hau. Altxorra lurperatu zuenak nekez aurkituko luke orain. Hogeitaka urteko euriak eta hautsak aldatu egin dituzte lekuz sastrakak ere, *allez hop!* Lehoia uztaian zehar jauzi eginez otzan eta esaneko, berriro ere pauso batzuk haratago postura berbera hartzeko. Halaxe egiten du sastrakak ere jauzi aski denbora emanaz gero, basamortuko dunak gauez bezalaxe. Mihilua, txilarra, izpilikua eta erromeroa bai, hortxe daude. Txilarra eta pinuen enborretako lika. Landareak jakintsuak dira, gizakia baino jakintsuagoak, pazientzia gehiagokoak bai

behintzat. Ez da zaila hori, egia esan. Abar biluziren bat, trenbide anarkiko bateko trabesak irudikatuz estazio abandonatuan. Hori, ikusten duzun lehen gauza. Animaliaren baten burezurak begitantzen zaizkizun adar lehorrak harrespilaren gainean. Zure burezura. Begietatik hauts zurixka kendutakoan bereizi duzun lehen gauza karez estalitako izter-hezurak eta aldakak izan dira. Eginahalak eta bi egin behar izan dituzu txahal batenak ez direla sinesteko. Kosta egin zaizu zutik jartzea, zaila da orporik gabe eta oinik gabe: hezurak ez daude beren lekuan eta haizea dabilkizu hezur batetik besterako hutsuneetan txirulari. Zuri honek ez dirudienez hezurren zuritasun berezkoa, oinez abiatu baino lehen erabaki duzu lehenbizi hezur horiek lurrean lerratu eta banan-banan putz eginda garbitzea, kareari putz egitea, besoetan kilimak eragiten dizkizuten inurriei putz. Femurra ezagutu duzu, baina ez zara oso ona anatomian, eta tibia pareakokatu arren, saihetsen bat falta ote zaizun irudipena... Nerjan ume batek ote darabil falta zaizun saihetsezurra jostailuzko danborra tarrapatatan jotzeko? Saihetsezur bat gutxiago, zer egingo zaio. Ez da traba handia: bestaldean soberan duzunetarik bat kenduta orekatu da hain garrantzitsua ere ez den simetria. Zakur

bat inguratu zaizu. Begira duzu, baba dariola. Hari bota diozu soberako saihetsezurra: gustura hartu du eta badoa hari gordeleku sekretuan lur ematera. Irri-barrea atera zaizu, estreinakoz.

Eman da zabal zazu munduan hezurra.

Gabeziak gabezia, birikek bular-kaxaren barruan lurrera amildu gabe eutsiko diotela iruditzen zaizu. Hatzak hozkia emateko eran kraskarazi –«ongi hasi gaituk: nagiak kentzea besterik ez diat egin eta bete diat esnatu orduko lehen gutizia!»–, eta denak bere lekuan paratu dituzu. Bazoaz, zerorren eskultore, tirri-ki-tarraka, zeure buruari garai bateko eitea ematen.

Eskuetako hezurtxoak beren horretan zeuden, ez duzu puzzlea osatu beharrik izan, eta eskerrak. Burezurra hartu duzu eskuetan. Ez du hainbeste ere pisatzen. «Burezur begibakoa, ene antzik ba al duzu? Zerbaiti ustel usaina dario: egon lasai, zeruak konponduko du». Urrun daude Danimarkako mamuak, Danimarkako gazta zulodunak urrun; a, ez, suitzarrak ziren horiek. Gazta neutroak beren zulo neutroekin. Bala zeru urdina.

Hor zaude?

Lekutan zaude?

Hezurretan zaude?

Ez da gauza bera hezurretan egotea edo *norbere* hezurretan egotea.

Zu, zeure hezurretan zaude berriro. Zeure larruan zaude berriro. «Orrazi bat izango banu eskura», ezin izan duzu pentsamendu burugabea, friboloa, saihestu.

Agian orrazi horrexen bila zabiltzalako, inkontzienteki zulora begiratu duzu eta ikusi: ez orrazirik batere baizik eta ispilu hautsi bat, zurea ez den burezur bat kare zuriak errea, bere kaxatik irtena dirudien barailezur bat, hezur pila bat lekuz kanpo, zu ez bezala lo eta bizitzarik gabe. Ukitzen duzu mezu baten bila, laztantzen diozu barailezurra mezu baten bila: braillezurra.

- Ez al hator nirekin, Zeberio? Etorri, gizona! Esnatu eta altxa!

Sorbaldetatik heldu diozu, hura bere loaldi luzetik iratzarri nahian, baina bitan apurtu zaizu haren klabikula, birigarro baten hezurdura hauskorra bailitzan. Haren artikulazioak lotzen saiatu zarenean igeltsuzko sagar bana desegin zaizu ezker-eskuin eskuetan. Putz egin diozu hautsari. Konprenitu duzu. Bera ez dator. Etsi du. Ez du bizitzeko gogorik, mendekatzekorik, barre egitekorik. Ez zara saiatu ere egin lagunaren iritzia mudarazten. Errespetua zor zaie hilik jarraitu nahi duten hildakoei ere. Hilik eta lo.

Hasperen egin duzu. Bakarkako lana da bizitza. Heriotza ere bai, nonbait.

Laguna atzean utzita oinez abiatu zara honenbestez, saihets-errepiderantz, saihetsa baino zerbait gehiagoren falta sumatuz. Atzera begiratzen duzu tarteka. Laguna zurekin etortzea desio zenuke, baina ez datorkizu atzetik.

Zuloan geratu da betirako Zeberio isila, Zeberio diskretua, Zeberio zoroa, Zeberio anaia.

Gaua da. Gaua izatea merezi du. *Valle de la Escombrera 10 Km* dioen bide-seinaleari muzin egin eta *La Aparecida 4 Km* dioenaren ondoan jarri zara, jarri baino areago ezarri, autostopistei beldurrik ez dienen bat geratuko ote zaizun esperantza gutxirekin. Nork daki, germaniar familiaren bat akaso, Amsterdamgo hippy gazte saldoa Volkswagen furgoitxo bat mukuru beteta, mototsa luzeko emakume haxix-zale bular txiki eta politekoa gidari. «Eskatzea libre ez al da? Geratzen ote da hippyrik batere hainbeste urteren buruan? Europan egongo gara bada, honezkero, eskubide eta betebeharrak guztiekin, ala?». Hozkirriak zeharkatu dizu bizkarrezurra: eta esaneko jendea topatuko bazenu berriz, beste garai bateko jende hura, Hernandez, Vargas, lorazain bokaziorik gabeko Adam arma-

tuak? Ez, gauza batzuk bizitzan behin bakarrik gerta daitezke, heriotzan behin bakarrik. Deabruaren narrazio lerroak ere ez dira hain makurrak. Zorte txarra litzateke hogeitaka urteren buruan berriz ere esaneko jendearekin tupust egitea... Ez, ez duzu uste haiek itzuliko zirenik hona. Hiltzailea ez da kemenaren lekura itzultzen. Kemen hori galdu egin zuelako aspaldi. Harritu egiten delako, beharbada, behiala kemen hura izate hutsaz.

Ez al da ederra bizirik egotea?

Baina zu ez zaude bizirik: hilik zaude eta esna. Ez da gauza bera. Aldatu diren gauzen gose zara, mundua ikusi nahi duzu, diferente. Lagunak ikusi nahi dituzu, zahartuta. Barre egin haien kontraesanen lepotik. Ederra da bizirik egotea, baiki, dena aldatu eta pikutara nola joan den ikusteko besterik ez bada ere, ederra da bizitzara itzultzea. Zergatik ez ote dute hildakoek pribilegio hori? Ez da bidezkoa. Alta, honek ez dauka zerikusirik merezi duzunarekin... Xaloa zara bestaldetik datorren mamua izateko. Xalotasun pixka bat ez da txarra mamuen kasuan ere, denborarekin sendatzen da.

Kendu duzu azken zinta isolatzaile puska ahotik. Egarki zara. Edozer gauza musukatuko zenuke, zilarra

ez izan arren, metal hotzen bat, oihalen bat, ezpainek bere lekuan jarraitzen dutela ziurtatzeko.

Hezetasuna hortzetan. «Ongi. Ni nauk, hauek dituk nire letagin okerrak».

Urrunean gasolindegi bateko argiak, Shell konpainiakoak. Ondoan hostal bat: *Hostal Europa*. «Malo», pentsatu duzu, «negozioek falta duten horrexen izena izaten dute beti; *Pensión Edén, Ultramarinos Paraíso... Hostal Europa? Excusatio non petita...* Ez gaude Europan orduan, kontu nominal hutsa da. Agian Europa ezabatu egin dute feriante ahotseko bikoizleek». Dezepzionagarria, bereziki, europar humanistentzat, denak hilik ez baleude. Aukeran, hostala baino, nahia-go gasolindegia: *Shell*. Muskuilu batetik irten eta beste muskuilu baterantz zuzendu. Zerraldoz zerraldo. Klarionarena dirudien, baina benetan kare biziarena den arrasto bat utziz bidean. Otsoek gernuarekin bezala karearekin eremua markatuz. Joko-zelaiko marrak eta mugak. Futbol-zelai inprobisatu bat hondartzan. Kare biziz. Lehen karea bakarrik zen bizia. Orain zeu ere bai. Berriro bizirik. Edo ia-ia. Hilik eta esna.

Zauri bat duzu gorri bekainean. Odol tanta bat eraman duzu ezpainera. Irribarre egin duzu. Mirakulua obratu da: San Jenaro napolitarra negarrez hasi

da. Erromeroaren lurrinak kiribil epelak egiten dizkizu sudur-zuloetan. Zeure baitan zaude berriz, nahiz eta taupadarik baduzunetz ziurtatzen ez zaren ausartzen, eta nahiago duzun zeure baitara bildu baino, entzumenen kanporantz zorroztu eta olaturik batere entzuten ote den bereizten saiatu.

Ez da bereizten.

Agian kilometro bat edo bi aurrerago, batek daki. *Valle de la Escombrera. La Aparecida.* Olatuak. Uhinak. Uhin espansiboak. Goizegi da etsitzeko, hasi besterik ez zara egin.

Orrazirik ez azkenean, beraz. Zure betaurreko lodien arrastorik ere ez. Eta ondo ikusten duzu, hala ere. Inoiz baino hobeto. Harritzeaz batera kemena eman dizun koketeria keinu batez ilea eskuarekin lizatzea erabaki duzu, kortesia eta koketeria bizidunen ezaugarri ezdeusenak ere ez direla pentsatuz, baina zure gorputzaren presentzia ausentzia intermitente batek lausotzen duela, ez dakizu ziur garai bateko ile-xerloak diren, edo Cartagena aldeko haizearen epela ote den zure hatzek laztandu dutena.

Honetaz ez dago zalantzarik: zeure larruan zaude berriz. Eta gauak gau izatea merezi duen bezala, inork

ez dizu hori ukatuko, itsasoak bere azula adina mere-
zi duzu zuk zeure larrua.

Lehen difuminazioak

Txantxa asko egiten dizkiote Idoia Errori bere Mini berdearen kontura, erreflexuak zorrozteko lagungarri suertatzen zaizkionak beti: «Guardiazibil kolorekoa daukan autoa», «Egin barre, baina ni ez naitek kontroletan geratzen»; «After Eight kaxa bat bezalakoa duna», «Ez zaizkidak gizon mentolatuak gustatzen». Ahozko ping-pongean ona da, ez zen bestela hain azkar iritsiko kultur arloko buru izatera *Eginen*. Egunkari horixe darama tolestuta magalean Diego Lazkanok. *Reagan relanza la ofensiva propagandística contra la URSS*, irakur liteke, bailarako industriaren desegitearen kontra Oretako elizaren parean egindako asanblada jendetsuarentzat den arren azaleko argazkia.

- Urduri?
- Apur bat.

Hiru hilabete dira elkarrekin ibiltzeari utzi diotela, eta galdutako ohekideek izan ohi duten erakarmen deiagatik agian, inoiz baino ederrago begitantzen zaio Diegori Idoia. Ilea *garçon* erara moztuta darama; ez, ordea, txima luzea gobernatu beharraren murrontzaz

askatu nahi duten emakumeek egin ohi duten pragmatismo askatzailearen aldarrikapen hutsagatik, modu sofistikatuagoan baizik: ile xerlo bat gorantz kiribilduta, motx moztuta baina estilo handiz, guraizeekin kimatze lan selektiboa eginda. Idoia bere magalean esertzen zenean hari kalparretik heldu eta neskarri lepoan musu emateko burua apur bat nola atzeratzen zion oroitu du Diegok. Motxa izanagatik, orain ere badu nahikoa ile modu hartara heltzeko. Bikote ohiekiko fantasia iragankorra sentitzen ari da, baiki: nola menderatu arrazoiak finkatutako iragana pitzatzen saiatzen den unean uneko pasioa? «Aldendu bide horietatik, Diego», esaten dio bere buruari. Baina ezin. Eta Diegok Idoiari iletik heltzen bazion lepoan musu emateko, lehenago Idoiak gauza bera egin zuelako izan zen, aitortu beharra dauka. Idoiak erakutsi dio emakumezkoei buruz dakien guztia, eta behin lezioa amaitu delarik, bakarrik utzi du beste emakumezkoekin frogan jar dezan bere jakinduria; «ale, txikito, nahikoa». Idoiak harreman finkorik nahi ez zuela-eta, ohetik baino, kareletik bota ote zuen sentipen mingarria zeukan Diegok. Bera baino bi urte zaharragoa da Idoia, gainera, eta hemeretzi bete berriak dituzunean, mundu bat iruditzen zaizu hori. Ez beti baina, harekin

egoten denean berritu egiten zaio sarritan hausturaren mina. Maiteminduarena baino areago bildumatzaillearena den goibeltasuna eragin dio ilea *garçon* erara moztuta dakarren Idoia horrekin oheratzerik izango ez duela pentsatzeak.

- Ze ordutan da emanaldia?

- Zortzietan euskarazkoa eta hamarretan gaztele-razkoa.

- *Baizea*, bi emanaldi egun bakarrean? Zoratuta zaudete, Diego.

Baizea, nola maite zuen bere hitz egiteko postura. Larruaren bortxa neurtua egin zitzaion deigarri Idoiarekin oheratzen hasi zen garaian: nola eszitazioari amore eman, erabat entregatu *-nori* entregatu, baina? - eta bere buruari joaten uzten zion neska hark ilajetik zaldikiro heltzen zionean, eta nola Diego ere ausartu zen Idoiari lepoan kosk egiteko apur bat irmoki iletik tiratzen, esanak esan, dena ez zelako laztan eta goxotasun ohean, ez zuelako denak zertan samurizan, nahiz eta tentuz zaindu behar zen beti samurtasunetik urrundu ahala ematen zen pauso bortitz bakoitza. Aurrez inoiz soinean ikusi ez dizkion belarritakoak daramatza kosk egiteko gogoa pizten duten gingil ttipietan. Eta belarritako haien orratzaren begita-

zioak ziztaturik, jelsia puntada nozitu du Diegok biriken eta urdailaren arteko puntu zehaztugabeen. «Ez ote du nik oparitutakorik jada janzen?».

Diego izan da bere burua Idoia eta bien arteko tratu gorrotagarria bergogoratzera derrigortu –«lagunak izan gaitzke, ez?»– eta bere garunaren autotrazio hura baztertzekeo irrati-kaseteko zintari sakatua diona. Auto barruko isiltasunak errurik balu bezala. Zintaren alderdi grabatu gabeko txinparta zikinen gainean garbitu du Idoiak eztarria.

- Dario Fori buruzko hire erreportajea...

- Bai?

- Ez diagu hurrengo astean aterako, ez zaukaagu lekurik eta asko moztu beharko genikek. Ondo iruditzen zaik?

- Ez dinat presarik batere.

Presarik ez, batere. Nekez halakorik. Harreman hartan «Zezen Eseria» barik, «Itxaroten Zuena» izan zen beti Diego Lazkano: bilerak luzatzen ziren, azken orduko aldaketak sortzen, ezustekoak errotatiban. Horrelakoxe zeregina zen kultur arloko buruarena. Erantzukizun handiagooa, lan ordu gehiagoo eta soldata igooera minimoa. Edonola ere, maite duzun norbaiti itxarrotea harremanaren parte dela onartzen zuen Lazka-

nok, ia-ia alegantziaz, presentzia segurtatzen duen aurreausentzia hura elkarrekin egotekoak ziren uneak azpimarratu, une haiei distira eman eta biziago bihurtzeko modua zelakoan. Maitasunean, eta ez maitasunean soilik, atarikoan aurreko atariaz ere gozatzen ikasi behar zen. Agian ez zen izatez besterik: inora ematen ez zuten atari pilaketa bat baino ez zen bizi-tza. Hori ere ez: atarien atarien pilaketa. Arkitektura traketseko eraikin xelebrea. Pena den arren, ez dugu harramazka eginda sakoneran gehiegi urratzerik erdiesten sekula.

Aurki ezagutu du Lazkanok Silvio Rodriguezen ahotsa, kantua ezezaguna zaion arren.

- Silvio?

Baiezkoa egin du buruaz Idoiak, eta gero, martxa aldatu eta isilik geratu da, leihotik kanpora so, ez deseroso, baina bai etortzear egon daitekeen deserosotasun unearen jakitun. Zein izen eman deseroso sentitu gabe deserosotasuna aurreikusten duzun uneari? Atarien ataria, berriz. Hitz asko geratzen dira oraindik asmatzeke.

¿Te molesta mi amor?, galdetzen zuen Silviok. Zinta hura ez zen, ordea, Silvio Rodriguezena, norbait

tek espresuki egindako maitasun kantuen bilduma baizik: *Scorpionsen No One Like You* etorri da hurrena.

- Kantu hautatuak dira -aurreratu da Idoia.

«Kantu hautatuak». Jakina. Nork hautatuak ote ziren, hori hobe ez galdetzea. Belarritakoak oparitu dizkion gizonak grabatua da hura, zalantzarik gabe. Arte plastikoen zalea da Idoia, baina musikaz ez da inoiz gehiegi arduratu izan. Urdailaren eta biriken arteko gune zehaztugabeen dardo tiratzen dabilkio gizon ezezagun hura; Lazkanok ezin izan du eskularrukaxara begiratzea saihestu. Agfa markako zinta laranja-kutxan -errepide mapen artean dagoen bakarra- ezezaguna zaion kaligrafia traketsa atzeman du, gizonezko batena, duda gutxi. Desanparaturik sentitu da Lazkano: «Garai batean ni nintzen zintak grabatzen zizkiona». Izatez, *Scorpionsen Blackout* lp-a erosi berri du berak ere, eta entzun duen azken aldian burutik pasatu zaio *No One Like You* kantua gustuko izango lukeela Idoiak bere Minian entzuteko. Orain beranduegi da, ordea: ordezkatua izan da. Aurrea hartu diote, ez maitale bezala bakarrik, baita musika-hornitzaile bezala ere. Bigarrenak lehenak adina edo gehiago mintzen duela iruditu zaio Diego Lazkanori, zer diren burubideak.

- Zorte on...

«Zorte on» esan dio, eta beste esaldi hura entzundu Lazkanok, haren ordeztu: «Lagunak izan gaitezke, ez?».

- Ez haiz emanaldira etorriko?

- Lanera itzuli behar diat, asteburuan beharbada...

- Deitu eta sarrerak utziko ditinat hire izenean.

Umiliatu egin da hori esan ondoren Diego, «bi sarrera» eransteko.

Idoiak kokotsaz baietz egin eta Miniaren atea itxidu Diegok Bulebarrean, Barandiaraneko semaforo parean. Indar guztia zurrupatu baliote bezala sentitu da. Barandiaranen pizgarriren bat eskatzeko ere kemenik gabe, Pequeño Casino igaro eta Antzoki Zaharrerantz zuzendu ditu pausoak. Errieta egin dio Gloriak.

- Non sartu haiz, ume? Ez, ez esan: nahiago diat ez jakin... Espetxean bukatuko duzue zuek... Hi bakarririk falta haiz janzteko...

Ana Etxarri protagonistak, eztarri ariketetan murgil, ahatearena egin dio Lazkanori, hatzak ahoan jarrita mar-mar, Gloria ahohandiaren purrustada aintzakoztat har ez dezan. Kepa Zeberio egingo du gau hartako argiztapena.

Xabi Soto ere bertan dago, kitzikatuta erabat. Lehen aldia da bere libreto bat antzeztera doazena.

- Pentsatzen hasita nengoan ordezkoiari deitu beharko ote genion, primo...

«Ez: *ordezko* gehiago ez, arren. Paper txiki bat daukat antzezlan honetan, baina nik bakarrik bete dezaket».

Ez daukate ordezkorik, jakina. Aktoreetako bat gaixotzen denean taldeko beste batek hartzen du falta denaren tokia. Diego Lazkanorena, hain xuxen, ia edonork hartzeko modukoa da, hiruzpalau esaldi baino ez dauzka-eta.

Postetxera haren bila joan behar izan zuen hartan konturatu zen aitarena serioa zela. Negarrez deitu zion, «okerreko lekura etorri nauk, Diego», eta Diegori kosta egin zitzaion aitaren hitzak ulertzea, zergatik ezin ote zuen okerreko lekura joan ondoren bere kabuz ibilbidea aldatu eta etxera itzuli; iluna iruditu zitzaion deiaren zergatia bera -aitak ez zion sekula deitzen-, «okerreko lekura etorri nauk» esanez, «hator nire bila, postetxean nagok», eta telefonoz aitortzeak

apuroa ematen duen istripuren bat nozitu ote zuen pasatu zitzaion burutik.

Euria ari zuen gogotik eta, kalera ezin, zinpeko guardaren ondoan topatu zuen zaharra. Urrunetik patetiko eta abaildua begitandu zitzaion aitaren soslaia; maskal, erori.

Zinpeko guardak atxilo hartua balu bezala *itzuli* zion aita Diegori.

- Zure aita da? Desorientatu egin dela uste dut.

Baiezkoa egin zion Lazkanok buruaz eta ukondoan uztaiak kateatuta abiatu ziren aita- semeak euripean, «desorientatu, zer jakingo duk hik horretaz, zinpeko guarda bat balitz bezala munduko pertsonarik *orientatuena*», otu zitzaion Diegori.

- Zer gertatu da, aita?

Aitak eskuetan zekartzan liburuak erakutsi zizkion, bibliotekako pegatina zeukatenak, esku askotatik igarotakoak. Denbora-pasako best-sellerrak ziren, ez zuen Lazkanok liburuen izenbururik gogoan hartzeko kemenik, urteak ziren-eta irakurleen apetei arretarik jartzen ez ziela, deprimitu egiten zen jendeak bihotz-begietan zer zabor sartzen zuen ikusita.

- Itzuli egin nahi nitian liburutegian. Gaur zuan azken eguna, ulertzen? Ez zagok liburu hauen mailegua gehiago luzatzerik.

Hil edo biziko zerbait bailitzan mintzatzen zen, proportziorik gabe, ezta *azken egun* hura judizioko azken eguna balitz ere. Eta gainera, liburutegira joateko ohitura hori..., diru arazoak zituelako behintzat ez zen izango, alajaina. Bere aitaren baitan gauza gehiegi zeuden oraindik ulertzen ez zituenak, eta ulertzeko itxaropena ere aspaldi zuen galdua.

- Eta zergatik ez dituzu itzuli? Nahi duzu biok joatea orain?

Zaharraren itxura areago abailtzea ezinezkoa zela uste bazuen, oker zegoen Diego. Zakur egurtuaren begijeak hiru hazbete txikiagotu zuen. Zer edo nor, baina norbait bai, bere aita jibarizatzen ari zen. Begiak beteta, lotsatzeko ere indarrrik gabe bota zion:

- Okerreko lekura etorri nauk, Diego. Correoseko ilaran jarri nauk zain, mostradoreraino heldu nauk, liburuok postaz bidali behar nituela sartu zaidak kaskezurrean.

Postetxetik hogeitau urrundua ziren ordurako, aterki bakarraren pean ezin kabiturik beso bana emanez zarra-zarra zetorren ur turrustari, posta eraikine-

tik baino Artzain Onaren katedralaren atzealdeko burdina-hesitik gertuago. Donostiako postetxearen eraikin nagusia eta Koldo Mitxelena liburutegia hartzen zuen eraikina, izatez, biak ala biak ziren kanpotik eite berekoak. Simetriaren ispilukeria. Edozein nahas zitezkeen.

- Despistatu egin zara, hori da dena. Liburuak utzi eta bakea.

- Ez duk ulertzen, Diego: *sinetsita* nengoan liburuak posta paketeak zirela. Ordu erdiz egon nauk txanda noiz ailegatuko... Postetxeko langileak durduzatuta begiratu zidak. Konturatzen al haiz zer esan nahi duen horrek?

Buruko gaitzetan, eta horrek errudun sentiarazten zuen Lazkano, familiakoak gaixoa bera baino lehena-go jabetu ohi zirela entzun izan zuen beti, eta areago, gaixoak zerbaitez jabetzen zirenean ere, gaitzaren lehen zantzuak gutxietsi eta haiei garrantzia kentzeko joera izaten zutela eskuarki, ingurukoak izaten zirela arduratu eta gaixoak medikutara premiatzen zituztenak. Arraroa zen norbere buru-gaixotasuna norberak atzematea, dementziak ia beti baitzekarren berekin autoengainua. Ez zen hura izan Gabriel Lazkanoren kasua, eta aspaldian etxekeok zein arreta gutxi jar-

tzen zioten agerian utzi zion horrek Diegori, aitari modu kontzientean gaixotasun hura bizitzeak zenbat eta nola eragingo ote zion neurtzen saiatzen zen bitartean, nahiko izututa. Zenbat denbora igaro ote zen garunak urtzen hasi eta korapilo neuronalak eskutik askatzen hasi zitzaizkiola? Lehenago atzeman izan balute gaixotasuna, aukera gehiago izango ote zituzkeen medikazioen bidez bere endekapena atzeratzeko? Horixe ez zegoen jakiterik. Hiruzpalau astez, Lazkanok bere konpromiso guztiak bertan behera utzi zituen -liburu berria aurkezten ari zen orduantxe, aurrekoen arrakasta maila erdiesteko itxura guztia zuena- eta amarekin eta arrebarekin batera ibili zuten aita frogarik frogara eta ospitalerik ospitale.

Lehen iritziak bat zetozen azterketek normaltasunetik desbideratzen zen deus salatzen ez zutela esateko orduan. Kautela handiz, hori bai, «garuna ezezagun handia da oraindik guretzat». Hastapenetako mezu baikorren ondoren etorri zen amaren deia.

Hark ez zion negarrez deitu, negar egin ondoren baizik. Alferrik ezkutatu zion. Lazkanoren lana giza kondizioa, gizakiaren senak, grinak eta bulkadak behatu eta haien lepotik fikzioa eraikitzean zetzan, xehetasunak ziren bere bizitza, horixe zuen harrotzeko

moduko gaitasun bakarra. Horregatik jabetu zen berehala amaren destenoreaz.

- Zure aita gauza arraroak esaten hasi da.

Espero baino lehenago, eta eskaner zein erresonantzia guztiek oraindik deus erabakigarririk erakusten ez zutelarik, desinhibizioaren fasean sartu ziren, aurreabisurik gabe. Tarteka ongi egoten zen, eta tarteka burutik pasatzen zitzaion lehen gauza esaten zuen. Edo ez zen zehazki horrela, pentsatzen zuen Lazkanok, burutik pasatzen zitzaion lehen gauza esan baino, aspaldi eztarri zuloan esan gabe zeuzkan haiehek esaten zituelako hain justu, ongiegi aukeratuak ziruditen juzku, erreprotxe eta konfesio bitxiak, behiala gertatu eta bere familiari ezkutatu zizkion gauzak, benetan gertatuak edo asmatuak ote ziren beti argi ez zegoenak.

- Noiz etorriko da Angeles?

- Angeles?

- Agian ez nizun esango... Gogoratzen Amsterdamera joan nintzen hartaz? Bertan ezagutu nuen nire bizitzako maitasuna: Eivissan bizi da, joan behar nuke bisitan aspaldiko partez. Eivissan kategoriako eguraldia egingo du sasoi honetan, ez hemengo euri zirina.

Josunek, Diegoren arrebak, txorakeria gehiago ez esateko eskatu zionean, emakumezko gazte baten argazkia atera zuen Gabriel Lazkanok karteratik. Mus-desafioan ari denak bezala erretratua mahai gainera bota orduko hasi ziren amaren lantuak eta intziriak.

Aita Amsterdamera lan bidaian noiz joan zen gogoratzen saiatu zen Diego. Baziren gutxienez hama-bost urte: ikastaro bat egin zuen Holandan plagen kontrol naturalari eta zomorro izurriteak akabatzeko modu «jasangarri» buruz. Etxean bolo-bolo erabili zuen hitz jostaria izan zen garai hartan «ekopozioa».

- Zu ez zaude gaixo... zu zoratzen ari zara.

Soto haserre dago Gloriarekin. Epela iruditzen zaio zuzendaria. Ez nahikoa konprometitua. «Hainbeste arte eta hainbeste otxokuarto, baina gauza larriak ari dituk gertatzen, primo, eta Gloriak bizkarra ematen ziek». Oso bakanetan joaten da haiekin manifestaldietara. Eta herri honetan zerbait badago sasoi honetan, hori manifestaldiak dira: ez zitzaien Lemoizen kontrako martxara batu, ezta Bilbon abortuagatik sei urteko kartzelaldira zigortutako medikuen aldeko elkarretaratzera ere. «Babelgo bere dorre putan bizi duk, bur-

gesen alaba burgesa», esan dio Lazkanori. «Edo are okerrago: aristokrata hutsa, burgesak gaizki bada ere, egin egiten dik zerbait». Gaur ere kargu hartu die zuzendariak, «bilera horietara» joaten direlako. «Zuek ikusiko duzue bilera horietara joan edo ez, baina proba-saioretara garaiz etorri, entzun?». «Nor uste dik dela, primo? Gure ama? Andereño Maria Pilar?».

«Zuek gaizki bukatuko duzue».

«Ez espero kartzelara joatea zuek ateratzera».

«Abokaturia ordaintzeko gaudek ba».

Horiek denak bota dizkie, eta Soto erretxinduta dago. Libretoa hartu eta muturrera bota dio Gloriari, ez kontatzeko berarekin errespetatzen ez badu.

- Nirekin hator, primo?

Baina Lazkanok badaki momentuko beroaldia baino ez dela. Zeberioak jaso du lurretik libreto barreiatua. Lazkanok ipini ditu berriro ere dagokien hurrenkeran eszenak eta orrialdeak, banan-banan, Sotok zenbakitu gabe zeuzkan arren.

Berak antzezlanean esaldi gutxi batzuk baino ez izanagatik, ia obra osoa dakielako buruz Diego Lazkanok.

Gabriel Lazkanok mihia askatu eta andreak eta berak ohe banatan lo egitera ez zen denbora asko pasatu. Eta heldu zen, azkenean, diagnosis. Santiago Cervera, familiaren aspaldiko lagun baten eskutik etorri zen susmoen baieztapena. Dallasko ospitale bateko memoria unitatearen buru zen Cervera aspaldian, eta Donostian pasatzen zuen udaldia baliatu zuten beste egoera batean haien lehen kontsulta izango zeneraren iritzia biltzeko.

Etiketa jartzea zen gutxienekoa. Dementzia modu bat, ez Alzheimerra zehazki. Bere garunaren diagrama koloretsuak erakutsi zizkien, batere ulertu ez zituzten test sofistikuak.

- Ez dizuete orain arte deus esan? Zur eta lur uzten nauzue.

XXI. mendean sartuta jada, mediku *amerikarrak* etorri behar gauzak garbi uztera, marka zen gero. Galerari eusteko ez zegoen mirakulurik: ariketa fisikoa eta buru-ariketa, kontrol zorrotzak, kolore guztietako pastillak; denak har zitzan oso gainean egon beharko zuten familiak.

- Aita zaindu, baina tarteka aita zaintzetik atseden hartu zeuon buruak zaintzeko.

Ez zion horregatik Lazkano zaharrak Eivissa aipatzeari utzi, ezta lantzean behin Angeles balizkoaren izenarekin amari deitzeari ere. Hori, Diegori bere aitaren ahotan entzutea hain desatsegin suertatzen zitzaion fantasia sexualen eskaerekin tartekatuta beti, «noiz utziko didazu berriz zure errapeetan korritzen, Angelines?», hasierako eskandaluaren ondoren etxe-koak ia normaltasunez entzun eta prozesatzera igaro ziren esaldiak, aitaren grinak zeintzuk ziren sakon ezagutzera eraman zutenak Diego, idazle batek egoerarik makurrenetik ere irakaspenerak ateratzen ikasi behar baitzuen, benetako idazlea bazen. Eta Diego ziur zegoen bere bokazioaz, nahiz eta ez zen beti horrela izan, nahiz eta buruko hainbat gela giltzaz klisklas itxi behar izan zituen bere bokazioa zurkaiztu eta aurrera egiteko.

Ez: bere bizitza ere ez zen erraza izan.

Diegoren aitak pasioz besarkatzen zuen emaztea batzuetan, baina ez zen ama besarkatu nahi zuena, Angeles izeneko haren gomuta baizik. Ez zuen ulertzen zergatik egiten zion muzin andreak bere musuari. Lokartzen zenean soilik, orduan ematen zion emazteak betazaletan tximeleta-musua. Lotan zegoenean

bakarrik iruditzen zitzaiolako bere lehengo senarra, bere Gabriel.

Diego eta bere arreba saiatu ziren Angelesen arrastoren bat bilatzen. Telefono zenbakiren bat, haren izen-deitura osoak. Lagun eta lankiderik mine-nei erakutsi zieten argazkia, diskrezioa eskatuz. Baina inork ez zuen haren berri. Sekretua oso ondo gorde zuen, nonbait.

Gorabehera askoren ondoren, sei hilabeteren buruan umorea aldatu zitzaion. «Gaixorik nago, ezta?», galdetzen zuen tupustean, eta gero orduak ematen zituen isilik, begirada galduta.

Jateari uko egin eta komunera joateari utzi zionean ingresatu zuten. Handik hilabete eskasera, ospitaleko diziplina zorrotzak ezarritako azturek bere egoera apur bat orekatu zutela zirudienean, desagertu egin zen Gabriel Lazkano.

Ohar bat utzi zuen, txundigarria bere egoeran zegoen gaixo batek idatzia izateko: «Begoña, Josune, Diego, maite zaituztet, baina orain nire bizitza egin behar dut». Emaztearen eta seme-alaben izenak, Angelesen mamuaren itzalik inondik inora ez zutenak, letra larriz eta tronpatu gabe idatzi zituen. Neurologo eta psikiaterek ez zuten ondorio garbirik atera. «Arra-

roa da», esan zuten, eta Lazkano gogaitzen hasi zen haien hizkuntza erregistro murriztarekin, «arraroa», ez zen hura batere hitz zientifikoa.

Ez familiak ez Poliziak izan zuten gehiago Gabriel Lazkanoren berririk.

Halakorik esatea krudela liteke, pentsatzea humanoa, ordea: Diego Lazkano eta bere familia, arnasarik gabeko hasperenetan eta lorik gabeko gauetan iristen ez zen telefono dei baten aiduru luzatu ziren arren hainbat astez, lasaitasunaren ifrentzu aitorezina ere izan zen aitaren desagertzea.

Urte asko igaro ziren Soto eta Zeberioaren geroztik, eta bitxia zen, hasiera batean Lazkanok ez zuen aitaren desagertzea bere garai bateko bi adiskide haienarekin lotu. Ez zitzaion burutik pasatu, molde eta era oso ezberdinean izanagatik, Soto eta Zeberio desagertu ziren bezala, bere aita ere «desagertu» egin zela. Desagertua, desagertua, desagertua... desagertzea bere bizitzari auskalo norantz tira egiten zion zurrumbiloaren hegia.

Lehen bi urteetan, hiruzpalau aldiz bisitatu zuten morgea Diegok eta Josunek, txandaka. Zortzi urte geroago, heriotza deklarazio legala etorri zen, eta atsedeen sostenitua, petxu barruan dardara egiten zuen

atseden mota bat, izenik gabekoa, matizatur, baina atsedena, finean.

Lazkanok idazten jarraitu zuen, Josunek dantza eskolak ematen. Haien amak puskak batu eta bere buaren puzzlea berreraiki zuen, piezak falta ziren lekuan irudimena eta ahaztura ipintzen saiatuz.

- **Baina** hik uste dun hau egiten dutela munduko beste teatroetan, Gloria? Hau hemen bakarrik gertatzen dun, gure herria herri anormala delako! Zortzietan euskaraz emanaldia egin eta hamarretan emanaldi bera aktore berberak gaztelaniaz? Eskizofrenia hutsa dun... Gure talentua alferrik galtzen ari gaitun, horrela ezin ditinagu gauzak ondo egin... Ezinezkoa!

Aztoratuta dago Soto. Hizkuntza bitan lan bera egin beharri leporatzen dio jendea hotzepel utzi duen obraren harrera eskasa.

- Edo horrela egiten diagu edo ez duk errentagarria.

- Bai zera, Gloria...

- Konpainia ixtea nahi duk? Amateur gisara funtzionatzea? Frontoietan eta ikastetxeetan bakarrik?

- Frontoietan eta ikastetxeetan emanaldirik egingo ez bagenu bezala...

- Hik hainbeste famatzen dituan Vulpes horiek... ez al ditek leku okerragoetan jotzen?

- Punkiak ditun ordea!

- Gu ere bai, orduan.

- Hi? Hi aristokrata hutsa haiz!

- Sentitzen diat, baina hala duk.

Eztabaida ez da berria, baina gaur gauean berriro aterata da kontua hamarretako emanaldiaren ondotik, Lazkanok esaldietako bat, oharkabean, euskaraz bota duenean gaztelerazko emanaldiaren erdian. Lur jota geratu da Lazkano, nahiz eta Gloria eta gainerakoak irristadari garrantzia kentzen saiatu:

- Jendea ez duk enteratu ere egin, Diego: egik kontu horiek behin bakarrik etortzen direla hau ikustera, abangoardiak hizkuntzak nahasten ditik, ziur zergati bat topatu diotela esaldi hori euskaraz entzuteari ere.

Sotok ez du aukerarik galtzen:

- Abangoardia? Ni iraintzen ari al haiz, Gloria?

Alferrik da Diego animatzen saiatzea. Lazkanok bakarrik egon nahi du gaur eta ez da gainerako lagunekin batera joan ospatzera. Hori gutxi balitz, Idoiaren

berririk gabe jarraitzen du, ez zen asteburuan antzez-lana ikustera azaldu eta egunkarira deitu dion azken aldian ez diote pasatu, «bilduta» zegoelako.

Bere lapsusaren hurrengo goizean, egunkaria erosi eta kultur orrialdeak zerk betetzen ote dituen begiratu du, Dario Foren inguruko kolaborazioa beste astebetetz atzeratzearen erruduna zein ote den jakin-minez. Ezinegonak jota berripapera zabaldu, eta orrialde osoko erreportajea topatu du *haren* lekuan, gaztelera jatorrean idatzia: *Silvio Rodríguez, la pluma y la trova*. Ongi, hariak lotzen doaz apurka-apurka. Egunkaria zimur-zimur egin eta hura zakarretara bota du kiosko ondoan topatu duen lehen zaborrontzian, berripaper-saltzailearen harridurarako. Halako ume-keria egin orduko damutu zaio kasketa Lazkanori, eta etxera igo aurretik berriz erosi du beste kiosko batean egunkaria. Asteak daramatza unibertsitatera joan gabe, baina bost axola. Popatik Soziologia. Asko falta da oraindik azterketetarako. Egunkaria kultur orrialdeetan berriro zabaldu eta bere ordezkorearen izena ikusi du Silvio Rodriguezi buruzko artikulua sinaduran: Mikel Remiro. Eskasa iruditu zaio artikulua, bost xentimoko hitz ponposoz josia, adjektiboz oka egite-raino gainezka. Silvio Rodríguez, Scorpions... musikaz

zerbait jakingo du Remiro hark akaso, baina idazle negargarria da. Egiari aurre egiten saiatu da: Idoiak idazle kaxkar batengatik utzi du, batek daki ez ote duen bigarren harreman solapatu honek bera kareletik behera jaurtia izatearekin zerikusirik izan. Ez, Idoiak ez du garbi jokatu. Pozoia, harakiria, jauzi mortala, Lazkanoren buruko suizida hormonal tragikoa bere buruaz beste egiteko modu ezberdinen inguruan hausnarrean ari dela, telefonoak jo du. Ana da, antzezlaneako protagonista. Kafe bat hartzeko gera ote daitezkeen eta nola dagoen jakitearren deitzen dio.

Ana Etxarri handia, Ana alaia, Ana zoragarria. Gizonetakoek eskuraezintzat dauzkatelako merezi adina arretarik jartzen ez dieten emakume horietakoa. Jaki-na kafe bat hartzeko geratuko direla. Izatez, beste ezer baino gehiago behar du kafe hori antzezlanea egiten jarraitzeko indarrik batuko badu. Sei emanaldi dauzkate Bilbon hitzartuta datorren astean eta, suizidio metodo ezberdinak hausnartzen dituen bitartean, hamaika aldiz hartu eta beste hamaika aldiz geroratu du Gloriari bera ordezkatzeko eskaera egiteko deliberoa.

Hain ezberdina da Ana Diegorekiko. Bokazio garbiko emakumea, Antzertin apuntatu denetik ez du an-

tzerkia beste ezer buruan. Antolatzen diren ikastaro guztietan ematen du izena: mimoa, ahots lantegiak, gidoigintza, Stanislavski, katakalia, ekialdeko dantzak, esgrima... Aktore handirik aterako bada haien artetik, hala pentsatzen dute denek, Ana Etxarri da hura. Zerbaitegatik hautatu du Gloriak protagonista izateko.

- Oroitzen Roulantek eman zigun ikastaroa?

Keinu amaneratuekin lagundu du Lazkanok erantzuna. Lyondik asteburu bateko ikastaro trinkoa ematera etorri zitzaien Roulant profesorea erraza zen imitatzen:

- «Oinarrizko ikasketa, *c'est ça*: keinuarekin marrazki bat egin eta marrazki horren barruan hitzak sartzea. Keinua eta hitzak elkarrekin joango dira une horretatik aurrera. Keinua gogoratzea aski, hitzak gogoratzeko». Baina ni ez naiz gai.

- Saiatu egin behar.

- Saiatzea gogorra da.

- Horretan ez zaizu arrazoirik falta.

Lazkano saiatu da, baina ez du lortu. Gero eta deserosoago sentitzen da oholtza gainean eta hura izan da bere azken lana Gloriaren konpainian. Bokazio hura baztertu eta ikasketetan buru-belarri sartzea erabaki du. Gainera, Diegori goizean goiz Anarekin es-

natzen hasi denean esatea gustatzen zitzaion legez: bi aktore gehiegi lirateke etxe bakarrean.

Diego Lazkano zoriontsu da. Anari esker. Haren begi berde atxarolatuei esker. Aurpegia tunel zuri bilakatzeko dioten ile mataza ilun, igitai alderantzikatuen erantzun moztuei esker. Norberak irakurri nahi dituelako elkarri oparitzen dizkioten liburuei esker. Anari erreplika ematen dio antzezlan berri bat entseatzeko ari deno, eta gero pozarren ikusten du bere bizitzako emakumea estreinaldian taula gainean, distira beltzean.

Elkarrekin mintzatzen direnean legez, elkar ukitzean ere aldiro diferente izan dadin saiatzeko dira: laranja bat eskuekin jan ondoren elkarren aurpegia laztantzen. Berdin da hatzak hotzak egotea elkarren izterren artean, eta gero Diegoren sudurrean, hotzak eta laranja usainarekin. Ez du besterik behar.

Kalean ikusita inbidia ematen duten bikote horietakoa dira, hain ongi daude elkarren tonura afinaturik, irribarre egiteko era bera dute: anai-arrebak bezalakoak dira, disimulatu egin behar lukete zoriona oinezko bekaiztiei nazkarik ez eragiteko. Itsatsi egin zaizkie,

keinuak ez ezik, baita bestearen zoriontsu izateko arrazoiak ere, bikoiztu egin zaizkie, bienak dira lehen bakarrarenak zirenak. Gogoangarria izan da bien disko bildumak apal berean jarri eta alfabetikoki sailkatu dituzten eguna. «Ezkontzea baino lotura tinkoagoa», esan diote elkarri, Patti Labelle eta Mikel Laboa, Echo & The Bunnymen eta Errobiren diskoak bizkarrez bizkar jarri ondotik.

«Esfera pribatua, zerbait intimoa, nirea bakarrik dena? Badut, jakina», pentsatzen du Diegok. Soto eta Zeberio lagun minen konpainia, adibidez, biena izan arren, militantzia politikoa eta haien etxean egiten dituzten bilerak eta elkarrizketak, manifestaldietako oihuak eta korrika saioak, horiek Diego Lazkanorenak bakarrik dira. Anak ere badu bere esfera pribatua. Zein? Diegok ez daki. Berea bakarrik da. Horri ez dio bereziki erreparatzen, baizik eta zoriona adierazteko daukaten modu konpartituari.

Elkarrekin bizitzen jartzen direnean lehiatu egiten dira, nork lehenago ontziak garbituko, nork lehenago ohea egingo. Laguna ezustean harrapatzea da jolasa, eta berak egin asmo zuen lana besteak egin duela jabetzen denean haren irribarrea ikustea, eta larrutan egitea gero. Egin berri duten ohea deseginez.

Maitemintzea hori da, hortzak garbitzea bazkaldu aurretik. Eta gero bazkaldu ez baizik eta larrua jotzea hatz guztiak erabiliz eta miazkatuz.

Gauean kafea egiten dute eta azazkalak kafe kondarrez zikintzen dituzte. Bost axola gorputzeko zein ziritu perfumatuko duten gero kafe kondarrez hatz horiek.

- Non ibili zara?
- Soto eta Zeberiorenean...
- Konspiratzen?
- Musika entzuten...

Dena dauka: lagunak, maitasuna. Lagunen maitasuna eta maitearen laguntasuna.

Iluntzerako, kafearen lurrinak laranjaren enboloa desplazatu du, baina hor dago hondoan, baxu jarrai bat bezala, laranja-azalaren usaina, estridentzia gozo bat kafearen garratzari kontraohartzun eginez.

Beti diferente izan dadin, Idoiak erakutsi bezala koska egin dio Diegok Anari lepoan, erori da neskaren gerrikoa, botoi nakaratuek zorua kolpatu dute, azazkalek ezpaina laztandu, hatza erretenean sartu, perfumatu, makurtu, usaindu, musukatu, zurrupatu nahi dute elkar. Anaren hatz puntak uste baino lehen ukitu du Diegoren erekzioa, ez zuelako gerrikotik hain gertu

aurkitzerik espero. Hatz puntekin lehenbizi eta azazkalekin laztandu dio gero. Irribarre egingo dute, beti diferente, eguna amaitzen zaien arte, egun guztiak amaitzen zaizkien arte, egunak amaituko direla dioen ebidentziari bizkarra emanaz.

Eta gero larrua joz bizkar horri eta ebidentzia horri.

Antzerki taldea desegiten hasi da apurka-apurka. Telebistak irentsi ditu aktoregaietako asko: zenbaitek magazinetao aurkezle izatea hautatu dute, bikoizketa ikastaroak egin eta euren ahotsetatik bizitzera erabaki beste batzuek, nahikoa modu burutsuan, behar bada, ahotsa baita zahardadeak higatzen duen azken gotorlekua. Aktoreak badaki talentu handia behar dela aktore izanez zahartzeko. Ez baikara denok Orson Welles.

Edo hori edo kiloak hartu eta zuzendari bilakatzea. Xakeko pieza izatetik xake-jokalari izatera pasatzea. Bide hori hartu zuen hasieratik Gloriak. Bilbon Arte Ederrak ikasten duen bitartean burugogor jarraitu du aurrekontu gutxiko obrak produzitzen, estreinaldiak ez ikusteko bere maniarekin beti -sineskeria antzeko

bat: Bulebarreko koktelarian gintonikak hartzen geratzen da estreinaldiak irauten duten bitartean, bere buruaren eta kamareroaren aurrean urduri ez dagoela antzeztera jolastuz, erlojuari begira, zigarroen azken printzarekin zigarro berriak pizten, harik eta erlojuak Antzoki Zaharreko obra amaitzear egongo dela esaten dion arte. Kontua ordaindu eta antzokira itzultzen da orduan-. Antzokitik ezkutuan alde egin eta antzokira ezkutuan itzultzea gustatzen zaio, proba-saioetan aktoreen gain-gainean egon ondoren desertzio hori baimentzen dio bere buruari. Lehen aldiari ongi atara zitzaien eta errepikatu egiten du beti geroztik, gustatzen zaio antzokira itzuli ahala -obra bere azkenetan dela- butaka patioan tentsio hura arnastea, barre ozenak edo isiltasuna sumatzea antzoki barruko taberna itxiaren gunea zeharkatzean.

«Nola doa?», galdetzen die orduan lankideei, nahiz eta alferrikakoa den galdera, Gloriak bai baitaki ordurako nola doan dena, giroan eta aktoreen aurpegietan dago jada frakasoak edo arrakasta, lortu ote duten publikoa zirraratzea edo ez, barre egin behar zuten uneetan barrerik egin ote duten, arnasari eutsi behar zioten uneetan eutsi ote dioten. Txaloak etortzen dira gero, eta Gloria aktoreen eskutik eszenatoki-

ra gonbidatzea, loreak, mimoak, musuak, eskerrik asko, haiena da meritua, aktoreena, mila esker.

«Mainontziak dituk aktoreak, Lazkano: zaldiak orraztu beharra zagok noizean behin». *Zaldiak orraztu*, bai espresio ederra.

Nork orrazten du, ordea, zaldi-trebatzailea? Sor eta lor geratu da Lazkano Gloriak Arte Ederrak amaitutakoan antzerkia utziko duela iragarri dienean. Burumakur topatu dute Sotok eta Lazkanok adiskidea, Zeberio argiak jasotzen geratu den bitartean.

- Ez naiz uste bezain indartsua, kemen handia behar da honetarako... Nik ez dut balio.

Paco Bueno tabernan oharkabean entzundako komentario batek erdibitu du Gloriaren moral pitzaezina. Tragedia baten mailaraino exajeratu du taberna-zuloan entzundako iruzkina. Ez da iruzkina izatera ere iristen. Bi hitz baino ez dira, izatez.

- Hain txarra ere ez zunan izango.

- «Antzezlanara zer iruditu zaik?», galdetu zioz batek besteari. Eta honek: «Sin más». *Sin más?* Jode!

Lazkanok ezin sinets dezake. Kritika onak eta txarrak «ez ditek piperrik ere ulertu» edo «hauek ez zakituek Mamet nor den ere» esanda berdin baztertzen dituen Gloria harroa, bere buruaz eta ematen duen

pauso bakoitzaz hain seguru dagoen Gloria zuzendari orojakilea halako txikikeria bategatik amore ematear?

- Ez zaidan hainbesterako ere iruditzen.

- Hire lan bati buruz esan dezaketen gauzarik txarrena duk hori, Lazkano.

- Bat: ez dakin nor ari zen hizketan -saiatu da Soto ere- eta zer ote dakien hark teatroaz. Bi: Handkeren eskolakoak gaitun, bost axola zaigun publikoa.

- Ez nauk konbentzituko, Soto... uztera noak.

- Eutsi egin behar dion -ekin dio Diegok, herabe-. Bihar beste modu batera ikusiko dun dena.

Baina ez du beste modu batera ikusi. Gloriak zuzendutako azken antzezlanak izan da. Egun batetik bestera, antzerkia zuzentzeari utzi, antzokietako giroetatik aldendu eta artista plastikoenean sartu da. Amore eman eta Bartzelonara joan da bizitzera.

Lagun min haiek, dena den, Soto eta Zeberio, ez ote zituen heriotzak eta erruak kategoria hartara igoarazi? Bere bizitzako bi lagunik onenak baino, ez ote ziren, gero eta gehiago, bere *heriotzako* lagunik onenak, bere *etorkizuneko heriotzako* lagunik onenak, bestaldean itxoiten ziotenak? Bi adiskide minen tortu-

ra eta desagertuari, aitaren paraderoari buruzko ezjakintasuna gehitu behar zitzaion orain. Soto eta Zeberioaren desagertuak bere memorian apur bat -apur bat bakarrik- lausotzen hasi zirenean etorri zen aitarena, desagertuekiko Lazkanok sentitzen zuen ardura banatu beharrean berrindartu eta biderkatu egin zuena. Aita desagertzearekin batera, agertu egin zitzaizkion Soto eta Zeberio berriz ere Lazkanori, bere memorian ur-azaleratu, presenteago bilakatu haien falta. Haien soslaiak berdefinitu egin zitzaizkion, aspaldian ikusi gabeko argazkiei begira egon bailitzan. «Hiru gara eta hirurok gaude orain desagertuta; lehen biezat ez da esperantzarik, hirugarrenarentzat agian bai».

Baina hirugarrenarentzat ere, Gabriel Lazkano zahararentzat, gero eta esperantza gutxiago zegoen. Bigarren astean azaltzen ez bazen, hala zioten estatistikak -eta estatistikak ziren Poliziaren kortesia-, inprobablea izango zen bizirik azaltzea. *Hiru desagertu* esaten hasi zen bere buruari, eta geroago, *hiru hildako*. Orduan hasi zen arrantzaleen alargunen seta hura, behin-behineko ausentzia deklarazio legala, itsasoak hildako marinelen gorpurik bueltatzen ez zueneko ezinegon jasangaitza. Gorpua behar zuen. Haietarik bat,

behintzat, izan zedila hildako presentziala, haren hezurrek ziurta zezatela istorioaren amaiera. Gorpuak esan nahi zuen nonbait zegoela hildako hori, leku jakin batean, han amaitzen zela haren istorioa, eta lekuak berak laguntzen zuela amaitzen. *Deskantsua* lekuak ematen zien, ez hildakoari bakarrik, familiari eta lagunei ere bai.

Lekurik gabe ez zegoen deskantsurik, edo hura nekezagoa zen. Hilerriek heriotza hesitzen zuten, hilerriek ezean heriotza nonahi egon zitekeen, eta erotzeraino kentzen zitzairen ahaideei oinen pean zuten lurrraren sostengua. Biderkatu hori hiru aldiz.

- Harraska buxatuta dago, seme. Etortzerik bai?

Deia amaren ohiko eskaeretatik aldentzen zen, bazuen s.o.s. eskaera baten traza, «okerreko lekura etorri nauk, Diego», haren antza. Lazkanok etxeratu orduko baieztatu ahal izan zuen susmoa.

Libragailuarekin eman eta eman aritu ondoren destrabatu zuen hodia, dezente kostata. Ile mataza zuri luze bat zen buxaduraren eragilea. Amari begiratu zion, ile mataza berea zela ziurtatzeko. Orraztu gabe, goiz hartan bertan ile-xerlo lodia moztua zion bere buruari. Mahai gainean jarraitzen zuten gurai-zeek.

- Zer egin duzu, ama?

- Oso bakarrik sentitzen nintzen. Zu etortzea nahi nuen.

Desesperazioa zer zen -disimulatzeko indarrak ere ez izatea-, orduan hasi zen jabetzen Lazkano. Zeure ile-xerloak moztu eta haiekin etxeko harraska buxatzea, gero semeari deitzeko. Hori zen desesperazioa.

«Desagertuek», pentsatu zuen Lazkanok, «ez ote dute desagertu ez direnen baitan ere halako desagerpen dosi bat txertatzen?». Euren ohiko eskema, ordu-tegi eta portaeretatik desagertzen dira nozitutako kolpearen ondorioz. Ez da soilik ez dutela indarrak maite zuten pertsona desagertu aurretiko bizimodua berreskuratzeko, baizik eta beraiek apur bat desagertzeak, beraien portaerak eta animo egoerak apur bat mudatzeak, desagertuekiko gertuago sentiarazten dituela: «Zu desagertu aurretik alai bizi nintzen, orain triste bizi behar dut; zu desagertu aurretik kanpoan afaltzen nuen igandetan, orain etxean afaldu behar dut; zu desagertu aurretik mendian pasatzen genituen oporrak, orain kostan pasatu behar nituzke». Portaera inkonfiantziente eta absurdoa, lehengo errutinetatik apartarazten gaituena, errutinetatik apartatzeak, ginen lekue-

tatik aienatzeak eta beste nonbait agertzeak, desagertua aldez edo moldez agertzea ekarriko bailuen.

Lazkano ez zen aspaldian hain patetiko sentitu. Harrikoa egiteko eskularru arrosak soinean eta amaren ile-xerlo zuria eskuetan, harekin zer egin -zaborretara bota, komuneko zulotik, amari bueltatu- arrastorik ere ez zuela. Madarikazioak egiten ziren ile-xerloekin, maitaleei oparitu. Baina zer egin zure amaren ile-xerlo zuriarekin?

Bai, halaxe zen, Diegoren amak agian ez zekien, baina desagertzea deliberatu zuen berak ere, eta horretarako bere burua oso-osorik ibaira bota beharrean, pixkana-pixkana harraskatik behera botatzea erabaki zuen: errazenarekin, ile-xerlo batekin hasita.

«Han behean elkartuko gaituk, estoldetan, itsasosan, putzuan».

Diego Lazkanok AK-47 akronimoa entzun zuen lehen aldia dakar gogora. Diego Lazkanok FMLN siglak entzun zituen lehen aldia dakar gogora. Diego Lazkanok «zelula lokartua» hitzak entzun zituen lehen aldia dakar gogora. Egun berean izan zen, Zeberio eta Sotorekin batera, azken honek The Doorsen disko bat

ipintzen zuelarik, ordura arte jarrita zegoen Victor Jarraren kaltetan. «Ez nazazu musika horrekin torturatu», bota zion Zeberio. Zeberio Victor Jara gustatzen zitzaiolako, zer esaten zuten ulertzen zien kanta-riak gustatzen zitzaizkiolako. Ingelesez abesten zue-rik ez, beraz. Yankeerik ez, beraz. «Ez nazazu musika horrekin torturatu», atzo goizean gertatu izan balitz bezala oroitzen du eta hogeita bost urte baino gehia-go pasatu dira geroztik. Atzo goizean gertatu izan ba-litz bezala oroitzen du nola suertatu zitzaion atsegin arratsalde hartan, disko-jogailuaren orratzean pilatu-tako hautsari putz egiteaz batera, Soto eta Zeberioen arteko elkarrizketa hura, Sotok haiek biak Rumasaren iruzurrari eta Iran-Irak gerrari buruz leziatu ondotik, oraindik sasira igaro gabeko hiru lagun etxe batean, beldurrik gabe, etorkizuna zabal, horizontearen pare. Soto eta Zeberio, libretista eta argiztatzailerak, Idoia be-zala, biak ziren Diego Lazkano baino zaharragoak. Eta bera isilik egoten zen ia beti, biak miresten zituen bal-dintzarik gabe, irrika erreprimitu bezain entregatuare-kin.

Egunkariak Askapen Nazionalerako Farabundo Marti frontearen berri zekarren, El Salvadorren *desa-gertzen* ari ziren FMLNko gerrillariak, nekazariak, ikas-

leak eta are, gotzainak ere. El Salvador ez zen leku bakarra. Guatemala ere hor zegoen. Txile. Uruguai. Eta beste hainbat.

- Errepide bazterretan uzten ditiztek haien gorpuk. Begira honi: nekazari baten burua bere seme-alabek ikasten duten eskolako patioan agertu duk.

- Ikaragarria.

- FMLNkoak ez dituk aingeruak: AK-47ak manejatzen ditiztek, hilketak egin eta bahiketen bidez finantzatzen dituk euren burua, baina haur jolasa duk euren bortxa, El Salvadorreko ultraeskuindarren miliziarekin alderatuz gero.

- Eta jakingo duk milizia horiek nork instruitzen dituen, ezta, Soto?

- Bai bazakiat, ez hadi berriro horrekin etorri: amerikarrek, nork bestela. Bell helikopteroak, M-16 errifleak... Bazakiat hori dena, baina horregatik uste baduk The Doors kendu eta Victor Jara jarriko dudala berriz, jai daukak.

Diego Lazkanok egunkaria irakurtzen jarraitu du: 75.000 hildako El Salvadorren bakarrik, pentsatu du, Donostia erdia, eta haren ondoan hutsaren hurrengoa deritzo Euskal Herrikoari, ez zuten sekula El Salvador bezalako herrialde txiki baten odol-isurketarik jasango

edo eragingo, zorionez. Ez haien eskutik. 75.000 hildako, milioi bat errefuxiatu, beste milioi bat etxerik gabe. Zenbaki handiak ziren horiek, zenbaki txikiak bihurtzen zuten euren arazoa txiki. Eskala kontua zen dena, perspektiba eta zenbaki kontua, hala zioen Sotok -eta horri ez zion Zeberioak ezezkorik esaten-, bortxaren erabilera parametro ezberdinetan neurtzen zen etxe hartan, ez zen kuestionatzen, gerra dinamika baten barruan sartzen zen dena, edozein militantek eta buruzagik onartzen zuen krudelkeria maila bat, ez zen pentsatzen ondorio partikularretan, sinboloetan baizik, sinboloak akabatzen ziren, eta ez zen sekula inoren buru lepamozturik uzten haren seme-alabek ikasten zuten eskolako patioan. Diego Lazkanok urtetan pentsatu du hori, aldatuz joan da bortxakeriaren inguruan zuen ikuspegia, baina Frantziako nekazari herrietako etxaldeetan ezkutaturik imajinatu dituen buruzagien buruetan El Salvadorreko krudelkeria eta zenbakiak beti present izango zirela uste izan du beti, jasangarri zen hildakoen kopuru bat egon zitekeela asumitzea izan zen beharbada euren akatsa, Hego Amerikako oihan bat txertatu zitzaienten buruan eta oihan hartan galdu ziren, oihan hura Euskal Herria

zela pentsatzera ailegatuz. Eta ez zen. Nahiz eta denon burubideak diren basotsu eta oihantsu.

Diego Lazkanok zelula lokartua hitz elkarketa entzun zuen egun hura oroitzen du, eta nola ia atsegina eta erakargarri suertatu zitzaizkion «zelula lokartua» hitzak, sinesten zuelako lo eta ezkutuan zegoen jende horren potentzial iraultzailean, ezin irudika zezakeelako «zelula lokartu» batek deus txarrik egin zezakeenik; eta ezin zuen, baldin eta «zelula lokartu» izateari uzten ez bazion, eta orduan denetik egin zezakeen, onetik bezala txarretik. Baina «zelula lokartua» lo zegoen bitartean, zenbat amets. Horrela ikusten zuen Lazkanok, amesgaiztoen aukera burutik pasatzen ez zitzaiola, hain xalo eta hain gazte oraindik, taldeen ardua zuen gizona heldu zenean etxera.

Ilegorria zen, orezta asko aurpegian. Oso zaharra iruditu zitzaion orduan, baina ez zituen berrogeita bost urte izango.

Lazkano bizargea gaxteegia begitandu zitzaion eta Zeberiorekin batera jarri zuen, «zelula lokartu» bat osatzekotan, Sotorentzat «beste zeregin batzuk» izango zituela iradokiz. Izan zitezkeen beraz Lazkano eta Zeberio, heriotzak betirako elkartuko zuen bikotea, edo kasu horretan agian Zeberio eta Lazkano, or-

dena aldatuta. Ordea, etxetik atera aurretik Ilegorriak autoaren giltzak Lazkanori eman zizkionean, orduan aldatu ziren gauzak betirako. Lazkanok, lotsatuta, ahots hari batekin eta ia hitz egiteko indarrik gabe esan baitzuen:

- Nik... ez daukat gidabaimenik.

Ilegorriak zur eta lur begiratu zion Lazkanori, eta gero, Soto eta Zeberiori, «zer jende mota ekartzen didazue, ezin al zenidaten lehenago abisatu?», edo antzeko zerbait adierazten zuen begirada dudakorraz. «Ez goazak inora horrela, autorik gidatzen ez duen jendearekin zer komando eta zer zelula lokartu osatuko diagu bada?». Azkenean, ordea, errukitu egin zen Ilegorria Lazkano gaztearekin, eta bere buruz gain jaurti zizkion giltzak Sotori.

- Arduratu hadi hi orduan, Soto.

- Hi, hator nirekin... Legalak ere behar ditiagu.

Lazkanok ez dauka izenik: *Hi*, esaten dio Ilegorriak.

Atzo goizean jaitsi izan balitu bezala oroitzen zituen Lazkanok eskailera haiek, nola beheratu zituen banan-banan, apur bat ezkerretara okertutako koska makurrak, buruzagi ilegorriaren atzetik, gidari izateko bere ezintasunagatik elbarri inutil bat bezala sentitu-

rik. Ez zuen bada Idoiak eramaten beti bere Minian leku guztietara? Eta orain hori ere ez, Anak ez baitzeukan gidabaimenik.

Eta han nola doan Diego eskaileteran behera Ilegorriarekin, El Salvadorreko oihana buruan txertaturik, «legalak ere behar ditiagu», atzean uzten duena heriotza seguru bat denik batere jakin gabe, susmatu gabe gauzak artez eta zuzen egiten jakiteak ez zaituela beti salbatzen eta salba zaitzakeela batzuetan ezjakintasunak ere, jainkoek baztertu ez baizik eta hautatu egin dutela susmatu gabe, bere zeregina zein izango ote den galdetzen dion bitartean bere buruari.

Lazkanok ez zuen Gloriaren desertzioa -Bartzelonara eta arte plastikoen mundura eramanez- bere garaian ulertu, sasoi hartan artean deus argitaratu gabea zelako ziurrenik, baina orain, bera ere nobleagile bilakatu zenean, ondo baino hobeto konprenitu eta konpartitzen zituen haren motiboak: *sin más*, horixe zen zeure lan bati buruz esan zezaketen gauzarik okerrena, ez baitzion sortzaileari defentsarako zirrikitu txikienik uzten.

Diegorekin eta Gloriarekin antzeztaldean ibilitako zenbaitek zineman probatu zuten. Ez ziren loratze labur hartan film on asko egin, baina bai etortzeko ziren urteetan baino gehiago. Espero zen loraldirik ez zen etorri. Udaberri solte bat baino ez zen izan, iritsiko ez zen uda baten promesa, sasi-udaberriaren kru-delkeria eta dezepzio guztiekin. Anak ere, alderdi itzaltsurik ezagutu ez zion Lazkanoren maitasun beti diferente hark, pronostiko guztien kontra, utzi egin zuen antzerkia eta funtzionario plaza atera Donostia-ko Udal Liburutegian. Sara Fernandez izan zen haiekin ibilitakoen artetik aurrera jarraitu eta arrakasta lortu zuen bakanetakoa, hogeitaka urte geroago oraindik ere Bilbo, Donostia, Madril eta Bartzelonako antzokietan errespetatu eta miretsia zena. Madrildik deitu, hara joan eta handik garaiz bueltatzen jakin zuena, ez beste asko bezala buztana hanka-artean, baizik eta bertako *mundillo* zoldatsuak irentsia edo zokoratua izan aurretik. Biran Bartzelonan egokitzen zenetan beti hots egiten zion Gloriari, eta orduko hartan, hainbeste urteren ondoren, Diego ere bisitan zuenez, Lazkano eta hirurak elkartuak ziren Sa Cantinako mahaia-
ren bueltan:

- Eta geure esperantza zuri handiarekin, zer gertatu zen?

- *La bella Ines?* Aspaldi utzi zuen teatroa. *Sagu-tranpaz* geroztik ez du ezer egin. Autopistako ordainleku batean lanean dabilela entzun dut.

- Ez dago gaizki: sagu-tranpa batetik atera eta beste batean sartu.

- Beti bezain putakume jarraitzen duk, Lazkano -Gloriak, adiskide ausenteaz errukituta.

Sarak ez zuen energia amiñirik ere galdu. Dieta zorrotza zeraman eta alkoholik probatu gabe jarraitzen zuen. Diegok eta Gloriak edan zuten oso-osorik chablis botila.

- Zerbait egin behar genuke elkarrekin.

- Erabat ados, Sara: momentuz afaldu. Arraina ala haragia, Lazkano?

- Ez, serio, Gloria: Lazkanoren nobela bat egokitu, zuk zuzendu eta...

- Xehetasun txiki bat ahazten duzu: ni ez naiz jada antzerki zuzendaria eta Lazkanok gorroto du teatroa.

- Ez dut ulertzen, Bartzelonan, hemen ezagutu behar duzun jende mordoarekin, Gloria, nolatan ez zaren teatrora sarriago joaten.

- Ez dut azken hogeita bost urteotan antzoki bat zapaldu.

- Ez dizut sinesten.

- Ba sinetsi...

- Esan egia, Sara: ez al daukazu honezkero dena ikusi duzun sentipena? -galdetu zuen zirtolari Lazkanok.

- Ez.

- Apartekoa zara, orduan. Nik pentsatzen nuen aktoreek eta antzerki zuzendariek ez dutela euren kolegen antzezlanik ikusten, baldin eta ez badute ikusiko dutena haiek une hartan antzezten ari direna baino askoz txarragoa den segurantzia osoa. Orduan bai, ikusten dute. Artistarentzat eguneratuta egotea baino ezinbestekoagoa da egoa sendotzea.

- Hori miserablea da, Diego. Horrela funtzionatzen duzue nobelistek?

- Gutxi-asko, bai.

- Asteburu honetan biontzat sarrerak uzteko asmoa nuen.

- Ez gaizki hartu, Sara: asko maite zaitut, baina ez naiz joango.

- Zu ere ez, Lazkano?

- Ni eta antzerkia... Mania hartu nion. Sufritu egiten dut: publikoagatik, aktoreengatik... Eta, batez ere, nire buruagatik, zertan engaina. Edozein anaitasun sentimendutik urrun, partaide ez naizen kolektibo baten kide pasibo sentiarazten nau besaulki errenkada gaizki atornillatuetako ilarakideak altzarazi beharrak... Ez naiz joan aspaldian ez teatrora, eta ezta manifestaldietara ere, arrazoi bertsuengatik.

- Bada niretzat oraindik ere ez dauka parekorik... Argiak itzali eta norbait eszenatokira ilunpean sartze-ra doala entzuten dudanean, taula gaina nola kraskatzen den, ez dakidanean zer espero, oholtzan pausok entzuten ditudanean obra hasi aurretik, oilo ipurdia jartzen zait. Zer esanik ez, oinez doana ni naizenean: ilunpean amildegirantz joatearen parekoa da.

- Zorionekoa zu, inoiz amildu ez zarena.

- Oker zaude: amildu izan naiz. Hori da onena. Amiltzeko arriskua, eta berriro ere amiltzeko aukera izango duzula jakitea.

Militatzen hasi, Anarekin bizitzen jarri eta Soto eta Zeberioaren desagerpenera arte luzatu ziren hilabete haiek bere bizitzako onenak izan zirela sinesten zuen

Lazkanok. Baina adiskidetasunari gainbalioa ematen ari zen, agian. Beste bat da lagunena egia. Beste bat eta gordinagoa. Iraungi egiten dela lagunetasuna. Neska-lagun ohiak izendatzeko hitz bat zegoen bezala, zerrendatik ezabatutako ex preteritua, zergatik ez zegoen hitz bat garai batean lagun izan eta gaur egun jada ez zirenak izendatzeko? Lagun ohiak ez dago?, exlagunak ez dago? Lagun ez dena etsai izatera pasatzen da derrigor? Ez. Lagunetasunaren kontrakoa ez da etsaia, ezaxolotia baizik. Ez dira traizioa edo ikuspegi ideologiko apartekoa lagunak galtzearen arrazoi nagusiak, bizitzaren higadura lausotzaile saihestezina baino. Lagunek elkar erabiltzen zuten, nerabegaroko segurtasun ezak eta mutazioak bakardadean jasatea gogorregia delako, musika banda bat bakarrik sortzea nekeza delako eta norbaitek jo behar dituelako inork nahi ez dituen baxua eta batera, behar dugulako norbaiten babesa, ikasle-pisuak garestiegiak direlako norberak bakarrik ordaintzeko eta gurasoak lasaiago daudelako euren seme-alabak norbaiten konpainian bizi direla jakinda; modu kalkulatu ahazten ditugun arren, arrazoi praktikoak daude beti atzean, sekula apurtuko ez direla dirudien loturak sortzen doaz horrela, ezarian-ezarian, mozkorkerian eta kirolean tristee-

gia delako bakardadea hogeit urte dituzunean, eta garagardoa eta zenbait musika talde gustuko izatea badelako aski kidesan gau bat eta bi gau elkarrekin solasean pasatzeko, «pakean utzi arte», kantu bat, esaldi bat aski zen orduan: «Ezin zaitut begira, gehiegi da». Gero bikoteak sortzen ziren, behiala irrikatu eta orain lagun artean txertaturik arrotz diren elementuak, lagun-taldean indar harremana aldatzen zutenak, «Ez zeok bueltarik eman behar, jazo behar dena jazo data», eta hortik aurrera, nork daki noiz eta zergatik, lausoagotzen doa dena, astean bitan elkarrekin egotetik bi astean behin egotera pasatzen zara lehenbizi, egotea gogaikarri eta berun suertatzera, egotea telefono dei batekin ordezkatzeko hasten gero, telefono dei batean kontaktu ezin diren zenbait gauza elkarrekin aurrez aurre zaudetenerako gordetzen, elkarrekin aurrez aurre egongo zareten egun astun hori gero eta urriago bihurtzen, elkarrekin egoten zaretenean nondik hasi ez dakizuelako topikoen zerrenda axalaz baino ez mintzatzen, elkarren berri lagunak lagunengandik izaten. Ezkontza-gonbit, bataio eta bataren eta bestearen gurasoen gaixotasunen berri baino ez jakiten hasten zarete. Poza itxuratzen. Hiletetan elkar

ikusten. Samina ez sentitzen eta samin plantak egiten.

Gero eta gehiago da lagunei esaten ez dieguna, eta gero eta gehiago da lagunak kontatzen ez digutena. Gero eta handiagoa bihurtzen da haien bizitzetako hari-mutur eskasak aintzakotzat hartuta haiek epaitzeko gure joera mizkina. Suposizio okerrekin betetzen ditugu elipsiak, adiskideen jarrerak justifikatuz edo gaitzetsiz, oker ia beti, haien egiatik gero eta urrunago, eta gure egiatik ere urrunago, geure zekenkeriatik eta miseriatik gero eta gertuago egotea ez baita norbere egiara hurbiltzeko modua. Larru bereko izan ginenok, ez dugu elkarren larrurik konpartitu nahi orain.

Norbera bere bizitza domestikoa den lantegiaren zuzendari bilakatzeak zurrupatzen du denborarik gehiena, askotan ikusten zenituen gurasoak, gurasotasuna zer den ahaztuta, umeak etorkizunerako trebatzen, haiekin negoziotan ariko balira bezalako solasaldi ulertezinak izaten, egunen batean ume horiek, munstro horiek, aingeru horiek, salbatzaile eta hondoratzaile horiek geure bizitza euren eskuetan izango duten beldur. Haiek gainbabesten, etorkizunera bideratutako gezi txiki haien apustuan indar guztiak jarri-

ta, hala ere; eta horrek ezzuen lekuri uzten adiskideentzat, ez zegoen astirik, eta astia zegoenean ere mugatua eta azkarra zen tartea, konpromiso hutsezkoa, «ordu laurden bat daukat», trago bakarrean edan beharreko kafea.

Posible zen, eta posible baino askoz gehiago, oso gertagarri, behiala lagun izandakoak ezagun bihurtzea, haien jarrerak eta esamoldeak arrotz sentitzen hastea egun batean, haien izateko modua edo haiek ikusteko gure modua aldatzea, garai bateko haien umore ateraldiak ulertzeari uztea, jada ez bereiztea noiz den txantxa bat min intimo baten estalki. Bai, gertatzen zen. Lagunak ezagun bihurtzen ziren, eta denbora aski emanaz gero, ezagunak ezezagun bihurtzen ziren, euren fedea eta euren denbora zeure eskuetan izateari uzten zenion. Onartu beharrean zaude orduan egia mingarria: beharbada ez zarete inoiz *horrren lagunak* ere izan. Garagardoak eta musika talde zenbaitek mantentzen zintuzteten estekatuta, «hilotzaren hondarra karraxika».

Lagun berriak sor daitezke tarteka, zeure ogibidearekin lotutako lagunak eskuarki, kezka eta interes berrien araberakoak gehienetan, familiarik eratorriak beste askotan, baina desagertua da garai bateko odol-

itunen sentipen betierekoa, norbere eskuekin eta adiskidearen buztinezko gorputzari puska kenduta eraikitako eskultura bat bezalako zen leialtasunaren promesa, elkarrekin egindako barre sano eta lehiarik gabea. Eta ezin duzu inor errudun jo: zu zeu zara errudun bakarra.

Zergatik ez onartu nerabeen arteko maitasun harreman despistatuen gisakoa dela adiskidetasuna ere: sekula ahituko ez dela dirudien indar metaketa, sekula hautsiko ez dela dirudien lotura magnetikoa, izatez eta egiaz erabat zirkunstantziala eta amaikorra. Jaki-na, badaude salbuespenak. Euren bezeroekin batera zahartzen diren taberna xarmantak. Elkarrekin astero egon beharrik gabe hamarraldiz hamarraldiko konplizitateari pronostiko guztien kontra eusten diotenak, eskuzabalegiak edo inkontzienteegiak direlako, edo artista itzelak, bestela: garai batean elkarri kendutako buztin pusqueta harekin gauza zoragarriak egiten asmatzen dutenak lagunaren animo egoera samurtu eta hari irri eragiteko. Badira gaixotasun larri berbera edo zaletasun larri berbera konpartitzen dutenak maitale bat konpartitzen dutenen pasio berberaz, ados ez daudenean eztabaida sutsuak izaten dituztenak, bikote-harremanen antzekoak diren adiskidetasunak edo

bikote-harremanak baino hobeak direnak, edo are, maitale-harremanen antzekoak edo maitale-harremanak baino hobeak, elkarri deus ezkutatu ez, edo, be-deren, elkarri ezkututzen diotena maleziaz eta kalku-luen arabera ezkututzen ez diotenak.

Hainbeste gauza konparti daitezke lagun batekin: bizio bat, ahultasun bat, sekretu bat. Baziren Lazkanok Gloriarekin zuena bezalako harremanak, finean, urregorria balio zutenak, bost axola zenbat denbora igarotzen zen elkarrekin hitz egin gabe, bezperan hitz egin balute bezalakoa zen beti, ez zen sekula abiatzeko hari-muturrik falta izaten. Baina salbuespenak ziren horiek, eta litekeena zen jende asko halako adiskidetasun bat berbera ere ezagutu gabe pasatzea mundualdi honetatik. Pozik behar luke Lazkanok, honenbestez. Aldiz, erabat erratzen zen agian Sotok eta Zeberio bizirik segitu izatera haiekin Gloriarekin zuen harreman berdina izateari eutsiko ziola pentsatuta. Hildako lagunekin lehiatzea ezinezkoa baitzen, garaiezinak ziren, idealizatu egiten zenituen modu erabat irrazionalean. Gertagarriagoa zen, Soto eta Zeberio ere, bere *ezagun* bilakatzea lehenago edo geroago, eta ezezagun gero, exlagun, bizitzaren higadura lausotzaile eta gupidagabeak ezabatuak. Ezezagunetik

ezagunera eta ezagunetik lagunera bezala, baina alderantzizko bidea eginez, difuminatuz.

Zeberio irudika zezakeen, esate baterako, hiruzpalau neska-mutikoren aita, gauetz umeak lo zeudela ziurtatzen atearen zirrikitutik, nerabeen kirol-oinetako zikinak apartatu eta garbitzen, haiekin arrantzara joaten, amukoa amuan nola jarri erakusten, irrati bat nola egin katekorratzak, bizar-xaflak eta alanbre zatia egur puska bati lotuz. Soto irudika zezakeen Euskal Pen Clubeko buru, Kurdistango kazetari eta idazle atxilotuen eskubideen alde jo eta su hitzaldiak ematen, batetik bestera, loturarik gabeko hegazti aske eta nomada, injustiziaren uzta non oparoen, bera hantxe lehen. Nork bere bizitza izango zuen, gutxitan topatuko zuten elkar, bere lagun zaharrak ikusi besterik ez zegoen, Sara Fernandez, *la bella* Ines eta beste hainbat... Sotok eta Lazkanok ere agian egunkarietatik baino ez zuten batak bestearen berri izango: «hara, Soto nekaezinak beste antzezlan bat idatzi dik»; «hara, bere betiko obsesioak aletzen dituen eleberri infumable horietako bat argitaratu dik Lazkanok». *Spam* mezu bilakatuko ziren elkarrentzat.

«Baina zer duk *spam*, Diego? Azal diezaguk. Guk ez zakiagu».

Hainbeste gauza azaldu behar izango lizkieke Soto eta Zeberiori haiek berpiztuko balira.

Zergatik? Zergatik eta zergatik izan behar zuten gauzek horrela? Sotok eta Zeberioek norbere bizitzarik ez izanda, Lazkanori berea zurrupatu zioten eta erauzi. Edo alderantziz gertatu zen?

Hil izan ez balituzte ere berdin-berdin desagertuko ziren biak bere bizitzatik, asko kostata bazen ere, gau zurien amaieran hori adina onartzen zion Lazkanok bere buruari. Baina hil egin zituzten, eta horrek bere buruan iltzatuta utzi zituen bizitzen, ez linbo batean baizik eta bere buruan. Bere buruko linboan. Eta ezin zituen handik atera.

Gogoan zuen Diegok nola gorritu zen Zeberio bizarreko azken ileraino Ines aurkeztu zion egunean, nola piztu eta poztu zitzaizkion begiak. Zeberio ez zen bere sentimenduak adieraztera emana, eta Lazkano hirurentzat kafea prestatzera sukaldera erretiratu zelarik, aztoratuta geratu zen Kepa neskarekin. Aitzakiaren batekin sukaldera hurbildu zitzaion aurki Lazkanori, «neska hori aktorea duk, ala?»; baietz Lazkanok, «ez al dizkiok sekula argiak jarri?», jo zion adarra, harriga-

rriro ausart, bera izateko. Baina Zeberio asaldatuegi zegoen txantxetarako, «zer egiten dik hemen?»; Soto ezagutu nahi zuela eta horregatik ekarri zuela etxera, isiltzen ez den neska horietakoa zela, baina ez zuela luzaro bakarrik utziko, berehala zen han kafearekin.

- Soto non den arrastorik bai?

Hain zen gardena, halako dezepzio aire bat sumatu baitzuen Zeberioaren aurpegian Lazkanok, bost minutuz bere burua engainatu eta neska harekin aukeraren bat zuela sinestea leporatu izan balio bezala.

Ez zuela Soto zoroaren paraderoari buruz ideiarik. «Zoroa, pailazoa», hala esaten zioten elkarri. Lazkanok hasperen egin zuen, kafea borborka ateratzen hasi zen italianaren muturretik.

- Hik eta nik toreatu beharko diagu, orduan.

Irrati ibiltari horietakoa zen *la bella* Ines. *La bella* deitua, ez hainbeste bere edertasunagatik, hark bere burua halakotzat zuelako baizik. Asexuatu samarra zen, nahiz eta bulartsua izateak zalantza guztiak uxatu. Aho zabalik utzi zuen Lazkano Zeberioek hexurretan zegoen neska androgino hura gustuko izateak, aho zabalik utzi eta dibertitu, bikote xelebrea osatuko baitzuketena, inondik ere, Zeberio aizkolari isilak eta Ines hitzontzi mehexkak.

Diegok jarritako Joy Divisionen diskoa entzuten zuten bitartean kafea hartu ahala, ezagutzen ez zuen Zeberio bat deskubritu zuen Lazkanok. Han ikusten zuena *fascinazioa* zela esatea ez litzateke gehiegizkoa agian, *Fascinus*, Sotok bertan izan balitz leziatuko zien bezala, begizkoaren kontrako amuletoa baitzen, zakil tentearen formakoa.

Bizpahiru antzerkitan baino ez zuen Inesek parte hartu artean, baina euskal telebista sortu berrian musika programa bat aurkezten zuen (telebistak gizendu egiten du, onartu beharra zegoen bazuela halako telegenia bat) eta dezente agertu zen egunkarietan sasoi hartan, Zinemaldian aurkeztu zen erdipurdiko pelikula batean protagonista izan zelako, besteak beste. Denek zuten garai hartan etorkizun oparoko aktoreztat *-aktorea*, hala esaten zen oraindik-.

- Ikusi duzue Costa-Gavrasen azkena? Ikaragarria. Biziki gomendatzen dizuet. Zinema politikoa esaten diote, zinema egitea politika egiteko modu bat ez balitz bezala, ezta? Pequeño Casinon ikusi nuen bart, nola gustatzen zaidan areto hori..., xarma du, ezta?; beste zinema aretoek baino askoz ere xarma gehiago, Savoy edo Miramar edo Amaya... ezta? Zuei zein gus-

tatzen zaizue? Donostiako zinema-aretoak *pasada* bat dira...

Lazkano isilik geratu zen, galderak egin ahala bere buruari erantzuten zizkion neska harekin ez baitzegoen jakiterik benetan noiz espero zuen ihardespena eta noiz buruaz baiezkoa egitea. Isilik geratu zen, baita ere, neskaren ahotik «ezta» bat gehiago espero eta orduko hartan esan ez zuelako -hogei zenbatu izan zizkion inoiz solilokio bakarrean-.

Zeberiori begiratu zion Lazkanok, hizketan ausartu gabe. Beharbada orduan hartu zuen estreinakoz Diegok bere gaitasunen kontzientzia. Berak hainbeste miresten zituen Soto eta Zeberiorekin buruz buru mintzatzeko gai zela, zergatik ez, ez zegoela bere bi idoloetatik hain urrun ere, eta zertan eta nola, haiek bezain ona edo hobea izan zitekeela. Soto eta Zeberioren presentzian, Lazkanok beti uzten zien haiei lehen hitza, beti geratzen zen itzalpean, beti izan ohi zen hirugarrena erantzuten, eta zuzenean hari galdetu ezean, isilik geratuko zen gehienetan.

- Niri Astoria gustatzen zaidan -esan zuen azkenean Zeberio, hitz haien bila urrutira joanda.

- Astoria ondo zagok, baina ez ditzitek hain pelikula onak jartzen.

Lazkanok ez zuen sekula Zeberioak une hartan jarri zuen aurpegia ahaztuko: apaletsia, desengainatua. Berealdiko ahalegina egin behar izan zuen hitz haiek esateko, «Niri Astoria gustatzen zaidan», eta *la bella* Inesek -hura ez jabetu arren- gutxietsi egin zuen Ke-paren hautua.

Agian denok bizi dugu geurea ez den bizitza. Alteri-dadearen junkie besterik ez gara, dosiaren bila beti.

Edo geure deitzen diogun bizitza hori geurea da zinez, baina geuretasuna erlatiboa da, imitazioz osatu dugulako eta gomutaz, ispilu jokoan bidez; geure deitzen diogun bizitza hori erreferentziala da beharbada ehuneko ehunean, mailegatutako desioen pilaketa bat gara: ez soilik umetan miretsi genituen haien, hezi gintuzten haien, imitatu ditugun filmetako protagonis-ten nahasketa baitezpadakoa -hori, jakina bagarela-, baizik eta baita ere, zergatik ez, miretsi, hezi eta imi-tatu ditugun haien desioen pilaketa, haiek benetan zerk mugitzen zituen eta zer desio izan zuten jakingo bagenu bezala, haiek zer desio izan zuten jakingo ba-lute bezala; miretsi eta imitatu ditugun haien *balizko* desioen pilaketa konfusoa, beraz, geure berezko ahal-

bideetatik eta bokaziotik gero eta gehiago urruntzen dena eskema aurrez ezarrietan sartzeko, inposatu dizkiguten bastidoreetatik kanpo ateratzeko indarririk gabe. Imitatzen ditugun haien desioak, portaerak eta motibazioak benetan ezagutuko bagenitu bezala. Mailegatutako nortasunak sinetsi egin ditugu eta mailegatutako nortasun horiek duten balizko kapitalarekin nortasun berriak hartu maileguan, eta horri, *nia* deitzen diogu, baina sentimenduetara aplikatutako finantza ingeniaritza faltsua besterik ez da, iruzurra: mailegatutako nortasun bat beste nortasun berri bat maileguan hartzen, abiapuntuko aurrezki eta kapitalik gabe. Geurez eta barrutik zer desio dugun ez dakigu garbi, ez diogu sekula geure buruari galdetu.

Noiz hasi zen hau? Beti izan da horrela? Familia erakundea eta poro guztietatik ziztatu diguten ikonografia erlijioso nahiz sexualaren indarra dira geure buruarengandik eta geure bokaziotik hainbeste urrundu izanaren errudun bakarrak? Posible ote da autentiko izatea erridikulu sentitu gabe eta gizarte araei men eginez? Ze zerikusi du autentiko izateak norbera izatearekin? Ba ote dago hortik ihes egiteko modurik?

Ez. Ez dago. Ez, bederen, txikota hautsi gabe, ez geure ingurunearekin haserretu gabe.

Diego Lazkanok sinetsi nahi zuen egon behar zuela orijinaltasunera eta norbere buruaren benetako bulkadetara itzultzeko modu bat, denoi inposatu diguten nortasun estandarrari koefiziente zuzentzaile bat ezartzea posible zela, eta horretarako gorrotoa eta nazka sortzen diguten gauza horiek aztertzea zela interesgarria, horietan aztarrika egitea, disgustuko genituen lekuak bisitatu eta atzeraka eragiten ziguten pertsonekin egotera geure burua behartzea, horrela aurkitzen zelako norbere benetako nortasuna, gorroto horietan eta disgustu horietan aztarrika eginez, geure harridurarako, zerbait pizgarria eta gustukoa topatzen genuen tarteka. Eta horrek aldatu egiten zuen munduari eta mundutarrei begiratzeko gure modua. Errazagoa zen esatea, ordea, egitea baino.

Denen kontua zen, ziur. Baina Diego Lazkanoren kasuan handiagoa zen zama, kontzientea zelako gehienentzat inkontzientea zen nortasun mailegatuen kontu hura. Bi itzalengandik hartzen zuen Diegok bazka, bi itzal haietatik elikatzen zen, bi itzal haiei utzi zien bere buruan habia egiten. Soto eta Zeberio, Zeberio eta Soto, haien orde z bizi ote zeneko sentipen hura urteetan luzatua, haien orde z bizitzea eta haiek biziko ez zutena bizitzea bere erantzukizuna balitz be-

zala -baina ez zen!-, bizitza bakarrean hiru bizitza bi-
zitzea posible balitz bezala.

Urte asko pasatu zituen Diego Lazkanok Ines ikusi-
gabe. Urteekin gertatzen da, garai batean egunkarie-
tan agertzen zenak ateratzeari uzten diola, eta sasoi
hartan gutxien espero genuena hasten dela agertzen.
Halako zerbait gertatu zen Lazkanorekin eta Inesekin,
lehenbizikoa, bere liburuen arrakasta zela kausa ager-
tzen hasi baitzen sarri-sarri, eta Ines berriz, erabat de-
sagertu. Zinemaldiko festa aspergarri batean topo
egin zuten, non bestela, Lazkano erdi derrigortuta
joan zen horietako batean. Hogeita hamar kilo eta al-
kohol litro asko pasatu ziren Inesen gorputzetik, eta
hasieran kostatu egin zitzaion hura ezagutzea.

- Bai festa aspergarria, ezta? Gogoratzen haiz
nitaz, ezta?

Ahotsak egin zuen etengailuarena, errepikaren
musikak.

Ia-ia hanka sartu zuen, «*La bella Ines!*», oihukatzeko-
kotan egon baitzen Diego. Zorionez garaiz erreprimitu
zen.

- ...Ines!

Ez ziren gaueko hamaikak, eta balantzaka ari zen jada takoi en gainean. Hortzak bereak zituen, baina lekuz mugitu zitzaizkiola ematen zuen. Onartu beharra zeukan hartutako kiloak ez zirela guztiz haren kaltetan: erabat galdua zuen garai bateko itxura androginoa. Gorputza bularren mailan zegoen orain.

Lepoan jarri zion eskua, kopa eta guzti, eta Diegok beldur izan zuen edalontziaren isurkina jakaren gainera botako ote zion.

- Lazkano, Lazkano, zahartu gaituk ederki...

«Hi bai behintzat», pentsatu zuen Diegok, banitateari men eginik, bere burua eskatu ez zituen iritzi desatseginetatik gotortu guran.

- Badakik zer ezizen jarri genian antzerki taldean, ezta?

Gotorlekua arriskuan. *La bella* goitzenaren jabe zen eme koitadua, berari min egiteko arma sekretu baten jabe.

- Printze Txikia.

- Printze Txikia?

- Ezin diat sinetsi... Ez dik inork lehenago esan?

Erreakzionatu beharra dauka: «Bai, jakina, baina ahaztuta neukanan».

- Ilehoria eta xerlo kiribilekin, printze txiki bat ematen huen, umetxo bat, begi gris horiekin. Eta beti hain dotore jantzita, alkandora galtzen barruan, amaxok erositako arrokekin, ezta? Haiek garaiak haiek!

Sutu egin zen Lazkano, belarri-kopetak gori.

- Ez dik ematen gaur gauean Ken Loach etorriko denik. Zergatik ez gaituk hi eta ni leku diskretuago batera joaten? Ez nauk hemendik urrun bizi...

Orduan piztu zitzaion Zeberioen gomuta. Zein gustuko zuen Zeberioek Ines -«Niri Astoria gustatzen zaidan»- eta nola desagerrarazi zuten lurrazaletik laguna haren amets eta fantasietarik ia bakar bat ere gauzatuta ikusteko aukerarik eman gabe. Bai, oheratu egingo zen Ines mozkorrarekin, kosta lain kosta. Zeberiori zor zion.

- Urduri hago, ezta?

Urduritasuna gogo faltaren mozorroa zen kasu hartan. Inesen etxeko intsentsu usainak eta leihoetan errezel modura zintzilikatutako *foulard* elefantedunek ez zuten gehiegi laguntzen.

- Lagunduko diat nik.

Domino piezak legetxe, bata bestearen segidan erortzeko zorian ziruditen hortzei arreta inefablea jarritz musukatu zuen Inesen ahoa. Inesen hatz lakarrak

sentitu zituen zakilari oratzen. Ora et labora. «Ni nire buztana banintz», pentsatu zuen Lazkanok, «korrika ihes egingo nuke esku horietatik». Baina Diego ez zen Diegoren buztana, eta hark bere kasako planak zituen, aurki jabetuko zenez.

- Gustatzen zaik, ezta?

«Ez gehiegi», berak bere artean. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak. Are gutxiago gustatu zitzaion zamalkatzen zuen bitartean «printze txiki» deitzea behin eta berriro, «hire esnea nahi diat, printze txiki» esaldia ez zen Diegoren esaldi kitzikagarrien zerrendako lehen postuetan ageri. Egongo ote zen Zeberiorenean? Derrigortua sentitu zen Inesekin oheratzen zen bitartean Zeberiorekin akordatzera, «hi ari haiz larrutan, Kepa, ala ni ari nauk baina hire ordezt, hire omezt, hik egin ezin izan huena egiten diat hire partez, maite haudala erakusteko?».

Keparen zer oroitzapen gorde ote zuen Inesek elkarrekin kafea hartu zuten aldi hartaz? Zergatik ez zion oroitzapen horri buruz Inesi galdetu, besterik gabe? Zergatik ez ziren elkarrekin une hura berregituen saiatu, kontraesanak konpartituz -«ez, hori ez zen horrela izan, sukaldean hartu genian kafea, ez salan; ez zuan Joy Division, New Order zuan»-, bien artean

memoriaren iruzurrak agerian jartzen saiatuz? Horren ordez, zer eta Zeberioen aspaldiko fantasia gauzatzeko saiatu zen Lazkano, *foulardetako* elefante eta in-tsentsu usainaren artean, dekadentziaren arroilan, modu erabat zentzugabean.

Kondoari korapiloa egin eta bertan pilatutako haziari so geratu zen Ines, akuarioko arrainak ikustea esperoko bailuen.

Agian oraindik bazegoen zentzuzko zerbait egiteko aukera bat: gosaritara geratu eta Zeberiori buruz galdetu beharko lioke Inesi. Zer sentitu ote zuen hura desagertu zela jakin zuenean. Inarrosi ote zion batere barrua. Diegok ez zuen, ordea, geratzeko indarrik izan. *La bella* Ines lo utzi eta kostata aurkitu zuen kanporako atea, kako batetik zintzilikatutako uniforme urdinak tapatzen zuena: Bidegi errepide-ordainlekuko uniformearen zen, gizonetzkoarena. Diegok nahiago izan zuen haren jabeari buruz deus ez pentsatu.

Hori da onena. Amiltzeko arriskua, eta berriro ere amiltzeko aukera izango duzula jakitea.

Fabian eta Fabian dira. Fabian esaten diote elkarri kapusaiaren petik. Komedianteak balira bezala.

- ¿Te gusta el teatro, verdad? A Fabián también le gusta... Él es muy teatrero, ¿sabes? Lo suyo era el escenario, pero lo tuvo que dejar porque no le daba para vivir. Ahora es él quien se encarga del reparto.

- ¿Te haces cargo de lo que quiere decir que soy yo quien reparte?

Diegori argazki sorta bat erakutsi diote bi gizon kapusaidunek.

- Ezagutzen duk hau?

Lotuta dagoen aulkiko hankari ostikoak ematen dizkiote galdera bakoitzarekin aulkia balantzaraziz, ez lurrera erortzeko adina indarrez, hala ere. Bai, ordea, aulkian *eserita* dagoena apurka-apurka zorabiatzen joateko moduan.

- Ezagutzen duk hau?

Diegok ez du argazkietako inor ezagutzen, eta egia esaten du: arrastorik ere ez daukala. Hori esaten duen bakoitzeko, ordea, sabelean ukabilkatzen du batek, besteak sorbaldan atximur samur erabat nahasgarria egitearekin batera aulki-bizkarrari eusten dion bitartean.

Hain gaizki ari da sentitzen, argazki sorta hartan norbait ezaguna ikusteko irrikaz baitago. «Ager dadila

norbait, baiezkoa esango dizuet, ezagutzen dudala. Baina ager dadila norbait ezaguna, jainkoarren».

Azkenean norbait: ez komandokidea, ez militantzian sartutako inor, Herrerako kinki bat baizik, dosia ziztatzeko alpargata-denda bat lapurtzeko gai izan zen gizagaixo desesperatu bat, denek ezagutzen zutena. Bere txanda iritsi dela iruditu zaio Diegori.

- Hau bai, ezagutzen dut.

Bat ez, bi ukabilkada eman dizkiote oraingoan sa-belean, eta, harrigarriago, eskuarki sorbaldan atximur samurra egiten dion gizonak zakar jo dio esku ahurraz kokotean.

- Adarra jotzen, ala? Hori denok ezagutzen diagu.

Orduan hasi da Diego Lazkano torturaren mekanika ulertzen: logikarik ezean oinarritzen da galdetegia, torturatuak hurrengo pausoa eta hurrengo erreakzioa zein izango den sekula ez jakitean datza kontua. Zure nortasuna ezabatzen dute horrela, kirioak airean jarri eta dena izu eta dena noraez uzten zaituzte, eta orduan, beraien esku eta menera erabat, konfesioa bihurtzen da seko burutik ez egiteko bide bakar. Ez duzu lagunak salatzea beste biderik ikusten, eta zeure burua gorrotatzen baduzu ere, hain besterendua eta nortasunik gabea da une hartan gorrotatzen duzun

zeu itxuragabetu hori, beste norbait gorrotatzearen parekoa baita. Beste norbait, zugana intimoki lotua, baina zu ez zarena.

Azazkalen azpian orratzak jarri dizkiote.

- Aplikatuko diogu Boger kolunpioa, Fabian?

- Atzerriko teknika bat? Ez, Boger kolunpioa ez...

Lazkanok Boger kolunpioa zer den ideiarik ere ez dauka. Odola dario azazkalen petik. *Como una Ola* jarri diote irratikasetean, topera, Rocio Juradoren ahotsean. «Ez nazazu musika horrekin torturatu».

Kantari hasi da Fabian:

- «Fui tan feliz en tus brazos, fui tan feliz en tu puerto...».

- Él es muy teatrero, ¿sabes?

Ezpainen eta hortzen artean metal puska sartu eta muturreko bat eman diote. Lurrera tu egindakoan ikusi du Francoren irudia duen txanpon bat dela, «sentí en mis labios tus labios de amapola, como una ola».

«Ez nazazue askatu», pentsatzen du Lazkanok, «panpina izaten segitu behar badut, segituko dut, baina nahiago dut zuen eskuetan eta eskumuturrak lotuta, ez nazazue eskuburdinak askatuz saritu, daki-dan guztia esan ondoren ere segitu ezazue ni limoi-

azal bat bezala zukutzen, nitaz ezer geratzen ez den arte, arren. Txikitu nazazue. Merezi dut».

Ahuspez etzanarazi eta aulkiaren hanketako bat jarri diote belaun atzean. Gero, aulki gainean eseri da haietako bat. Oin zolak zulatu eta erre dizkiote. Tena-zekin oineko hatz txikia zanpatu diotenean esan du. Ez du gehiago itxoin. Ez diote Boger kolunpioa aplikatu behar izan. *Aplikatu* edo *praktikatu*? Batek daki.

- Moulinaou karrikan -esan du.

- ¿Dónde hostias está eso?

- Angelun.

Sototik komisaldegiko bulegoetara aterako dutela espero du Lazkanok, bere xaloan. Ez daude, ordea, komisaldegiko ziegan, beste nonbait baizik. Ohartu behar zuen horretaz, baina haluzinatuegi dago xehe-tasun horietaz jabetzeko, gertaera zoro haiei denbora bat eta espazio bat eransteke. Etxalde handi eta apartatu bat, kalean hotsik ez: ez auto, ez ezer. Muino batean egotearen traza du eraikinak. Txoriak bakarrik, txoriak ari dira han kanpoan kantari, ezaxola. Eskaile-ra haiek igotakoan, leiho handi bat ikusi du eta leihora hurbildu ahala besoetatik lotuta daramaten bi gizon-ek, Fabian eta Fabian, ukondoetatik estu dakartenek, apur bat presioa lasatu dutela iruditu zaio, leihora hur-

bildu ahala bere buruaz beste egiteko aukera emango baliote bezala, hala bururatu zaio, «jauzi egin ezak leihotik eta erredimitu heure traizioa potrorik badaukak»; bai, gonbita da, panpina izateari utziko dio, traïdore izateari utziko dio, jauzi bat eta bere buruari sekula gehiago ispiluan begiratu beharrik ez, leihoa zabalik dago, handik dator txorien kantua, «egin jauzi Lazkano, animo, ez hadi hain koldarra izan, txoriek eskatzen ditek eta, erakuts ezak orain lehenago izan ez duan adorea. Egik hegaz».

Eta hala egin du Lazkanok.

Bere bi zaindareiek utzi egin diote joaten -ongi daki, haien *gonbita* izan da, orain ez dauka dudarik-, sorbalda bastidorean bermatuz jauzi egin du leihotik, begiak itxita. Bizkarrez erori da garo artera, aurki ikusi ditu Fabian eta Fabian leihoan barrez, apenas erori den metro eta erdi, «tortura amaitua zelakoan Lazkano? Ez, horratik, hire suizidio ahalegin patetikoa ere pentsatuta zegoan, hire nortasuna birrintzeko azken koska baino ez duk izan» -azkena? Ziur ezetz... *show must go on!*-.

- Ikusten duk, Fabian?

- Ez nian uste ausartuko zenik. Hala ere, ez dik jauzi egindakoan oihurik egin... «Gora Euskadi askatu-ta» edo halako aldarriren bat espero nian nik.

Fabian gizenak apustu egindako hogeituroko hiru billete marroixkak luzatu dizkio Fabian altuari, oso teatreroa omen denari. Bi metroko luzera apenas duen leihotik atera dira biak. Zutitzen lagundu dioten bi gizon kapusaidunei gehiago ez begiratzea erabaki du Lazkano apaletsiak. Gero, atxilotuak gehiegi ikusi duela erabaki balute bezala, berari jarri diote antifaz beltz itsua, autoko maletategian sarrarazi aitzin. Han egon da arratsalde osoan. Ez dute autoa lekutik mugitu. Kanpoan freskoago da askoz ere, maletategitik atera eta atzera lehengo ziegara eraman dutenean.

Soto eta Zeberioen oihuen oihartzunak entzun uste ditu ondoko korridoreetan.

- Ezagutzen dituk hire lagunak oihuak?

Harrapatu dituzte. Moulinaou karrikan. Angelun.

Zalantzarik gabe, haiek dira. Zeberioen ahots grabea egiten zaio bereziki deigarri, hain ohitua zegoen haren isiltasunera eta diskreziora. Xuxurlatuak eta ahapekakoak ez beste edonolakoak dira haren uluak.

Azkenean, Diego libre utziko dute. Pentsatu modu honetan: batzuetan mendeku bat izan liteke besteak atxikita dauzkaten bitartean zu libre uztea.

- Ez diguk ezer askotarako balio izan, baina tira. Antzerki talde batean ibilia haizelako eta nire lagun Fabiani antzerkia gustatzen zaiolako, utzi egingo haugu.

Diego esatekotan egon da berak gorroto duela antzerkia, Soto dela benetan antzerkia gustatzen zaiona, baina ez du halakorik egin. Txintik esan gabe geratu da.

- Lehenbizi mesede bat egingo dizugu, ordea. Fabianek labana atera du.

Ezustean harrapatu zuen Lazkano Idoiaren deiak. Angelutik Lillera eta Lilletik Donostiara bueltatu zene-tik ez zuen haren berririk. Anaren berriak, zeharka ba-karririk izaten zituen, tarteka: bi ume zituela eta liburu-tegian jarraitzen zuela lanean, baina bulegoetan. Je-feetakoa zela. Larratxon-edo bizi zen eta ez zuen hi-rian inoiz ikusten, haren begi berde atxarolatuekin eta hogeituro urteko gorputz orbangabearekin goizero akor-datzen zen arren. Maite zuen oraindik, koldarki ihes

egin diozun zorion ukigabe bat soilik maita daitekeen eran.

- Elkarrizketa bat egin nahi nizuke...

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada: *Egin* utzi eta *El Mundoren* Bilboko delegazioan hasia zen lanean Idoia.

Haien bigarren bizitzako kafetegi bat aukeratu beharrean -lagun bilakatu zirenekoa-, haien lehen bizitzako bat hautatu zuten -bikote izan zirenekoa-. Elkarrizketaren ondoren garagardo bana hartzen geratu dira Barandiaranen, gustura. Badute elkarri zer kontatu. Idoiaren amak minbizia dauka, ertza jiratzeko ordua dela erakusten ari zaie bizitza.

Ironia krudela: bere amak ere baduela aitortu dio Diegok, duela bi hilabete jakin zutela. Eta aita desagertu egin zela sekula berriz ez agertzeko, demen-tziak jota. Bien artean ezustean sortu den komunikazio berri horrekin harrিতuta, «*baizea*, zer esaten didazu?» zintzo bat atera zaio Idoiari Diego beste garai batera eramanez duen aho biribil, zoragarritik. Gaztetatik izan du ahots polita, antzerki taldean sartzeko erreguei entzungor egin zien arren beti. Beste garagardo bat eskatu dute, gurasoen tumoreen gaiztotasun gradu eta sendatzeko aukeren portzentajeaz, elikadura aldake-

ten onurez, jaki gorrien desegokiaz eta bestelakoez hizketan. Asko dakite gaiari buruz. Idoiak Diegok baino gehiago, eta hori ez da seinale ona Idoiaren amarentzat, ebatzi du Diegok. Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta larriagoa gaixotasuna.

«Idoia ez da urteotan batere aldatu, ez behintzat ni adina, eta hori ez da berri ona niretzat», ebatzi du segidan Diegok.

- Ez nuen uste gaixotasunak zenbakiekin hainbeste zerikusi zuenik. Dena dira indizeak.

- Zenbakiek lasaitu egiten dute jendea.

- Jendea ez dakit, baina medikuak ikaragarri.

Gurasoen gaixotasunak. Seinale bat: ez dira urte asko pasatuko gure gaixotasun bihur daitezten. Garaiz gauden bitartean esan beharko genizkioke elkarri behiala isilik utzitakoak, damurik eta konplexurik gabe -adibidez: «Mindu egin ninduen zure nirekiko indiferentzia sor, gogor plantako hark, Dario Fori buruzko nire artikulua atzeratzeak»-. Esan behar lioke: «Maite nuen zure lepoari kosk egitea, oheratu beharko genukeela iradokitzeke zure modua, ohean nola itxoiten zenidan biluzik eta irribarrez, nola urratzen eta laztantzen zenuen horma begiak itxita nire aurpegian eseri eta uzkia nire ahoari eskaintzen zenionean, damu dut

goiz gehiagotan zurekin ez esnatu izana». Baina damurik ezetz esan dugu. Elkarrekin zer edo zer izan dezaketen iradokizunaren amurik ere ez. Ez damu eta ez amu, beraz. Hikara pasatzea erabaki du Lazkanok, garai zaharrengatik:

- Remiroekin segitzen dun?

Mikel Remiro. Silvio Rodriguez. *La pluma y la trova*.

Bost zenbakia egin du eskuaz ezkon-eraztuna erakusteko, apur bat etsita. Hala iruditu zaio Diego Lazkanori.

Seme-alabarik ez daukatela esan dio: saiatu dira, baina ez dira haurdun geratu. «Mikelek ezin du». Adopzioan pentsatzen ari dira orain. Txina, Ukraina, Maroko. Haginlariarekin kontsulta zeukan bostetan Lazkanok, baina ez dio ezer esan. Ez du hitzordua bertan behera uzteko deitu ere egin. Euria hasi du kanpoan eta gustura daude lehorrean, goraino bete da kafe-tegia, ikusleak dituzte orain, giroa ez da batere intimoa, denen bistara daude. Hau da unea, elkar agurtu behar lukete eta onena -txarrena- opatu elkarren amen barruko zomorro errizomatikoen bilakaerari. Baina ez dute nahi. Solasean jarraitzeko, ordea, hitz egin ezindiren gauzei buruz hizketan hasi beharko lu-

kete, eta hori ere ez dute nahi. Dagoeneko aletu dituzte lagun zaharren kurrikuloak, haietako zenbaiten lehen dibortzioak eta banantzeak -enfasia berezia hemen, «asko gara frakasatzen dugunak»-, garai zaharretako tabernen izen eta giro aldaketak, eta are, *haien garaian* normalean mintzagai izaten ez zuten politika ere astindu dute. Berriro daude hasieran.

- Gogorra izan zen Soto eta Zeberioarena.

«Gogorra izan da, gogorra izaten ari da», pentsatu du Lazkanok. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

Gauza asko esan nahi lizkioke Diegok garai bateko lagun galduari («ahul nago, ahul gaude biok», ahul gaudenean esaten ditugun gauzak), baina badaki zenbait kontu intimo esateko giro are intimoagoa behar dela, eta mundutik kanpo legokeen gela zuri bateko ohean, izara guztiak zuri eta biak biluzik, egoera hartan bakarrik esan ahalko lizkiokeela buruan dauzkan hortik aurrerako gehienak. Galdera asko egin nahi lizkioke eta galdera asko egiteko eskatu. Zintzoki erantzuteko denak elkarri, enbor moztuan eraztunak zenbatzen dituenak bezala bizkarrezurra ornoz orno hartzaz laztantzen diotelarik bata besteari, batzuetan elkarri begiraturaz, biluzik eta gela zuri batean, zenbat zahartu diren ziurtatzeko elkar zelataturaz, eta hurrena,

psikoterapia bezala, mingarriegiak diren zenbait gauza elkarri esanez, are mingarriago izan daitezkeen beste zenbait elkarri ez esatea erabakiz.

Lazkanoren etxean gauzatu da elkarrizketa: Diego Idoiaren gainean etzanda, puzten ari zaion zakila neska-karen ipur-ildoan geldirik, eta Idoia esku biak kokotsean bilduta, ile kaobaz tindatua mataza luzean bizkarrean behera goma batez lotua, behiala *garçon* erara moztutakoaren arrastorik ez, leihorantz begira biak eta ez elkarri zuzenean begietara. Dena zuri den gela batean biak biluzik. Biak gela horretatik kanpoko mundu malerusa leun deitoratuz.

Esan nahi lioke eta esan egiten dio: «Ezagutzen ez nituen plazer eta bideak ikasi nitinan hiri esker». Esan nahi lioke eta esan egiten dio: «Oroitzapen onak baka-rrik geratzen zaizkidan hitaz». Esan nahi lioke eta esan egiten dio: «Sasoia ez alferrik galdu izana zor dinat». Esan nahi lioke eta esan egiten dio: «Badun desio funtzional bat, badun funtzionatzen laguntzen digun desioaren eraikuntza bat eta hik parte hartu dun nire desio funtzional horren eraikuntzan. Inportantea haiz niretzat, azken urteotan batere ikusi ez haudan arren. Edo inportantea dun desio funtzional hori».

Esan nahi lizkioke eta esan egiten dizkio, baina une batean gauza haietako asko Idoiari barik Anari esan behar lizkiokeela, horrexek zeharkatzen dio gogoia.

- Ez diat ezer berririk esaten baina, garden bagina, gure pentsamendu guztiak besteen eskura baleude, denok infernuan geundeke eta lotsatu zoriontsu batzuk ginateke... edo zoriontsu lotsati batzuk, ez zakiat... -esan dio Idoiak-. Zoriontsuak eta kriminalak -erantsi du gero.

- Heuk ematen dun idazlea -erantzun dio Diegok. Ahozko ping-pongian ona izaten jarraitzen du.

«Gizon mentolatuak gustuko izan gabe jarraitzen ote du?». Hunkitu egin da Lazkano, hunkitu egin dute Idoia Diegoren malkoek. Nola pitzatzen gaituen denborak. *¿Te molesta mi amor?*

«Hire kanta-hornitzailea izan nahi dinat berriz...».

Lagunak balira bezala agurtu behar zuten elkar Barandiaran kafetegian, elkarrizketa haiek eta oheko konfidentzia haiek saihestu, berehala eseriko ziren haiek libre utzitako mahaian bikote gazte irrikatsuak, maitasunaz hitz eginda anakroniko sentituko ez zirenak... Lagunak balira bezala agurtu behar zuten elkar, baina ez ziren lagun: maitale izandakoak ziren, elka-

rren berri izateari utzi ziotenak, gurasoak gaixorik zitu-
tuztenak, kafe bat hartu zutenak gai batzuk saihestuz
eta beste batzuetara tentuz hurbilduz, belarrira elka-
rri zenbait gauza xuxurlatu eta elkar biluztu zutenak
baldarki udako gauetan, kanpoko euritara atera be-
zain pronto euria haiek baino gutxiago zahartu zela
ohartuko zirenak berehala, ez zutenak borondaterik
norbere bizitzara besterik gabe bueltatzeko.

Nekatuegi zeuden, elkarren gainean biluzik etza-
teko desioari ameterik ez emateko.

LUZE gabe, bere gauzak hartu eta Diegoren etxera
etorri zen Idoia. Ekarki zuen ekipajea harrigarriro urria
iruditu zitzaion hasieran Lazkanori. Denboragarrenera
ulertu zuen bere senarrari utzi ziola dena, errudun-
edo sentitzen zela hura abandonatu izanaz eta halako
alarguntasun itxuratu bat laga ziola konpentsazio be-
zala, «ni ez naiz zurekin egongo, baina elkarrekin ge-
nituen gauza guztiek bere horretan iraungo dute zure-
kin, objektuak eta oroigarriak, elkarrekin erosiak edo
ez, praktikoak zein sinbolikoak, denak lehengo
etxean, zuk ikusi zer egin haiekin». Ez soilik zen elkar-
bizitza luzearen apurketaz eta haustura sentimentalaz

haraindikoa arazo gehiago ez sortzeko borondatea, bai-
zik eta baita Diego Lazkanorekiko entrega erabatekoa
ere, pentsatu nahi zuen azken honek, bien artekoa
gaizki ateraz gero ezer gabe geratuko baitzen Idoia,
eta Diegoren bizitza materiala ere konpartitu nahi iza-
tea, haren sukaldeko gailuak eta izarak, haren sofara-
ko mantak eta terrazako aulkiak, haren azazkalak
mozteko guraizeak eta haren ile-lehorgailua –hau bai,
zerbait definitiboa zen–, zion maitasun baldintzaga-
bearen seinaleztat jotzen zuen: esan nahi balu bezala,
«sinesten diat harreman honetan, itsu-itsuan sinetsi
ere, hi haiz nire bizitzako apustua, ez zagok nire bu-
ruan gure artekoak huts egin eta pitzatzeko aukera
mendreenarentzat lekurik, ez zagok B planik».

Eta ondo joan ziren gauzak lehen hilabeteetan,
Idoia egokitu zen habitat berrira, Diegoren ordutegi bi-
txietara –gauetz lan egiten zuen beti–, haren eskrito-
ria eta lantokia giltzaz ixteko neurosi ulergaitzera,
hasieran interesgarri, gero barregarri eta azkenean
amorragarri bilakatuko zitzaion sekretismo gehiegiz-
kora, haren umore aldaketa aurreikusi ezinezkoetara,
seme-alabarik ez izateko bere arrazoibide bihurrietara
(«gene kaxkarrak ditinat, zuhaitz genealogikoari azke-
na emateko garaia dun»).

Xehetasun guztiekin azaldu zion Diegok Idoiari, aurrez inori hain garbi sekula esan ez ziona, bere ahotik irten ahala bera ere harrituz: nola eta noiz egin zizkioten marka haiek, «lehenbizi mesede bat egingo dizugu», Soto eta Zeberio Moulinaou karrikan zeudela aitortu ostean -«¿Dónde hostias está eso?»; «Angelun»-, orduan, jada esan beharrekoak esanda eta torturaztaileek jakin nahi zutena jakinda zegoenean, bere buruaz beste egiten saiatu zenean, orduan eta ez lehenago jarri zizkioten hizki haiek, poliziak berak ez, baizik eta bere kideek ezarriko zioten izenondoa gomutara ekarriz: ez zuten terrorista, bahitzaile edo hiltzaile izendatzen Diego, ez zizkioten GAL inzialak jaritzen, ez, egia izkiriartzen zioten. Torturapean, bai, baina salatu egin zituen bere kideetako bi, zer eta benetakoak iritsi ez zirelako jostailuzko armekin banku sukurtsal bat lapurtu zutelako sasian zeudenak, krimenerako eta damurako kimu berriegiak zirenak oraindik, biak bera baino zaharragoak izanagatik zelula lokartuegi oraindik.

Soto izan balitz harrapatu zutena eta ez bera, salatuko ote zituen Zeberio eta Lazkano? Hori ez zuen inoiz jakingo.

- ¡Con be, no, ignorante! ¡Es con uve!

Huraxe entzun zuenean oraindik ezin imajina zezakeen zertan ari zitzaizkion han bizkarrean, azazkalak eta oinetako zolak sartu zizkioten orratz txikiengatik minbera oraindik, zolan ez delako nonbait markarik geratzen, primateengandik jaso dugulako oinen pean arantzak zapaldu eta aurrerantz segitzeko gaitasun hori. Eta Lazkanoren bizkar fartsa hura. Bietako batek hitz hura bez idazten zelauste ote zuen benetan? Ez zen ezinezkoa ere, nahiz eta une hartan pairamen hura guztia bere garuna birrintzeko estrategia neurtua begitandu zitzaion, hainbestetan errepikatua eta funtzionatzen zuena, bai funtzionatu ere, Fabian eta Fabian tatuatzen ari zitzaizkion hitz hura zein zen ezin atzemateak eragiten zion sufrikarioa ez baitzen oinen pean eta azazkalen pean zituen ebakiena baino txikiago, «zertan ari dituk, zein hitz idazten duk bada uverekin eta ez berekin?».

- Qué más dará, la dejamos con be.

Hara hor, polizia zintzo eta polizia gaiztoaren sailkapen topikoaz haraindiko beste bat: alfabetatu gabea eta alfabetatua.

Bizkarrean eraman behar izan zuen beraz sormarka, ispiluan hainbestetan begiratu zuena, inori erakustera ausartzen ez zena, epaitegietara eramate-

ko lotsagarriegia (total, *norbere buruari* eragindakoak ei ziren halako zauriak, epai bat baino gehiago emanak ziren zentzu horretan).

Hitz hura. *Chibato*. Ortografia akats eta guzti. Egia zelako. Torturapean izanagatik bi lagun salatu zituelako -«Moulinaou karrikan»; «Angelun»-. Bi lagun horietako baten ordezkari egon behar zuelako. Ez zeukalako gidatzeko baimenik. Gidatzeko baimenik ez izateak aldatu zuelako bere hasierako zeregina, nozitu zuena baino tortura gogorragoak jasatera eta heriotzara eramango zuena.

Idoiari kontatu ez ziona, jakina, libre utzi zutenean egin zuena izan zen. Nola joan zen Angelura eta nola topatu zuen Soto eta Zeberio ezkututzen zireneko Moulinaou karrikako etxea erdi hutsik, eta nola topatu zituen apopilo zeuzkaten etxearen jabeak kezkatuta, eta nola lilegorria ondoko bistro batean atezuan zegoen, fidagaitz, berarengana hurbildu gabe, eta nola, Sotoren paranoia gogoan, haren gelan bakarrik geratu zenean hura goitik behera miatu zuen, Faulknerren liburua aurkituz, *Mientras agonizo*, eta izokin koloreko karpeta, eta bertan Sotoren orijinal mekanografiatu guztiak, inork ez atzemateko moduan ezkutatuta

manta baten azpian, negurako tapakien artean gozo, armairuaren goiko aldean.

Eta Idoiak, letra haien aztarrenik ez zen arren aspaldian Diegoren bizkarrean, ikusi egiten zuen, ikusi egiten zuen *chibato* hura, eta salataria ere ikusten zuen. Bere burua hain modu errazean Diegoren besotetan erortzen utzi izanaz damutzen hasi zen orduan pixka bat, nahiz eta bazekien ez zeukala horretarako eskubiderik, ez zela Diego errudun, bazuela nahikoa lan eta tormentu, urte haietan guztietan bere insomnioarekin larrutik ordaindua zuela ordaindu beharrekoa, bera torturatu zutenak libre ibiliko zirenean kaletan barrena, handik ez oso urruti agian, galoirik galdu gabe eta dominaren bat irabazita akaso aberriari egindako zerbitzu eskergaitzak medio.

Lanean gero eta okerrago zegoen Idoia. Asko kexatzen zen, bereziki, irratirako kolaborazioak eskatzen hasi zitzaizkionetik. «Kazetaritza integrala». Batere erreparorik gabe ari ziren langileak ustiatzen.

- Zer zion zuen estatutuak? Ziur eskatzen dizuete-na ez dela legezkoa...

«Hain erraza balitz», Idoiak bere artean. Egiaz, apenas elkar ikusten zuten: Idoia etxera iristean lanean izaten zen Diego bulegoan giltzapetuta, idazten. Bakarrik afaltzen zuen. Diego oheratzerako izaten ziren goizeko seiak edo zazpiak. Ordubete elkarrekin ohean egin orduko jaikitzen zen Idoia autobusa hartu eta lanera abiatzeko. Modu sonanbuloan baino ezin larritan egin horrela.

Asteburuetan egoten ziren soilik elkarrekin, eta orduan ere ez ganora handiz: *El Mundo* baztertu eta *Berria* irakurtzen zuen Diegok eguerdian, modu iraingarri samarrean Idoiak lan egiten zuen berripapera baztertuz. Diegok pomelo ura eta kafea hartzen zituen bitartean -bere gosaria-, bazkari legea egiten zuen Idoiak. Horretan ere ezin bat etorri. Aldebiko *jet lag* etengabea zen haien artekoa.

- Egunkaria uztea pentsatzen ari nauk.
- Utzi bada... Diru arazorik ez dinagu.
- Ez diat utziko beste zerbait izan arte.
- Lana lortuko dinat irakurle bezala, nahi badun...

interesatzen zain?

- Irakurle bezala?

- Fedek beti behar izaten ditin irakurleak argitale-txean... Ez zioten ezer irauten, badakin zein erretxina den. Probatzeagatik...

- Txostenak egiten dituzten irakurleak?

- Ez zehazki, ikusmen arazoak zauzkan: ozenki irakur diezaion norbait behar din. Hire ahotsarekin, nik uste...

Fede Epelde, Diegoren editorea. Hirurogei urteko triperre sibarita. Ez, eskerrik asko. Harekin lan egin baino, nahiago zuen orain arte bezala jarraitu.

EZ ziren hilabete asko igaro harreman hil bat harreman pizgarri batekin trukatu eta harreman pizgarri hura ere Idoiari gainbeheran hasi zitzaion arte. Gehiegi pentsatu gabe utzi zuen senarra, ez zitzaion hura uztea kostatu, pauso hura goiz edo berandu eman behar zuen seinale. Baina horrek ez zituen, inondik ere, hasitako harreman berriaren pitzaezintasuna eta iraunkortasuna bermatzen. Izatez, laster itzali zen txinparta. Jeloskorra zen Diego munduan jeloskorrik bazen. Idoiaren elkarrizketatu guztietan ikusten zuen arerio potentzial bat. Politika munduko jende menegela izan ohi zen batez ere, Idoia aspertu egiten zuen

jendea, baina elkarrizketatua elkarrizketatzailearen lepotik luzitzen zela iruditzen zitzaion Diegori beti, paranoiaren atarian. Kontuak okerrera egin zuen kultura saila berrindartu eta berriro ere, Idoiaren aspaldiko ilusio-gogoak berpiztuz, dantzari, antzezle eta idazleak elkarrizketatzen hasi zenean tarteka. Denak ziren mediokreak Diegoren iritziz, bigarren eskuko artistak, ezer egin gabe diru-laguntza publikoetatik bizi ziren parasitoak. Horregatik eman zion atentzioa, Txema Santamaria elkarrizketatu zuen egunean, Diegok harentzat hitz gozoak baino ez izateak.

- Hori bai tipo interesgarria. Lehen lerroan dabil-tzan izar usteko askoren ondoan, ondo amueblatuta zaukan burua.

Harritu egin zen Idoia, besteak beste, aspaldi hartan ezertan bat etortzen ez zirelako, eta behingoagatik, Idoia ere ados zegoelako, jaiotzatiko seduktore begitandu zitzaiolako Santamaria, ideiak oso garbi zituen, egiten zuena gutxiengo batentzat egiten zuela oso garbi zeukan argazkilaria zelako, Ilford markako karreteak etxean lege zaharrera errebelatzen zituen *retro* konbentzitua, kopia gutxi egin zale, egunkarietan eza-gutu zituen argazkilari guztiekiko hain ezberdin, inork zapaldu gabeko elurraren bila beti.

Harritu egin zen Idoia Diegoren iruzkinarekin, eta areago inarrosi zuen Lazkanok Txema adiskide min zuela jakiteak, gutxi egoten zirela aspaldiko urteotan, bere lehen libururako argazkia berak atera ziola, «inoiz atera didaten erretraturik onena». Idoiak arrazoia eman beste aukerarik ez zuen izan: ederra zen argazkia, argi-itzaletan aterea, irauteko egiten diren horietakoa. Antzerki taldeari egindako erretratuak erakutsi zizkion gero: Zeberio foku baten entxufea bufanda bailitzan lepoan korapilatuta, Groucho Marxez mozorrotuta Soto, Gloria batuta hartuta zuzendari lanetan, Diego eserita, Anari eta Sarari sorbaldatik heletzen ziela. Irribarretsu daude denak.

- Ana... Bikote ona egiten zenuten...

Egiaz esan du, baina mina emateko asmoz. Lanbrotu egin zaio soa Diegori. «Bai, goizero akordatzen naun harekin, abandonatu egin ninan, nik ere bazakinat inoren bizitzatik abisatu gabe desagertzen». Pentzatu eta esaten ez diren gauzak.

- Eta hau?

- *La bella* Ines deitzen genionan, ez haiz akordatzen? Etorri izan zunan gurekin manifestara...

- Agatha Christieren *Sagu-tranpan* agertzen zena?

- Berbera.

- Hain gazte zagok... Ez nian ezagutuko.

- Eta argazkilaria Txema, jakina. Nahi badun afaltzera gonbidatuko dinagu egun batean.

Idoia ados agertu zen hasieran, baina gero Diegori ideia burutik uxatzen saiatu zen. Ez zuen Txemarekin afaldu nahi, gehiegi gustatu zitzaion, Diegorekin kondenaturik zegoen errutina hartatik ateratzeko fuga puntua zatekeen, haren besoetara jauzi egingo lukeen maitalea zen argazkilaria hura, interesgarria baino zer-bait gehiago. Hori, jakina, ez zion Diegori horrela esan.

- Umorerik gabe gabiltzak biok ere aspaldion, aurrerago agian.

- Zer?

Diego bere munduan beti. Nazkatzen hasita zegoen Idoia, bi aldiz errepikatu behar izaten zion dena. «Zer?», «Nola?», behin esatea ez zen sekula aski, bere gogoetatan murgilduta bizi zen Diego; bikote bat horrela hasten denean, zer, nola, esan berriro, azkenetan den seinale. Baina azkenak asko iraun dezake. Betirako ere bai, batzuetan. Batez ere Idoiak bezala, ez zionean bere buruari aitortu nahi Lazkanorekin bizi zitea, haren alde apustu egitea, fitxa guztiak laukitxo berean jartzea, ekibokazio handia izan zela.

- Zer?

- Ez dela sasoirik onena gonbitetarako. Beharbada ez zaiok elkarrizketa gustatu... Bi orduz egon gintuan bere estudioan eta asko moztu behar izan diat... Deserosoa lukek.

- Tontakeriak. Grazia egin baietz hi eta biok elkarrekin gaudela jakiteak.

Eta Diego setatuta. «Deitu egingo zionat». Eta bai deitu ere. «Ez egin hori, Diego, ez al haiz jabetzen? Otsoa ari haiz etxean sartzen, hire lagunak traizionatu hituen behin torturapean, eta orain heure burua ari haiz traizionatzen, damutuko zaik, ez eman arnasarik lagun zahar hari: hi baino askoz ere interesgarriagoa duk».

Etiket kanpo afaltzea erabaki dute. Astegun buzurria da, erakusketa bat zabaltzera etorri da Txema Donostiara eta hemen pasatuko du astea; eta bai, *grazia* egin dio Diego eta Idoia elkarrekin daudela jakiteak. Txemari asko, ikaragarri gustatu zaio egunkarirako egin dion elkarrizketa, kortesiaz esaten diren hitzak (edo ez), «deitzeko asmoa nuen zorionak emateko». Bi ardo botila garesti hustu dituzte, barre egin dute gogotik, Diego eta Txema, Txema eta Diego, biak ala biak elkarren ondoan jarrita garbi dauka nor den

orijinalena, konformagaitzena, apasionatuena, egiten duen lanean gehien sinesten duena, «zer ari haiz Idoia, errepikatu egin behar al dun jokaldia, ez al haiz gogoratzen duela urtebete agortu huela zerotik hasteko hire aukera?». ».

Aurrean dituen bi gizonezkoen artean egiten duen konparazioaz haraindi, Idoiak badu kezkarako eta alarmarako seinale gehiago ere. Diegok Txemari zinezko mireshenez begiratzen dion arren («benetako argazkilaria, benetako artista fartsanteen mundu honetan»), mireshen hori ez da alde bikoa. Harrobi itxietan eta etxe abandonatuetan ateratzen dituen argazkiei buruz hitz egiteari utzi eta -adeitasun behartuarekin- «eta zuk, zer darabilzu buruan, nobelarik bai aurretan?» galdetzen dionean, aise jabetzen da Idoia Txemari kosta egiten zaiola arreta mantentzea, ez zaiola Diegoren erretolika batera interesatzen, eta ez dagoela miresten duzun lagun batek zu begirune justuarekin mespretxatzen zaituela ikustea baino ezer patetikoagorik. Edo bai, badago: mespretxu horretaz zu ez ohartu eta zure andrea jabetzea da patetikoagoa.

Postreak eskatu eta Diego mozkortu ahala, hirurretan bera baita gehien edan eta besteen kopak betetzeaz konpultsiboki arduratzen dena, Txemaren begi-

rada Idoiarengana desbideratzen da, gero eta erreparro gutxiagorekin, gero eta luzeago pausatuz bere begiak harenetan -«zer ari zara txorimalo honekin?»-, agian jabetu delako Txema ere emakumearen desanparoaz, jabetu dadin derrigorrezkoak diren seinaleak bidali dizkiolako Idoiak, nekea, nekea berriz, egiarantz doan kontrapisu astuna. Ez duelako disimulatzeko indarrik izan, izan ez duen bezala kemenik haren eskua apartatzeko Diego zerbitzarien makalaz kexu ordaintzera altxatu eta Txemak besotik heltzeko probestu duenean.

- Orly hotelean nago, deitu.

«**Begi** horiekin begiratuko nauzu isuri eta gero ere?».

Txemak ez dio Idoiaren galderari erantzun. Horren ordeztan, izterren artean murgildu zaio, eta haren mihia sumatu du esan daitezkeen gezur eta egia guztiak mihi puntaz izkiriartzen dizkiola. Hitzak soberan daudela otu zaio orduan, ezdeusak direla denak, izan egunkari edo izan liburu, izan berak idatziak edo izan Diegok idatziak, Txemaren esku beroak bere izterretan ez izatera txori baten moko hezearekin nahastuko lukeen

mih i punta gozagarria dela balio duen bakarria. Koltxoia belaunekin ukitzeraino tolestu da Idoia, zepo bat zabaltzen denean bezala, altxa du gerria, egin du zubi erromaniko bat bizkarrarekin, sentitu ditu Txemaren hortzak apartatzen, nahiz eta une horretan hozkada txiki batek plazera areagotu baizik ez liokeen egingo, hain sentitzen da leherketa askatzaile baten mende. Hasperenka, izaren ur-jauzia lurrera bota du zangoarekin, airea ostikatu eta koltxoia garbi eta biluzi utziz, hatzekin tapakiei tiraka matalazaren goiko aldea zurituz. Arnasa lasaitu zaionean, maitalearen zakila miazkatzeari lotu zaio.

«Begi horiekin begiratuko nauzu isuri eta gero ere?».

«Ene pottoka, uste dudan bezain ausarta ote zara? Uste dudan bezain autosuntsitzailea?» Txema, neska-ri kaoba koloreko ilea laztantzen dion bitartean, ile zuri bat topatzen saiatu da Idoiaren ilaje ederrean, eta topatu ditu hiruzpalau, txeloa jotzeko arku erabiliegietan nola apurtzen diren hariak, horixe dakarkio emakumearen ilajeak gogora, umearen buruan zorri bila dabilen ama itsua da Txema orain, «ea ba, ile leun hauen artean topatzen dudan soka desafinatu gehiago»; alferrik, ukimenak ez dio hainbesterako ematen.

«Detaile imperfektu horiek, gure zahartzarua eta endekatzearen lagina erakusten dutenak, detaile horiek gehiago gozaten lagundu izan didate beti ohean», pentsatzen du Txemak, «benetakoago bihurtzen dutelako estasi abstraktukoa den une ez-hain-beste-une-batzuekiko-ezberdina...». Baina akaso hobe ile zuririk gehiago ez haztatzea, bat topatuz gero beste baten bila segitzen baitu.

Isil da egunsentia, listu milika kristinen bat baka-rik, tarteka, mihiaren igurtziek sortua. Bizitza badoa-la gogoratzen du Idoiak mutilaren zakila hanka artean hartu eta poliki zamalkatzen delarik, ez du korritu nahi oraindik, oraindik ez du joan nahi mundu honetatik, plazeraren mundutik.

«Begi horiekin begiratuko nauzu isuri eta gero ere?».

Pertsianek ez dute inor engainatzen, goiza da, laster gela egitera etorriko dira orgatxo eta guzti, mesa-notxerantz begiratu du Idoiak, han dago, ahaztu egin zaie kanpoan zintzilikatzea *Do not disturb* dioen txartela bost hizkuntzatan, euskara ez da bost horietarik bat, jakina, lur osoa zaie atzerri, norbaitek atea jo eta irekitzea besterik ez lukete orain behar. Izu horrek atzerarazten du apur bat Idoiaren hasperen sorta.

«Txema», xuxurlatu du Idoiak, bi aldiz, lau silaba horiek ontzi irekiak, katilu isuriak, gainezka azkenik. «Izena esateak gehiago berotzen nau», aitortu dio lehenago. Eta orduan Idoiak pentsatu du emazteak ez diola izenik esango larrutan, larrujotze izengabea izango dela haien artekoa, eta horregatik nahiago duela bera ohean. Pasilloetan barrena jendea dabil, gurpildun maletak, klin, igogailuaren kanpaitxoak. Igo, jaitsi, sartu, atera. Pladurra da, eztulak ere iragazten dira. Txema ez da korritu eta Idoiak ahoaz hartu du berriz bere jarioak distirant utzi duen zakilburua, bi eskuekin izterrak zabaldu eta klitoria argazkilariaren begi-puntuan utziz. Txema ez da hazia irenstea gustatzen ote zaion galdetzeraz ausartu, bera konplazitzegatik egiten ote duen (konplazitzen du, hori da egia, eta aldiro da ezberdin Idoiaren eztarriaren jestua), edo gustuko duen benetan horrela amaitzea. Hazitik hazira ze ñabardura, ze diferentzia aurkitzen duen, baldin eta aurkitzen badu batere, ez ote zaion arraroa iruditzen esperma irentsi eta zapaburu ernalduak, igel bikiak ez ateratzea oka egindakoan. Bi, hiru, lau zita barru galdetuko dio agian, txantxetan bezala. Agian ez da hainbeste zitarik izango. Hainbeste ere ez dira izan lehenago.

Bart X filma ikusi dute elkarrekin hotelean. Txema Santamariak sorta pornografiko batekin osatu nahi luke hurrengo argazki erakusketa. «Interneten ari naiz begira, nabigatu duzu inoiz sarean porno bila?». Ezetz esan zion Idoiak, eta moja bat bezala sentitu zen derrepente. «Probatu egun batean, porno amateurra amaierarik ez duen mundua da».

Haienak, ordea, amaiera izango du.

Ez du gaur hazirik irentsi eta eskuaren lika garbitu du Idoiak bere izterraren kontra igurtziz, musu eman dio Txemari, leihora inguratu da. Ireki ditu errezel bi-koitzak, lehenbizi beltzak eta gero transparenteak, teatroa, funtzioa hastera balihoa bezala, baina oraindik bada zer ireki: pertsianak erdiraino. Kloroz garbitua dirudien argi parrastada begi-ninien izu. Esku-pul-tua edo ezpata duelua izan liteke: bietarik nork iraungo du luzeago erlojuari begiratu gabe? Nork eutsiko dio gehiago buruan jiraka dabilkien eta kaletik sartzen den argiaren bidez intuitzen saiatzen diren ordua jakiteko gogo-kezka-grina-behar hori asetzeari?

Nor da ahulagoa?

Ahula izateak zer zerikusi dauka errealista izatearekin?

Nor izango da kanpotiko munduari larruaren erresumara sartzen utziz giroa esaldi ustel batekin zapuzten lehena?

Nork behar du denbora gutxiago eguneroko idil-lana ohitzeko?

Nor hasiko da lehenago kontu praktikoetan pentsatzen, koartadak prestatzen, inmortalak ez garela eta imoralak garela hausnartzen, ahots inflexioak inpostatzen?

Nor izango da hoteleko gelan egonda bertan ez egoten hasiko den lehena?

Ispiluaren aurrean jarri da Idoia, bat izan beharrean bi izan daitezkeen Munduko Pertsonarik Koldar eta Zikoitzena Gaur titulu deitoragarrirako hautagaiak. «Zergatik zigortzen dut nire burua etengabe?».

Txema komunikatzen irten denean begien ezpatak altu daude elkarri begira.

Idoia leiho ondoan dago. Marlboro bat piztu du. Kezko gezi zabal bat iltzatu zaio bularrean, haziaren lika duen lekuan hazka egin dio hankarteari, azkura apur bat maskulinoki baretuz. Gustatu zaio Txemari keinua. Esan egin behar lioke. Sarria du pubisa, kateatu zaio ileren bat hortzetan lehenago, beltz-beltza. «Maite ditut berarekin momentu hauek, ez nituzke

galdu nahi. Esan egin behar nioke», pentsatu du Txemak. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak. «Hurrengo zita batean, bi, hiru zita barru».

- Ona datorrela dirudi.

Eguraldiaz ari da. Argia, ordea, argia ere bai tama-
lez, kloroz garbitua eta desinfektatua dirudien argi pa-
rrastada hori, hoteletako moketa-hautsez eta aire gi-
rotuz iragazitako argi hori tristea suerta liteke batzue-
tan.

Galtzak jantzi ditu Txemak, Idoiak ere bai. Barruko
arroparik ez du soineratu, zuzenean galtzak. Musu
eman dio Txemari ezpainetan eta gerritik behera
sartu dio jostari bere tanga kiribildua, oskolera itzuli
diren barraskilo-barrabil errendituen puzgarri. Nostal-
giarik gabeko souvenir bat.

- Ez ahaztu nitaz, bale?

Eta begiak nola jarrita dauzkan ikusita, Txemak
beste zerbait ulertu du: «Okurritu ere ez niri minik egi-
terik, bale?».

Baina Idoiak maite du oraindik Diego apur bat, maite
du etxean egoteko bere modua, hori da dena, eroso
bizi da eta Diegok ez du gaizki tratatzen, nahiz eta

«zer?», nahiz eta «nola?». Eta oso umore oneko dago, ongi omen doazkio gauzak bere liburu berriarekin, oraindik zeri buruz den arrastorik ez daukan arren Idoiak. Eta Txemak «biluzik erretratatu nahi zaitut» esan dion arren, eta Idoiak «ezta pentsatu ere» erantzun dion arren, «ez erabili trikimailu merkerik nirekin», edo «*baizea*, ez esan trikimailu horrek funtzionatzen dizunik besteekin», eta Txemak «ze beste?», nahiz eta hori dena, nahiz eta bere larrua barrukoz kanpora jarri eta aspaldi sentitu gabekoak sentitzen dituela iruditu Idoiari harekin, zintzo jokatzearabaki du, ohartu baita Txemarentzat denbora-pasa hutsa dela bera, erantzuten ez dituen dei asko jasotzen dituela eta erantzun gabe mobila amatatzean jartzen duen aurpegiagatik dakiela emakumezkoen deiak direla, eta ez emaztearenak soilik. Eta zintzo jokatzearabaki duelako, bigarren bizitzarik eta ezkutuko bizitzarik eramatea jasanezin zaiolako, aitortu egin dio dena Diegori, nola erokeria bat egin duen, nola oheratu den Txemarekin, bere lagunarekin «benetako argazkilaria, benetako artista fartsanteen mundu honetan». Eta Diego isilik geratu da, zurbiltzera egin du, «eskertzen dinat egia esatea» aitortu dio bere harrotasun guztia irentsiz, eta kanpoan pasatu du gaua,

Idoia bakarrik utziz jada bere sentitzen ez duen etxe horretan.

Gaua begirik bildu gabe igaro ondotik jo du telefonoak. Ospitaletik. Idoiaren ama hil da.

Arrosa zuriak hilkutxa beltzaren gainean, harritu egiten gara bat-batean: edertasun topikoak susper-tzen gaitu minimoki, espero ez genuen unean. Mike-len deia, «estimatzen dizut deitzea», esan dio Idoiak, eta benetan estimatzen du, «nola zaude?», eta berak, nola dagoen esan beharrean, amaren berri eman dio: «txori bat bezala joan da, gaizki zegoen oso», «deitu nahi duzunerako, Idoia», «estimatzen dizut, asko esti-matzen dizut». Hiletara ere etorri da senar ohia eta baita ehorzketara ere. Egunkariko lankideak ditu sa-minean lagun: Roger, Victor, Pilar bekaduna. *Egineko* adiskide zaharrak ere azaldu dira. Estimatzekoa. Esti-matzekoa oso. Diegok ez dio kutxa beherantz doan arte eskutik heldu. Leunki egin du eta Idoiak estutu egin ditu haren hatzak.

«Ez dago larrua jotzerik hilobian». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

Ilunabarrean jabetu da Idoia liburu aurkezpenetara eramaten duen traje bera eraman duela Diegok amaren hiletara. Ez daki zer esan nahi duen horrek.

Agian ez da unea, baina ez zaio esateko moduko beste ezer bururatzen:

- Erokeria bat izan da, ez zait buruan sartzen hura berriro ikustea. Ulertzen dut, hala ere, zuk...

- Ez. Geratzea nahi dut. Maite zaitut.

Hori esan dio, malkotan ia. «Ez Ana maite izan nuen adina, baina maite zaitut». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

- Barkatuko zenidake zuk halakorik egingo banizu inoiz? -galdetu dio Diegok.

Nekatuegi dago Idoia gezurretan ibiltzeko, haien arteko harremanean beti izan da garrantzitsua nekea. Orain ere bai.

- Ez dakit. Ez dakit barkatuko nizukeen.

- Ulertzen dut.

- Denborarekin dena ahaztuko dugu.

Diegok ez du ezer esan. Bere buruari bakarrik: «Bai, dena ahaztuko dinagu, nire aitaren antzera».

Idoiak musu eman dio, haur bat bezala biluztu du eta bere burua biluzten hasi da gero. Diegok jokoa jarraitzen ez dionez gero, laztandu egin dio bizkarrezu-

rra, ornoz orno, enbor moztuan eraztunak zenbatzen dituenak bezala, *chibato* hitz jada desagertua zegoen lekura iritsi arte. Aspaldi ez dute larrutan egin. Idoiak bere buruari galdetzen dio sarri masturbatu ote den azken aldion Diego. Zakila zein azkar gora etorri zaion ikusita, ezezkoan dago. Berarekiko losintxa bezala interpretatu du barau hipotetiko hori.

Lau hankatan hartu du, bizkarretik, joanerako eta etorrerako laztanik gabe, porno izarrek bezala zakila amaieran atera eta bizkarrean isuriz, indarrean hori dena. Larru-aldi lehorra begitandu zaio Idoiari, zakarra. Plazer adina bortxa eta amorru sumatu dizkio Diegori.

Biek dakite ez daukatela elkarrekin etorkizunik.

Legis silva

Bahitu zuten eguna oroitzen saiatzen da batzuetan ingeniaria. Bahitu zuten eguna oroitza derrigortzen du bere burua. Urrun ikusten du, baina badaki ez duela ahaztu behar:

«Hemendik ateratzen naizenean horixe galdetuko didate eta horixe kontatu beharko dut han eta hemen, leku guztietan. Hotz zen giroa, bizarra egin berri nekarren, andreari fuerteegi iruditzen zaion Williams lozioarekin lurrindua. Atzealdetik harrapatu ninduten, beso batek, beso batek nire besoa eta lepoa beste beso batek. Berehala igarri nion bi pertsona ezberdinen besoak zirela. Hirugarren bat izango zen gidari, hala omen da halakoetan. ETAkoak zirela eta bahituta nengoela, egoteko lasai, egiteko esandakoa eta ez zitzaidala deus txarrik pasatuko. «No te va a pasar nada malo...». Autoan kapusai beltza jarri zidaten, kapusaia ez, kapusaia haiek janzen dutena da. Nik neramana zaku beltz bat zen, begi-ahoentzat ez zuena batere zulorik, hauts eta baserri usaina zuena, ez nuke gehiago zehazten jakingo, auskalo zer bildu ote zuen nire burua baino lehen tertziopelo beltzekoa zirudien

zaku hark, auskalo zein ganbaratan egon zen gordeta, auskalo ni baino lehenago ere ez ote zuen beste norbaiten burua estali. Zenbat zaku beltz ezberdin erabiltzen ote ditu bada erakunde armatu batek horrelako zereginetarako? Zaku bat burutik behera, borreroak biktimari egin diezaioke hori baino keinu makurragorik? Biktima izan eta borreroaren zaku beltza jantzi behar burutik behera. Apenas har nezakeen arnasarik auto barruan, zaku beltzaren barruan, baina berehala lokartu nintzen, zerbait emango zidaten, xiringatu edo usainarazi, nik ba al dakit. Ziztadarik ez nuen sentitu gorputzean eta usaindu hautsa, tertziopelo beltza eta baserrietako ganbara-tresnen lurrina baino ez, oroitzen dudanez».

Horrela kontatuko zuen. Eta gero kontatuko zuen nola esnatu zen zuloan. Iglu karratu batean, eroetxe bateko gela irregularra dirudien arratoi-zuloan, zulo-txo batzuk, zulo berez nahiko txikiak airea pasatzeko, baina doi-doi hori ere, eta atexka bat, bere habitata den txakur-etxola kanpoko munduarekin harremanetan jartzen duena.

Eta gero inurriak. «Inurriak dozenaka, zuloetatik atera eta nire besoetan gora ibiltzen ziren», esango zuen, jendeak ez sinesteko moduan.

Armarik ez dute ibiltzen. Erakutsi behintzat ez diote sekula halakorik erakutsi, nahiz eta izango duten hor nonbait, nahiz eta ez litzaiokeen bahituari burutik pasatu ere egingo haiei kontra egitea, handik ihes egiten saiatzea.

Nola igaro denbora lurpean zaudenean eta bizirik?

Diziplina bat ezarri beharra dago. Erabaki batzuk hartu beharra. Zeure buruari ordutegi bat ezarri. Erloju bat eskatu die, eskumuturreko Casio zahar horietako bat eman diote, tiro-pitxonekoa dirudiena.

Hala esan dio bere bahitzaileari: «Tiro-pitxonekoa ematen du».

Eta bahitzaileak irribarre egin duela iruditu zaio, nahiz haren aurpegirik ez ikusi. Nork esan behar zion ingeniariari hitz haiek sekula esango zituenik zulo hartan: *tiro-pitxon*.

Garrantzitsua da ze ordutan bizi garen jakitea, zenbat egun daramatzen han, zehatz-mehatz.

Ariketak gosaldu aurretik egiten ditu. Flexioak, abdominalak. Berrogeita hamarna. Gehiago ere egin ditzake, eta egin izan ditu amorratuta lehen egunetan, baina ez du merezi: lurrundu egiten dira hormak izerdiarekin eta arnastu ezinezko giroa geratzen da gero egun osoan; beren neurria dute gauzek han barruan

eta ez da inondik inora hor kanpoko neurri bera, berri bat baizik, erabat ezberdina. Kondentsazioa kontuan hartu behar. Horren ondoren etortzen da gosaria: arretaz eta poliki gosaltzen du. Zorroan jada txigortuta saltzen dituzten ogi-xerrak ekartzen dizkiotenean gurina eman aurretik ogi gogor eta zakarraren azalera probatzen du hatz puntekin, laztandu egiten du lixa-paper gisako ogi txigortua, lehen asteen ondoren ohartu baitzen zentzuen galera zela bahituta egotearen alderdirik larrigarrienetakoa: beti gauza berberak -hau da, ia deus ez- ikusi eta entzuteak kamustu egiten zituela zentzumenak, bereziki ukimena eta ikusmena. Belarriarekin ezberdina da: kontrakoa gertatzen da, zorroztu egiten baita, urruneko xuxurla ezezagunak eta uhinak dezifratzeraino.

Hasieran ez zuen ezer entzuten. Baina ezinezkoak ezertxo ere ez entzutea. Hor zeuden norbere tau-padak, hesteetako jarioen mugimenduak, bere arnas hotsak. Tarteka kriskitin egiten zuen bi eskuekin, bere gorputzak garai bateko soinuak egiteko gaitasuna mantentzen zuela ziurtatu nahi zuen. *Bera* zela oraindik. Gero, jakina, kanpotiko soinuak zeuden. Bakarrik zegoenean eta zaindarien aztarrenik nabaritzen ez zuen ordu luze haietan entzundakoak.

Azeri bat bailitzan, entzumena zorrozten joan zitzaien denboraren poderioz. Hodi batean behera labaintzen zen uraren zarata urruna entzun uste izan zuen, hozkailuek gauean egiten dituzten hotsen antzeko. Baina ez zegoen etxe batean. Isurkinen eraman irregularra zirudien hark ez zuen, ordea, etenik gauean, eta isurkinak baino gehiago, zerbait likidoa baino areago, giza ahotsak ote ziren hasi zen pentsatzen. Giza ahotsak hodiegan barrena. Ez zuten deus grabea mintzagai: giza ahots animatuak ziren, elkarrizketa alaian ari zirenak, jende berritsua kalakan. Ez ziren bere zaindarien ahotsak, ez zirudien inondik inora hala zirenik, urrunagotik zetozen, eta ez zegoen zer esaten zuten antzemateko modurik. Norbaitek, auskalo non, baso isil baten erdian edo, irrati bat piztuta laga balu bezalakoa zen hotsa. Bere entzumenak zorrozten eta zorrozten jarraitzen zuelarik, hitzen bat edo beste bereizten hasi zen, nahiz eta bere irudimenak behartutako zerbait ere izan zitekeen. Erritmo eta entusiasmo handiko ahotsak ziren, futbol partidu baten erretransmisio batekoak behar zuten derrigor. Bai, orain ez zeukan zalantzarik. Futbola zen han urrunean entzuten ari zena. Futbolarien izenak hasi zen entzuten aurrena, Sarabia, Gajate, Lopez Ufarte...

Derbi bat? Futbol partidu hark, ordea, ez zuen etenik. Laurogeita hamar minutuko arauzko denborak baino askoz gehiago irauten zuen kirol erretransmisioak. Gainera, eta hori zen harritzekoena, esatariek oso modu animatuan hitz egin arren, ez zuten sekula golik kantatzen. Partidu eternal bat zen, husna geratzen zirena beti.

Zoratzeko modukoa. Bere irudimenaren fruitu behar zuten hodiedan barrenako ahots haiek, irrati hark. Soinu haiei arreta gehiago ez jartzea erabaki zuen.

Orduan hasi ziren inurriak agertzen. Inurriak izkina guztietan, hezetasun gehien zuen gorputzeko zatietan hozka.

Zaindariatako batek meloi azal bat jarri zion gelan, hara hurbil zitezten. Funtzionatu zuen hasieran, nazkagarri samarra zen arren inurri haiek guztiak han ikustea denak modu diziplinatuan lanean, meloi azalaren zuriune osoa estaltzen. Baina meloiarekin ere aski ez eta, orkatiletan gora hasi zitzaizkion gonbidapenik gabeko gonbidatuak.

«Ez al dago inurriekin zerbait egiterik?», galdetu zion zaindariari. «Jan egingo naute martxa honetan».

Saiatuko zirela esan zion, eta sentitzen zutela. Ez bera zuloan sartu izana, zuloa inurriduna egokitu izana baizik.

Inurriak bere kasa hiltzen hasi da, orduan: bere zaintzaileak ere lagundu dio. Erratz batekin bildu dituzte gero, baina berriro ere agertu egin dira hormako zuloetatik, auskalo nondik.

Egunkariak irakurtzen ditu goizero, berari buruzko albisteak dakartzaten orrialdeak moztuta ekartzen dizkioten arren. Asteek aurrera egin ahala, ordea, egunkariak ia artazirik pasatu gabe hasi zaizkio iristen: prentsan guztiak du iraungipen data. Jada ez diote ezer bahituari buruz. Ahaztu egin dute.

Gaur sukarrarekin esnatu da. Ez du uste oso altua denik, baina ezin izan du zenbakitara ekarri. Ezta ohiko ariketa fisikoen saioa amaitu ere. Sukar gozo samar horietakoa da, eguzki galdatan luze egon ondoren sortzen denaren antzekoa. Gustatu eta guzti egin zaio. Aldaketa bat da, eta aldaketa gutxi izan ditu hemen dagoenetik. Haien falta hainbeste sumatzen duen eguzki izpiekin gogoratzeko modu bat izan da, tarte batez. Errepublika Dominikarrean pasatutako ezkonbidaia ekarri dio gogora.

Bitartekariak, trenez tren eta geltokiz geltoki, jada mila bider egin duen kalkulua errepasatzen du. Berrogeita zazpi egun dira bahitua etxetik falta dela eta beste hainbeste gau bere andrea haren osasun egoerarekin kezkatuta lo egin ezinik. Osasunak ere balio duela, bizitzak ere balio duela -batez ere bizitzak balio omen du-, eskatutako guztia ordaintzeko prest agertu da emaztea. Hala esan zion bitartekariari Muri-llok, familiaren abokatuak, bitartekaritzaren katebegia luzea baita, bitartean beti norbait egon arren, ez baita beti pertsona bera batzuen eta besteen «bitartean». Hori da inolaz ere arte deitzea gehiegikeria litzatekeen zeregin haren giltza: erantzukizuna eta lan zikina apurka-apurka disolbatu egiten zen eskutik eskura. Zerbait noblea ere bazuen betebeharrak, jakina: bitartekariak modu erabat bolondresean egiten zuen bere lana, sufrimendua -edo gutxienez haren luzapena- eragozteko asmo altruistarekin.

Familiaren abokatuak azaldutakoan arabera, seme-alabak txintik atera gabe egon ziren mahaiaren bueltan. Ez omen zeuden senarra berrogeita zazpi egun lehenago azken aldiz ikusi zuen amarekin erabat ados. Eskuetatik eta euren herentziazatik erauzia izango

zen diru puska hark haien etorkizuneko ondarean egingo zien koska zuten, noski, buruan -mihitik urrunera uxa zezaketen zikoizkeria, baina bihotz-begietan ongi atxikita zeramaten, bistara oso, modu lizunean kasik, hala pentsatu zuen familiaren abokatuak, eta hala adierazi zion bitartekariari: «Merezi ditek azken xemaikoa ere kentzea, aitaren lepotik bizi dituk»-. Ez zirudien seme-alaben maila morala gehiegi estimatzen zuenik Murillok, suminaldiaren gorenean, enpresariaren dirua haren oinordekoek xahutzeko baino, lehergai terroristak erosteko baliagarriago zatekeela iradokitzen heldu baitzen bitartekariaren aurrean. «Tira, hori ere ez duk», ihardetsi zion bitartekariak. Eta Murillok: «Hauek gai dituk altzairua urtu eta beste edozer bihurtzeko, bi hilabete eman ez gero». Elkar ulertzen zuten familiaren abokatuak eta bitartekariak. Izatez, bitartekaria ere abokatu baitzen, eta Murillo ere izana baitzen bitartekari beste kasu batzuetan, nahiz eta hark ikuspegi ezberdina zeukan lan hauek doan egiteari buruz: «Kobratzen ez badiat, talde armatuarekin kolaboratzen ari nauk. Kobratzen badiat, lanean», esaten zion beti; «Hik ere kobratu behar huke, Sesma».

Eskuak libre, beraz. Eskatzen zituzten zazpiehun milioi pezeta ordaintzeko prest, kontra-eskaintzarik egin gabe, hala esan zion familiaren abokatuak bitartekariari. Epeetan jartzeko bereziki arreta. Erdia harekin eraman zezakeela maleta batean, eta beste erdia hiru ordainketatan banatzea lortzen bazuen ez zela arazorik izango. Hiru izan beharrean bi baziren, edo bakarra, hala ere moldatuko zirela, baina hobe zetorkiela hirutan zatitzea.

Horregatik, bitartekariak, Parisko Montparnasse geltokia utzi eta 10. barrutirako bidean dela, Bruselara lehenbailehen iristeko gogoz amorratzen, kalkuluak egin eta bezperan emandako promesa arina neurtu du:

«Ahal dudana egingo dut».

Ez da, inondik ere, inoiz egin behar izan duen negoziatorik zailena izango, hala aurreikusten du. Gehiago kezkatzen dute beste zenbait gauzak: nola zerbitzu sekretuak atzetik izan ditzakeen susmoa, hala larruzko maleta beltzean daraman dirutzarekiko ardura.

Gare du Nord ondoan, hiru gauetarako hartua duen hotelera sartu da. Giltza jaso, gelara igo, dutxatu, maleta hartu eta lurpeko garajera jaitsi da gero.

Agindu bezala, zain zuen bertan Bruselaraino eramango zuen autoa.

«Agirre Sesma zara?», galdetu dio aurpegia oreztaz betetako gizon ilegorriak.

Baiezkoa egin du buruaz eta kopilotuaren atea zabaldu dio auto barruan doan gizon bakarrak.

Bitartekaria leihotik errepide ertzeko panelei ohiz kanpoko arreta jartzen sumatu duenean zuzendu zaio estreinakoz gidaria Agirre Sesmari:

«Hitzordua ez da Bruselan izango, Estrasburgon baizik. Segurtasun kontuengatik. Azken unean aldatu dugu», esan dio euskaraz. Eta Ilegorria, ume bat ez dena inolaz, gidari hutsa edo zerbait gehiago ote den galdegin dio Agirre Sesma bitartekariak bere buruari. Amorragarri samarra den kontua da ekintzaile klan-destinoen hau, otu zaio: militarrekin gutxienez bada-kizu galoiei begiratze hutsarekin zein maila duten... Baina hauekin? Errespetuz hitz egin dio, zer gerta ere. Tabakoa eskaini dio bitartekariak gidariari. Hark ez dio hartu: beltza erretzen omen du, baina ez ei zaio gidatzen duen bitartean pipatzea gustatzen. «Bai tipo arraroa», erabaki du Agirre Sesma bitartekariak, haren joerak eta itxura bohemioa bere kolkorako deitoratuz.

Aspaldi ilundu du Estrasburgo aldirietako etxalde bateko garajea autoa sartu dutenerako. «Zaude», agindu dio llogorriak, eta handik gutxira, bibote sarriko gizon beltzaran indartsua heldu da. Maletari begiratzeaz batera luzatu dio bostekoa. Fuerte estutu dio, eta, begirada bati aplikatzeko adjektibo bitxia izanagatik, *fuerte* begiratu dio maletari ere. Bitartekariari egin dituen kalkuluak etorri zaizkio burura, eta kalkulu ezberdin bat ikusi du bestearen begietan. Bitartekariaren lanaren parte da negoziatzen ari den pertsonaren kalkulua kalkulatzea ere. «Zeuen ofizio horrek badik karta jokoaren antz pixka bat, ezta? Izango dik dibertigarritik zerbait... Nola egiten duzue?» zirikatu zuen behin beste bahitu baten familiako abokatuak. «Ez galdetu nola egiten dugun, egin egiten diagu eta kito; gainera, ez duk *ofizio* bat, ez diagu xemaikorik kobratzen», izan zen bitartekariak eman zion erantzun lehorra.

- Murillok kobratzen dik.

- Ni ez nauk Murillo.

Baina ez zitzaion arrazoirik falta: *kitzikagarria* zen arren hitz zuzena, ez dibertigarria.

Salara pasarazi dute. Noren etxea ote zen hura? Nork utzi zien? Han biziko ziren? Erreskatea negoziatu

eta hura non gorde deliberatzea ote zen haien lan guztia? Sinesten ote zuten herriaren askapenean eta sozialismoan zinez? Zenbat urte sakrifikatzeko prest zeuden? Bizitza osoa? Bizitza osoa negoziatuz eta maletatxoak batetik bestera eramanez, Libanotik ezkutuak ekarritako armen salerosketan, produktua zelo profesionalerik zaindu eta probatzen? Ez, ez zuen uste. Bitartekariak egindako kalkuluen arabera -eta benetan ongi antolaturik bazeuden-, haiek esku zuriko ekintzaileak izango ziren, ez Wall Streeteko kontularien oso ezberdinak -Agirre Sesmaren antzeko beste bitartekari mota bat, funtsean-, dirua lortu eta etekin onenak ateratzeko moduan kudeatuko zutenak. Izango zen beste inor armen salerosketaz, eta are, jakina, haiek erabiltzeaz arduratuko zenik.

Etxea zatarra da benetan: bai eserarazi duten gela, behintzat. Barrokoa, kargatua, estanpatu loreduak nonahi, zaildu egiten du horrek bere interlokutorearen aurpegiari soslai finko eta trokeleko bat atera eta hura memorian gordetzea.

- Bidaia ona izan duzu?

Pariserainokoa baino ez aintzakotzat hartzea erabaki du bitartekariak:

- Gustatzen zait trenez bidaiatzea.

- Bai: luze egiten da Hendaiatik, baina trena beza-lakorik ez dago. Afalduko dugu zerbait? Arkumea ona da eskualde honetan.

Jatetxe batean baleude ere, horratik. Ilegorria etorri da orduan, azpil batean arkume errea dakarrela. Baratxuri, erramu eta menda-belar lurrina dario. Gidari eta sukaldari. Intendentzia kontuez arduratzen da gizon bohemioa, Ilegorria, gorde du bitartekariak buruan. Bitartekariak ez du goserik, edo ez zuela goserik uste zuen orain arte, baina arkume kurruskatsua ikustearekin batera piztu egin zaio, edo gogoratu.

Ardoa ere ekarri dute. Gutxi edan du bitartekariak.

- Jauregizar ondo dago: eskatutako pastilla guztiak ematen dizkiogu. Libre uzteko eguna ere jarri dugu, akordio batera iristen bagara, behintzat.

Une honen zain zegoen. Heldu da, honenbestez, bere kalkuluen arabera obratzeko unea:

- Jakingo duzun legez, garai zailak dira altzairugintzan: joan zen urtean hirurogeita hamar langile kale-ratu behar izan zituzten.

- *Behar izan?* Esan hirurogeita hamar langile kale-ratu *zituztela*. Eta hirurogeita hamabi izan ziren, guk dakigunez. Merke-zurrean aritzeko bidali bazaituzte, beldur naiz ez ote duzun alfer bidaia egin...

- Lehenbailehen bukatu nahi dugu kalbarioa.

- Ados denok, orduan.

- Maletan hirurehun eta berrogeita hamar daude.

Familiak ezin izan du era diskretu batean gehiago bildu. Banketxeetako konfiantzazko lagunen dirua eta gotor-kutxa pribatuetan gordeta zeukaten guztia dago hor.

- Diru beltza... Familia zuhurra... Erdia besterik ez da, hala ere.

- Ez naiz itzulinguruka ibiliko: bostehunera hel dai-teke familia. Jauregizar libre utzi ondoren hiru ordain-keta egingo genituzke, berrogeita hamarnako hiru kolpe, zuek esandako moduan.

- Berrehun faltako lirateke.

- Horrek galbidea ekarriko lieke. Ezin dituzue gehiago estutu.

- Gauza bat egingo dugu: zuk eta biok Genevan ikusiko dugu elkar, zortzi hilabete barru. Eta berrehun ekarriko dizkidazu, kolpe bakarrean. Horrekin kito.

- Kntsultatu egin behar nuke.

- Tira, tira, badakit hori eta gehiagorako tartea eman dizutela. Ze bitartekari klase zinateke bestela?

Baietz esan zezakeen zuzenean. Zer axola zion? Familiari agindutako tratua eta haien marjena erres-

petatu eta beheratzea lortu ez du bada? Oinordekoekin gogoratu da, aitaren lepotik bizi diren bizkarroi horiekin. Hala ere, tematu egin da bitartekaria:

- Dei bat egin behar nuke.

- Ez dago deirik. Leman lakua da hurrengo gelto-
kia. Geneva.

- Orduan ezin dut bermatu...

- Orduan ezingo dugu Jauregizar jauna bihar bertan libre uzteko agindurik eman. Dena dakigu Jauregizar Alzairutegiaren likideziari buruz, adiskidea. Tra-
tua ona da. Eta zuk badakizu, Luis.

Gidari-zerbitzari bohemioa, Ilegorria, bat-batean agertu da, edo akaso ez da inongo unetan handik apartatu, horma apainduegiko loreen artean ezkutat-
turik egon da agian haren azal zurixka, oreztaz betea, azken betileraino ilegorri, ia garden. Nork bere aurpe-
gia, nork bere oihana. Ondo pentsatzen jarrita, Ilego-
rria izan da Agirre Sesmari ponteko izenez deitu dion
bakarra.

Uxual botila estua dakar, izozkailutik atera berria,
eta hiru edalontzi txiki.

- Tratu bat tratu bat da -bota du, eta orain bai,
inoiz baino argiago ikusi du Luis Agirre Sesmak hura
dela han aginte makila daramana. Gizon hura irudika-

tu du menda-belarra moztu eta prentsa ekonomikoa irakurtzen. Bera da arrain handia, nola ez da lehenago jabetu?

Hasperen batekin baiezkoa zigilatu du bitartekariak, apur bat amorratuta bere kalkuluak eta etsaiaren kalkuluei buruz egindako kontra-kalkuluak erabat bete ez dituela kalkulatu.

«Gaztea naiz eta odol beroa daukat oraindik», errieta egin dio bere buruari Agirre Sesma abokatuak.

Elkarren beirarik ukitu gabe topa egin dute edalontzi izoztuekin. Gertutik, hala ere. Trago bakarrean hustu du bitartekariak bere edalontzia, mahai inguruan dauden bi lagunek ezpainak apenas bustitzen ziztuztela ohartu gabe.

Tanpez lokartuta burua atzerantz erori zaionean, laugarren gizon bat, botones bat edo iratxo itxurako gizon ttipi sonbreirudun bat korrika etorri eta bere burua zetazko almohada baten gainean hartu du, gillotina batetik erori berri den buru lepamoztua bailitzan.

Bitartekariak begiak zabaldu dituenean, Parisen dago berriz, 10. barrutiko bere hoteleko ohean etzanda, guztiz jantzita, larruzko maleta beltza mesanotxean, burua burko gorriaren gainean, iratxo itxurako

inor ez inguruan. Maleta hartu eta eskuetan altxatu du. Espero bezala, hutsik dago. Pasillora irten eta *Le Monde* egunkariaren alea ikusi du lurrian: Margaret Thatcher eta François Mitterrand ageri dira lehen orrian, irribarretsu. Hendaiarako trena hartzeko txartel bat erori zaio egunkaria destolestu duenean. Leihoz bestalde hutsik da Paris. Edo goizegi da edo beranduegi da, horretaz ez du dudarik Agirre Sesmak.

Etxera hots egin duenean Murillori presaz deitzeko enkargua eman dio Emilia emazteak: beste bahiketa bat. Ingeniaria da oraingoan. Ez da dirua eskatzen du-tena.

Bahituak kexu jarraitzen du inurriengatik. Leku guztietan daude eta ez dago nondik ateratzen diren jakiterik. Ez omen diote lo egiten uzten. Aurreko asteetan ez da ezertaz arranguratu, preso eredugarria izan da. Diego Lazkanori dagokio harekin hitz egin eta dena ongi aterako dela esatea. Ez daukate minik egiteko asmorik. «No te vamos a hacer daño» edo «No te vamos a hacer nada, descuida», bezalakoak esaten dizkio. Bahituak berak baino askoz ere mihi solteagoa izan arren, ahal duena egin eta solas ematen dio, ho-

rretarako dago han, bahituari lasai egoteko esateko, ez dutela hilko, ez diotela minik egingo, ez diotela ezer egingo, gizon bat bere eguneroko bizitzatik erauzi eta zulo batera sartzea «ezer ez egitea» balitz bezala.

Zulo atariko inurriak erratzarekin pasatzen ditu, bahituak jandakoak ongi garbitzen, baina, hala ere, berriro agertzen dira. Gero eta gehiago, gainera. Lanbasa ekarri du, hautsak kentzeak eta lixibarekin nahastutako uraren hezetasun toxikoak inurriak uxatuko dituelakoan. Kanpoaldea garbitu ondoren, bahituari eman dio lixiba-uretan bustitako trapua.

- Dale una *pasara* con esto.

Urte asko geroago oraindik lotsaz oroituko zuen *pasara* esan ziola eta ez pasada, «dale una *pasara* con esto», «emaiok *pasara* bat honekin», euskaraz pentsatua gazteleraz esana.

Eta bahituak garbitu egin du barrutik ere zuloa, lixibaz eta urez ondo igurtzi, han erreskadan dabiltzan inurriak amorrus akabatu, gehiago etorriko ez direlakoan. Eta haiek ez, baina beste batzuk etorri dira. Aurrekoak baino handiagoak iruditu zaizkio Lazkanori, baina ziur aski ez dira izango: soilik orain askoz hobeto ikusten direla, lurra garbi-garbi eta distirant dagoe-

lako eta haiek ere obsesionatuta daudelako, askoz ere gehiago erreparatzen dietelako inurriei, ez daukatelako inurrientzako baino begirik. Igurtzi, garbitu, inurriak hil. Alferrik. Zulo barruan eta kanpoan, bietan jarraitzen dute, bertan goxo. Meloi azal bat jarri du, inurriak erakartzeko. Hasieran funtzionatu du, baina inurri gehiegi daude eta ez dira konformatzen.

Lehen egunetik bertatik egin behar zuena egin du azkenean, amorratuta. Txanda egin dioten gau batean telefonoz hots egin dio aitari, huraxe da bere negozioa, birritan zaio umiliagarri inurriak nola akabatu aitari galdetu beharra, bizitza osoa zomorro garbitzen pasatzen duen aitarekin bizi eta ez zekien oinarrizko trikimailu bat ere.

- Inurriak dauzkak etxean? Bihar bertan pasatuko nauk.

Nola azaldu aitari ezetz, ez dauzkala Anarekin konpartitzen duen etxean, *lagun batenean* baizik, eta ez direla *hainbeste*, ez duela «ezer traumatikorik» egin nahi, fumigazio enpresa bat gehiegi dela, ez ote dagoen trukuren bat, ozpinarekin edo, auskalo, horrelako zerbaiten premian dagoela.

- Esadak bada non bizi den laguna, hago lasai: ez zioat ezer kobratuko.

Telefonia zintzilikatzekotan egon da, «ezin zaitut inurriak dauden lekura eraman, aita», nola desiratu zuen hori esatea, baina eutsi egin behar mihiari. Horrelakoak dira munduko aita guztiak.

- Nolakoak dituk?

Inurri mota bat baino gehiago zegoela pentsatzea ere. Baina jakina, inurri mota asko daude.

- Topatu duk habia?

Inurriek habiarik zutenik ere. Baina jakina, inurriek habia egiten dute.

- Oso gogaikarriak izaten dituk.

Kostata, baina eman dio azkenean aholkua: jartze-ko ezti potoa enbarazu gutxien egiten duen lekuan. Nondik datozen ikusi eta zuloak hortzetako pastaz estaltzeko. Daudenak eztitara mugituko direla eta berri-rik ez dela agertuko, *printzipioz...*

- Baina habia handi samarra badik lagunak etxean, zulo gaizto horietakoren bat, fumigatzea onena.

Zulo gaizto horietakoren bat. Fumigatzea onena. Lagunak etxean. Habia handi samarra.

- Mila esker, aita.

- Deituko didak funtzionatu duen esateko?

- Ahal bezain pronto.

Eta horren ostean erosi hortzorea, erosi ezti potobat, bahituaren harridura aurpegia ikusi, haren beso eta aurpegia inurriek eragindako gorritasunez bete, zoramenaren atariko. Hasieran lurrean ibiltzeari utzi diote inurriek, hormetan babes hartzeko.

- Ikusten duzu, ezta? Inurriek ez dakite zer den lurra eta zer den pareta, dena berdina da haientzat -esan du bahituak-, bizi daitezke zorura jaitsi gabe.

«Gu biok, hik eta nik, zorua eta pareta bereizten ditiagu», horrelako zerbait esan nahi bide dio bahituak, enpatizatu, biek bat egin dezatela inurrien aurka. Eta bai, hormako zuloak hortzetako pastaz estali dituzte eta funtzionatu egin du, ez da han gehiago inurrik azaldu. Ez zoruan, eta ezta inurriek zorua-kin nahasten dituzten hormetan ere.

Inurrien afera tarteko izan ez balitz, Diego Lazkano eta bahituaren artean halako harreman esturik sortuko ote zen galdetzen zion askotan bere buruari. Bahituak konfidentetzat hartu zuen Lazkano, ezagun zuen aurreko txandan zaintzen zutenekin ez zuela batera hitz egiten, hiztun egoten zen bera heldutakoan, kaputxa beltzaren pean izan arren beti Lazkanok aurpegia, begietara begiratzen zioten elkarri, hainbeste egunen ondoren bahituak errekonozimendu erronda

batean aise ezagutuko zuela uste izateraino Lazkanok, bere begi grisei begiratzea aski izango zuela. «Kapusaia kendu behar nuke agian, eskertuko luke, tipo honek ez ninduke salatuko», pentsatu izan zuen, baina bazekien ezin zuela halakorik egin.

Bere bizitzaren berri kontatu dio orduan: zergatik jarri zion alabari jarri zion izena, nola bidaltzen zuen aitak gaztetan Suitzako ospitale batera lanera alemana ikas zezan, nola bere andrea botikaria zen.

- Bada berririk?

Luzatzen ari da bahiketa eta Lazkanok ez du jakiten jada bahituari zer esan.

- Gauzak ondo doaz -esan dio hasieran, baina «berririk ez» esaten hasi da gero, gezurretan eta ezkutaketan aritzearekin mesederik egiten ez diolakoan.

Bahitua ez da, ordea, gehiegi larritzen, beragan konfiantza duela dirudi, sinesten duela gauzak onbideratuko direla. Bera ez da enpresaria, bere familiak ez du dirurik. Ingeniaria da. Behin ausartu zen galdezera zer eskatzen zuten bera askatzearen truke. Lazkanok ez zuen jakin zer erantzun. Beilaria besterik ez da bera. «Legalak ere behar ditiagu».

Eta gero llogorriaren agindu hura:

- Azken txanda, bihar Iparraldean egon beharko duk.

Helbidea eman dio aurpegi garden oreztaz betea daukan gizonak. Angelu, Rue Moulinaou. Beraz sasira pasatu beharko du. Beraz agur esan gabe agurtu beharko du bere bizitzako maitasuna, Ana. Beraz agur apal berean abezekiro sailkatutako haien disko bildumari, Mikel Laboa eta Patti Labelle, Echo & The Bunny-men eta Errobi, «ezkontzea baino lotura tinkoagoa». Beraz agur amaren errieten gozoari. Beraz ezingo dio aitari gehiago deitu, inurriak nola hiltzen diren galdeztzeko. Labezomorroak nola hiltzen diren galdetzeko. Arratoiak nola hiltzen diren galdetzeko. Eta hainbeste gauza dauzka oraindik harengandik ikasteko.

- Non utziko diagu aske?

Isiltasunak erantzun dio, ezinegonak, azken betileraino ilegorri denaren arnasa etsiak. Bi sudur-zulo baino gehiagotatik ateratzen dela dirudien hasperen indartsu batek. Itxoin eta itxoin eta erantzunik jaso ez. Sorbaldatik heldu behar izan dio Lazkanok Ilegorriari, ausarkeriaz, bera baino askoz ere aginte maila altuagokoa eta zaharragoa den norbaitekin inolaz ere egin behar ez lukeen gauza. «Zelula lotia» edo «zelula lo-kartua» hitzak oroitu ditu, eta bera jada, ordura arte

konturatu ez bada ere, esna dagoenetarik bat dela jaketu da derrepente.

- Aske utziko diagu, ezta?

Angeluko etxe isilean, Moulinaou karrikan, lehen eguna sasian, lehen eguna gauza klandestinoak *egiteaz* haratago klandestinitate erabatekoan *bizitzen*, aginduen zain. Gurasoak akorduan, Ana akorduan. Eta zabaltzeko indarrik ere izan ez duen egunkariko azalean ikusi du goizean goiz hildako bahituaren argazkia, sukaldean, gainerako guztiak lo dauden bitartean oraindik etxe hartan. *Aparece con un tiro en la nuca el ingeniero...* Geldirik dagoen mundua geldiago, bere bihotza ere halatsu, lurruna leihoetan, hegazti bakar baten luma bakar bat ere ez da mugitzen buruan duen El Salvadorreko oihanean. Bere bizitza laburreko kolperik gogorrena, «zelula lotiaz» edo «zelula lokartuaz» duen ideia mila zatitan leherrarazi duen bonba. Lurra kendu izan baliote bezala oinen petik. Agurtu ere ez du egin bahitua (nola bada agurtu bahitu duzun norbait, zuk jakin edo ez, hiltzera daramatena? Nola agurtu bahitua zure bizitzako maitea ez baduzu agurtu?), huts egin dio, gauzak ez zihoazen ondo eta berak baietz esan dio. Gauzak horrela amaituko zirela jakin izatera beste era batera mintzatuko zitzaion, kapusaia

kenduko zuen hasieratik, demonio, zein koldarrek ez zuen aurpegia ematen; gauzak horrela amaituko zirela jakin izatera ongi neurtuko zuen esandako hitz bakoitza, esan behar ez zuen hitz bakoitza, barregarri esandakoak barne, «dale una *pasara con esto*».

«Inurriak akabatu genituen elkarrekin», pentsatu du, «inurriak akabatu genituen berak eta nik, eta orain bera dago hilda». «Alemana zekien eta orain hilda dago», etorri zaio burura modu zentzugabeen, alemana jakitea -edozer jakitea- heriotzaren kontrako aseguruua bailitzan.

San Marcial kaleko soto batean zegoen Luis Agirre Sesma abokatuaren bulegoa, leku xumea, inondik ere, hogeitaka urte lehenago politikan aritu eta bitartekaritza lanen garratz-mikatzak ezagututako norbaitentzat. Konponketak egiten zituen emakume batek hartua zuen eskailerapeko bi eskuetako bat eta berea zen bestea. *Adela Retoucherie*, gaztigatzen zuen ondoko ateko afixak, beheraxeago eta parentesi artean *Arreglos* zehazten zuela, kontua ez baitzen distintzio aldarriaren pentzura frankofiloa ez zen bezeria galtzea.

Donostiaren idiosinkrasia kosmo-hipokrita ikusi uste izan zuen kartel haren baitan Diego Lazkanok.

Batere afixarik ez zuen ateko txirrinari sakatu eta minutu erdi baino gehiago behar izan zuen atearak irekitzen, gehitxo, eskailerapeko bulego hauen dimentsio ttipia kontuan izatera.

- Zure zain nengoen...

Adeitsua eta gardena zuen begirada, ozeano barearen pare, asko bizi eta ikusitakoarena. Zaila zen bere adina zehaztea: hirurogeitik hirurogeita hamar urte bitarte izan zitzakeen. Gizena eta haragi erorikoa, gantz-geruzak tiranteetatik ihesi, barruko patio batean zintzilik jarritako izarak bezala. Agirre Sesmak, ia erabat burusoila izan arren, aurpegi biribila eta garezur simetrikoa zituen, jaiotzatik beste inola irudika ezin daitekeen gizon horietako bat, goiz zahartu eta itxura horri bihotzekoak jota hil arte eusten diotenetakoa. Proporzionalki buru txiki samarra aukeran, gorbataren alde bietara hedatzen zitzaion soin-enborrak Diego Lazkano halako bi gordailatu zitzakeela kontuan hartuz gero.

Paper zahar, kode eta jurisprudentzia liburuz jositako zegoen sotoa. Giroa hezea zen. Pasilloan aurrera egin ahala, ezpata-dantzako korridorea egiten zuten

hamarkadatan zehar pilatutako liburuek, karpeta metek eta aldizkari dorreek *-Punto y Hora, Cambio 16-*. Handik barrena motel-motel segitu eta Lazkanok abokatuaren arnasa asmatikoaren zirritu txistukaria sumatu zuenean, ezin saihestu izan zuen okerreko abokatuarengana etorri izanaren susmoa, eta susmo horrek berarekin zekarren dezepzioa.

«Arratsalde bat alferrik galdua. Xaharrari solas pixka bat eman eta etxera».

Mahai-flexo txepel batek argitutako idazmahaia-
ren atzean bere burua erortzen utzi eta pareko be-
saulkian esertzeko gonbita egin zion Agirre Sesmak
eskuaren burruntzaliz.

- Hara: ez dizut ilusio faltsurik eman nahi. Oraindik ez dut erabaki kasua hartuko dudan edo ez...

«To, gure xaharra! Bostekoa ere ez zidak eman!
Retoucherie batekin konpartitzen dik kasik bulegoa
eta zer eta bere bezeria *hautatzen* duen abokatu bu-
fete mokofinarena jotzen niri!», pentsatu du Lazka-
nok. «Ze uste dik honek, lehen asaltoan kardiopatia
batek jota edozein unetan ziplo eroriko den dinosauro
bati enkargatuko diodala kasua?». Buruargitasuna eta
ahalmen entziklopedikoa bakarrik ez, kemena eta in-
darra ere behar baititu franko abokatu batek epaite-

giek bi alditan itxitzat emandako Soto eta Zeberioen sumarioan sartzeko, azeri zoliaren erreflexuak, buru hotza bezain esku irmo eta berbaera oxigenatua.

- Hona bidali zaituenak esango zizun aspaldi hartu nuela erretiroa epaitegietatik.

- Zu baino hoberik ez dela ere esan dit.

- Laguntza handia beharko nuke sumarioa berriz irekitzea lortuko bagenu.

- Ez dakit zure zerbitzu-ordainak zeintzuk diren, baina ez nabil patrika-aise, egia esan.

- Ez, dirua garrantzitsua da, baina ez nintzen horretaz ari. Kemenaz eta jende kementsuaz baizik.

«Tira, hasi gaituk elkar ulertzen», Lazkanok bere artean: «Xaharra ere ohartu duk ez dagoela trosta handietarako».

- Hara, gazte, ez dakit zuzenbidearen munduarekin harremanik baduzun batere...

- Ziegatik pasea naiz, aspaldi batean...

- Ez gaizki hartu, baina komisaldegiek eta kartzelek ez daukate zerikusirik zuzenbidearekin.

- A, ez? Delako lege baten ondorioz atxilotu nindutelakoan nengoen ni. Hala kontatu zidaten behintzat.

- Nire lana jendea kartzelara sartzea edo bertatik ateratzea da, eta horretarako erabiltzen dudan metodoa...

- Metodo hori da *zuzenbidea*, gaizki ulertu ez badut.

- Metodoetako bat... Ez bakarra, jakina, baina bainik ondoen ezagutzen dudana. Eta metodoa baino areago, metodo horren zirrituak ezagutzen ditut.

Bere hauspo asmatikoaren suge-txistuak hartu zuen une batez bulegoa, arnasa estua eta legearen zirrituak, biak bat eta berbera bailiran.

- Inork ez bezala ezagutu ere..., eta barkatu nire apaltasun falta. Jende askok saihestu du kartzela niri esker. Heriotza ere bai, bakarren batek. Harro nago horretaz.

«Barkatuta hago gizona, horixe besterik ez genian behar», Lazkanok bere artean. «Harrook ongi ulertzen diagu elkar», ebatzi du gero.

- Baina Soto-Zeberio sumarioaren bidez ez dugu inor kartzelatik ateratzea lortuko. Beste bat da auzia.

- Bai, badakit beste bat dela auzia. Baina litekeena da, gauzak azken bururaino eramaten baditugu, bat edo bestek zenbait urtez eguzkia marratan hartu beharra ere...

- Hori ez zait interesatzen.

Irribarre egin zuen Agirre Sesmak. Lazkano durduzatura geratu zen abokatuaren azken esaldiarekin.

- Ez zaizula interesatzen?

- Batere ez.

- Justizia interesatzen ez zaion abokatu bat, interesgarria.

- Hitz potoloa, justizia. Nork berea dauka.

- Horixe bera esaten dute ipurdiei buruz ere. Nork berea, eta batetik bestera, itzela aldea.

- Berbaera berezia daukazu, zein da zure ogibi-dea?

«Bidean papurrak uztea. Zurea, txoriek papurreki-koak ez egitea, nik uste». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

- Idazlea naiz.

- A, *sortzaile* bat...

«Sortzaile bat», esan du, nerabeen buru-ahulezia heldu baten baitan topatzen duenak bezala. «Erromantiko bat», esango balu bezala. Lehenago «gazte» ere deitu dio, berrogeiak oso paseak dituen arren. Aurrrera segitu du abokatuak.

- Jakingo duzu justizia zer den ez dutela fakulta-teetan erakusten. Legeak aldatzen dira eta justizia al-

datzen da. Erromatarrengandik heldu zaizkigun legeak saiatzen dira epaile ekidistantearen eta epai justuaren existentzia famatzen, baina horrelakorik ez dago, telesailak telesail, sistema exekutiboaren tresna da legea...

- Esadazu egia: uste duzu badaukagula aukerarik?

- Sumarioa irekitzeko ala Soto eta Zeberioaren heriotzan parte hartu zutenak izorratzeko?

- Bietarako.

- Utzidazu orain zuri galdera bat egiten. Zintzoki. Zer da zuretzat garrantzitsuagoa, zure lasaitasuna, zuk justizia esaten diozun hori, alegia... edo egindakoa larrutik ordainduko duten paga-buruak aurkitzea?

- Zuk paga-buruak deitzen diezu, nik errudunak.

- Ez didazu erantzun.

Isilik geratu da Lazkano.

Agirre Sesma abokatuak tiradera ireki, puru bat atera eta belarrira inguratu zuen, kris-kras, itsas-kurkuiluan itsasoa entzun nahi duen ume. Zeremonia handiz ekin zion kea botatzeari. Artez erretzen zuen, puruaren kea ez zitzaion berehalakoan ezpainenatik desitsasten, kea ere ezpain inguru hartan eroso balego legez.

«Isiltasuna ez da beti erantzun txarrena», erabaki du abokatuak.

- Onartu egingo dut kasua.

Zerbait espero zuen Agirre Sesmak: alfonbra gorri bat, txaloak, etxafuegoak. Ez zuen Lazkanorengandik halakorik jaso. Motor baten orroa bakarrik entzun zen, kanpoan. Autobusen kolpeko arrantzak.

- Baina baldintza batekin...

«Nahikoa da», ebatzi du Lazkanok, «kontraerasora pasatzeko tenorea».

- Eta nik beste abokatu bat bilatzea erabakitzen badut? Agian ez zaitut gustuko...

- Gustuko edo ez, ez duzu hiri honetan kasua hartuko dizun beste abokatu bakar bat ere topatuko. Eta are gutxiago irabazteko aukera duen inor. Zer esanik ez, nik bezain gutxi kobratuko dizunik. Kausa galduen garaiak joanak dira, ez zaitez engaina.

- Zein da baldintza, orduan?

- Galderarik ez. Nik diodan bezala egingo dituzu gauzak.

- *Ditut?*

- Epaitegiez ni arduratuko naiz. Baina epaitegietatik kanpo ere asko dago egiteko.

- Hitz egin dezagun diruaz. Zenbat?

- Abokatu ezohikoa nauzu, esango zizun zerbait zure lagunak: kasua bukatu arte ez dut xemaikorik ko-bratzen. Gero, ikusiko dugu.

- Zer ikusi, baina?

Lokietako ile bakanetaraino zimurtu zitzaion begi-rada Agirre Sesmari, bihurri, horizontal, makur. Kea-ren hodei-aterkitik mintzo zen, anpulos.

- *Justizia* lortzen dugun ala ez.

Agirre Sesma ez da ezagutzen ez dituen hildako-en hiletetara joaten. Ezkerrak zein eskuinak manipula-tutako ekitaldiak izaten dira ia beti haren aburuz, ez da bidezkoa hildakoen pentzura etekin politikoa atera-tzea, hala uste du berak. Etekin politikorik atera ezean, bestalde, ze zentzu luke basakeria honek guz-tiak? Ez, Agirre Sesma ez da ezagutzen ez dituen hil-dakoen hiletetara joaten, baina kasu honetan salbues-pen bat egin du. Bereziki mingarria izan da ingeniaria-rena. Tupamaro estiloko propaganda ekintza bat izan-go zela pentsatu zuen hasieran: hainbat egunkarik men egin zioten haien azaletan bahitzaileek eskatuta-ko komunikatua argitaratzeari, *El País*en ere osorik atera zen. Baita euskal egunkarietan eta Kataluniako

hainbatetan ere. Ez beti azalean, eskatzen zuten bezala... baina eskuzabal jokatu zuten kazetek adierazpen askatasuna bizitza bat salbatzearen truke emateko prest agertuz, doktrina alemaniarraren ildotik. Alfer-alferrik.

Odol hotzean hil dute, hala ere, ingeniaria.

Elizan, gorbata beltzak eta alkandora zuriak. Hari grisez egindako txalekoak. Abrigo ilunak eta luzeak, orkatilarainokoak, errebolberra gordetzeko jantzi aproposak. Agirre Sesma durduzatuta geratu zen Murillo parlamentariak Kongresuko kolegetako batzuk errebolberrarekin ibiltzen zirela esan zionean. Hotzikara emateko modukoa. Politikari sozialista haiek denak arma bana hartuta. Edozer gerta zitekeela sentitzen zuen batek, urtebete lehenagoko estatu kolpearen antzeko beste bat, auskalo.

Elizan daude Barrionuevo ministroa eta Madrilgo eta Erkidegoko beste hainbat agintari, Carlos Garaikoetxea lehendakaria barne, bere gurasoen kristal-dendaren parean tiroz josi zuten Alfredo Trota polizia nazionalaren hiletara bezperan etorriak eta ingeniariarena gertatu ondotik baten ordeaz bi gorpuren azken agurrera geratu direnak bidaia bakarrean. Lege Antiterrorista berriak behar zuen azken bultzada izan da:

oposizioko Manuel Fraga, Francoren ministro ohiak eta haren taldeak, txalotu egin dute Barrionuevo ministro sozialista, modu ezin sinetsizkoan. Horrek ematen du gauzen neurria.

Murillo parlamentari eta abokatuak Agirre Sesmari esan dionez, bere ustez, ETA erratu egin da: une horretan su-etena eman izatera, Felipe Gonzalez Espainiako presidentek Lege Antiterrorista bertan behera utziko zuen ziurrenik. «Agian bai eta agian ez», pentsatu du Agirre Sesmak. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

Javier Fontecha ikusi du, bera baino gazteagoa izan arren Gobernuaren delegatu izendatu berria, politikan kargu inportanteagoak betetzera deitua dagoe-na. Mediokre neurritsu bat iruditu izan zaio beti Agirre Sesmari. Ez harritu urrunera heltzea.

- Ausartu haiz hiletara etortzen -bota dio, sarkasmo mingarriz.

- Latza izaten ari duk hilabete hau, Fontecha.

- Atzo ez hintzen Trotarenera etorri... Katgoria kontua... Hildakoak eta hildakoak daudela, nonbait.

- Ez nauk joaten ezagutzen ez dudan jendearen hiletetara.

- Ezagutzen huen ingeniaria?

- Haren familia.

- Egia duk, orduan: bitartekari ibili haizela entzun diat... Baina oraingoan ez zaik ongi atera.

- Ate guztiak itxita topatu ditiat. Kasu honetan ez zuan dirua kontua. Gogor jarrita zaudek.

- Eta zuek etekinak atera...

- Ez gaituk denok Murillo bezalakoak. Nik ez diat inoiz xemaikorik ere kobratzen, Fontecha. Gure alderdiak erreskateen zati bat finantzatzeko hartzen duen kontuarekin atera behar baduk berriz...

- Nik ez diat horrelakorik esan.

- Gainera, nor haiz hi niri kargu hartzeko? Mitte-rrandek agintzen dik Frantzian, Soaresek Portugalen, PASOKen Papandreuk Grezian... sozialistak hirurak... Gauzak beste era batera egin ditzakezue zuek ere, ala? Zerbaiteko da boterea.

Hasperen egin du Javier Fontechak, baina ez du deus erantzun. Gaztea da oraindik, nahiz eta ikaragarri zahartzen duten gabanaren larru nabarrak, nekeak eta lorik ezak.

Adela Retoucherie. Arreglos. Agirre Sesmaren bunkerrean daude berriz.

- Zergatik halako interesa? Urte asko pasatu dira.

- Eta beste asko pasatuko dira inork ezer egiten ez badu. Gerra Zibilarekin bezala gertatuko da, errezel bat ireki, lau txalo txepel igurtzi, oroitarri bat zabaldu eta kontuak eta barkamena nori eskatu geratzen ez denean justizia egin dela esango dute.

- *Iustitia... Ius sanguinis? Ius loci? Iustitia*, barka zakarkeria, zakilbaba baino ez duzu: nork berea zurrupatzen ez badu, iristen ez delako. Aurreko aldian hori garbi geratu zela uste nuen.

- Zure ogibidea maite zenuela esan zidaten... Apasionatua zinela.

- Hara, adiskidea: bihotza tiraderan sartzen dut lanean hasten naizenean. Beste errai batzuk behar izaten dira gure ofizioan, eta behazuna irensteko gaitasuna, bikoitza.

- Orduan zertarako zara zu abokatu, jainkoarren?

- Jainkoarren ez, hori seguru.

- Laguntza behar dut.

- Eta nik zure benetako arrazoia behar dut jakin, Lazkano jauna.

- Esan dizut...

- Justizia nahia ez da inoiz arrazoi bat. Etortzen da jendea mendekuak bultzatuta, diru premiagatik, umi-

liatzeagatik, harrokeriagatik edo harrotasunagatik. Baina sekula ez justizia premiak bultzatuta. Benetako arrazoia jakin ezean, zaila izango da aurrera egitea... Barkatu, baina horixe da nire etika profesionala.

- Orduan ez dugu zertaz gehiago mintzatu.

Kasua hartuko zuela esan ez zion ba aurrekoan? Zertara zetorren orain hura? Agirre Sesmak igarri du Lazkanoren destenorea. Erasora jo du berriro abokatuak:

- Zerk ematen dizu min?

- Zerbaitek mina ematen didala esanez gero hartuko duzu behingoz kasua? Bada hori aski arrazoi?

- Zein harreman zeneukan Soto eta Zeberiorekin? Zein mesede zor zenien beraiek hil ostean ere haiei hain era likatsuan estekatuta segitzeko? Egia nahi dut.

Bazekien alu hark txepetxari lepotik heldu eta buruan airea faltatzeraino estutzen.

Sentimendu kontrajarria, ziztada bikoitza sentitu zuen Lazkanok. Soto eta Zeberio. Zirrara bikoitza.

- Tira ba. Zain naukazu. Egia izaten da beti errazena.

- Ez dut uste, hori... Egia niri bakarrik dagokit, sentitzen dut.

Zirrara bikoitza zen, baike: batetik, abokatuaren diskurtsoaren makuluak morala zanpa-zanpa utzi ziola sentitu zuen. Bestetik, abokatu ezagutu zuenetik lehen aldiz, gizon zorrotz bat bereizi uste izan zuen bere aurrean, berak baino askoz ere eskarmentu eta ikuspegi zabalagoa zuena, ez Lazkano lako finisterre laburreko gizon ahula; lehen aldiz begitandu zitzaion hura zela dudarik gabe behar zuen abokatu. Baze-kien sastrakak non astindu.

- Hara, adiskidea: soto batean gaude. Horma hauen artean esaten dena horma hauen eta nire arteko kontua da. Arre edo iso, erran edo ixo. Koñaka gustuko duzu?

- Ez, ez dut ohiturarik.

Buruaz gustura baiezkoa egin eta koñaka isuri zuen ipurdi zabaleko edalontzian, entzungor. Gero arrast ingurarazi zion Lazkanori edalontzia. Zintzurre-ra zuzenean, berak.

Edan bezala bota zion, dzangada bakarrean braust:

- Salatu egin nituen...

Berdin egin zion ahotsak herren, traizio.

Lazkano nola ari zen maskaldu eta ahultzen, abokatu ari zen indartzen eta nagusitzen.

- Torturatu egin zintuzten?

Parrasta egin zuen koñakak beirazko ipurdiaren kontra isurtzean. Bi basotan oraingoan. Abokatuaren arnasaren azantza asmatikoak besterik ez zuen isiltasuna urratzen. Lazkanok arnasari eusten zion, begiak hormetako kode zaharkituetarantz ihesi. Ezin haietako izenburu bakar bat ere irakurri.

Mahaiko flexo bakarra itzali zuen Agirre Sesmak. Mahaia mostradorea bailitzan, besoak Lazkanorengantz aurreratu eta sorbaldan ipini zion eskua, taberna ixtera doan zerbitzari:

- Edan ezazu.

Luis Agirre Sesma abokatuak ez zuen Julio Virado kazetariaren berri. Bera baino gazteagoa izango zela pasatu zitzaion burutik, eta elkarrizketa eman aurretik haren artikuluren bat irakurri nahi izan zuen.

Cambio 16 aldizkariaren azken aleak inguratu zizkion Emiliak. Viradok luma ausarta zuela ikusi ahal izan zuen abokatuak, nahiz eta haren artikulua eta iritziek orbela soberan zutela iruditu. *El bosque vasco* izeneko erreportaje efektistarekin dibertitu zen gehien: Euskal Herria bata bestearen gainean gainja-

eritako interes, konplizitate eta koldarkerien *foresta impenetrable* gisara deskribatzen zuen, literatura handiz.

Aurrez aurre ikusi ahal izan zuen, uste baino are gazteagoa zela oraindik.

- Zer iruditu zaizu ETaren erreskateak ordaintzen laguntzeagatik Murillo parlamentari eta abokatu atxilotu izana?

- Nire elkartasun guztia dauka Murillok. Astakeria da arrazoi humanitarioak direla medio egindako bitartekaritza lanak zigortzea. Beharrizan larria dagoen kasuetan, eta horietako bat da bahiketa, zuzenbide penalak baimendu egiten du erreskateak ordaindu eta kapitalak mugaz gaindi eramatea.

- Nahiz eta diru hori gero armak erosteko erabili eta arma horiekin jendea hil?

- Beharrizan larrien arteko gatazka dago hor: baina premiazkotasunak, pertsona baten bizitza *orain* salbatzeak, gain hartzen dio etorkizuneko balizko atentatu posibleari, hau gaitzesgarria izan arren, saihestu daitekeelako eta abstraktua delako. Bahiketa baten kasuan legea esekita geratzen da; ez bakarrik bahituarentzat eta bere familiarentzat, baita estatu osoarentzat ere.

- Eztabaidagarria da hori, estatu oso bat etengabe edozein xantaiaren menpe jartzea den heinean...

- Doktrina alemaniarrek horrela dio eta haren alde lerratzen naiz ni ere. Orain eta hemen arriskuan dagoena salbatzeko, edozer egin behar dugu. Gero gerokak.

- Murilloren kasuan, gogor kritikatu da bitartekari lanak egin dituen abokatuak erreskatearen zati bat beretzat hartu izana.

- Ikuspuntu ezberdinetatik azter daiteke hori. Nik ez nuke horrela jokatu, baina erabat errespetagarria iruditzen zait Murilloren jarrera ere... Bere ustez, bitartekaritza lana bere ogibidearekin lotutako zerbait den heinean, ez kobratzea litzateke irregularra eta ez kontrakoa... Lan hori doan egiteak nolabaiteko kolaborazio maila bat eragin lezakeela argudiatzen du berak, kode penalean tipifikatutakoa. Ez nago ados, baina bi jarrerak dira zilegi.

- Zer iruditzen zaizu Kode Penala erreformatzeko asmoa?

- Kontra nago. Stampa Brauni eskatu zaio aholkua, eta hori iruzurra da. Zer irudituko litzaizuke Karol Wojtyla Aita Santuari abortuari buruzko aholkua eskatzea? Aholkularia hautatzen duzun unean hartzen

duzu erabakia, eta ez aholkulariak aholkua emanda-koan. Izatekotan, kartzelan prebentiboki iragan beharreko epe maximoa lehenbailehen ezartzea lehentasuna dela esango nuke.

- Jakinaren ganean zaude zenbaitentzat ahula edo biguna izango dela halako erabaki bat hartzea.

- Ezin dugu orain arte bezala jendea epaiketa zain modu mugagabeen eduki. Bitxia da, baina hemen hori gertatzen den bitartean, Britainia Handian biguna edo ahula izateko susmorik pizten ez duen Margaret Thatcherrek milaka preso askatu ditu espetxe ingelesetik, ez ihes egiteko promesaren pean eta haien kasua batzorde batek aztertu ondoren.

- Aurrera zenezake zerbait ETako preso gehiago damutu eta aurki kaleratuko diren zurrumurruez?

- Lehenik eta behin, ez dudala gustuko hitza. «Damutuak» direla esatea ez da zehatza. Italiatik ekarritakoa da terminoa eta ez zait gustatzen: gizarteratze sozialaz ari gara gu. Eta ez, ezin dut ezer aurreratu, kontu horrek erabateko diskrezioz jokatzeko eskatzen duelako.

Julio Virado erbia baino azkarragoa zela iruditu zitzaion Agirre Sesmari. Manipulatzaile trebea zen gainera, elkarrizketa transkribatzerako orduan nahikoa

fidel jokatu zuen arren, gehiegi azpimarratu baitzuen gero entresakan «damutu» hitzaren pisua. Moduak eta moduak zeuden kazetaritza norbere interes eta ideietara plegatzeko. Ez zen Julio Virado «damutuen doktrinaren» asmatzailea izan, baina egun hartatik aurrera komunikabide askok hartu zuten eurentzat «damutu» hitza. Orduraino hain fruitu onak eman zituen prozedura hura itzaltzen hasi eta Agirre Sesma abokatuak eta bere taldeak preso politikoak bergizarteratzeko irekitako bidea asko zaildu zen. Inork ez zuen «damutu» bat izan nahi.

Agurtu aurretik kiroltasunez eman zion bostekoa Julio Viradok, eta baita bisita-txartela luzatu ere. Garai hartan ohikoa zen abokatuek keinu hura egitea, ez, ordea, kazetariak. Deigarri egin zitzaion Agirre Sesmari.

- Ez nago ia ezertan zurekin ados, baina plazera izan da -esan dio agurrekoan kazetari gazteak.

Ihintzak hartuak zituen espaloiak eta gelako estufa itzalita zeukan Agirre Sesmak. Mahuka hutsik zegoen, ordea; alkandora zuria, gorbata koipetsua, tiranteak. Pentsatzen ari zenari buruz behar baino arrasto gehia-

go emango zizkion akatsa egin zuen Diego Lazkanok: denbora larregi eman zuen estufa itzaliari begira.

- Ez pentsa argindarrean gastatzeak amorrua ematen dion agure xuhurra naizenik. Ez da zuk uste duzuna. Hotza gustatzen zait. Gustatu baino gehiago, haren premia dut bizirik sentitzeko.

- Tuberkulosia tentatzen ari bazara, ez da nire kontua.

- Zu gaztea zara, ezin duzu ulertu.

- Sehaskako barroteek ez didate mundu krudela ikusten uzten.

- Badakit urteen ajeak jendea paraje epeletara zurrupatu ohi duela, baina ez ni. Hotzak ematen dit eguneko gozamen unerik finena... Ur hotzarekin freskatzeko naiz txorrotapean. Era bakarra da. Azala oilo ipurdi bilakatzen da, eta hotzikara horrek garai bateko trinkotasuna ematen dio azal eroriari. Faltsua da, baina iruditu egiten zaizu, une batez bakarrik bada ere, trinkotasun hura berreskuratzen duzula. Ezer ez da errealia adin batetik aurrera; sentsazio ahaztuen noizbehinkako gomuta besterik ez da geratzen, eta ez beti norberak nahi duenean. Irakurtzen dut zure begi ziniko eta gosetietan: sexua? Aspaldi ez dakit zer den hori. Ur zurrustada hotzaren pean oilo ipurdi hori sen-

titu eta bizirik egotearekin konformatzen naiz. Gizen-
tzen hasi nintzen arte ez nuen nire aurpegiaren kon-
tzentziarik, badakizu? Halako batean loditzen hasten
zara, sudur-hegalak eta belarriak handitu egiten zaiz-
kizu, ez zara gai liburu bat irakurtzeko zure sudurra-
ren ardatza ikusi gabe... Badakizu zer den hori? Ni
adina sekula ez gizentzea opa dizut... Higuin-
garria da, azalak ihes egiten dizu, beste bat bilakatzen da eta
bere kasa bizitzen hasten, nahiz eta ez duen erabat
zure hezurretatik besterentzeko adorerik. Lehen ele-
gante izan nahi nuen nik ere; orain, hozkia ez ematea-
rekin konformatzen naiz.

Drama beltzerako joerarik batere gabe esan zuen
hura guztia, begiak dir-dir, umoretsu ere baietz esan-
go luke Lazkanok. Ez zen erraza txantxetan edo serio
ari zen bereiztea. Kapelua eta gabardina mehe bat es-
kuratu eta kalerako bidea seinalatu zion.

- Estufarik itzali beharrik ez kalerakoan, adiskidea.
Dena ez da desabantaila.

Retoucheriea itxita zegoen.

- Topatu duzu Adela inoiz? Emakume horrek nik
baino gehiago irabazi izan du beti.

Diego Lazkanok adarrean ere badakiela erakutsi
nahi dio abokatuari:

- Nola liteke, bion lana, adabakiak jartzea, berbera izanda?

- Oraintxe esan duzu gaur arratsaldeko gauza zentzudunena. Gonbidatuko nauzu garagardo bat hartzera?

- Elkarrekin lan egingo dugu, beraz?

- Asko daukagu egiteko. Hasteko, familia.

- Familia?

- Baduzu harremanik? Hitz egingo zenuen haiekin...

- Ez.

- Bada hori da lehenengo gauza. Ezin dugu kasua berriro ireki dezaten eskatu tartean familiako norbait egon gabe.

EZ zekien Zeberioaren amaren etxean zer espero. Bazekien urteak zirela alargundu zela, eta Zeberioaren amak bere bi alabekin bizimodu eta harreman taxu normal samarra izango zuela irudikatu zuen: nork bere lana eta familia, telefono deiak tarteka gauzak ondo samar -«hainbestean»- zihoazela esateko, astean behingo familia bisita eta urtebetetze edo gabon ospakizunak, umeen etorrerak gozatuak eta etorkizu-

nerantz proiektatuak iraganaren kalte eta norbere buru osasunaren mesede. Urte asko pasatu ziren inoiz itxiko ez zitzaion zauri hura egin ziotenetik, arima bi puska egitea, hori zauri bat bada behintzat. Zer gertatzen da sendatzen ez diren eta sekula sendatuko ez direla ziurtasun osoz dakizun zauriekin? Haiekin bizitzera ohitu egiten zarela, zauri horiek izaki bizidunak balira bezala. Hildako seme baten mina, min hori, izaki bizidun baten parekoa baita, bere negarraldi, bere mimo eskaera, bere ez ahazteko erreguak egiten dituen mini-izaki bat, bere urruntze eta gerturatzeekin, bere desagertzeko joera aldizkakoarekin, hilik eta esna dagoen izaki bizidun bat. Ez zekien Zeberioaren amaren etxean zer espero, baina gehiegi kostatzen gabe imajina zezakeen hildako seme beti gaztearen irudiz beteta aurki zezakeela etxea. Etxe guztia umezaroko eta lehen jaunartzeko umearen argazkiz josia, han eta hemen? Zoriontasun fosilizatuaren printzak metraila gazi-gozo baten gisara etxeko apaletan barreiatuak? Zoriontasun printza txiki haiek izan ote zitezkeen ezer, minaren konstelazioko izar domestikoak besterik? Galdutako umearen argazkiak, santu baten estampa bihurtuak? Zeberioaren amaren etxera bidean, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarraldietako argazki

orain baino askoz ere urriagoen kolorea oroitzen saiatu zen Diego: Agfa eta Kodak etxeko kolore biziak, argazkiak ongi errebelatzen zituzten orduan, pixelaren leherraldiaren eta pantaila izorranteen aurretiko garaian. Ez zekien Zeberioaren amaren etxean zer espero, aldare bat akaso, hildako semearen gela hark utzi zuen bezalaxe gordea: denboran atzera egiten zuen gela bat, hormako paper pintatu berbera, Victor Jaren diskoak, hirugarren munduari eta marxismoari buruzko liburuak, Che Guevararen eta Perturren poster bana, bata bestearen ondoan koplaka aritzeko moduan biak; mendiko botak eta patrika askoko txalekoak, SESB eta Jugoslavia puzzlekatu gabe zeuzkan munduko maparen bat agian horman txintxetaz iltzatua, mundua mundu dela ez ahazteko; Zeberioaren ehi-zarako eskopeta, auskalo, arrantza egiteko kanabera bat, zergatik ez.

Topatuko zuen etxeaz gogoetan ari zen, bere amaren etxearen antzeko bat, sukalde inguruan eta sukaldeko irratiaren eta egutegiaren inguruan ardaztutako etxe antzinako horietako bat espero zuen agian. Mariano Ferrer zen irratia orduan eta Seaska-koa edo Caja Laboralekoa kalendarioa; mantelinaz estalitako telebista ipur-zabalak, ohe-buruko katedrali-

zioak, souvenir nostalgiko merkeak baina urrunetik ekarriak, Lladró etxeko zeramikaren bat, anai-arrebek konpartitu eta borrokan egiten zuten gela ohe-bikidunak, bodegoiren bat korridorean, alfonbra itsusi samarrak, entziklopedia gorrilunak egur iluneko bibliotekatan, kulunkaulki bat aukeran, amona haiekin bizi zen kasuetan; mesanotxe bana eta lanparatxo bana kanoak aginduta bezala ohearen alde banatan, lanpara sofistikuak agian, elektratresnen denda bat zeukaten Zeberioen gurasoek bere garaian... Ahizpek segituko zuten, agian, negozioan.

Zer eskubide zeukan Diegok Soto eta Zeberioen afera berriro ateratzeko, epaiketa berriro irekitzeko frogara aski bazegoela eta sinadura bat eskatzeko? Berri al zegokion berriz ere komunikabideen errotak eta egunkarietako tinta errekek isurtzen has zitezela bultzada ematea? Agirre Sesmak garbi esan zion familiak eskatu behar zuela, familia zela lehenbizi, errespetu osoa zor zitzaiela, pauso bat bera ere ezin eman zutela haien adostasunik gabe.

Xabier Sotoren gurasoekin kafetegi batean geratu zen bi egun lehenago. Inarrosita utzi zuten haren amaren hitzek: «Hasierako urteetan Xabierren lagunekin egotea gustatzen zitzaidan. Xabier nola helduko

zen, Xabierrek zein arazo izango zuen, Xabier non biziko zen eta zertan lan egingo zuen. Lagunek mantentzen zuten Xabier bizirik eta Xabierren lagunekin egotea Xabierrekin egotea zen. Gero gogaitzen hasi nintzen. Non zegoen Xabier? Hilik zegoen. Aukera nitzakeen bere lagun izandakoen artean batzuk eta haien bertute eta akatsak gure semeari atxiki. Historia jarraitu historiarik ez zegoen lekuan. Haien hanka-sartzeak eta azertuak har nitzakeen etxekotzat. Baina ez al zen faltsua? Seme bat izan eta seme hori galtzea oso gogorra da: ez bilatu seme hori haren lagunetan. Ez pentsatu haien zimurrak eta haien seme-alabak eta haien ile zuriak zure seme galduaren zimurrak eta seme-alabak eta ile zuriak direnik. Zure hildako semea, inon izatekotan, zure hitz egiteko posturan dago, zure ibiltzeko posturan eta zure etorkizunari begiratzeko modu etsituan. Eta etorkizunari begiratzeko modu etsitu horri aurre egiteko indarrean ere badago zure seme galdua. Nik hala ikusten dut behintzat».

Hori entzutea, senarrak eskutik heltzen zion bitartean. Senar nekatu bat, bere emazteaz eta bizitzari aurre egin izanaz harro zegoena. Mina inguratu eta mina biltzen duen harrotasun klase bitxi bat. Seme bakarra zuten Xabier.

Zeberioen ama ez zuen bakarrik aurkituko. Haren alaba zaharrena ere zain izango zuen, luze samar hitz egin zuen harekin telefonoz, eta akaso aurreratuko zion amari zer edo zer, lanaren zatirik zailena eginda aurkituko zuen bera iristerako, kafea aterako zioten pastekin, abegi ona beste ezeren gainera.

Ez zekien Zeberioen etxean zer espero, Sotoren gurasoen etxea ikusi gabe geratu zen, jakin-nahi mor-boso samar hura ase gabe, eta orain doblekoa zen Zeberio bizi izan zeneko lekua ezagutzeko gogoia.

Ez zekien zer espero behar zuen, baina ez behintzat aurkitu zuena. Etxe moderno eta funtzionala, bilobak zaintzen zituen andre pizkorra, jostailuz eta ume kotxez betetako korridoreak, haurren marrak naif desproporzionatuki zoragarriak txoko guztietan, ukitzeko gogoia ematen duten panpinak, gomazkoak eta oihalezkoak, kolore bizitako errinozeroak eta elefanteak. Hunkitu zuen detaile bat ere bai: manta eskoziarra gela bateko ohearen estalki. Korapiloa egin zitzaion eztarrian manta hura ikusitakoan, mendian galdu ziren egun hartaz akordatuta: «Jode, Zeberio. Hire maitasun habiatxoak duk hau? Hona ekartzen dituk hire mojatxoak? Larru-pasara rupestreen zalea haiz, orduan?».

Zeberioaren amak apenas egin zion kasurik. Haren alabak, Keparen arrebak, zuen heredatua begiradaren gogortasuna, mesfidantza, agenda bat eramateko eta handik ez desbideratzeko borondatea.

- Ordu erdi daukagu...

Gogortasun horrek harritu egin zuen apur bat. Ama ez zen haiekin eseri, biloba nagusiena bainatzen ari zen, zeuden lekuraino heltzen ziren uraren txipli-txapla eta xaboiaren lurrina.

Nekeza egiten zitzaion hastea, itzulingurua eskatzen zion gorputzak, elkarren berri jakin eta azken urteotako ibilerak aletzea. Zaila suertatzen zitzaion titiko umea izateari utzi arren txupeteari bularrari bezain gogotsu heltzen zion haurra magalean zuela Zeberioaren arrebari neba torturatuaz mintzatzen hastea, horrela, brastakoan. Leun hasten saiatu da, klixek baino balio ez duen lekuan.

- Ondo ezagutu nuen zure neba.

Distira ziztatu zitzaion begietan neskari.

- Nik baino zorte handiagoa izan zenuen, orduan. Hamahiru urte nituen desagertu zenean, ume bat oraindik.

Ume bat oraindik. Bere buruaz ari zen, baina ari zitekeen neba desagertuaz ere.

- Jatorra zen, eskuzabala.

Baiezko keinua egin du emakumeak, ezaxola. Jakin-min handiagoa erakusten du magaleko umeak, txupeteari saka eta saka. Hizketan jarraitu du Lazkanok.

- Isila tarteka, baina umorea ateratzen zitzaionean... Behin, galdu egin ginen mendian... Eguraldi txarra zegoen eta zure nebak... Bazuen han gordeleku bat, manta eskoziarrak...

- Kasua ireki nahi duzue oster, ez da hori? Ama ez dakit prest egongo den. Dagokion infernu zatia bi aldiz du pasea, joan eta etorri. Gehiago eskatzea...

- Froga berriak daude. Isilik egon zen jendea hitz egiteko prest dago orain. Abokaturik onena izango genuke. Aurrekari bat izan daiteke gerora beste batzuentzat. Zuei ez zaizue ezer eskatuko.

- Gure kasuan, asko eskatzea da ezer ez eskatzea. Ez duzu uste?

Zerbait gogoratu du Diegok: «Beti dago beste muino bat».

- Zalantzarik gabe, Soto gora eta Zeberio behera ibiliko lirateke bolada batez berriro ere egunkariak, hori ezin dizut...

- ...eta kazetariak ate joka, eta telefonoa hoska. Suitzara joan behar genuke bizitzera eta gero bueltatu?

Irribarre egin du Zeberioaren arreba, samurtasun une bat, urregorria balio duen umore printza leuna. Eskuzabala zen arreba ere, Kepa bezala, ezagun zuen.

- Aukerak ikusten ditugulako hartu nahi dugu arrisku hori, baina zuen esku dago, jakina.

Isilik geratu zen une batez.

- Hitz egin duzu Xabiren gurasoekin?

Xabi. Geure buruengan pentsatu aurretik lagun hurkoarengan pentsatzeko joera. Geure minean pentsatu aitzin, lagunaren minean pentsatzeko ohitura.

- Haiek ados daude.

Baiezkoa egin du buruaz, ez baiezkoa adierazteko, pentsatzen ari delako baizik. Amona bihurtutako ama sartu da egongelara, xukaderan bilduta neskabila bat dakarrela. Halogeno erregulagarriei eragin die, gelara argi apurra isuriz.

- Ilunpetan zaudete ia...

Erabakigarri mintzatu da Maite Zeberio:

- Haiek ados badaude, gu ere bai.

Diego Lazkanok Agirre Sesmaren urtebetetze festara joan behar izan du azkenean, halakoak gorrotatzen dituen arren. Zorionez hemen ez du inork ezagutzen, eta ez diote bere hurrengo liburuari buruz galdetu, ez dizkiote argitaratu gabe daramatzan urteak gogorarazi.

Kursaaleko kuboak ikusten dira balkoitik. Moneoren prisma zurixkak ez daude pizturik oraindik. Sabai altua, etxe hura betidanik familia berarena izan den itxura. Aitona-amonek gurasoei eta gurasoek seme-alabei utzia. Agirre Sesmaren etxeko libururik zaharrenen bizkarrei erreparatu die Lazkanok, ez daukate zerikusirik bere abokatu-zuloan dauzkanekin: Ludwig Feuerbach, Rosa Luxemburg, Antonio Gramsci, E.H. Carr, Leon Trotski, Marta Harnecker... Aurrekoek adina espazio betetzen dute Engelsek eta Marxek.

Jabetu da Agirre Sesma Lazkanoren begiratuaz.

- Liburu horiek ezin izan nitzake nire bulegoan, bezero batzuk izutu egiten ziren garai batean. Orain zientzia fikziozko egileen izenak direla usteko luke jendeak.

- Kausa galduen abokatua...

- Demagun *epe laburrean* galduta dauden kausen abokatua naizela.

- Epe luzean irabaziko diren horiena...

- 77an, adibidez, espetxetik irteten ziren presoei langabezia-sariaren antzeko bat eskatzearen alde jardun genuen, berriro ere lapurreta txikietara haiek ez kondenatzeko, preso sozialez ari naiz, ez politikoez... Eskandalua iruditu zitzaion askori eta ez zen aurrera atera, baina handik zazpi urtera bai, 84an, ontzat eman zuen Kongresuak.

- Tartean zeunden?

- Tira, kaobazko jarlekuetatik aparte genbiltzan gu... Baina bai, egiten genien lan zikina noizean behin aulki-berotzaileei... Urte biziak izan ziren: beti da politagoa gauzak ezerezetik sortzea... Zuk badakizu zer-bait horretaz.

- Bitartekaria ere izan zinen...

- Murillo eta biok txandakatzen ginen. Ez zen beti ondo atera... Ingeniaria daukat bereziki akorduan.

Zurbiltzera egin du Diego Lazkanok. «No te vamos a hacer nada, descuida». «Dale una *pasara* con esto». Alemana zekien gizona. Zulo gaizto horietakoren bat. Fumigatzea onena. Habia handi samarra. Inurriak akabatzen. Bera eta biak, eskuz esku.

- Zu izan zinen bitartekaria?

- Bai, gogoratzen duzu kasua?

- Lausoki...

- Jarrerak oso enkistatuta zeuden egun haietan...

Dirua eskatzen zutenean, Jauregizarrekin-eta, erraza zen, baina propaganda zenean kontua... Arantza horiek, hor jarraitzen dute. Norekin hitz egin halako gauza bati buruz?

Gaia apur bat desbideratzea ebatzi du Lazkanok:

- Armak hartu zituen jendea defendatu zenuen garai batean.

- Garai batean armak hartzeko arrazoiak genituela uste nuelako.

- Baina zuk ez zenituen hartu...

- Kirofanoetan laguntzaile egin nuen soldadutza.

Han ikusitako odola, nahikoa... Beste era batera borrokatzeko baliagarriagoa nintzen ni.

«*Baliagarriegia* itzalean egoteko, ezta?». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak. Lazkanok Sotoren hitzak oroitu zituen: *borroka asmatua*. Zer esan nahi ote zuen harekin, zehazki? Asmatu egin behar zela borrokan, ala irudikatu egin behar zela? Oso gauza ezberdinak, eta are, kontrajarriak ziren bata eta bestea. Hori zeukan Sotok: hainbeste urteren ondoren, haren pentsamendu eta esaldi bihurriak etortzen zitzaizkion Lazkanori burura.

Hitz beste egin zuen Agirre Sesma abokatuak, bere berbaera ezinago logikoa errefusatuko zioten arriskua sumatu orduko egin ohi zuenez:

- Lanean hasi aitzin, biok berdintasun egoeran egon beharko genuke, ados zaude nirekin?

Aurrez aurre begiratu zion Lazkanori abokatuak, beragan bere aspaldiko ispilua bilatu nahi balu bezala. «Amiltzeko arriskua, eta berriro ere amiltzeko aukera izango duzula jakitea». Apartatu egin zen Diego, norbaitek bere larrua zure larruan txertarazi nahi dizunean izututa egin ohi dugunez, geure burua atabikoki babestuz: «Ni ez nauzu oraindik maldan beheran sartu; ez nazazu zulora biok eror gaitezen hel. Bi gara. Zu hor eta ni hemen. Ez gara berdinak».

«Zu Zapoa zara», otu zaio, halakoxe itxura baitu Agirre Sesma abokatuak.

- Berdintasun egoeran? Zer esan nahi duzu?

Baina jakin gabe geratu da: ile ez hain luzea txirikorda ttipi anitzetan bildua eta soinekoa beltz, emakume gazte bat inguratu zaie eskumuturraz bonbilla laxatzen ari balitz bezala agur eginez. «Bai eme delikatu», Lazkanok bere artean.

- Hara, nire alaba: Cristina... Zatoz, Cristina, bezero bat aurkeztu nahi dizut.

- Zorionak, aita.

Laxo zuriz bildutako pakete txikia eman dio aitari eta bina musu aitari eta hark aurkeztu dion lagunari. Neskaren perfume pizgarriak kilika egin dio Diegori. Aitari egin dion oparia dendan ez baizik eta alabak lotua zen, soinekoa atzetik lotzen zuen korapilo-modu berbera zekarren, laxo luze obal erorixea. Zaldi baten brotxeak ziztatzen zion soinekoa paparrean, bular batetik bestera jauzi egin nahi lukeen zaldia. Aparizio bat izan zen: helduago zirudien urrunean, baina neska hurbildu ahala gaztetzen joan zen, benetako adinaren neurria azpimarratzen. Leizearen bestaldean oraindik, Cristina. Dena freskotasun, dena pasio, kraterrik gabeko azala. Bere gaztetasun iraingarriaz kontziente ez den gaztetasun barkaezin hori, gizon basatiari besarkatua izatea eskatzen dion emakume ederra, ongi hezitako gizonak sekula besarkatuko ez duena, irrikak irrika, leizeak leize.

- Eta? Merezi duen soldata emango diozu aitari, edo denek bezala, lana bai, baina etekina gutxi?

- Cristina, arren...

- Ez daude bera bezalako asko, harro egon behar zenuke.

- Banago, ez pentsa hain alaba esker txarrekoa naizenik. Baina nahikoa hondoratu du familiako ekonomia. Kontatu dizu zenbat hipoteka dituen etxe eder honek? Nik ematen diodan pentsioari esker bizi da, ez dakit aipatu dizun.

Zakarkerian ere dena distira eta dena bozkario Cristina hizketan. Irribarre urduria egin zuen Agirre Sesma abokatuak, une hartatik aurrera Lazkanok bere kolkorako Zapoa deituko zuenak. Mutiko gazte, leizearen bestaldeko bat inguratu eta ukalondotik heldu zion neskari. Festa giroaren epizentrorantz irristatu ziren biak gero, barre algarak non, haiek harantz. Zapoiari begiratu zion Lazkanok. Apur bat lotsatuta zirudien, deseroso.

- Ez egin kasurik alabari. Txantxetan aritzea gustatzen zaio, bere amak egiten zizkidan broma berberak egiten dizkit berak orain. Duela bi urte hil zen Emilia eta...

- Sentitzen dut.

- Tira, ospakizunetan gaude hemen -esan zuen xanpaina zintzurreratuz, kontrolik galdu gabe, flema handiz.

- Ez gaizki hartu, baina ez dut ongi ulertzen nolatan gonbidatu nauzun urtebetetze festara. Ez dut esan nahi eskertzen ez dudarik, baina...

- Ez dira urtero hirurogeita bost urte betetzen. Eta ez daukat hainbeste lagun ere... Nire ogibidearen gorabeherak, badakizu.

- Kontrakoa ere pentsa daiteke. Jende asko ikusten dut nik hemen inguruan. Denentzat lan egin duzu musu-truk?

- Musu-truk lan egiteak ez du esan nahi gero beti jendea zurekin esker onekoa denik.

- Ez da nire kasua izango.

- Goiz da hori baieztatzeko. Oraintxe esan didazu ez dakizula zer egiten duzun hemen, ezagutu berri duzun bele zahar honen etxean.

«Bele zaharrarena zeure uztakoa da. Nik Zapoa deituko nizuke». Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

- Erosoago bazaizu, hitz egin dezagun kasuaz, orduan: aipatu zenidan lekuko hori, mintzatu zara harekin? Prest dago epaiketan deklaratzeko?

- Ezetz dio... Baldintza egokiak bilatu behar, ikaratuegi dago oraindik. Lekua ezagutzen duela dio, eduki gintuzten lekua.

- Lotu dezakezu hitzordu bat harekin?

- Nahi duzunean. Bulegoan?

- Ados. Orain, barkatzen badidazu... etxera itzuli beharra daukat.

- Jakina. Denok ditugu eginbeharrak. Zaindu beharreko etxe bat.

- Nik baino hobeto dakizu hori -bota du Diegok, Cristinari begira, kopa hutsa altxatuz-. Urte askoan.

- Ez gehiegitan, aukeran.

- Osasunez bada ere ez?

- Larruari modu kontenplatiboan so egitera kondentuta zaudenean...

- Asko hitz egiten duzu zuk larruaz sexu kontuak ahaztuak izateko.

- Mintzatuz ere ahantz liteke, isilduta adina. Apuntatu hori zure nobelaren baterako.

Ez zion erantzuteko abagunerik eman. Kalerako aterantz hartu zuen Diegok. Gustura zegoen Zapoaren alaba mutilarekin, irribarreak dotoreziarik gal ez zezan eskua hortzetara eramanez tarteka, ezaxola, xanpaina urrun ez. Zaldiak bular beraren gainean jarraitzen zuen, airean, bestaldera ezin.

Zimiko batez argiarazi zuen Diegok eskailburuko leizea, baina bonbilla eskasegia zen hura hain sabai altuko eraikina argitzeko.

Vargasen konfesioak bultzada berezia eman zion kasuari. Hezurak agertzeak, zer esanik ez. Egun batetik bestera, desagertu zirenek desagertu izateari utzi zioten. Orain ez zekien inork nola deitu.

Soto eta Zeberio oihuka ari ziren berriro. Ez zioten agian oihu egiteari utzi azken urteotan. Baina orain oihu entzungarria zen haiena.

Diego Lazkano eta Agirre Sesma, Zeberioaren arrebarekin eta Sotoren aitarekin batera joan ziren Cartagena go gorpu-biltegiraino. Mediku forentseak sartu orduko ohartarazi zien:

- Hezurak besterik ez dira, ez dituzue ezagutuko. DNA frogatik egin beharko da.

Tematu egin ziren hezurak ikusteko. Ez omen zen posible.

- Dena da posible. Hitz egin dezaket zure nagusiarekin?

Nagusiarekin hitz egin zuen abokatuak. Nagusiaren nagusiarekin gero. Eta geroago guardiako epailearekin.

- Ez gara hemendik joango gorpuak ikusi arte.

Gorpuak, hezurak... Zaila zen hitz egokia topatzea. Agirre Sesmak berak ere hitz ezberdinak erabili zituen, norekin ari zen arabera.

Abokatuak lortu zuen azkenean, baimena.

- Binaka sartu, ez dago lekurik denentzat.

Hiru sartu ziren: Zeberioaren arreba, Sotoren aita, Agirre Sesma.

Listua irentsi zuten eta hezurrei begiratu. Bata zuriz jantzitako gizon bat egon zen denbora guztian, haiekin batera. Zeren beldur ziren? Hezurak lapurtuko zituztela uste zuten?

Ohatila banatan zeuden. Zeberioaren arreba ohatila batekoari begira geratu zen, isilik. Sotoren aita bestearen parean, zutik baita ere, eskuekin aurpegia tapatuta, isilik baita ere. Nork bere hildakoa hautatu zuen. Agirre Sesma ez zen ausartu ezagutu ote zituzten galdetzen, edo espontaneoki hautatu ote zuen nork berea. Badira galdetu ezin diren gauzak. Zeberioaren arrebak Sotoren aita besarkatu zuen gero. Biak geratu ziren hezur berberei begira.

Bataduna azalpenak ematen hasi da:

- Kare bizitan lurperatu zituzten. Ehiztari batek aurkitu zituen, baina inork gorpuzkinak erreklamatu

ez zituenez... Ezezagunak bailiran gordailatu dira, deposituan.

- Hainbeste urtetan?

Mediku forentseak aurpegia mudatu gabe altxatu ditu sorbaldak.

- Nola liteke Soto eta Zeberio desagertu eta handik urtebetera bi gorpu agertutakoan bi gertaerak ez lotzea? -galdetu du Agirre Sesmak.

- Garai hartan ez zegoen oraingo sistema informatikorik -erantzun dio mediku forentseak-. Ez zen orain bezala.

Ez zen orain bezala.

La piel de toro. Komunikazio kapilarra. Trenbidearen zabalera ezberdina. Esaneko gizonak, diktadura baten erraietan bazkatuak.

DNA laginak hartu zituzten. Cartagena utzita etxerantz abiatu ziren gero, *Valle de la Escombrera 10 Km, La Aparecida 4 Km*. Etxerantz abiatu ziren, deskantsurik ez hartzera. Sotoren aita zihoan gidari. Maite Zeberio zuen ondoan. Diego Lazkano eta Agirre Sesma atzean. Autobidean ez zuen inork hitz egin. Usain sarkorra zerion aire-freskagarri zintzilikariari; «Arbre Magique» zuen idatzia pinutxoak, letra zuriz.

Bi asteren buruan iritsi ziren frogen emaitzak. Baietz. Haiek zirela. Jakingo ez balute bezala.

Egunkari eta telebistak esnatzen hasi ziren. Egun batetik bestera, denek ziruditen kasuarekin arduratuta. Zalaparta eta espantuak. Tortura ebidentzia ukaezinak zeuden gorpuzkietan. Epaiketa eguna aurreratu egingo zen itxura guztien arabera.

Agirre Sesmak ez zuen ondo hartu: «Ez dute gugatik egiten, haiengatik baizik», argitu zion Lazkanori. «Ez digute kasua prestatzeko denborarik eman nahi». Kosta lain kosta, Javier Fontecha gobernuaren delegatu ohia, Agirre Sesmaren ezagun zaharra, ez zipriztintzea zen asmoa.

Rodrigo Mesa teniente koronela seinalatzen zuen Vargasek, zuzen-zuzenean.

«Itxura penagarria dute, ezin ditugu horrela utzi: desager daitezela».

Eta Rodrigo Mesak harreman estua izan zuen garai hartan Javier Fontecharekin. Teniente koronelaren manupean zeuden hainbat gizon inputatu zituzten. Portugalerantz pista berriak zabaltzen zituzten arrastoak agertu ziren, arma-saltzaile italiarrak. Kontua asko konplikatzen zen eta denbora ez zihoan haien alde.

Zapoaren bulegoko atea zabalik topatu zuen Lazkanok, argia zegoen liburuz jositako korridorearen amaieran, eta ahots letania bat bereizten zen tunelaren amaieran; Zapo, dudarik gabe. Ikaratu egin zen Diego, abokatu bakarrik hizketan hasia zela susmatutakoan. Aranzadiko jurisprudentzia kodeak nonahi irekiak, pleguak, barru usain gero eta nabarmenagoa, eta horrekin batera, zerbait berria: izerdia perfumatzeko zuen lurrin bat, Diegori ezaguna egin zitzaiona. Bere harridurarako, Zapoarekin zegoen Cristina, ordenagailu eramangarri, kode maiztu, koaderno eta paparkien artean makurtuta, bular joriak jertse barruan kontrolatuki bulunban, Diegoren begien talaia pribilegiatuaren bistan.

- Lazkano, ez zintudan gaur espero... Eseri, eseri hemen. Bukatzear ginen...

- Ez nuke enbarazurik egin nahi.

- Bai zera, ia bukatu dugu-eta: zatoz gero gurekin afaltzera! Xehetasun batzuk baino ez zaizkigu falta.

- Ez nekien Cristina ere...

- Laguntzaile bat hartzeko asmoa nuen, baina bera zuzenbidea ikasten hasi zenez gero... Badakizu

bigarren urtean abandonatu zituela aita eta aitaren bokazioa?

- Aita, mesedez.

- Defentsaren abokatuaren papera eman diot, pausoz pauso ari gara epaiketa entseatzen.

- Laguntzaile, beraz...

- Nor hobea ordu estrak sartzeko? Norbait esplotatu behar badu, esplota dezala bere alaba.

Zenbait neskatila gazterekin gertatu ohi den bezala, begizuloek tormentu dosi doia ematen zioten Cristinaren azal freskoari, bizitzan oraindik deus txarrik ez ilunik gertatu ez zaien neskatila umeegi, samurregi, nortasunik gabekoegi horien itxuratik aldenduz. Irribarre egin zion Lazkanori, intentziaz, ron koloreko begiekin. Gehiago makurtu zen, aitaren bistatik urrutiago, titiak eta jertsearen gaineko brotxea Lazkanoren bistarago are. Zaldunik gabeko zaldi hura. Gona tarratatu eta bere gainean etzateko irrika basatia erne zitzaien orduantxe. Ongi hezitako gizonak sekula egingo ez lukeena, irrikak irrika, leizeak leize.

- Rodrigo Mesaren aitortpena, instrukzio garaikoa, sinatu gabe dago. Hortxe dugu ahultasunik handiena berarekin.

- Baina ez dago arazorik: Vargasek egindako adierazpenen fede publikoa jaso zuen idazkari judizialak. Deklarazioak badu berme bat, eta bat dator gainerako lekukoek eta Rodrigo Mesak berak lehen adierazpenean esandakoekin.

Gertatzen zen: aitorpen bat egin eta gero atzera ukatu. Rodrigo Mesa eta Vargas bezalakoekin, zer esanik ez.

- Ezingo du orain esandakoak baliogabetzeko hain erraz atzera jo. Hurrengo koska, defentsaren abokatu andrea?

- Grabazioen baliogabetzea eskatuko dute. «Ezkatuko grabaketen baliagarritasun eza» Auzitegi Gorenak 1996ko martxoaren 3ko sententzian emana.

- Irakurri, mesedez.

- «Epaitegi honek lau pertsonaren artean haietako batek gainerakoek onespenez gabe ezkutuan egindako grabaketa baliogabetzea erabaki du».

- Bai, gogoan dut epai hori. Hor ere ez dut hain besteko arazorik ikusten: epaitegiak atzera bota zuen grabazioa, baina ez intimitateari edota komunikazioen sekretuari egindako erasoaren neurrian, ez baita halakorik, baizik eta...

- «...metodo hauen bidez lorturiko elkarrizketa bat onartezina delako jardunean dagoen prozesu kriminal baten baitan, parte-hartzaileetako baten aitorten bezala baliogabe izanik, probokatua delako eta ez espontaneoa, eta beraz printzipio konstituzionalek ezarritako bermerik ez duena».

- Horratx. Baina gure kasuan ez da *aitorten probokatu* bat, baizik eta prozesatuak bere iritzia zergatik aldatzen duen azaltzen duen grabaketa bat, eta beraz, epaileak kontuan hartu beharko du, nahi eta nahi ez. Prozesuari dagokio, edo hobe esan, prozesuaren degradazio ahalegin bati. Erabat pertinentea da, beraz, epaiketan, prozesuari egindako kalitate test bat den neurrian, nolabait esatearren.

- Oso ziur zaude.

- Hain ziur ere... Tesi hori indartzen duten sententziak bilatu behar. Egon badaude, baina nire memoria ez da garai batekoa, Cris. Begiratu ea, biharko.

Erdirik ulertu ez arren, tenis partida ikustearren pare zen hura. Gozagarria benetan. Diego Lazkanok une batez Cristinaren paparreko zaldia burutik kentzea ere lortu zuen, *tie-break* estu hark.

- Grabaketaren kalitatea ere hor dago, oso txarra. Ez du horrek gure alde egingo, hain justu.

Zapoa puztu egiten zen unean-unean:

- Hain justu ere oker zaude oraingoan ere, defentsaren abokatu andrea: zinta faltsua dela argudiatuko dute haiek, baina faltsua balitz, faltsifikatzaileak kalitate oneko faltsutze bat egiteko adinako nekea hartuko luke, ez duzu uste? Zertarako faltsifikatu gero nekez ulertzen bada elkarrizketaren mamia, *tribunaleko jaun-andreok*? Gainera, grabatutako elkarrizketa kasuarekin zerikusirik ez duten iruzkin kasualez bete-ta dago, hipotetikoki posible litzateke halako grabaketa bat faltsutzea, baina gidoilari talde on bat eta aktore are hobek beharko lirateke hori egiteko... Eta Vargasi buruz zerbait baldin badakigu, beha bestela hermerotekan egin dizkioten soslaiak, irudimenik gabeko norbait dela da. Bere gaitasun mentalak neurtzeko lehen egunean deituko duten psikologoa puntu hau garbi uzten duen galderaren bat egitera derrigortuko dugu. Apuntatu hori: *tranpa-galdera Vargasen irudimen eskasa agerian uzteko*. Apuntatu duzu? Sabela zotinka dabilkit, ene. Afaltzera joan gaitezke orain?

- Rodrigo Mesaren aitopena falta zaigu.

Bost setetara zebilen Cristina. *Deuce*. Sakeak barrura.

- Instrukzio garaian egindako deklarazioan apenas gogoratzen zuen urriaren 15etik 16rako gauean egin zuena. Aurreko epaiketan, aldiz, bost urte geroago, xehetasun txikienik ere ahaztu gabe kontatzen zituen bere gau hartako ibilerak... Kafetegien izenak, familia-ko koartadak... Susmagarri samarra ez al da bat-bateko memoria suspertze hori?

- Ez uste, alabatxo: zein da nire lema?

- Murgil gaitezen subjektibitatean?

- Esatea ez da aski: jar dezagun praktikan. Zergatik isildu zen lehen aldian? Norbait babesteko, zerbait ezkutatzen ari zelako. Lehen aldian amnesikoarena jotzen ari bazen, bigarrenengan gezurretan. Bere aldaketa horrekin bi aitorenak baliogabetuko ditugu eta hirugarren bat eskatuko, ea zeri heltzen dion oraingoan. Gainera, gau hartan beste bi akusatuekin elkartu zela, hori behintzat mantentzen du gutxien-gutxienez beste bietako batek...

- Perez Gomerak. Guardian zegoen beste poliziak, Hernandezek dio ez duela gau hari buruz ezer oroitzen.

- Hernandez da homosexuala, bizitza ezinezkoa egiten ziotena?

- Berbera.

- Gehiegi jipoitu dute komunikabideek. Vargasekin jokatu behar dugu... Honengan jarri behar dugu pisu osoa: bere testigantza da xehetasun gehien dituen, indartsuena, beraz. Gure makulu nagusia izan behar du Vargasek.

- Pertsona aldakorra da, ordea. Bi aldiz egon da psikiatrikoan. Bost astez lehen aldian eta bi hilabetez bigarrenetan. Defentsaren abokatuak bere buru-osasunaren karta jokatu eta auzitan jarriko ditu bere deklarazioak.

- Vargas psikiatrikoan egona da? -esku hartu du Lazkanok.

- Bigarren aldian ospitale militar batean, gainera. Auskalo zer ez ote zioten sartu.

- Orain gaixorik ere badago. Ez burutik bakarrik. Baditu urte batzuk. Biriketako minbizia duela diote.

- Ospitale militarrean zen bitartean atzera egin zuen: Soto eta Zeberio ez zituztela El Cerron izan adierazi zuen...

- Baina lehenago kontrakoa esana zuen... Eta gainera, El Cerrokoa Lazkanok berak baieztatu lezake, ezta?

Diego Lazkanok listua irentsi du. Fabian eta Fabian oroitu ditu. Boger kolunpioa. Leiho hura. Garo artera

nola erori zen patetikoki. Polizien barreak. «Qué más dará, la dejamos con be». Baiezkoa egin du buruaz eta Cristinaren begiradari zuhur litzatekeena baino luzeago eutsi.

Agirre Sesma ez da, ordea, desioz betetako begirada hartaz jabetu.

- Bai, ea, utzi ikusten: «Instrukzio epaileari esandakoak nire kartzelatzeak eragindako bakardade eta abandonu egoerak eragindako sentipenari eta epaileak berak egindako manipulazioari» egozten dizkio... Baina oraingoan ere ez didazue jaramonik egiten, *murgil gaitezen subjektibitatean*: zergatik sentitzen zen bakarrik eta *abandonatuta*? Berak bere parte bete zuelako eta bere gaintetik zegoen Rodrigo Mesak ez, hara hor zergatik sentitzen zen Vargas bakarrik eta abandonatuta! Traizionatu egin zutelako. Zer gorderik ez balu, ezer egin ez balu edota egindakoa bere kasa egin izan balu, ez zatekeen «abandonatuta» sentituko, inolaz ere... Ez zaizu iruditzen?

- Zuk diozuna eta gehiago. Epaileari zer iruditzen zaion ikusi behar.

- Zuk nola ikusten duzu, Lazkano?

- Rodrigo Mesa teniente koronela neukan buruan... Berak dioenez, El Cerron izan gabea zen seku-

la, baina hemen dio El Cerro palaziora eramán zuten lehen aldian primeran moldatu zela: inork ezer esan gabe aurkitu zituen sumarioan aipatzen ziren gelak eta montakargasa, gas-sukaldea... Dena aurkitu zuen di-da batean.

- Arrazoi, Lazkano: bere inpultsuek, kontrol itxura adierazi behar horrek, hain kontu militarra dena, bestalde, traizionatu egin zuten... Paradoxa polita, ezta? Ume bat ere konturatuko zen ez zela lehen aldia El Cerron zegoena.

- Etxebizitzen egituretan espezializatua delako, esan zuenez. Logika hutsez aurkitu omen zituen horiek denak.

- Disimulatzen ere ez zen saiatu. Bera tartean zegoen seinale...

- Berandutzen ari da. Cartagenako Ser irratora egindako deia biharko utziko dugu?

Zapoa zen orain amorerik ematen ez zuena:

- Ea, buka dezagun: freskatu memoria, zertan da hori?

- 1984ko urtarrilaren 20an izan zen.

- Lau hilabete geroago, beraz.

- Bai.

- Ez dirudi oso gertagarria lau hilabetez Soto eta Zeberio El Cerron bahiturik izatea.

- Ez, ez da logikoa. Arriskutsuegia litzateke, luzeegi da. Gainera, hau ez da Argentina, ergel horiek ez zeuden jendea hilabete luzez torturatzeko prestatuta... Ez zeukaten azpiegitura egokirik.

Hau ez da Argentina. Hau ez da Txile. Soto eta Zeberioaren ahotsak berriz: zoroa, anaia.

- Barka, Lazkano... Ez nuen zure atxilo-aldia guxtietsi nahi...

Cristinak txosten multzotik apartatu zuen begirada: orain bera zen harritia. Puntuak irabazten ari ote zen Lazkano?

- Ez kezkatu nigatik.

- Jarraitu, Cristina.

- Baina ez da logikoa, bestalde, gorpuak ezkutatzeke halako nekeak hartu ondoren beraien hilketa errebindikatu eta lurperaturik dauden lekuaren berri zehatza ematea lau hilabete besterik pasatu ez direnean, ez zaizue iruditzen?

- Gainera, urriaren 25ean *Egin* egunkarira egindako deia dago.

- Batallón Vasco Español egina eta gorpuak Oursbelille bidean, Tarbetik gertu zeudela zioena. Baina gezurra zen.

- Ke gortina bat.

- Ke bafada oso kontrolatua, hala ere: kontrolatuegia. Aldarrikapen hori egin zuenak bazekien gorpuak lurperatuta zeuden lekuaren berri. Beha mapan, Tarbe Angelutik ipar-ekialderantz dago, eta gorpuak Angelutik hego-mendebalderantz azaldu ziren, ez iparralderantz eta ez ekialderantz, bi zentzuak alderantzizaturik baizik.

- Despiste *kalkulatuegia* dela esan nahi duzu?

- Bai, eta baita beste zerbait ere: akusatuen aulikian eseriko direnak baino gehiago zirela gertaeren berri izan eta sarraskian parte hartu zutenak.

- Fontecha gobernuaren delegatua zena, adibidez.

- Eta hortik gora.

- Hori hasieratik genekien.

- Fontecha inputatuta dago...

- Baina ez hilketan.

- *On vera...* Amorratu egiten zaitu horrek, Lazkano?

Zer esatea nahi zuen? Erantzuna baiezkoa zen, baina egia mingarriegia zen aldiro hari aurre egiteko.

Justizia, halakorik ez zen, garbi utzi zion bunker hartara agertu zen lehen egunean bertan Zapoak. Ados ziren horretan. Baina behar genituen hitz batzuk elkar ulertzeko, ala? Cristina jabetua zen Diegoren ezinegonaz; lehengo hariari heldu zion osterera ere, Lazkanorekin errukiturik, nork daki.

- Oraindik ez dut errebindikazioaren zergatia ulertzen... Harrokeria kolektibo kontua izan zen sekretua haizatzea? Edo norbaitek bere kabuz hartuko zuen erabakia, bere nagusiei deus galdetu gabe? Nola ikusten duzue?

- 84ko urtarrilean Cartagenara egindako deia norbaitek bere kabuz egin zuela uste duzu? Beroaldi batean? Besteei deus esan gabe?

- Hernandez daukat buruan...

- Homosexuala zelako? Aurrejuzku gehiegi dituzu, aita.

- Agian bengantza pertsonal bat izan zen, dei horrekin sasiak harrotu, buruzagiren bat atxilotu eta goragoko posturen bat lortu nahi zuen norbaiten salaketa interesatua...

- Zuk uste?

- Ez dugu inoiz jakingo: baina zakur guztiak ere ez dira magal-milika eta esaneko.

- Beharbada arrazoi duzu: litekeena da Cartage-nako guardia zibilen artean laguntza eman zuen etarik norbaitek bere kasa bahiketak eta hilketak bere gain hartzea, GALen martxa indartu eta geldirik ez zeudela adierazteko, besterik gabe... Dei horren helburua deskoordinazio seinale begi bistakoa da, edozein kasutan.

Sasien artean lur porrokatu gorrikara eta garai batean zuri izandako marra baten arrastoa. Marra zuri izandakoa beste marra batekin elkartzen da, laurogeita hamar graduko angelua osatuz. Erdiko sarea eta hura sostengatzen zuten bi hesola metalezkoak desagertu dira, baina ez da zaila hor behiala izan zen tenis-zelaia atzematea. Zailagoa da tenis-zelai horretara nondik eta nola sartu, ipar zein hego, ekialdetik zein mendebaldetik baitago belar txarrek hartua igarobidea.

- Bai, hau da lekua.

Zapoak sorbaldatik heldu dio, aitatasunez.

- Aurrera segitu nahi duzu?

Baietz egin du lepoaz Lazkanok, nahiz eta uste baino gehiago eragin dion bere iraganerako *flashback* hark.

Ezagutzen zuen lekua. El Cerro. Ez zuten libre utzi Soto eta Zeberioen oihuak entzunarazi gabe:

«Ezagutzen dituk hire lagunak oihuak?».

Libre utzi zuten bera, balizko suizidioaren umiliazioa eta gero, aitortzea eta gero, eta libertatea bera hasi zitzaion jasanezin suertatzen.

- Usaina ere... ez da aldatu.

Ospa egin zuen horren ondoren. Gurasoek dirua utzi zioten Parisera lehenbizi eta gero Lillera alde egiteko. Moulinaou karrika bisitatu zuen hori baino lehen. Angeluko lagunak agurtu eta Soto eta Zeberioen desagerpenari buruzko susmoak baieztatu zizkien. Mobilizazio, manifestaldi eta presio ekintzetan ez parte-hartzeagatik susmoak eragin zituen erakundean, baina Lazkanok nahikoa ikusi zuen bere bidea ezein erakundetatik kanpo egingo zuela baieztatzeko. «Ez kontatu nirekin». Koldarra deitu zioten, eta traidorea. *Chibato*, hori, bizkarrean zeraman.

Ana maite zuen artean, baina desagertu zen bezala desagertu ondoren, ez zen hari deitzera ere ausartu. Egunero gogoratzen zen berarekin, hala ere. Eta egunero gogoratzen zen diferente, egunero hura diferente gogoratzea zelakoan hartaz geratzen zitzaion azken heldulekua.

Hiru urte eman zituen Lillen. Goizetan unibertsitate-teran joan eta arratsaldeetan kamarero bezala lan egiten zuen. Neska batekin erdi serio ateratzen hasi zen, baina utzi egin zion harekin ibiltzeari Irlandara -Donegalekoa zen- itzultzeko asmoez mintzatu zitzaionean. Ez zuen gatazka armatuekin zerikusia zuten lurraldeekin deus jakin nahi. Errusiera eskolak etorri ziren gero: Kurskeko neska hura, Lena. Maitasun posible bat. Lenaren abandonua. Bere iraganaren zati bat berarekin eramanean zuen eta errusieraz moldatzeko gaitasuna utzi zion trukean. Irabazten atera zen Diego. Mosku eta Kievekin *import-export* negozioak zituzten enpresentzat lan egiten zuen tarteka.

Lazkanori eztarria korapilatu arren sekula oka egitea lortzen ez zuen gauzen zerrenda ez zen urte haie-tan gizona: Faulkner, The Doors, Victor Jara. Promesa batzuk: inurririk ez akabatzekoa, gidabaimenik sekula ez ateratzekoa. Nortasun bat: ezagutu zuen jendearekin egindako adabakia. Bokazio ezkutuko bat: idazlearena, Sotoren oroitzapenaren sua bizirik mantenduko zuena.

«Nigatik hil hintzen, nire bitartez biziko haiz».

- Beraz hemen izan zintuzten -hasperen egin du Zapoak-. Eta Soto eta Zeberio ere bai. Deklaratu egin beharko duzu.

- Deklaratuko dut.

- Ez da txantxa izango. Gogor jokatuco dute. Gupidarik gabe. Trapu zikin guztiak aterako dizkizute. Goitik behera ikertuko zaituzte. Zu eta ingurukoak.

- Bost axola. Ez daukat zer ezkutaturik.

- Oportunistatzat hartuko zaituzte, errotzat, batek daki. Zergatik ez zenituen duela hogeitaka urte salatu, horixe izango da beraien argumentuetako bat... Nola azaldu beharko genukeela uste duzu?

- Kare bizitan lurperatuta aurkitu dituzte Soto eta Zeberio... Esan dezagun ez nuela horrela bukatu nahi. Ez zaizu nahikoa sendoa iruditzen?

Lazkanok ezin zuen burutik kendu: baga, berak gidatzen ez zekielako osatu zuten taldea elkarrekin Sotok eta Zeberioek. Biga: torturen bidez izanagatik -horrek ez zuen Lazkano kontsolatzen-, berak salatu zituen. Sotoren lekuan egon behar zuen berak. Hortik zetorren, Zeberiorengandik baino gehiago, Sotorengandik arduratzeko bere obsesioa, edo, beharbada, haren izaeratik gertuago sentitzen zelako ere bai.

Entzun ditu epaileak bi aldeak. Dokumentazio guztia entregatu dute. Agurtu dituzte prokuradoreak. Bakarrik geratu dira Lazkano eta Zapoa, emozio gehiegi, denbora laburregian.

- Ohartu zara zein usain zuen epaileak?

- Usaina?

- Bai, zein usain zuela esango zenuke?

- *Murgildu zaitetz subjektibitatean* lehiaketako beste froga bat al da?

- Erradazu: zeren usaina hartu diozu? Aspaldi jabetuta nago epaile honek oso usain berezia duela.

- Ez dakit bada, lurrintsua...

- Lurrintsua! Kolore bat koloretsua dela esatea bezala da hori, gizona! Nik esango dizut zer zerion: *silvae odorem leges sapiunt...* Baso usaina dario...

- Baso usaina?

- Bai! Haritz gaztearena, ezamihiluarena, orbela-rena, hosto altuena eta goroldioarena. Ez lore usaina, ez, baso usaina baizik.

- Ez naiz jabetu.

- Badakizu zer esan nahi duen horrek? *Legis silva*, oihaneko legea saihestea helburu izan arren, oihana

dela legea bera... Zuhaitzi sarrian, sasiarte itxian sartzera goaz. Hau ez da *hortus conclusus* bat...

- Gorroto ditut zuen latinkeria horiek, Luis -izenetik deitzen zion aspaldion Diego Lazkanok, harreman estua izatera heldu ziren Zapoa eta biak.

- Ez duzu Horazio zaharra irakurri, ala? Eta idazle deitzen diozu zeure buruari? *Hortus conclusus*, gizona... Lorategi itxia... *Aranearum telis fas est leges comparare*... Armiarma sarearen parekoa da legea: zomorro ttipiak baino ez ditu harrapatzen.

Orduantxe ez zekien Lazkanok berriro ere serio edo adarrean ari ote zitzaion.

Epaileak baso usaina zuen eta El Salvadorreko oihañak txertatu zitzaizkien beraiei buruan duela hogeitaka urte. Bazuen loturarik gauza batek bestearekin? Zerbait esan nahi zuen horrek?

Bulegoan berriz. Azken entsegua egun handiaren aurretik.

- Torturekin ez dute hola eta hala ametorik eman-go...

- Nola ezetz?

- Crisek arrazoi du, ez ahaztu nortzuk ditugun epaile: gehiegi litzateke haientzat. Garezurreko tiroei, horiei, ezingo diete ezinikusiarena egin. Torturarena, ordea...

- Baina... gorpuak bendaz josita agertu ziren!

- Ezagutzen dut defentsaren abokatu bat baino gehiago benda horiek poliziaren alde humanarioa azpimarratzeko erabiltzeko bezain zinikoa dena, Lazkano. Ez dakizu ondo nor dugun aurrean. Lekuko pila bati deituko diote, atzerritik ekarriko dituzte espezialistak...

- Eta ahoaren inguruan zuten zinta isolatzailea, hori ere arrazoi humanarioei zor zaie?

- Horri hel diezaiokegu, baina haien aurrean ez da torturak frogatzeko nahikoa. Alde psikologikotik, agian, hainbat egun, oraindik ez dakigu zenbat, patua-ren ezjakin atxilo egoteak berak dakarren sufrimendu psikologikoa defenda genezake, beharbada...

- Hori legez kanpoko detentzioaren edo bahiketaren barruan dagoela esango dute, ordea. *Ne bis in idem*.

- Barka latinkeria, Diego... baina Cris zuzen dago.

- Eta azazkal erauziak?

- Txosten zehatzago baten zain geratu behar, baina ez litzateke azazkalak hatzetatik *beren kabuz* erori direla esango luketen lehen aldia. Karearen efektua, lurra... Lur eman zieten modua ikusita, horri helduko diote.

- Beren kabuz? Faborez!

- Eutsi kirioei, Lazkano. Eskatuko dugu torturagatiko zigorra ere, baina nagusikeriaz egindako hilketan jarri behar ditugu batez ere indarrak, hor bai ezin gara deskuidatu, Zeberioek bi tiro jaso izana nabarmenduko dugu bereziki. Kodean hilketagatik den zigorrik altuena eskatuko dugu. Aldiz, banda armatuagatikoa ere ez dut uste lortuko dugunik.

- Hori ere ez? GALik ez zen izan, beraz! -jauzi egin du Lazkanok.

- Sigi-saga ibiliko dira gure lokarriak ahultzeko. Lepoa baietz azkenean *in dubio pro reo* ipuintxoren bat asmatu. Edonola ere, hogeita hamar urte da kartzelan bete dezaketen eperik luzeena, eta haietako zenbaitek kartzela militarretan beteko dute. Gero, zein salatan tokatzen garen, hirugarren gradua ematen dien txandako toga-beleak edo ez... Dinosaurio aurre-konstituzional asko dago epaitegietan oraindik, Lazkano... Ez dizut ilusio faltsurik eman nahi: gizase-

me hauek betiko kartzelan usteltzen ikusteko grina bereziren bat baduzu, lehenbailehen ahazten joatea komeni zaizu.

- Indultatu egingo dituztela uste duzu?

- Ez berehalakoan, beharbada. Tempoan zer den ikasi dute honezkero, inozoak ere ez dira. *Adagio prestisimorik* ezin dute erabili, ondotxo dakite. Baina *ad libitum* motel bat, gauzak apur bat baretu eta kazetariak beste norabait begira daudenean... Bai, hori ere gerta daiteke, zoritxarrez. Indultatu beharrik ere ez dute, ordea; aski dute mediku txostenen bat faltsutzea, ez dakizu zein joera duten militar gogor horiek beren funtzioetan gehiegikeriak egin ondoren bihotzetik sufritzeko! Jende horri fabore asko zor zaio, Lazkano, ongi ordainduko diete beren isiltasuna fokuari zama haien gaintetik kentzen den bezain laster. Diziplina militarrean heziak izan dira, ohorearen kode heresia dute. Nekez esango dute esan dutena baino gehiago.

- Eta politikariak?

- Politikariak irristakorrangoak dira, Fontecharen gaineko goi-karguren bati zintzurrian kilimaren bat eragitea lortzen badugu, pozik horrekin.

- Anbizio handiagoa zeneukala uste nuen.

- Anbizioa gazteen gaitza da, prostata puztearekin batera uzkurtu zait nirea. Zeuri ere gertatuko zaizu. Agirre Sesma zenaz akordatuko zara orduan, zezenko gazteak inguruan zure anbizio falta leporatzen hasten zaizkizunean. Hasperen laburra da bizitza... Azken hantsera arteko hasperen sorta bat besterik ez, Lazkano.

- Jabetuta nago. Horren gaztea ere ez naiz.

Zerbait jateko ordua. *Adela Retoucherie. Arreglos.*
Kalea gero. Argia eta airea.

Epaileak, defentsaren abokatua, akusazioa, prokuradoreak, idazkariak, lekukoak, itzultzaileak. Denak juntatzen ziren Auzitegi Nazionalaren ondoko kafetegi berean epaiketa hasi aitzin. Hurrengo gaua kartzelan pasatzeko aukeraren jakitun ziren zenbait akusatu ere bai, hantxe izaten ziren goiz-goizetik gutxi batzuetan: arropa dotoreegiak eramateko ohitura faltagatik bereizten ziren azken hauek. Epaitegiko langileez gain, auzien munduarekin zerikusirik ez zuen jende mordoxka ere nahasten zen han. Madrilgo hiritar arrunt zenbaitek, beharbada, zortedun joko zuten euren burua kafetegi hartan, gorbatadunen artean, inork epaituko ez zituen jakinaren gainean: «Ni ez nauk

haietarikoa, *libre nauk*», pentsatuko zuten. Zorrik ga-betasunaren sentipenarekin gosaldu, inguruko guz-tiak epaiketa batera doazela jakinda, eta zu ez. Epai-keta batera joan behar ez izatea zorionarekin pareka-tu eta euren buruak engainatuz.

Agirre Sesmak *fair play* utopiko batekin konparatu izan zuen beti aspaldiko urteetan ezagutzen zuen ka-fetegia hartako giroa. Ez ziren denak berdinak han, baina berdinak ematen zuten. Nork bere kafea ordain-tzen zuen. Oraindik hasi gabea zen dema.

Javier Fontecha eta Rodrigo Mesa ez zeuden, jaki-na. Komunikabideak saihestu nahi zituzten kostak lain kostak. Atzeko atetik sartuko ziren beharbada, Vargas ekarriko zuen anbulantzia bezala, nahiz eta atzeko ate hura ere kazetariz lepo egon. Giroa oso aldatuta topa-tu zuen Agirre Sesmak; aspaldi etorri gabe, gorbata-dunetatik gehienak ez zituen jada ezagutzen, inguru-ko eskoltek epaile berriak seinalatzen zituzten arren. Abokatu bat ezagutu zuen, bera baino apur bat gaz-teagoa, Fontecha topatzen zuen leku berberetan to-patzen zuena 80ko hamarkadan. Hark, ordean, ez zuen Agirre Sesma ezagutu, edo ezikusiarrena egin zuen bestela. Alaba zuen ondoan Agirre Sesmak, karpeta

handian dokumentazioa, larruzko zorroan bere egune-ko estrategia.

- Urduri, aita?

- Lazkanok hemen behar zuen honezkero.

Cristinak ordenagailu eramangarria mahai baten gainean utzi eta patrikako telefonoa hartu zuen beste saiakera bat egiteko.

- Ez du hartzen.

- Arraroa da -ebatzi zuen Agirre Sesmak-. Gaur lekuko bezala deklaratu behar du. El Cerron eduki zutela. Lagunen oihuak entzun zituela. Berak bakarrik esan lezake hori. Arraroa da oso.

Hamaikak joak ziren eta ezin zuten askoz gehiago itxaron. Momentuz, kezkak lotzen zituen Cristina eta bere aita. Denboragarrenera, Diego Lazkanoren desertzioaren berri izan zutenean, dezepzio sakon batek hartuko zion gain kezkari.

Cristinari, zerbait puskatu zitzaion barruan, zuenik ez zekien zerbait. Agirre Sesma abokatuari, zuenik jakin bazekien zerbait apurtu zitzaion barruan, lehen-dik ere nahikoa apurtua zuena. Ezusteko desatsegina izan zen, edonola ere, jada txiki-txiki eginda zegoen zerbait, zer eta adin hartan, areago xehatu zitekeela ikastea.

- Zergatik ez da etorri? Berak jarri zuen hau dena

abian -zezeldu du Agirre Sesmak.

- Izutu egingo zen, izango ditu bere arrazoiak
-esaten zuena sinetsi gabe, Cristinak.

- Ezin dugu gehiago itxoin -bota zuen azkenik
abokatuak, azantza asmatikoaren txistua inoiz baino
txistukariago.

Kafeak ordaindu eta epaitegiko aterantz abiatu
ziren. Cristinak aitaren hatz erakusleari heldu eta ba-
soan sartu ziren biak, bakarrik, beste inoren laguntza-
rik gabe.

Harien hari

Pedro Vargasek ez dauka teniserako praka motzik. Rodrigo Mesak bai, ordea: zuri-zuriak, deportibak bezain.

- *iVa!*

Pilota hamaikagarrenez sarearen gerrikoa jo eta nagusiaren aldean geratu denean, Vargasek bigarren aldiz pentsatu du, borondaterik onenarekin egin badu ere, ez zuela, beharbada, erortzen hasixea zegoen sarea goititu behar goizean, Rodrigo Mesak askotan huts egiten baitu sakean sarearen gerriko tentearen kontra.

- Bigarrena!

Plot-plot. Bote bat eta bote bi, gora pilota: zeru urdinean dir-dir dagi hori beilegiak. Pistaren hondotik apur bat aurreratu da Vargas. Bigarren aldian indarrik gabe atera du nagusiak, aise erantzun dio, pistaren atze samarrera, hegaleko marratik gertu. Vargasi gus-tatzen zaio tarteka nagusiari apur bat korrika egina-raztea, nahiz eta badakien bukaeran beti irabazten utzi behar diola, eta nagusiak bere amorru keinuren bat ikustean bereziki gozatzen duenez, haserre plan-

tak ere egiten ditu noizean behin, John McEnroe purrustariari telebistan ikasita bezala, Vargasi, gustatu-gustatu, Ivan Lendl askoz gehiago gustatzen zaion arren. Txekiarra da Lendl eta begiko du odol eslaviarreko jendea. Hotza da, tenplea dauka, ez ditu nerbioak galtzen. Gustatzen zaio nerbioak galtzen ez dituen jendea. Dagoeneko set honetan joko pareira irabazidionez gero, berariaz bota nahi izan du oraingoan Vargasek kanpora, falta nabarmena probokatzuz; atzeko marraren gainean jo du, ordea, huts egitera deitua zegoen pilotak, miragarriro. Nagusiak, ezustean, ondo erantzun du, baina besoa soin-enberrera itsatsiegi aukeran, eta albotik joan zaio.

- *¡La bola entró!* -bota du irribarrez Rodrigo Mesak, beraien betiko txantxa berrituz, BIC bizar-xaflen telebistako iragarkia gogoan.

- *¡Apurado, muy apurado!* -Vargasek oihartzun, nagusiak espero zuen erantzuna, masaileko bizar lañoak laztanduz. Aulkiko epailea McEnroeren bizarrari da, eta hark txartzat hartzen dio iragarkian iruzkina:

«*¿Bromea o qué?*».

«*No, su afeitado señor McEnroe... muy apurado*».

- Utziko diagu gaurkoz?

Harritu egin da Vargas, nagusia ez da gauzak erdizka utzi zale.

- Hator, hator pixka bat.

Xukaderarekin lehortu du Rodrigo Mesak bere buru soiltzen hasia, kopeta zabala. Gero Vargasi eskaini dio eta hau atezuan jarri da, euren tenis partidetan nagusiak ohiki egiten ez duen bigarren keinua delako. Nazkagarri samarra zaio nagusiaren izerdia, baina naturaltasunez saiatu da bere lokietako perlak Rodrigo Mesaren xukadera hezean lehertzen.

- Hara, Vargas. Panpina-barrakan bezala ari ditugurekin, ezin diagu horrela jarraitu. Ez zaik iruditzen?

- Ez, nagusi.

- Alfredo Trota laguna huela entzun diat.

- Elkarrekin egin genuen soldadutza.

- Ezin diagu eskuak lotuta segitu, abantaila guztiak zauzkatek... Eta hori gutxi balitz, mugaz bestaldeko babesa. Zer gaituk bada, txorimaloak? Honek behin betiko amaitu behar dik.

Isilik dirau Vargasek.

- Argibideak jaso ditiat, goitik. Argi berdea eman zigutek. Garantiak. *Garantiak*, Vargas. Jabetzen haiz zer esan nahi duen horrek?

Baietz egin du Vargasek buruaz, nahiz eta erabat ez jabetu.

- Ministroa etorri zuan azken hiletara. Badakik armatuta ibiltzen direla bere partidukoak? Inork ez zakik, baina hala ibiltzen dituk. Eskoltekin ere ez fidatzen! Hondarribiko aireportuan ikusi nitian. Hegazkin pilotuak gordetzen zizkiek halakoetan armak, legeak derrigortuta. Banan-banan ikusi nitian pistara jaitsi aurretik norbere arma jasotzen. Tontoak dituk, bada, sozialistak!

Vargasek bere artean: «Ezkontzek ezkontza berriak egiten ditiztek, hiletek hileta berriak». Pentsatu bai, baina esaten ez diren gauzak.

Teniseko pilotetako bat du eskuetan Rodrigo Mesak, eta nik-bai-potroak, esan nahi duenak bezala heltzen dio, behealdetik, deformatzeraino estu hartuz gomazko esfera barrenutsa.

- Ez dituk denak jakinaren gainean egongo. Baina hi tartean nahi haut. Gutxi eta finak, botikan bezala.

«Gutxi eta finak, *botikan bezala*»? Vargasek pentsatu du ez direla ez tenisa eta ez esaera zaharrak bere nagusiak gehien menperatzen dituen arloak. Hizkuntza ez menperatzen hasten direla gaitz guztiak, hori pentsatzeko astirik ez du izan.

- Garbi ikusten ez baduk, tenis partida hau ez diagu inoiz jokatu. Eta garbi ikusten baduk ere ez... Ulertzen?

- Bai, nagusi.

- Hirekin konta zezakeat, orduan?

Teniseko pilota askatu gabe, zerbait eskaintzen ari denaren gisan zabaldu ditu eskuak Rodrigo Mesak, baina benaz, eskaini ez, eskatzen ari da nagusia, begirada Vargasen ninietan iltzatuta.

- Trotak merezi dik hainbeste.

«Xantaia sentimental», otu zaio oraingoan Vargasi. Bi eskuekin sostengatzen du nagusiaren xukaderra zuria, odol-itunaren ordeztako den izerdi-itun baten lotura jada gauzatua, eta nagusiari itzuli dio, lepoa doi bat makurtuz, Rodrigo Mesak baiezko bezala ulertuko duena. Pedro Vargasi zerbaitek erretzen dio petxua: Vera Cruzeko Ama Birjinaren domina darama katetik zintzilik, ahaztu egin zaio kentzea partida aurretik, gorrituta izango du gero kolkoa.

- Ateak aldatu beharko dira: sarrailadunak jarri. Aulkiak eta erremintak beharko ditugu, Vargas. Zinta amerikanoa, soka metro batzuk.

- Zenbat?

- Ez dadila falta -erran du Rodrigo Mesak.

«Gora edalontziak eta topa dagigun neurri doi eta zehatzaren alde!», Vargasek bere kabutan, gero zer-bitzari eta otzan erantzuteko:

- Nire kontu.

Virginia etorri da umeekin handik gutxira, eta musu eman dio Rodrigo Mesari. «Ezer eteten dugu?». Ezetz Rodrigo Mesak eta laztan Sofia eta Teresari; bere bi alaba kuttunak, munduan gehien maite dituenak. Gero Vargasen andrea ere etorriko da, haren seme bakarrarekin, Sofia eta Teresa baino apur bat zaharragoa eta bere aitaren izen bera izateaz gain, haren kloniko bihurtuko dena denboraren poderioz, itxura guztien arabera. Beharrik nagusiaren emazteak eskua duen sukaldean, ederki jango dute, piknika egin ohi dute han, tenis partidaren ondoren, eta umeak etxalde abandonatuan jolastuko dira ezkutaketara, gerrara, indio-bakeroetara.

Haurren jolas inozenteak, sukaldeetara-eta, dendarietara-eta.

- ¿Qué quiere el señor?

- Leche.

- ¿Qué tipo de leche?

- Leche de mariposa.

- No tengo, señor.

- Pues yo sí tengo leche de mariposa.

Eta gero jolas gehiago: ezkutaketara-eta, gerrara-eta, indio-bakeroetara-eta, mamuak topatzera-eta.

Korrika saio, iskanbila, barre, haserre eta korrika saio gehiagoren ondoren, Rodrigo Mesaren alaba ttipiek sarearen gerrikoan zintzilik geratu den xukadera zuria erabiliko dute, makila baten puntan jarrita, ba-kearen bandera osatu eta errenditzen direla esateko.

Eguna ere errendituko da geroago. Tenis pistako teila-hautsen gainean eguzki laranjaen izpiak. Trasteak jasoko ditu orduan Vargasek, eta hurrengo partidaren aurretik tenis-zelaiaren marrak kareztatu behar dituela oroitu.

- **Balioko** du?

Utzixea dago palazioa, baina balekoa da. Aski zabal. Nahikoa aldendua. Ez du inguruan etxebizitza askorik, babesik ez da falta eta hesitua dago perimetra. Argiteria eta farolak, udaletxeari eskerrak, ez dira batere sarriak. Hiriko erdigunean bizitzeko diru askirik ez duten familia gazteak bizi dira hemen batik bat, barreiatu antzean banatutako etxebizitza bloke ttipietan. Ongi eraiki eta urbanizatutako hiru-lau solai-

ru gehienez, etxe-talde ez oso sarriak, beren baitara bilduak eta bakartuak, nekeza da oraindik laurogeita hamarretan etortzekoa den higiezinaren loraldia sumatzea. Lorategi zaharxko batek eta putzuz betetako tenis-zelaiak inguratua, palazio hark gela dezente ditu, sei-zortzi bai gutxienez, lehen begiratuan kalkulatu duenez. Bakarren bat gehiago, beharbada. Eta sotoen bat ere ez da faltako. Labezomorroak dabilta eskaileretan, goizeko freskurak lepogabe bilakatu dituen usoak teilatu-erretenean barbar, pintura eroria hormetan, arrautza pitzatuaren axala dirudien esmaltea nonahi. Hautsa-eta, armiarma sareak-eta.

- Zer dago garajea?

- Ezer gutxi orain. Mutilek motoak uzten dituzte hor, tarteka.

Atearen aurrean errezel lanak egiten dituen olana astuna apartatu du esku batekin: bujia pitzatuak, egurrezko kutxa batean. Mangera berdea, mila lauhuni zulatua baietz, koipe eta gasolio usaina, piragua bat plastikozko baliza gorriari estekatua, aurreko urteko egutegi bat, 1982, Futbol Mundialetakoa. Sanglas sidocar bat, Lambretta zahar bat, gasolina lata bat buruz behera, baselina hodi bat azken tantaraino zutua putre azazkalez.

- Zakurrak ere ekartzen dituzte batzuetan.

- Zakurrak?

- Bai, entrenatzeko.

- Hemendik aurrera ez ditzatela ekarri. Akabo zakurrak, akabo motoak, eta akabo tenis partidak denboraldi batez. Garbi dago?

Gobernuaren delegatu izateko gazteegia da Fontecha, eta badaki. Horregatik hitz egiten du nagusikeria zakarrez. Horregatik eta gobernuaren delegatu izatea etorkizunean kargu gizenagoekin ordainduko dioten mesedetzat hartzen duelako. Hizketarako posturak zahartuko duelakoan, edo hogeitazentimetro eran-tsi, edo Deabruaren begiradara hurbildu. Huts egiten du bere hiru helburuetan.

- Esango diet mutilei, lasai horregatik: azken al-dian Vargas eta biok bakarrik etortzen gara.

Tenis-zelaiaren erdian, sarearen parean daude orain biak. Kare arrastoa ezabatzen hasia da lurrean eta sarea lasa dago, askoz ere baxuago erdialdean er-tzetan baino. Geletara pasatu dira. Barru usain hori, euri langarra egin izan balu bezala moketaren gai-nean. Gertatzen da: kanpoko umelak agertzen dira barruan lantzean behin, hormei hezetasun orbanen lo-tsak ateraraziz. Itoginen bat, baina bestela ez dago

hain gaizki. Bertan bizitzeko moduan ez, jakina. Haiek oinez, lurra aieneka, kortxo bihurri. Hau bai, hau ez, hau bai, hau ez. «Hau, hau eta hau». Leihorik gabekoa hirurak.

- Hiru gela horietan marka gorri bana nahi dut.

Sukalde izandakoan, iturria jirarazi du Fontechak.

Teilatutik ez bezala, ez dator tantarik tutuan behera.

- Jenerala kenduta dago, baina hoditeria ongi dabil. Nahi izanez gero emango dugu ura.

- Gaur bertan ahal bada, Rodrigo.

- Utzi hori nire gain, Vargasekin hitz egingo dut.

- Konfiantzazkoa da Vargas hori?

«Kristau zintzo bat bezain, gure On Pedro», otu zaio Rodrigo Mesari. Beste zerbait esan du, ordea:

- Konfiantzazkoa erabat.

- Ongi aukeratu behar ditugu gizonak, Rodrigo, gai delikatua da.

- Ulertzen dut, Fontecha. Tori, giltzen kopia bat ere egin dizut.

Rodrigo Mesak urtegira eraman ditu Sofia eta Teresa, arrantzara.

- Hemen azpian herri bat zegoen lehen.

- A, bai?

- Non bizi dira orain lehen hor bizi zirenak?

- Beraien etxeak utzi eta beste etxe batzuetara joan ziren.

- Eta beraien gauzak?

- Beraien gauzak ere eraman egin zituzten.

- Den-denak?

- Den-denak.

- Eta zakurrak?

- Baita ere.

- Eta katuak?

- Baita ere.

Pentsakor geratu dira bi neskatilak, uretara arretaz begira, han zerbait antzematerik balego lez. Ez zaie, nonbait, urperatua izatear dagoen herri bat uztean norberarekin eraman beharreko beste ezer bururatzeko.

- Ez da ezer ikusten.

- Aspaldiko kontuak dira.

Amuko berriak erosi ditu, beltzak eta horiak, erleen gisako marrak dituztenak. Umeez antzeko pija-mak izan ohi dituzte. Liluragarria da Rodrigo Mesaren amu-bilduma. Orduak emango lituzkete alabek haiei begira; kutxan txukun-txukun sailkatuta dauzka aitak,

pintore batek akuarela paleta zabala nola. Pintzel batekin kentzen dizkie hautsak. Lantzean behin berak sortzen ditu amukoak, dendan erositakoei koloretako hariak eta lumak josiz. «Belarritakoak ematen dute», esan zuen behin Teresak. Eta ez zebilen guztiz oker: andreak erabiltzen ez zuen belarritako bat moldatu zuen behin arrantzarako. Gustatzen zaie arrainei distira egiten duen oro.

- Kontuz minik hartu gabe, punta zorrotza dute.
- Zizarerik ez duzu jartzen, aita?
- Ez, zizarerik gabe ere berdin egin daiteke arrantzan.

Alabek ez dirudite oso konbentzituta. Amuan ezer jarri gabe arrainak kosk egingo diola? Bai zera! Marrazki bizidun gehiegi ikusi dute, kosta egiten zaie benetako arraina plastikozko arrainekin, eta are, arrain itxurarik ere ez duten metal pusketak koloretsuekin engaina daitekeenik sinestea. Barre egiten dute, miretsita barre, «uhau!», aitak kanabera astindu eta amua zein urrunera jaurti duen ikusita.

- Non dago? Pita ez da ikusten...

- Ikusten ez diren gauzak ere badira -esan die aitak.

Baina Sofiak eta Teresak beste zerbaitean dute burua orain. Brinko eta dantza, elkarri eskutik helduta.

- Jarriko dugu autoko irratia, aita?

Alabek ez daukate Rodrigo Mesak ezer arrantzatu-ko duen federik. Rodrigo Mesak ere ez alabei ezetz esateko indarrik. R-18ko ateak ireki eta musika bilatu dute dialean.

- Hara: heldu dio!

Gutxitan ikusten dute Sofiak eta Teresak euren aita hain pozik. Bada hori, egiten ari direna egiteari uzteko aski motibo. Txirrika biltzen lagundu diote aitari, izatez honek segituan igarri duen arren pisu gutxikoa dela harrapatu duten amuarraina, txikiegia. Amua kendu dio zilipurdika ari den arrain koitaduari, umeen emozio eta espantuzko oihuen artean. Umetatik komeni zaie arrainak plateretik aparteko lekuetan ikustea, hala iruditzen zaio Rodrigo Mesari, nahiz eta haurren aurrean tripak kentzen dizkienean emaztea deseroso sentitu. Kalkulatzen zuena baino handiagoa da, baina ez du baimendutako gutxieneko neurrira helduko denik uste. Harrapakinak neurtzeko erabiltzen duen arkatzaren ondoan paratu du amuarraina.

- Gutxigatik, baina ez -esan du.

Uretara jaurti du berriz.

- Zergatik utzi duzu libre?

- Debekatuta dago hain arrain txikiak harrapatzea. Hazten utzi behar zaie. Isuna jartzen dizute bestela.

- Isuna? *Zuri* ere bai?

Irribarre egin du Rodrigo Mesak. «Nork zaintzen du zaindaria?», galdera horrek oihartzun egin dio buruko barrunbeetan.

- Niri ere bai, laztana -ebatzi du.

Etixerakoan, Javier Fontecharen dei bat zeukala esan dio Virginiak. Fontechari deitu dio baietz esateko, Portugalgoa martxan dagoela. Aurreikusi bezaladoa dena. Pentsatu bezala. Handik gutxira jaso du espero zuen deia. Berak hartu du oraingoan. Berak hartzen du beti telefonoa, etxean denean. Hitzorduaren berri eman diote, gaztelera kaskarrean.

- Ezta pentsatu ere: Portugalen ez. Galizia aldean nahiago.

Liskarrean entzun ditu bestaldean.

- Ados, apuntatu.

Arkatzaz apuntatu du lekua, egunkari atzeratu baten izkinan: *Un trozo del satélite soviético Cosmos 1402 podría impactar hoy contra la tierra*. Egunkariak

izango du astebete, «ez dirudi gure gainera erori denik», otu zaio. Arkatzari presio gehiegi eginda punta apurtu zaio eta txorroskiloaz berriz ere zorrozteko eskatu dio alabetako bati. Gustura eta esaneko hartu du honek enkargua. Bost minuturen buruan, zorrotz baina nabarmen laburrago bueltatu dio aitari arkatza.

Gogoratu beharko du berri bat hartzea, amuarrairainak neurtzeko erabiltzen zuena baitzen hura.

Redondelan egin dute bilera, herritik ez oso aparteko baratze batean, egun argitan. Rodrigo Mesak nahiago izan zuen Portugalen ez elkartu: ordaintzen zietena ordainduta, har zezatela, bederen, baldintzak haiekin negoziatzeko Miño ibaia zeharkatzeko nekea. Aitaren lagun salazarista batek eman dio haien kontaktua Rodrigo Mesari. Fidatzekoak zirela. Hitz gutxi-koak. Hala hobe.

Hiruretako bat berehala baztertu du: beltzarane-gia. Bere lanean eraginkorrena ere bai, seguruenik -ez zen ahalegin berezirik egin behar Angolako gerran edo Cabo Verden hura imajinatzeko, tiro-eremuetan eskolak ematen, fusila sorbaldatik zintzilik, arma hura berezko apendizeta bailuen-, baina nabarmenegia

suerta zitekeen haren presentzia. Ez. Beste biekin konformatu beharko du. «Beltzak ezin du etorri». Nola adierazi adierazi beharrekoa arrazista eman gabe? Ezinezkoa. Beste biek ere ez dute munduko jenderik diskretuena ematen, eta are gutxiago hiru aste segidan likore gogorrik edan gabe egoteko autokontrolaren jabe. Baina dagoena dago. Egiten dutena ongi egin eta norentzat eta zer egiten duten oso garbi ez edukitzea da garrantzitsua, nahiz eta denbora kontua izango den egia azaleratu eta jende guztiak horren berri izatea. Urpeko munduak bazuen, goiz edo berandu, azalertzeko joera. Zabar ez izaten ahalegindu arren, Rodrigo Mesa jabetzen da nekez disimula dezaiketela azaleko poro bakoitzetik darien zabarkeria naturala. Baina ez dago beste inor bilatzen hasterik orain. Gainera, zer arraio, ez dute inor petxua zabalik bihotzetik operatu behar. Hain konplikatua ere ez da. Beste bat da haien zeregina. Horixe egingo ahal dute ondo, baldin bait ere.

Diru guztia dago maletan, franko frantsesetan eskatu dute, auskalo zergatik. Armak Italiatik etorriko dira, baina geroago esango diete non jaso.

Beretta errebolberrak eta Benelli semi-automatikoak nahi dituzte. Mokofinak izan portugesak.

- Hori ikusiko dugu.

Hizkuntza eta inguruneak ezagutzen ez dituzte-
nez, laguntza izango dute, jakina. Bere esaneko gizo-
nik onenatariko zenbait jarriko ditu Rodrigo Mesak
haien gidari eta ezkutari, badu ideiarenekin bat horri
buruz, nahiz eta Vargas ez beste guztiak aukeratzeke
dauzkan oraindik. «Gutxi eta finak, *botikan bezala*».
Perez Gomera? Hernandez? Hernandezekin zalantzak
ditu, fidatzekoa baina gazteegia delakoan. Beti-jai
erretegian elkartuko zaizkie haiek ere. Hori bai, kober-
tura baino ez diete emango. Arazotan sartzen badira,
adio, bakarrik moldatu beharko dute. Polizia espainia-
rrak ezin du horretan nahastu.

- Nola ezagutuko ditugu?

- Haiek ezagutuko zaituztete.

Film txar bateko protagonista sentitu da Rodrigo
Mesa. Gustatu egin zaio. Pelikulen akordua egin zaio-
nean jabetu da bietan zuriena denak orban nabarme-
na duela bekainaren gainean. Bigarren bekain bat, be-
kain forma bai baina ilerik ez duena. Ezaugarri fisiko
gogorxka, lehen begi kolpean ohartzeko zaren horieta-
koa, aise gogoratzeko moduko marka. Beltzaranaren
begiradaren ondoren, «paraje haietan deigarriegia zi-
nateke», ez da bigarrena baztertzen ausartu. «Espai-

nol mizkintzat» daukatela, hori bazekien aurrez. Mizkinak haiek dira, ordea: Berettak eta Benelli semi-automatikoak, hara gutiziatxoa. Bere gizonei esan behariko die ileordeak eta betaurrekoak eramateko, hobe haien profesionaltasunaz gehiegi ez fidatu.

Portugaldarrak ere ez dira Rodrigo Mesarekin fio, denbora hartu dute dirurik falta ez dela ziurtatzeko. Ez daude dirua zenbatzen ohituta: hiru bider hasi behar izan dute zerotik sortari ametoa eman aurretik. Zabarrak izan behar, horretan ere.

Rodrigo Mesa oinez aldendu da. Zama bat balerama legez doa, nahiz eta arinago sentitu beharko lukeen maletarik gabe. Taberna bateko terrazan eseri da, portoa edanez, eguzkiaren zilarretan. Portugaldarrak ikusi ditu handik, Citröen Visa kalamastra batera igotzen. Haien matrikula-plakaren zenbakia apuntatu du, zer gerta ere. Bigarren porto bat eskatu du, merezi izateko adina lan egin duelakoan.

- Beste batzuk baino gehiago bai, behintzat -atera zaio, mikatz.

Trago laburra eman dio, ezpainak bustitzeko lain.

- Hau higatik duk, Trota.

Norbaitegatik topa egin behar. Eta ez zaio Trota beste inor bururatu. Berak Alfredo Trota inoiz begi aurrean izan ez badu ere.

Eguzkia ezkutatu egin da une batez, laino iragan-
kor horietako bat baino ez. Itzalpean edateak zorte txarra ekarriko diolakoan, sineskeria zahar bati men eginez, eguzkia berriz agertu arte itxoin du Rodrigo Mesa teniente koronelak edaten segitzeko.

Hautagaia berandu heldu da, hautagai delako, eta hautagaia, garai bateko nobia zuriz jantziak bezala, berandu heltzea espero delako beti. Hautagaia ez da edozertarako hautagai, estatu bateko gobernuko presidente izateko baizik. Horrek ere badu bere garrantzia, eta ez txikia, potentzia-ekuazio ibiltari bihurtzen baitu etorkizunean egin ditzakeen mesede, keinu magnanimo eta are, boterea eskuratzen duenean -eskuratuko balu, baina litekeena da hala izatea- esango dituen hitzen igurikapena tarteko. Potentzia-ekuazio ibiltaria, bai, baina aldagarrietan eragin dakiokena: ez da fosil bihurtu, badu malgutasun bat -oraindik irabazi ez duelako bakarrik posible dena- eta hautagaia-
ren moldagarritasuna erabili nahi du jendeak haren-

gan eragiteko, inpresio ona uzteko. Hura okupatuta dagoenez, ez da hautagaiarekin egongo garen tarte laburrean hari mesedeak eskatzeko bezain zeken jokatzerik komeni; orain ez da tokatzen, baina mesede horien hazi posiblea oharkabean ereiten saiatzearen artea lantzeko unea dateke hau, irribarre, esku zarta, baiezko lepo-keinu eta bestelako afirmazio itxuratuen bidez: «Zurekin nago, *presidente*, zurekin amaieraraino, edozer gertatzen dela ere».

Efimerotasun horretan dago hautagaiaren lilura ere: irristakorra da, badakigu ez daukala gurekin egoteko denborarik, ezin dezepziona gaitzake. Eta dezepzioaren ezinezkotasun iragankor hori, horra hor gure akatsik handiena, infalibilitatearekin nahasten dugu.

Hautagaia berandu heldu da, baina heldu da eta hori da garrantzitsuena. Hemen dago hautagaia, eta, pentsatzekoa zen bezala, ez dator bakarrik, bere agenda daramaten komunikazio arduradun, idazkari eta bestelako akuilari eta gidariak dakartza inguruan, nork nor dakarren oso garbi geratu gabe zenbaitetan. Hautagaiak eskua ematen die eskua eskatzen duten bere partiduko kideei, haietako gehienen izenik ez badaki ere. Zooko zaindari sentitzen da, flamenkoei jaten ematen. Hautagaia, bere erreflexuen arintasuna

frogan jarriz, unean-unean mugitzen den lekuan bertute edo estrabagantziaren bat ehizatzen saiatzen da, eta ona izan behar luke horretan. Horrela, politikarako bereziki gaztea den norbait ikustean «horrela gustatzen zait niri, partiduak jende gaztea eta konprometitu behar du» esango dio, bostekoa ematean hari besteei baino gehiago estutuz. Eskaleak bailiran ikusten ditu bere jarraitzaileak, eta bera da limosna ematen diena. Bai, kontziente da horretaz: bere bedeinkazioa banatzen doa, nolabait. Horri deitzen zaio bote-rea.

Ezagutzen ez duen hainbat jende agurtu ondoren, ezagutzen duen norbait aurkitu du azkenean, eta hari, bostekoaz aparte, besarkada beroa eman dio, esaldi pare bat trukatzearekin batera. Horrela, ingurukoek badakite hautagaiaren hautagaia zein den eskala ttipian, eta nori behar dioten obeditu eskualde hartan. Lantzean behin, hautagaiari norbait aurkezten diote, norbait berria, promesa bat edo partiduan izena eman berri duen norbait, bere esparruan garrantzitsua edo ospe onekoa den profesionala. Honi, bostekoa emateaz batera, zerbait esaten dio:

«Oso gauza onak entzun ditut zutaz».

Hamarretik bederatzitan, erran gabe doa, hautagaiak ez du ez gauza on ez txarrik entzun gizaemazteki honi buruz, baina hori da gutxienekoa. Hautagaiak badaki konfiantza emailea dela bere bostekoa, eta garrantzitsua dela bere jendea berarekin dagoela sentitzeaz gain, bera ere bere jendearekin dagoela sentiaraztea; are gehiago, aurkeztu berri dioten hori etorkizunean bere arerio edo hondoratzaile izan daitekeen ustean presentatu diotelako, beharbada.

Horixe zen Fontechak gero presidentegai eta geroago presidente izendatua izan zen bere partiduko hautagaia aurkeztu zioten eguneko oroitzapena, gutxi gorabehera. Hautagaiak hitz haiexek esan zizkionetako bat izateko hala moduzko pribilegioa izan zuen Fontechak. Hark ez zekien deus berataz, baina hala ere esan egin zion, esatea tokatzen zitzaiolako, bizitza hau esatea tokatzen dena esan behar izaten dugun une, aste, hilabete, urte pilaketa bat besterik ez delako.

«Oso gauza onak entzun ditut zutaz».

Gobernuaren delegatu izendatu zuten handik ez luzera. Baina urte asko joan ziren horretaz eta bere karrera politikoak ez zuen espero zitekeen abiadarik hartu. Fontecharen ametsa orain, «Oso gauza onak

entzun ditut zutaz» esango zuen gizona bilakatzea zen.

Rodrigo Mesa teniente koronelak presa izaten du galoiak eranzteko. Uniformea zurrunegia iruditu izan zaio beti, almidoia aipatu zion behin Virginiak, hark plantxatzen dio, ez da eroso eta badaki bigarren azal hori dela bere ingurukoek beragan ikusten duten lehen gauza, gauza ia bakarra ez esateagatik. Horretarako asmatu zen uniformea. Ikus zedin urrunetik pertsona baino lehenago. Paparreko botoi koloretsu horiek, zenbaitek domina deitzen dieten jostailutxoak, arrantzarako erabiltzen zituen amuen hain antzeko. Zenbat eta gorago, orduan eta uniformea janzteko betebehar gutxiago zuela zen eskalafoian gora jotzeko bere motibazio nagusia. Bere ogibideko hainbat aztura uniformeak emandakoak diren ustea izan du sarri, eta uniformea erantzirik, aztura gaizto horiek ere eranzten dituen sentipena: arratsaldero, etxera iristean, eta laster, erretiroa hartu eta behin betiko uniformea eranzten duenean, berriro gaztetako Rodrigo Mesa baikor eta airosa bihurtzea irrikatzen du.

Uniformea kendu eta bizarra egitea, horiek dira gorputz hondatuari ematen dizkion eguneko bi poz nagusiak: biluztasuna eta inozentzia errekuperatu uste izaten ditu bigarren azal hori erantzita. Bizarra egin eta lozioa masail garbian igurzteak berriz, haur musugorriaren leuntasunaren gomuta efimeroa dakarkio, gutxi irauten duen gaztetze sentipen iragankorra.

Operazio berezia izan da, ordea, gaurkoa, eta gailiak soinean sartu behar izan du patrolean, bizarra egiteko ere denborarik gabe. Madrilgo Auzitegi Nazionaletik operazioa zuzentzera -«Zuzendu? Ja! Nahi bai!»- espresuki etorritako epailea doa ondoko autoan, behin haiek GALEkin nahasten saiatu zen epaile berbera, zer diren gauzak. Operatibo garbia izan da. Dena ongi atera da. Bahitzaileek ez dute erresistentziarik jarri, eta haien artean bat, nagusiena, ezagutu egin du Rodrigo Mesak.

Lehenago ere bidalia du kartzelara gizon hori. Dozena erdi urte egin zituen gutxienez itzalean, eta halako bi eroriko zaizkio orain. Espetxetik atera eta sasira igaro zen berriz berehala. Besterik egiten ez baleki bezala. Gorrotoa eta mespretxua ondo sustraituta dauzkan garuneko leku batean, atxilotuarekiko halako

miresmen printza erne zaio Rodrigo Mesari ezustean. Esan zezatela bere nagusiek nahi zutena, baina han motibazio politiko bat zegoenik ezin zen ukatu: haiek ez ziren kriminal arruntak. Zerikusirik ez Beretta eta Benelli semi-automatikoan eske ibili ohi ziren soldatapeko hiltzaile jostariekin. Ez, beste kasta batekoak ziren haiek. Eta beste kasta batekoak zirelako aplikatzen zieten legedia modu ezberdinean. ZEN. Zona Especial Norte. Hala deitzen zitzaion garai batean hontz itxurako ministro hark martxan jarritako planari. Alferrik zen ukatzea. Eta gizon hark, hainbat urte eguzkia marratan hartzen pasatu, eta berriro ere bere burua ipintzen zuen terroristen zerbitzura, bahiketa batean parte hartzeko, harrapatua izan eta bere bizitzaren beste hamarraldi bat fideltasunez kausa bati emateko. Onartu beharra zeukan etsaiak eta etsaiak zeudela, eta arratoi zikin hari aitortzen zion Rodrigo Mesak leialtasunaren zentzua garatuta izatea, kontsekuentea izatea bere ideiekin. Vargasekin ez zuen dudarik, baina bere manupean zituen gizonetatik zenbatek izango ote zuten leialtasun eta koherentzia berbera urteen buruan? Eta alde erantzira begiratuta: izango ote zuen berak Fontecharen bizkarrak babestu eta haren izenik ez aipatzeko adinako leialtasunik berriro

ere, azken aldian ematen zuen bezala, epaitegietara eramango balute?

Fedea ere higatzen du denborak.

Lurrerantz begiratzen zuten bi bahitzaile gazteek ez bezala, buruzagiak begietara begiratu dio, eta kokotsa beheratu du, Rodrigo Mesari mespretxuzkoa iruditutzaion erreberentzia bat eginez. Erreberentzia eta mespretxua, biak egin dizkio aldi berean. Ezustean harrapatu du keinuaren sofistikazioak, eta bera ere antzeko keinua ispilatzen saiatu den arren, badaki ez duela lortu, keinu erdia baino ez diola egin, erreberentziarena, halako etsipen derrotista apur batekin blaitua beharbada. Atxilotuak eskutik irabazi diola sentitu du, eta atxilotua ala bera, bietan nor zahartu den gehiago elkar ikusi zuten azken alditik hona, horixe pasatu zaio hurrena burutik. Nahiago izan du ondorio-rik ez atera.

Une bateko txinparta azkarrak baino ez dira, ordea; lipar bateko kontua izan dira miresmen ezusteko horren loraldia zein mespretxua eta erreberentzia. Berehala, bahituaren figurak bereganatu dio arreta osoa: bizar luzea, harrapaturik egon den bitartean kilo asko galdu izana ezagun duten arropa zabalegiak, begiak irekitzeko ezintasuna, ahulezia estremoia, zutik

egon ezina. Eraikin bat gainera erori balitzaio bezala, eskonbroen artetik erreskatatutako gizon pattal, hilzorikoa dirudi hark, dardaraka tapakien pean. «Gero gu izango gaituk torturatzailleak», pasatu du burutik Rodrigo Mesa teniente koronelak, eta bere paperera eta bere uniformera itzuli da, ziur gizon hura esperientzia traumatiko hartatik sekula bere onera itzuliko ez dela.

Zulo hezera sartu da gero Rodrigo Mesa. Janari arrastoak zartaginetan, gas bonbonak, aluminiozko katiluetan esnea, arroz pakete bat, ur botila hutsak eta ur botila beteak, egunkari atzeratuak, argazki makina bat, tapakiak eta barru usaina, hondarrez betetako marmita bat, hondo zabalekoa, bahituak libratzeko erabiliko zuena.

Epailea eta haren laguntzaileak inguratu dira, oharrak hartu eta zientifikakoen lana ikuskatzera. Zoriondu egin du magistratuak, betiko perfume sarkorregia nabaritu dio teniente koronelak. Atxilotuarengandik jasotako erreberentzia eta mespretxua, lehen atera ez zaizkion moduan, biak bueltatu dizkio epaileari. Bartzuetan gertatzen da: okerreko pertsonari ematen diogu keinu zuzena. Edo ez: okerreko pertsonari ikasitako keinuak balio izaten digu keinu zuzena egiteko gero beste norbaiti. Berehala heldu zaio patrolekoen

abisua: Virginia deika duela, aitona izatear dago eta ospitalean daude alaba eta biak.

Arazoak dituzte umea ateratzeko. Umetokia txikia zuela, hori lehendik ere bazekiten, baina ateratzeko erresistentzia handia izaki, gogorik ez kreaturak, non-bait, zuloaren gozoa uzteko. Probokatu egin behar izan dute erditzea. Bere alaba kuttuna, Teresa, bietan gazteena, erdi bi eginda, burutapenak berak hotzikarra eragin dio, eta aldi berean harrotasuna. Goizeko operatiboa baino askoz ere luzeago egin zaio erditzea, gehiago sufritu du. Aginduak eman nahi lituzke, baina hemen ezin ditu eman, uniformeak erantzeko paradarik izan ez duen arren, ez dute ezertarako balio papparreko amu koloretsuek. Virginiarekin eta Teresaren senar gatzbakoarekin konpartitu behar izan du itxaronaldia. Jipoitu balute bezalako aurpegia du suhiak. «Honi ez ziotek gizon izaten erakutsi», pentsatu du Rodrigo Mesak. Bi ordu luzeren ondoren, erditu da alaba; bi zatitan laranja bat, baina bi horietako batek iraun eta bizirik segitzeko bokazioa du oraindik, eta besteak, Teresak, hiltzeko bokazioa duela lirudike. Erdituaren aurpegia du zinez alabak, erdibituarena, haurrak energia asko kendu dio, flakaturu dirudi, askoz ere flakaturagoa irribarre egiten duenean, eskeletiko ia,

ilea narras, besoetan dauka Rodrigo Mesak bere laugarren biloba, esku bakarrarekin eusteko moduko haur ttipia, itsuegi oraindik bere paparreko dominei so egiteko. Bizitzak aurrera egiten ez duela dirudien egun, aste, hilabete, urte pila baten ondoren, batzuetan gertatzen da, egun bakarrean pilatzen dira gertae-rak, konpontzen trabak, amaitzen trama irekiak; aurrera egiten du munduak, geraezin, korapilatsu, geure borondatearen ezdeusa agerian utzi eta planifikazio oro hankaz gora jarriz.

- Mutila da, Rodri -esan dio emazteak, eta aitona eta biloba, bi ume izan dira une batez, nor baino nor.

Zenbat denbora andreak *Rodri* esan gabe, hogeit urte?

- Mutila, Rodri. Zuk nahi zenuen bezala.

Mutila izan arren, zorionez, Teresaren antza hartu dio, ez suhiarena. Adi ibiltzea hobe, hala ere: giza jendearekin ez dago jakiterik, gutxien espero duzunean ematen dizute sastakada eta aldatzen zaie aurpegia. Hobe izango dute suhiaren soberako antzik har ez dezan guardiarik ez jaitsi.

Negarrez hasi denean kendu diote umea besoetatik; «uniformearena da errua», desenkusatu da, hain zakarra da ehuna -almidoia aipatu zion behin Virgi-

niak-. Orduan gogoratu du nola egin duen negar bahituak askatu dutenean, eta harritu egin da jabeturik bahituaren negarrak zein gutxi inpresionatu duen eta bere bilobarenak zenbat.

Leher eginda zetorren Fontecha. Emakumezkoen kontrako indarkeriaren komisioan zegoenetik asko luzatzen zitzaizkion azken bolada hartan Gasteizko egonaldiak. Patricia egongelako mahai gainean portatila jarrita ari zen lanean, txortea luzeko kopa handian ardo apur bat edan eta bizpahiru gazta ezberdin ogi txigortu berrien gainean igurtzita.

- Gaur ere lan-afaria, laztana? -galdetu zion Fontechak, ironiaz.

- Beharko...

Muxu eman zion masailean eta sukaldetik beste kopa bat inguratu zuen beretzat.

- Ebakuntza konplikatu daukagu bihar. Hori errepasatzen ari nintzen.

- Utzi asmatzen: balbula aldaketa bat?

- Bai, eta zailetakoa: bihotza eta birrikak geratuko dizkiogu, makina berriarekin. Hartara errazago lan egingo dugu. Diagrama ikusi nahi?

- Afalorduan ez, eskerrik asko.

Bere ogibidearen apasionatua zen Patricia. Bizitzako arlo guztietan bezala, lanean ere metodikoa, zorrotza, txikikeria guztiak zaindu zale. Gauzak ongi ateratzea gustatzen zitzaion eta asko haserretzen zen gaizki ateratzen zirenean. Gozaldi etengabearen biziaren Poliklinikara makina berria ekarri zutenetik, Fontechak erabat ulertzen ez zuen gozaldia, baina aldi berean dibertigarria iruditzen zitzaiona. Interes handiz entzuten zion beti, txerri bihotzetatik ateratako balbulak edo aleazio metaliko ezinezkoetakoak erabiltzen zituztela esan ohi zionean, nahiz eta sarritan haren azalpenak segitzea nekeza suertatu. *Bihotza eta biririkak geratu, hobeto lan egin ahal izateko.* Bazeuden horretarako makinak? Bai, nonbait. Gero txinparta bat eta dena martxan hasten zen berriro. Hori miragarria ez bazen, zer dago miragarririk? Fontecharen lanean ere hori posible izatea desio zuen sarritan: bere bihotza eta bere biririkak gelditzea une batez, ez besteez bere erraietan lan egin zezaten, jakina, baizik eta berak deskantsu hartzeko nolabait. Txinparta bat eta lanean segituko luke gero hartara, indartuta, bere bihotz-biririk huts egingo ez zioten segurtasunarekin. Ondo legoke, zertan uka, inoren bihotza gerarazteko

aukera hori izatea ere. Zerrenda luzea bururatzen ziztzaion Fontechari, balbulak aldatu eta bere bihotza eskuetan izatea gustatuko litzaiokeen jendailarena. Bere andreak ez bezala, jakina, Fontechak kirotanotik alde egingo zukeen, operatuaren bularra alderik alde zaballik lagata.

- Ez dago txarra ardoa.

- Kardio-osasungarria den aitzakiarekin, bezero guztiek botila bana ekartzen didate aspaldion -botazio Patriciak irribarrez.

Fontechak botila hartu eta gerturako betaurrekoak jantzi zituen etiketa irakurtzeko: Chateau Latour, 1994. Mahats sorta: Cabernet Sauvignon, Merlot, Petit Verdot, Cabernet Franc.

- Auskalo zenbat balio duen botila honek...

- Mileurista baten hilabeteko soldata. Pauillac bat da. Saint-Julienetik gertu dago Pauillac... Gogoratzen Antoinette eta Philippe? Handik hurbil bizi dira.

Ozpindu egin zion tragoaren gozoa Antoinette eta Philiperen aipuak. Ardo gazte estimazio eskaseko bat eman zioten behin probatzera eta Fontechari ez ziztzaion hura laudatzea besterik otu. Barre egin zioten hirurek, Antoinettek, Philippek, Patriciak. «Benetako ardoak orain datoz, gorde lausenguak gerorako» esan

zion Philipek, paternalismo handiz, sarkina mundu berri batean onartzearen prezioa haren lepotik barre egitea dela azpimarratuko bailuten. «Ez zara gutariko, baina onartzen zaitugu... Hori bai, laido burges txikia eta barretxoak izango dira pagatu beharko duzun bidesaria, ezjakin zarenez ezjakin. Erakutsiko dizugu, baina poliki. Erakutsiko dizugu, baina dibertitu egingo gara bitartean. Ezer ez da doan».

Ezer ez da doan.

Patriciarena zen etxe hartan benetako gastuei aurre egiten zien soldata. Patriciarena ardo adituaren talaia. Patriciarenak, orain «bion» bihurtu ziren udako lagun belaontzidunak, *chateau* garestietan Aste Santua pasatzera gonbidatzen zituztenak. Bera politikari xume bat besterik ez zen. Politikari bat, barbaroen lurraldean, hala sentitzen zen Philippe eta Antoinettengana bisitan joaten ziren apurretan. Zenbat umiliazio Fontecharekin zer egin ez zekitelarik partiduak Europako Parlamentura bidali eta honek ez frantsesik eta ez ingelesik ez zekiela aitortu behar izan zien egunear ere. Frantsesak bai politikariak, haiek bai benetako estatistak, Frantziakoa bai politika, ez Fontechak eta bere alderdikideek Espainian egiten zutena... Philipek Oriana Fallacik Andreottiri buruz idatzitako artikulua

bat eman zion behin, politika zer den ere frantximant hark erakutsiko bailion, nori eta berari, bizkartzainen itzala urtetan nozitu zuenari, laurogeietako hamarkada latzean hilotzak goizero gosaritan izaten zituen Gobernuaren delegatu ohiari. Oroitzen zuen oraindik ere Fallaciren artikulua, Andreottik eragin zion beldurra kontatzen zuena, estatuburu italiarra ezagutu ondoren atera zuen ondorioa: «Benetako botereak zetazko laxoekin itoarazten zaitu, enkantuarekin eta inteligentziarekin». Bai, esaldi horiek gustatzen zitzaizkien Patriciai eta bere lagun frantximantei. Philippe, Antoinette. Ardotxoak eta gazta dastatzeak. Hori dena, ordea, hutsaren hurrengoa zen Fontecharentzat. Patricia zen bere bizitzako maitasuna, eta prest zegoen dena barkatzeko, den-den hori, gutxiespenak eta ezjakinari egindako barre zantzoak barne, laido eta guzti, nahigabe egiten zion konbentzimendu osoa zeukalako.

- Komentatuko zenuten egunkariko berria, ezta? Hamarrak arte deitu eta deitu aritu dira. Ez dut hartu, jakina. Telefonoaren kablea kentzea erabaki dut azkenean. Hain da barregarria...

Fontechak bazekien sobera ere zertaz ari zen bere andrea. *Barregarria* iruditzen zitzaion? Ardo kopa berriro ere bete egin zuen, Antoinette eta Philippe neurri-

tsuak ahaztuta, eta kolpe bakarrean edan Chateau Latour kardio-osasungarria, «Pauillac bat», Patriciari bizkarra emanda, hark begirada pantailatik -balbula, zerririk, geldirik dauden birrikak eta geldirik dagoen bihotza- apartatuko ez zuen jakitun.

Fontechak ezer esaten ez zuela ikusita, Patriciak segitu zuen. Jolasti mintzo zen oraindik:

- Esan beharko diezu kazetariei ez naizela zehazki kardiologoa, *kirurgialari kardiobaskularra* baizik... Horrela ematen badituzte albiste guztiak...

Nekatuegi sentitzen zen Fontecha, eta apur bat dezepzionatuta. Nekatuta egoteak erremedio txarra zuen, baina dezepzioarena ez zeukan etxeko atea zeharkatzean eta horrek doble amorrarazi zuen. Esan aurretik damutuko dela jakin arren, ezin izan du saihestu:

- *Hain* barregarria iruditzen zaizu?

Fontecha saiatu zen galdera egiten zuen bitartean irribarrea osatzen, baina bazekien keinu behartua atera zitzaiola, harrotasun zauritutik eratorria. Patriciak lehen aldiz apartatu zuen begirada pantailatik.

- Ez duzu serio aurkeztea pentsatuko, Javier...

- Ez zen hori nire asmoa, inondik ere ez, baina...

- Ahaztu duzu zer esan genuen horretaz?

- Bai, baina gauzak aldatu egiten dira...

- Birrindu egingo zintuzkete, Javier, hautagaia aspaldian dago hautatua, ondo baino hobeto dakizu...

- Alderdiak eskatu dit... Dei garrantzitsuak jaso ditut, imajinatu ere egingo ez zenukeen jendearenak...

- Ezohiko Kongresua deitzeko eskaera egiteko hots egin zizun Fuchs judas zikinak ere bai? Otzan-otzan atera zineten bere alde... *Bera* izango da hautagaia... Zalantzan jartzen duzu, ala?

Patriciak arrazoi zuen. Patriciak arrazoi zuen esaten zituen gauza guztietan. Orain esaten zizkion horiek guztiak, sarri askotan maiztuak zituzten afalondotan, barrez eta mespretxuz ia beti, partiduko miseriak haiengandik zein urrun zeuden azpimarratuz, bostere amiñi bat lortzeagatik doilorki labankadaka aritzen ziren izaki nardagarri haiengandik algaraz babes-tuz, konjuruak eginez haiek ez zezaten sekula halakosen animalen menpe erortzeko tentaziorik izan. Arrazoa zuen Patriciak, baina horrek ez zion Fontechari gizatxarra baretzen.

- Oraindik ez dago ezer erabakita.

Patricia altxa egin zen aulkitik.

- *Pentsatzen* ari zara! Buru-garbiketa egin dizute, ala? Noiztik dator kontua? Zergatik ez didazu sekula aipatu?

- Esan dizut oraindik ez dagoela ezer erabakita, Patricia.

- Baina *pentsatzen* ari zara...

- *Pentsatzen* ari naiz, bai. Zer txarrik dauka *pentsatzeak*?

- Dena, *pentsatzen* duzuna inora ez doala hasiera-hasieratik badakizu.

- Aukera bat izan liteke. Nire azken aukera.

- Pikotxa eman dizute zerorren zuloa egiteko... Fuchs izango da hautagaia, ondo baino hobeto daki-zu...

Gogorregi aritu zelako-edo, azken esaldiak esateko hurbildu egin zitzaion Patricia, eta besoa ipini zion soinean, kontaktu fisikoak hitzen ebidentzia krudela samurtuko zuelakoan. Besoa ipini zion, ez lepoan maitagarriri, eta ezta sorbaldan paternalismoz ere. Bien bitarteko puntu batean ipini zion. Maitagarriri. Paternalismoz. Zion maitasunak senarraren pertzepzioa alde maitagarrirantz lerratuko zuelakoan.

- Ez al zara jabetzen, laztana?

- Nik beti bultzatu izan zaitut. Beti animatu zaitut zure karrerari.

- Badakit, laztana.

- Eta zuk? Zergatik ez?

- Gera dadila garbi: zurea izango da erabakia. On-
doan izango nauzu, hori badakizu. Baina ez dut uste
erabaki zuzena denik.

- Zergatik?

- Zeure burua otso artera botatzea delako, eta
barkatu, baina zu ez zara otsoa. Ez nengoke zurekin
hala bazina.

- Baina izan nintzen...

- Otsoa, zu?

- Zer uste duzu zela hau laurogeietan? Gobernu-
aren delegatu izan nintzen... Ez ninduzun oraindik eza-
gutzen...

- Gauzak asko aldatu dira geroztik. Mundua zikina-
goa zen orduan, baina politikariak garbiagoak zineten.

Xalotasun leherketa bat, azkenean. «Jakingo
bahu, Patricia», pentsatu zuen, eta bere andrearen
xalotasunak hura baino indartsuago sentiarazi zuen
une batez. «Hik, bihotza eta birrikak geratzeko hire
gaitasun horrekin, hik, hire kontu korronte gizenare-
kin, teatorako zaletasunarekin, Traviataren argumen-

tuari buruz luze aritzeko gaitasunarekin, Cecilia Bartoliren disko bildumarekin, Chateau Lafitte, Chateau Lator, «Pauillac bat da», hire frantses perfektuarekin, hik, emazte laztana, hik ere ez dakin dena. Ez dakin ia ezer nire munduaz. Nire lehengo bizitzaz. Jakingo bahu ez dakinala ezer, biziko ote hintzateke nirekin, ireki izango ote hidakeen bere garaian umiliazio burges txiki horretarako atea bera? *Birikak eta bihotza geratu, errazago lan egiteko hartara...* Zer, esango banizu, badakidala nik ere zerbait horretaz?».

Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

Mundua zikinagoa zen orduan, baina politikariak garbiagoak zineten.

Ez ote zen alderantziz? «Gazteagoak ginen denok», otu zaio Javier Fontechari, hori da ezberdintasun bakarra. Gaztearen ustel usaina eta zaharrarena ezberdina dela. Denak ustel izan arren, euli ezberdina erakartzen dituela ustel gazteak eta ustel zaharrak.

- Zer darabilzu buruan, Javier?

- Agian arrazoi duzu: ez nuke aurkeztu behar. Ez nago jada neke hauetarako.

- Onegia zara lehen lerroan jartzeko. Hori besterik ez nizun esan nahi.

Pedro Vargasen ideia izan da armak urtegian entregatzea. Falta den dokumentazioa ere bai. Autoa eta autoaren giltza. Beti-Jai tabernan jaso eta ekarri dituztenerako, zain zeuden bera eta Hernandez materialarekin.

- Giltza bakarra?

Bekainaren gainean bigarren bekaina duen gizonak beste giltza bat nahi duela.

- Zertarako baina?

- Giltza galtzen badugu, zer?

Pedro Vargasek ez dio erantzun ere egin. Ez du merezi. Dokumentazioa eta argazkiak eman dizkie, Hernandez aurkeztu die. Dokumentazioari ez diote portugesek gehiegi erreparatu: argazkiei soilik egin diete kasu, egunkariko kirol sailera iristeko gizarte zein politikakoak orri-pasan igarotzen dituenak bezala, makinaz jotako txostenak nabarmen mespretzatuz. Autoaren maletategia zabaldu eta armak erakutsi dizkie Vargasek. Umeak gozoki-barrakari so bezala geratu dira portugesak. Semi-automatikoek liluratu dituzte hasieran bereziki, aho zabalik, begien zuringoa eta niniak dir-dir.

- Benelli?

- Benelli, bai.

Asegurua kendu eta munizioa ikuskatu dute, dena ondo.

- Eta Berettak?

Bigarren kutxa ireki du Pedro Vargasek.

- Berettarik ez: Star dira hauek. Gustatzen ez, ala?

- Berettak eskatu genituen -bekain bikoitzekoa ez, bestea mintzo da orain. Ederra zokormazoa.

- Ez dago Berettarik... sentitzen dut.

- Berettarik gabe ez dugu egingo.

Pedro Vargas urduritzen hasi da. Hori dena nagusiak negoziatu zuelakoan zegoen bera. Starretako bat hartu eta balak sartu dizkio, haserre. Hain haserre ze, portugesean zokormazoena beldur izan baitu ez ote dituen haiek mehatxatuko: gosaritan hartutako bi brandyak deitoratu ditu orain, ez edan izatera jakan dakarren Derringer pistola ttipia ateratzeko adina erreflexu izango zukeen beharbada. Ezustean harra-patu ditu denak Pedro Vargasen tupusteko aldarte al-daketak. Ez portugesak bakarrik. Baita Hernandez ere.

Isilgailua jarri eta gerrian sartu du gero pistola. Arma kutxen azpiko ordezeko gorpila maletategitik

atera eta pirritan darama urtegi ertzeko urkietako baten pareraino. Zuhaitzaren kontra jarri du gurpila eta oinez itzuli da portugesak eta bere konfiantzazko gizonak dauden lekuraino.

Hiru tiro egin ditu diana inprobisaturantz, hogeitabat metroko distantziaz, bata bestearen segidan. Pultsua irmo. Lehen biek alderik alde zulatu dute gurpilaren lanta. Hirugarrenak goma hustu du, baina aluminiozko zirkunferentziaz gertu, hala ere.

Amorrotuta begiratu die portugesei Pedro Vargasek, pistolaren heldulekuko aztarnak mahukaz garbitu eta arma bekain bikoitzeko gizonaren eskuetan jarri aitzin.

- Star. Ez duzue hoberik aurkituko. Gai izango zareteela uste duzue?

Portugesek elkarri begiratu diote, zalantzan.

Bekain bikoitzeko gizonak eman du ametoa, ahots marrantaz, marmarka:

- Ados. Baina errepuestoko gurpil bat beharko dugu, badaezpada.

«Su puta madre», esan du bere kolkorako Pedro Vargasek, baina gero Vera Cruzeko ama birjinaren domina alkandoraren bestaldetik haztatu, hari barkame-na eskatu eta tenplatzea erabaki du.

Ivan Lendl tenislariarekin akordatu da. Euren burua kontrolatzen dakitenekin. Odol eslaviarra. Hala-koa nahi luke berak ere.

Presidentetzarako hautagaia izateko bere alderdietako primarioetara aurkeztea erabaki zuenetik lanez gainezka zebilen Fontecha. Eskerrak Beleni, eskerrak bere idazkariari.

Rara avis bat zen Belen. Bazuen halako aura antzeko bat. Gaztetasuna baino ez gizon helduaren begietan? Oso litekeena zen, bai, baina Fontechak sine-tsi nahi zuen itzaliko zen biologiaren berdetasun hutsala baino zerbait gehiago zela haren aureola. Zerbaitetan sinetsi beharra zegoen, ala? Alderdian sartu berri, aise menperatzen zituen lau hizkuntza, eta promozio-ko lehena izan zen Deustuan. Gauza bat zuen txarra: zuzenbidea ikasi izana. Tira, behar zuen Belenek ere akatsen bat, eta zuzenbidean lizentzia izatea zen berea, halako karrera arrunta halako pertsona markatik fuerakoarentzat. Deustuan ikasten zuten gehienek bezala «zuzenbide ekonomikoa» egin zuela zehaztea gustatzen zitzaion, hala ere, bertan bizi izandako lanak eta nekeak nolabait errentabilizatu eta zu-

zenbide lizentziatu saldo erdipurdikoa rengandik bere burua bereizi nahi balu bezala etengabe. Ukitu elitista bat? Klasista akaso? Karrera urteko hamar espedienterik onenen artean amaitu ostean kazetaritza masterra burutu eta berehala izendatu zuten erkidegoko komunikazio arduradunaren laguntzaile, eta primarioak amaitu bitarte, Fontecharen ezker eskua izango zen. Behin horrelako harribitxirik topatuko eta, elkarren ondoan bide luzea egiteko itxaropena zuen Javier Fontechak.

Lasai arraio zihoazen, su-eten garaia baitzen berriro, eta menia-udaldi horiek betirako ez zirela aspaldi ikasia zuenez gero, abagunea dastatzea zegokien, beraiengandik berrehun bat metrora modu aski diskretuan oinez zihoazen bizkartzainez ahazteraino ia. Uda betiko balitz ez litzateke uda.

- Elkarrizketa bat dugu. Edizio lokala, ezer gutxi. Idoia Erro izeneko bat da kazetaria, gaztetan ezker abertzaleko prentsan aritua, baina urte dezente daramatzana *El Mundoren* Bilboko erredakzioan.

Memoria txarra zuen Fontechak, baina mingostasunak argazki-finkatzailearen lan likidoa ongi bai ongi egiten duenez, iltzatuta geratu zitzaion izen hura. Idoia Erro. Ondo gogoan zuen hark sinatutako soslaia,

Patriciarekin izandako eztabaida eragin zuena. Hainbeste urteren ondoren, ez zuen lortu Patriciak *El Mundo* utzi eta *El País* erosterik.

«Esan beharko diezu kazetariei ez naizela zehazki kardiologoa, kirurgialariardiobaskularra baizik... Horrela ematen badituzte albiste guztiak...».

- Pentsatzekoa da honezkero difuminatua izango duela garai bateko borroken idealizazioa, baina hobe izango duzu harekin tentuz ibili, zer gerta ere.

Eskola zaharrekoa zen Pedro Vargas. Eta ez jainkoarengan eta zigor jainkotiarretan sinesten zuelako bakarrik. Sinesten zuen leialtasunean eta mendekuan ere.

Leialtasun zahar bat zen Palentziarako bidean jarri zuena, kopilotuaren aulkian oxigeno botila lagun, eta tarteka maskara sudurrera eta ahora eraman behar bazuen ere, bazekien onik iritsiko zela. Vera Cruzeko ama birjinak sorotsiko zuen. Hitzordu garrantzitsua zeukan bertan eta bada hori nahikoa arrazoi iritsiko zarela jakiteko. Autopistara sartu aurretik errepide komarkaletik gidatu eta urtegian geratu zen une batez. Ez zen lekua asko aldatu. Urkiek bertan jarraitzen

zuten. Han nonbait lurperatuta egongo ziren Star pistolaren bala-zorroak ere. Kopilotuaren aulkira aldatu zen, autotik atera gabe, eta magalean hartu zuen oxigeno botila. Leioa ireki eta kanpoko haizea arnastu zuen, ordea, botilakoaren ordeztan. Pentsatzen zuenaren alderantziz, ez zen aire garbi hura aski izan. Maskara muturrera eramane behar izan zuen segidan, itoko ez bazen.

Zergatik egin geldialdia urtegiaren? Han jada ez zegoen ezer. Ur bareak, gomuta asaldagarriak. Eta, hala ere, leku hark gauza asko esan nahi ditu beretzat. Oroitzapen asko dakartzkio akordura. Lasaitu egiten du eta urduritu. Beretta eta Benelli.

Ilundu aurretik iritsi zen Quintanaluengos herrira. Anaia topatu zuen, jorratze lanetan. Besarkatu egin zuen. Gustura esango ziokeen: «Ez daukaku jorratzeko edaderik».

- Nolatan etorri haiz abisatu gabe? Nola hango? Jango duk zerbait...

Ez zeukala goserik, baina ezin izan zion meloi puska ederrari uko egin.

- Murtziako suhiak ekarri zidaan atzo. Puntu-puntu zagan.

Bai, freskoa eta gozoa: ez zuen aspaldian Vargasek deus hain gustura jan.

- Zergatik ez haiz semearekin etorri? Astakeria egin duk bidaia bakarrik eginda. Hagoen egoeran... Noiz arte haiz geratzekoa?

Pedro Vargas esatear egon zen: «Mundu honetan, esan nahi duk?». Ez zuen, ordea, behin etorriko eta, anaiarekin ozpin jokatu nahi.

- Ez zaik gidatzea komeni. Bakarrik nagok bihar arratsaldera arte, baina Nuriak eramango hau bihar etxera nahi izatera...

Ezetz esan zion Pedro Vargasek.

- Meloi gehiago?

- Gauean akaso...

- Meloirik ez gauetan: «Por la mañana oro; por la tarde plata, y por la noche mata». Ez daukak gogoan gure zaharraren erretraua?

Erretrauak, jakina, asko dakizki Pedro Vargasek: «Gutxi eta finak, *botikan bezala*».

- Aitaren gauza asko ditiat gogoan. Adibidez, zergatik sartu zen guardia zibil.

- «Dena bere lekuan egon dadin».

- Horixe. «Dena bere lekuan egon dadin». Don Emilio gora eta Don Emilio behera, denek ezagutzen

zitean eta estimatzen Emilio Vargas, denek esaten ziotean bere izenetik.

- Herri txikia duk gurea.

- Herri txikietan estimazioa edo gorrotoa, handiagoak dituk beti.

- Ez zian sekula tirorik jaurti. Ezta airera ere.

Labankada bat zen hura. Sekula ez zuten aferaz aurrez aurre hitz egin, baina anaia jakinaren gainean zegoen 80ko hamarkadako *Iparraldeko gerraz*. Ez zegoen ados hartutako bideekin. Pedro Vargasen semea ere ez, osabaren antza zuen horretan. Eragiten zion halako erresumin bat inguruko inor bere larruan jartzeko gai ez zela ikusteak.

- Gure aitak... guardia zibil izatea *sereno* izatearekin nahastu zuela esango nitek -bota du Pedro Vargasek.

- Ez duk hori hire kasua...

- Umetan ez huen hik aita bezalakoa izan nahi? Sekula ez? Esan nahi diat, mukizu batzuk ginenean... Zer huen hiretzat guardia zibil izatea? «Iparraldeko sindromea» eta hori dena asmatu gabe zegoan artean...

- Baina Franco bizi zuan hi sartu hintzenean, Pedro... Beste bide bat aukera hezakeen.

- Hik bezala, esan nahi duk?

Isilik geratu zen anaia. Ez zion inoiz graziarik egin Pedro guardia zibil sartu izanak. Nekazaritzan aritu zen beti bera, nekazaritza sindikatuetan ere bai, ez zuen Palentzia uzteko tentaziorik izan sekula, ezta familia osoa gosez hilko zitzaiola ematen zuenean ere. Bi aldiz porrot egin zuen bere kooperatibak, eta bi aldiz utzi zion Pedrok dirua. Nuria ilobaren enpresaritza ikasketez ez hitz egitearren.

- Guardia zibil sartu nintzenean Francorengan pentsatzen nuela uste duk?

- Damurik ez, beraz.

- Nork bere bizitza bizi dik. Ahal duguna egiten diagu.

Azken bi esaldietan ados zeuden anaiak. Esan zitzakeen Pedrok biak, eta baita bere anaiak ere. Damurik ezak ñabardura ezberdinak zituen anaietako bakoitzean, ordea.

Hiru aldiz errezatu zuen Vargasek Vera Cruzeko ama birjinaren aurrean. Une batez, Ivan Lendl tenislararen antza hartu zion irudiari. Lantzean behin gertatzen zitzaizkion horrelakoak buruko gaitzaren kontrako botikak hartzeari utzi zionetik. Popatik. Bazuen nahikoa minbiziarentzat hartzen zituenekin.

Don Gregoriok beso zabalik hartu zuen: kanpaia erori zenean eskuzabal jokatu zuen berria erosteko dirua jarriz. *Donazio anonimoa* izan zen Pedro Vargasena. Nerjan etxea erosi ondoren sobratu zitzaiona. Laurogeigarren hamarkadan izan zen hori ere, ez zegoen narkotrafikoaren kontrako borrokan konfiskatutako diruarekin orain adinako kontrolik. Elizaren fakturak ere ez, nonbait. Gaur egun, zalantzan jartzen zuen bigarren hauekiko fiskalizazioa. Eliztarren mezetarako joera izugarri eskatu zen arren, bueltan-bueltan, gutxien galdu zuen negozioa izango zen Don Gregoriorena. Aurki jabetu da apaiza Vargasek tirriki-tarraka dakarren oxigeno bonbona gurpildunaz.

- Birikak hartu dizkizu, ezta?

Vargasek erabakia zuen ez ziela puntzio, plaka eta eskaner bat bera ere gehiago egiten utziko. Medikutarako azken bisitek metastasiak bere egindako lurralde berrien albiste jasotzeko baino ez zuten balio izan. Bataila galduta zeukan, baina zoritxarrez, marexal militarrek ez bezala, ezin bere esaneko gizonen erretirada deitu eta gudu-lekua utzi. Alferrik ziren Starrak, Berrettak, Benelli semi-automatikoak. Bere gorputza baitzen gudu-leku. Errazegia zen bere gorputz barruko karramarroaren hedapena bizitzan gaizki egindakoen

ondoriotzat hartzea: zigor jainkotiarra, Soto eta Zebe-
rio bere barrenak usteltzen, bi gizon gazte ñimiño, bi
eskeleto pozoia hedatzen bere heste eta biriketan. Ez,
gauzak ez ziren horren sinpleak, baina giza garunak
horren sinpleki funtzionatzen zuen zenbaitetan...

Emazteari, medikuari morfina dosia igotzeko eska-
tzeaz batera hitz haiek entzun zizkionean, mutu gera-
tu zen Vargas:

- *Hau tortura bat da.*

Egia beti jakiten omen da, azkenean.

Vargasek 1983ko urriko egun haien berri eman
zion abadeari, ez lehen bezala, ez bere buruari «egin
behar huena egin huen» esaten dionak bezala, beste
modu batera baizik. Berak oroitzen zituen legez, xehe-
tasunik ahaztu gabe, bere burua justifikatzeko nekerik
hartu gabe. Bere buruari sekula kontatu ez zion mo-
duan, harrituta ikusirik bere ahotik ateratzen ziren hi-
tzak eta esaldiak zein ondo txirikordatzen zitzaizkion
elkarri. Rodrigo Mesak esandako hitzak ere berritu ziz-
kion, haren izenik aipatu gabe:

«Itxura penagarria dute, ezin ditugu horrela utzi:
desager daitezela».

Tarteka oxigeno maskara eramaten zuen ahora,
azken hatsen biltegi zen botila hartatik hats bat gehia-

go zurrupatuz, benetan azkena noiz etorriko zen segurantzirik gabe. Hasita zegoen atzerako-zenbaketa. Bat baino gehiago izan daitezke azken hatsak. Lektan geratu zen bost seteko tenis partidak nekatu gabe jokatzeko zituen garaia. McEnroeren purrustaldi itxuratuak, la bola entró, apurado, muy apurado.

- Terriblea da esaten didazun hori guztia, Varguitas -entzun dio abadeari, eta isilik geratu dira biak.

Maskara eraman zuen aurpegira, nahiz eta birrikak oraingoan ez zion oxigeno gehiago eskatzen. Maskara eraman zuen aurpegira, ez oxigeno eroale gisara, maskara estalgarri bezala baizik.

Gauza terribleak kontatzea abade ulerberei. Zerk egiten zuen hori posible, XXI. mendearen hastapenetan? Oso sinplea zen erantzuna: kontzienteki edo ez, aitorpena egiten duenak badaki ez dagoela beste erakunderik elizak adina izugarrikeria egin duenik. Igualeko izugarrikeriak egin dituenari norberak egindakoa aitortzea, jakinik parean duzun erakundea zurea baino odoltsuagoa izan dela, errazagoa suertatzen da. Nola ez zen oraindik inor konturatu? Izugarrikeriak egin izana, Inkisizioa, barne-diktadura ziren elizaren kapital moralik handiena: iluna zelako bere funtzionatzeko era, horregatik erakartzen zituen oraindik ere

jende ilunak eta haien testigantzak. Eta gero, sekretu horiekin negozioa egiten zuen. Zulo beltzen indarra zuen. Eliza erakunde garden eta demokratiko bihurtu-ko zen unean, akabo bere boterea.

Vargas lasai geratu zen, bakean. Eroso sentitzen zen egurrezko konfesionarioan belauniko. Kanpoan beroegi zegoen eta freskura hartan ez zuen oxigeno-maskararen premia hain sarri sentitzen, horixe zen egia. Arratsalde osoa igaroko zukeen bertan, ilunpean, sententziaren zain. Jakin-min apur bat sentitzen zuen, egia zen hori ere: urte gehiegi iragan ziren konfesatu gabe, «benetan» konfesatu gabe -Beretta eta Benelli-, eta ez zekien «ego te absolvo» esango zion edo gurutzearena egingo soilik eskuarekin. Ez zekien zer penitentzia bururatuko zitzaion abade ulerberari, ez jakiteagatik, bera egoera tamalgarri hartan ikusita errukituko ote zen ere ez zekien.

Andrearekin Italiara egindako eztei bidaiak oroitu zuen Vargasek, nola Milango Duomorako bisitan darduzatuta geratu ziren katedral erraldoiaren barrualdean bata bestearen ondoan ilaran jarritako dozenaka konfesionario ikusita: zein baino zein dotoreago, dozenaka hizkuntza ezberdinetan konfesa zintezkeen bertan. Benetako sekretu-prozesadore eleaniztuna zen

hura. Konfesionario txiki pila baten ondoan, handiago bat ikusi zuten: *penitenza maggiore*. Bertara sartzeko zer bekatu larri egin beharko ote zen, horrekin ibili ziren txantxetan emaztea eta biak.

Orain bazekien.

Egia beti jakiten omen zen, azkenean. Baina gehienetan beranduegi etortzen zen, eta jada ez zuen ezertarako balio izaten. Meloia bezalakoxea zen egia, beraz. «Por la mañana oro; por la tarde plata, y por la noche mata».

Egia beti jakiten omen da, eta gehienetan, egia hura urtetan ezkutatu duen hark esaten duelako, sekretua ezkutatu duenaren borondatez, eta ez zoro moduan bila ibili den haren lanari esker. Norberak salatzen zuen bere burua, azkenean. Detektibe nobela gehienak, honenbestez, faltsukerian oinarritzen ziren. Ez ziren inondik inora sinesgarri. Garrantzitsuagoa zen beti konfesio espontaneo, peskiza burutsua baino.

- Hezurak non dauden esan beharko litzaioke familiari -murmurikatu dio abadeak, eta Vargasek entzuntzat eman du bere penitentzia.

Zerk eraman zuen Fontecha harreman hura hasiera hastera -Fontechak hasi ote zuen, egiaz? Ez ote zuen Belenek hasi? - hori ez zen erraza azaltzen.

Elkarrekin pasatu zituzten orduak eta lan egun luzeak, etxetik kanpo hotel berean eta gela bereizietan konpartitu zituzten gauek, baina agian eta bereziki, ordu luze eta aspergarri, neutro eta zaporerik gabeko horien artean harreman fisiko eta sentimentalera leurratzeko inolako aurre asmorik gabe gauzatu ziren zenbait une intimok, lan harremana mundu pertsonalera hurbildu zutenak, ustekabeak. Bere buruari kontatzen zion errelato horietako bat -ziurrenik faltsua izango zena, honenbestez-, *The New York Times* egunkariko berriemaile bereziak egin zion elkarrizketarena zen. Elkarrizketa luzea egin zion, gero bere irizpiztatik bizpahiru lerro baino erabili ez zituen arren erreportajea osatzeko, eta Belenek egin zizkion itzul-tzaile lanak. Itzuli bakarrik ez, interpreteek egin ohi duten legez, belarrira xuxurlatu zizkion kazetariaren galdera luze eta mamitsuak, sofan bere ondoan jarrita. Gertutasun hark, neskaren izterra bere izterraren kontra, neskaren ezpainak bere belarrietatik hain gertu, haren ahots xuxurlaria leun-leun hizketan zuela, bereziki xarmatu zuen. Fontechari otu zitzaion

orduak eta orduak igaro zitzaakeela hantxe geldirik, zaldiei xuxurlatzen omen dieten horien antzera, bera zaldi bilakaturik eta Belen xuxurlatzaile. Kitzikagarria zitzaion hain gertu sentitzea, petalo zurien perfumea, aurpegian emandako ukendu freskagarrien lurrina. Urduri zegoen elkarrizketa haren atarian, ezustekoa izan zen beretzat Belen bere ondoan hain gertu eseri izana, izter eta gerriaz gain sorbaldak ere elkarri ukitzea hain nabarmen. Galderak azaldu ahala eskuak mugitzen zituenean neskaren hatzei erreparatzen zien tarteka, denbora guztian begiradari ez eusteagatik -horrek areago urduritzen zuen Fontecha-, atentzia mantentzen zuela adierazi nahi zion, galdera ulertzen zuela, bai, baina Fontechak esku haiei heldu nahi zien, laztandu egin nahi zituen, kutsatu egin nahi zuen azal leun, azal ehun harekin. Oso profesionala dena, profesionala soilik eta profesionala baino ez, itzulpen kontsektibo ariketa inbertsonala, politikaz baino ez ziren aritu, euskal gizarteaz, euskal nazionalisten grinaz eta Fontecharen grina horrekiko ikuspegi kritikoaz, eta hala ere, berriemaile berezi amerikarren galderak sekula ez amaitzea desio zuen Fontechak: «Egin ditzala galdera luzeak, Belenen itzulpena entzuten segitu nahi dut belarri ertzean».

Hallean elkarrizketa egin ostean hoteleko gelan hitz egingo zuten horri buruz, nola Fontecha aztoratu egin zen Belenek galderak itzultzen zizkion bitartean belarrietako iletxoak ere ikusiko zizkiola pentsatze hutsarekin, nola Belenek ere bazuen halako izu bat, bere hatsa desatsegin suertatuko ote zitzaion Fontechari, «belarriek ere usaintzeko ahalmena balute bezala»... Eta hoteletako enkontruen ondoren Belenen etxea ezagutzea etorri zen, pauso handiegia, bertigoa ematen duen horietakoa; garajetik sartu ziren, inork ikusiko zituen beldur, oso berandu, baina ez zituen inork ikusi eta salbu sentitu ziren elkarren besoetan. Eta haren etxea, etxe soila, domestikoa oso, hunkigarri izateraino apala, ikasle izateari utzi berri dion eta oraindik diseinuaren atzaparretan erortzeko adina diru ez duenarena, -ez ziren uste bezain eskuzabalak izango alderdian komunikazio arlokoen soldatarekin-; Ikeako altzariak eta katiluak, *zuzenbide ekonomikoarekin* zerikusirik ez, gehiago zen han Belen arrunta eta benetakoa, janzten zituen gauzen neurrikoa, ganbara itxurako txapitula, apur bat bohemioa ere bai, zergatik ez esan, eta zein ederra haren lotsa eta kezka Fontecharentzat leku hura *gutxitxo* izango ote zen behin eta berriro errepikatuz, «etxe oso normala daukat»,

zenbat aldiz errepikatu ote zion desenkusa hura, jakin gabe ziur aski, Fontecha bere etxean baino are etxe-koago sentituko zela han, ahaztuak zituen bere ikasle garaiko oroitzapen intermitenteak piztuko zizkiola, gaztetu egingo zuela etxeak berak Belenen azal ehunak eta azal leunak adina, hunkitu egingo zuela Belen bere gainean zangalatrau ikusteak, zakilari heltzen eta zakilari hura Belenena balitz bezala eraginez, traresti ezinezko bilakaturik neska bere begien aurrean, «urteak ziren inork ez ninduela masturbatzen».

Eta gero, maitale noizbehinkakoak noizbehinkako izaten jarrai dezaten nahi denean sekula egin behar ez litzatekeen zerbait: amorantearen bizitza domestikoa ezagutzearen arriskua, larrutarako denbora gehiago uzten duten otordu errazak elkarrekin prestatzea, Belenek flaskoak eta kremaileak nola ireki eta ixten dituen, elkarri belarrira gauzak ahapeka esanez, *The New York Times*eko berriemaile bereziak du errua, belarrira itzulitako hitzek.

Arrisku hori bizi eta arrisku horretan erori. Amiltzeko arriskua, eta berriro ere amiltzeko aukera izango duzula jakitea.

Rodrigo Mesak Cartagenan Soto eta Zeberioaren hezurak identifikatu dituztela irakurri duenean Vargasi deitu dio berehala. Honek ez dio, ordea, telefonorik hartu. Fontecharekin saiatu da, orduan, ezinegonak jota.

Fontechak entzun nahi zukeen azken ahotsa da Rodrigo Mesarena.

- Irakurri duzu egunkaria?

«Zakurrak ere ekartzen dituzte batzuetan».

«Zakurrak?».

«Bai, entrenatzeko».

«Ba hemendik aurrera ez ditzatela ekarri. Akabo zakurrak, akabo motoak, eta akabo tenis partidak denboraldi batez. Garbi dago?».

- Rodrigo...

- Irakurri duzu egunkaria? -entzun du berriro.

Javier Fontechak ez du egunkaria destolesteko premiarik bertan zer dioen jakiteko, nahiz eta albistea irakurriko duen berehala, diagonalean, dena dakienak bezala, jada bere buruan idatzita dagoen albistearen aldagarria mentalki idatzitakotik zenbateraino urrun-tzen den ikusteko, eta bereziki eta garrantzitsuena, bere izen-deiturak agertzen ote diren edo ez ziurtatze-ko.

Ez dira agertzen, baina halakoxe aurreikusetzenak dira-eta burubideak, Javier Fontecha ez da horregatik lasaiago geratu.

- Abokatu on bat nahi dut -bota dio Rodrigo Mesak mehatxagarri-, ez aurrekoan jarri zenidaten txorimailoa.

- Telefonoz ez, Rodrigo...

- Non geratuko gara orduan?

Fontecha etxera heldu bezain pronto jabetu zen Patricia haren zurbiltasunaz.

- Zerbait gertatu da, Javier?

Su-etena apurtu zenetik hona atentzio gehiago jartzen zion Patriciak senarrari, haren sarrera-irteerei, ustekabeei, irratuari. Erlojuari arreta jartzen zion beti inguruan irрати edo telebista bat zegoenetan, eta orduak puntuan zirenean piztu egiten zuen beti irratia, albistegiaren lehen minutua entzun eta ez bere senarra ez beste inor ez zutela hil ziurtatzeko: tsunamia Malaysian, lurrikara Haitin, lan hitzarmena kolokan, hegazti gripea Asia latz kolpatzen. «Ongi, sentitzen dut, baina lasaitasunez hasperen egitea da gorputzak eskatzen didana». Halaxe da: murrizta da axola diguten katastrofeen diametroa, eta urteekin gero eta murriztagoa. «Gaur ere ez dute Javier hil», edo, gehienez-

ra jota «egun bat gehiago atentaturik gabe», burura-
tuko zitzaion, eta bihotza -berak hainbeste ezagutzen
zuen bihotz hura, bere balbulekin eta bere iskemiekin
eta bere elektro menditsuekin- bere onera etorriko
zen berriz, patrikako telefonoak bonba-erloju izateari
utziko zion, eramailearen eskuetan leher zorian zen
esku-granada izateari utziko zion bere patrikan, mezu-
lariaren tresna arrunt bilakatzeko berriz: mezu fribolo-
ak jaso eta bidaltzeko tresna alaia. Gaizki pasatzen
zuen Javierren zain, senarrak ekitaldi publikoak zitue-
netan, bereziki, nahiz eta bazekien halakoak izan ohi
zirela seguruenak, goizean goiz autoan *akabatzen*
-«jainkoarren, zer hitz da hori?»- zituztela haietarik
gehienak, gutxien uste zutenean, akats ttipi batek edo
segurtasun neurrietan egindako lasaiune minimo
batek eraginik, bizkartzain eta guzti, autoaren pean
lapa-bonba bat jarrita, «arratoiak bezala», eta ez zela
aukera handirik geratzen, geratzen zena haien biho-
tza izaten zela, porrokatua, eta ez zegoela hari txin-
parta batekin berriro ere martxa ematerik, ez zegoela
zerri balbula ez aleazio bereziko metalik haiek berpiz-
tuko zituenik. Patricia ohituta zegoen odola ikustera
bere lanean: transfusioak, oharkabean irteten zen
borborra, ebakuntza zailenen ondoren zakarretan

amaitzen zuten latexezko eskularruak, maskarak eta mantalak, oso lantzean behin kirofanoan geratzen zitzaien gaixoren bat, maskara hieratiko berpiztu ezinezkoak, atzematen zailak ziren aneurismak, ez zen beti miraria posible. Bere lanaren parte zen hura, usain batzuk, irudi batzuk eta keinu batzuk, zehatzak eta zuzenak, errepikatzearen errepikatzez aski mekanizatuak. Azken urteotako teknologiaren aurrerapen itzelek keinu eta jarduera berriak etengabe ikastera derrigortu zuten -etxeko bibliotekan Javierren gustuko nobela saldoaren ondoan apalak leporaino betetzen zituzten kirurgia-manual mardulak horren lekuko, AE-Betako eta Australiako ikertzaileen artikuluak-, baina odola beti zen odola, eta ohiturik zegoen, bisturiaren marrazki zehatzera, mozketa kalkulatura, bular-hezurak hatz puntekin ukitzera. Besterik izango zen espaloaren erdian odolusturik topatuko zuena bere senarra izatera. Javierri sekula ez aitortu arren, askotan pentsatzen zuen horretan, senarrak azken muxua eman eta etxea uzten zuenean. Ordutegiak eta bizi-tzaren eguneroko martxa aldatu zitzaizkien, eskerrak seme-alabak jada unibertsitatean edo ezkontuta zituzten bederen -nork bereak, aurreko ezkontideekin izandakoak, beste bizitza batean-. Garaiz guraso iza-

naren azertua aitortu behar zioten elkarri, desmartxa hark haiei bie eragiten zien, eta ez seme-alabei. Gaitz erdi. Baina gaitz handi baten erdia, edonola ere.

- Zerbait gertatu da, Javier?

Norbait maitatzea harengandik egin ditugun nora-bidearen jirak eta bizi-koordinaden aldaketak sekula ez hari leporatzea da, zenbat aldiz zapuzten ditu harremanak erreprotxe-festa horrek: «Zugatik ez balitz, niri berdin zait, baina zu, ez al zara konturatzen zu ez bazeunde nik, zugatik esan nion ezetz, zugatik ez naiz joan, zugatik eta umeengatik uko egin diot, ez al zara jabetzen?»; «Norbait maitatzea, Javier», pentsatzen du Patriciak askotan, «da ez aitortzea sekula lehen hain gustuko zenuen lan-osteko solasari uko egin diozula, kolegekin txutxu-mutxu klinikoan errepaso egi-teari uko egin diozula da maitasuna, Poliklinikako neurologoekin eta kirurgia estetikoko arduradunarekin hartzen zenuen arratsalderoko garagardoari uko, zergatik eta, autora zazpiak jo aurretik iristeko eta ez zazpiak eta laurdenetan, zazpiak puntuan irratiko albisteak entzun nahi dituzulako, auto erosi berrian eserita, tapizeriaren larru usainak inguraturik. Eta federik izan gabe otoitz egitea ere bada maitasuna, patrikako telefonoari orakulari bezala begiratzen diozun bitar-

tean, albisteetan ez dezaten zeure senarraren izenik esan».

- Zerbait gertatu da, Javier?

«Maite dut, maite nuen eta ohitu egin nintzen harekin bizitzera, gero ohiturak pisua irabazi zuen eta maitasunak galdu, baina ohitura bat ezin maita daiteke, ala?». Hainbeste literatura, hainbeste fikzio, hainbeste psikoanalisi merke egin da ekuazio sinple horren lepotik: ohitura eta hormonak nola lotu, arrazoia eta pasioa nola uztartu norbere burua suntsitu gabe, zertan gauzatu norbere barruan gertatu eta galtzen diren batailak, eta kokots-gora eta duin segitu kalean barrena oinez, duela zenbait urte geure buruaren baitan erridikulu joko genituzkeen itxura eta jarrerekin.

- Zerbait gertatu da, Javier?

Ohiturak eman dio hori, ohiturak eman dio Javierren aurpegia bere esku ahurra bailitzan irakurtzeko gaitasuna, gertatzen da urteekin, hori bakarrik estimatzen diogu denboraren igaroari, une batetik aurrera ezagutzen ditugun jende-modu eta aurpegiera guztiak lehendik ikusiak ditugula beste non edo non, beste norbaiten aurpegian. «Ezer ez zaigu berri eta ezer berri ez izatea lasaigarri da une batetik aurrera», pentsatzen du Patriciak, «eta horregatik dakit nik se-

narraren zurbilak zerbait esan nahi duela, eta axola zait zer esan nahi duen, bizirik dagoelako hemen eta nirekin, eta gaur goizean eman didan muxua, orduan ez nekien baina orain bai, ez delako azkena izan».

Ezetz esan dio Javierrek, ez dagoela zertaz kezkatu-
turik, baina Patriciak badaki ez dela egia eta aurki
emango duela Javier Fontechak amore.

- Zerbait kontatu behar dizut, Patricia.

- **Sei** puntu eman behar izan dizkiogu, baina zure
emaztea ondo dago.

- Mila esker, tira... Ez da nire emaztea, lankideak
gara.

Bere miopiarako aski graduatuak ez ziruditen be-
taurreko zikinen gainetik begiratu zion medikuak.

- Nola egin du zauria?

«Basa ari ginen larrutan, entzun izan bazenitu
bere oihiak. Hogei urte gaztetzen nau eme honek».

- Laprast egin eta atzerantz erori da, gau-mahai-
txoa jo du...

Orduan jabetu zen ez zuela Belenekin bertsio ba-
teratua adostu. Ez zekiela Belenek zer esan ote zion
medikuari. Izu-laborriak erasan zion. Odol-jarioa han-

dia zen, kokotean izotza jarri eta korrika etorri dira larrialdietara, beste ezertan pentsatu gabe.

Medikua isilik geratu zen, zerbait idatzi zuen eskuetan zuen libretan.

- Horrelakoetan... txosten bat egin behar izaten dugu, jakinaren gainean egongo zara.

«Jakinaren gainean egongo zara».

Ahotsak sobera dar-dar ez egiteko saiakera dagi Javier Fontechak.

- Ulertzen dut.

Gutxi uste zuen Fontechak parlamentuan genero indarkeriaren kontrako legea aurrera atera zutenean inoiz modu hartan eragingo zionik berari.

- Bisita dezakezu nahi baduzu, lasaigarriak eman dizkiogu. Ez dirudi odolbildurik duenik, baina gaua hemen pasatzea izango da onena.

Errudun sentitzen zen Belen gajoa, bere etxeko gau-mahaitxoaren ertz zorrotza berak diseinatu balu bezain errudun.

- Ondo al zaude?

- Azala tenk sentitzen dut, baina ez da mingarria. Ille mataza bat moztu behar izan didate hobeto josteko. Nik... ez dakit zer esan, Javi. Asko sentitzen dut...

Katagorri izutuaren aurpegi hura. Gozo saiatu nahi du, baina arduratuegi dago Fontecha.

- Esan... Galdetu dizute medikuek nola egin duzun?

- Egia esan diet... Tira, egia... *garbitzen* ari nintze-la eta buruarekin jo dudala armairua...

- Armairua esan diezu?

Argizariaren koloreko jarri zen derrepente Belen. Bere ordura arteko kezka ez zihoan hortik. Bat-batean jabetu zen ez zela txantxetako kontua, huskeria hartatik eratorritako kaltea uste baino handiagoa izan zitekeela Fontecharentzat.

- Zuri ere galdetu dizute? Zer esan diezu?

Fontechak mentalki alderatu ditu Belenen gertae-ren bertsioa eta berak emandakoa, ziztu bizian: «la-prast egin eta atzerantz erori da»; «*garbitzen* ari nintzen eta buruarekin jo dut...», ez ziren gauza bera, baina osagarriak izan zitezkeen. *Gau-mahaitxo*a esan zuen batak, ordea, *armairua*, bestea.

- Ez kezkatu horregatik.

- Zertan ari ginen pentsatzen, Javi? Ez zenidan ospitale barruraino lagundu behar... Honek arazorik ekartzen badizu, ez diot sekula nire buruari barkatuko.

- Hartu atseden orain eta zaindu zauria, ahaztu beste guztia.

Javier Fontechak ez daki nola egin Belen agurtzeko. Muxu emango lioke ezpainetan, baina erizainak dituzte inguruan. Noiznahi sar daiteke medikua ere. Eskua estutu dio, hatz lodiaz laztandu dizkio hatz guztiak. Indarrean helduz erantzun dio Belenek.

- Bihar goizean bidaliko zaituzte etxera, ez da ezer izan.

Belenek Fontecharen eskua darama ezpainetara.

- Maite zaitut, Javi. Orain zoaz etxera gauzak gehiago konplikatuta baino lehen.

«Maite zaitut, zoaz etxera»: maitaleak hitz egin zuen lehenbizi, idazkariak gero.

Kopetan eman zion azken muxua Fontechak, eta gezi batek bezala zulatu zion gogo bi ordu lehenago besarkatu zuen emakumezko haren gorputz biluziaren akorduak, oheko jardun basatiak, besoetan hartu eta emakumezkoaren bularrak dilindan ikusteko bere gogo demasagatik nola jirarazi zuen Belen bere gainean zamalka zedin, buztana haren barrutik atera ere gabe behin eta berriro posturaz aldatuz, eta nola orgasmoaren azken astinaldietan Belenek atzerantz egin zuen buruarekin, bonbilla bakarreko mahai-lan-

para piztuta zuen gau-mahaitxoaren ertzarekin buruan nahigabe kolpea hartu aurretik. Izutu egin zen Fontecha. Konortea galdu zuen Belenek une batez.

Ospitaleko igogailua hartu eta kalerantz abiatu zen Javier Fontecha. Denek ezagutzen zutela eta denek begiratzen ziotela sentitzen zuen. Ez luke zertan: herritar arrunt bat baino ez da, berari ere gertatzen zaizkio ezbeharrak. Paranoia hutsa besterik ez zen beharbada, bera lako politikaria eskoltarik gabe ibiltzeak harritzen zuen jendea agian. «Laprast egin eta atzerantz erori da», «garbitzen ari nintzen eta buruarekin jo dut...». Erruduntasunaz haratago, ospitale-
ra egindako bisita hark bere karrera politikoa eragirik izan ote dezakeen ari da neurtzen. Ezezkoan dago, baina biziki narritagarria zaio dena kontrolatuta daukazunean, justu orduantxe, gauzek okertzeko duten joera. Eskerrak Fontecha ez zuen inork ikusi Belenen etxera sartzen eta bertatik irteten, eskerrak garajetik zuzenean igo zen igogailuan.

Eta, hala ere, inoiz ez zeneukan ziurtasun osoa.

Primarioetarako bere hautagaitza hari batetik zintzilik zegoen: Soto eta Zeberio kasuan inputatu be-

zala deklaratu beharko zuen Fontechak. Partiduak, ordea, publikoki agertu zion bere sostengua. Hori ofizialki jakin baino hiru egun lehenago, gurasoen etxera alde egin zuen Patriciak. Aste gutxiren buruan, hankaz gora jarri zitzaion bere ordura arteko bizimodua.

Zer zen Patriciak barkatzen ez ziona? Gerra zikinean parte hartu izana? Gerra zikinean parte hartu zuela ezkutatu izana? Egia beranduegi aitortu izana? Dena ukatzea espero zuen, hobe izango zen hori? Bere bizitzako emakumetzat eduki zuen Fontechak Patricia, baina aspaldiko hilabeteetan ez hainbeste: Belen zeukan orain, mileurista baten hilabeteko soldata balio zuen Pauillac botilarik edaten ez zuena, politikari eta politikariei Patriciak ez zien errespetua eta estimazioa ziena, bere errugabetasunean sinesten zuena, aura gazte eta itzalezin baten jabe. Lehenago edo geroago Patricia uzteko asmoa zuen, eta hark aurre hartu izanak ez zituen gauzak erraztu besterik egiten. Emazteak okasio berezietarako gordetzen zuen botila zabaldu zuen Javier Fontechak, eta Belen etxera gonbidatzea erabaki.

- Andrea kanpoan da, hemen gera zaitezke lotan.

Belen uzkur agertu zen hasieran, baina onartu egin zuen azkenean, «Patricia lan bidaia batean dago, Bordelen», urruntasunak segurtasuna eman zion.

Dena pentsatuta zeukan Javier Fontechak: aste batzuen buruan, Patriciari Belenekin zuen harremanaren berri eman ziola eta lagun zibilizatuak bezala bereiztea erabaki zutela esango zion. Ikus zezala *gentleman* bat zela eta prest zegoela beragatik dena uzteko.

Begi-zulo nabarmenekin etorri zen Belen etxera, esandakoa baino ordubete beranduago ia. Ez zen berandu etorri zelako desenkusatu.

- Alderdiko abokatuekin izan naiz.

Harritu egin zen Fontecha.

- Biharko geratuta geundela uste nuen...

- Lana aurreratzeagatik...

- Eta? Nobedaderik bada?

- Primarioetara aurkezteari uko egitea nahi dute.

- Nola? Zertaz ari zara? Nire burua errudun jotzea litzateke hori!

- Ez da hori: epaiketan dena ukatuko duzu, jakina. Ez zenekien ezer eta euren inizatibaz jardun zuten. Abokaturik onenak jarriko dizkizute. Trota da gakoa: bere hiletan Rodrigo Mesarekin hitz egin zuen bakarra

zu izan zinela esango duzu. Rodrigo Mesa ere jakinaren gainean dago...

- Eta ezin al du Rodrigo Mesak dena bere gain hartu? Azken finean, Vargasek eta berak...

- Horretan saiatu ginen hasieran, baina datu gehiegi dauzkate Rodrigo Mesa zurekin lotzen dutenak... ulertzen? Hari gehiegi... Grabazioak dituzte, Vargasen aitorpena... Diego Lazkano ere hor dago...

- Izango du ahuleziaren bat... izango du nondik eraso...

- Goitik behera ikertzen ari gara... Baina El Cerro palazioa ezagutu zuen... Sentitzen dut, Javier...

- Ez da posible... Ni... Bakarrik uzten naute? Zuk ere bai? Dena nik jatea nahi duzue? Kartzelara bidaliko naute!

- Ez jarri okerreanean. Hori gertatuko balitz ere, jakizu ondoan izango...

- Akabo dena hau jakiten bada, Belen! Ez al zara konturatzen?

- Ondoan izango naiz, ondo prestatuko dugu epaiketa. Ez duzu espetxera joan beharko. Baina erretiratu egin behar duzu bolada batez. Zeure kabuz.

- Zergatik eman dit orduan sostengua partiduak?

- Zeure kasa erretiratzea espero dutelako.

- Eta onartzen ez badut? Egia osoa esatea erabakitzen badut? Nik ere aginduak obeditu besterik ez nuela egin, koakzionatuta nengoela, estatu arrazoiak argudiatu zizkidatela, xantaia egin zidatela... Hautagai izaten uzten ez badidate, bost axola beste guztia... bete nuen desterrua European...

- Javi...

- Zer? Gehiegi eskatzen didate... Lagun bezala: ez nukeela egia esan beharko uste duzu? Espetxera joan behar badut, ez naiz bakarrik joango! Jakin dadila dena behingoz eta bakea! Goikoak zirinduta badaude, azkarrago emango digute indultua!

- Ez da indulturik egongo zuretzat, ez delako kondenarik egongo.

- Ziurregi zaude.

- Leialtasuna zor diezu izendatu zintuztenei.

- Ez zaitut ezagutzen, Belen. Nire bizkar informazioa pasatu diezu? Norekin zaude? Partiduarekin ala nirekin?

- Elkarrekin gaude honetan.

- Ez, ez gaude. Zu ez zaitu honek ziprizzintzen. Ez zeunden nirekin garai hartan. Ezin duzu jakin zer infernu zen hura, Belen. Eta badakizu zer esaten dizudan? Nazkatu naizela... Egia esango dut. Jakin dadila dena.

- Pentsatu hori ondo, Fontecha...

- Fontecha deitzen didazu orain?

Etxeko altzari garestietan jarri du begirada Belenek. Zenbat etxe dekoratu ote zitezkeen Ikeako muebleekin haiek guztiak salduz gero?

- Ni ere harrapatuta naukate. Badute ospitalera elkarrekin egin genuen bisitaren berri. Ez zen ideia ona izan.

Lehenaz beste aztoratu da Javier Fontecha:

- Zer esan nahi duzu, Belen? Prest egongo zinateke nire kontra testifikatzeko?

- Batzuetan inozoa ematen duzu, Javi: ez dute nik testifikatzeko premiarik. Nire mediku txostena filtra dezakete, zure sinadura dago larrialdietarako erregistroan. Bi kopia ateratzea aski: bat zure andrearentzat eta bestea hainbeste maite zaituen Julio Viradoren izenean *El Mundo* egunkarira bidaltzeko... Nik testigantzarik ez eginda ere ondorioa berbera da, handiago agian, nire isiltasunak ameto emango liokeelako hipotesiari: «Hautagai sozialistak bere idazkaria jipoi-tu du», hori letra larriz. Eta azpian: «*Harreman bat* zeukan harekin». Hortxe eskandalua. Epaketatik onik aterata ere, erretiratu egin beharko zenuke.

- Baina ez da egia...

- Ez da egia?

- Ez jipoitu zintudanik!

- Nobedadea da hori. Noiztik axola du egiak? Ez li-
zukete barkatuko: ez minuskulazko egia eta ezta letra
larriz emandako gezurra ere.

- Gure artean zerbait berezia zegoela uste nuen.

- Hori ez da aldatuko, laztana... Baina ondotxo da-
kizu ez neukala beste aukerarik.

Isilik geratu da Javier Fontecha.

- Ze... andreari ez zenion esan ospitalera lagundu
ninduzunik, ala?

Isilik jarraitu du Javier Fontechak.

- Susmatzen nuena.

Denak barkatu dizkio, partiduarekiko leialtasuna eta
berarekin zuena maila berean jarri izana barne. Ohe-
kide izaten jarraitu dute, finean. Ondoan izan du epai-
ketak iraun duen kalbario bide osoan, horrek esan
nahi du zerbait.

Nola ospatzen da askatasuna, bestalde? Badago
modurik askatasuna ospatzeko errudun zaren kargu
batzuetatik *in extremis* atera zarenean eta zure kon-
fiantzazko gizonek, Rodrigo Mesak, hilzorian dagoen

Vargasek eta portugeseekin ibili ziren beste hainbatek espetxean bolada bat eman beharko duten jakinaren gainean? Berdinak al ziren ospatzeko modu oro? Absurdoa zen xanpaina, baina batzuetan ez zegoen topikoetan erori eta aurrez idatzita zegoena bete beste aukerarik. Larru-aldia bera ere atzeratzera eramango zuen Tattinger botila apar-jarioz, Fontechak pozarren bete ditu bi kopak:

- Gugatik...

Belenek ile xerloa apartatu du belarri atzera. Topari erantzun eta irribarre egin du, apur bat behartuta.

- Bolada bat frigorifikoan pasatu beharko dut, enpresa pribatuan baditut bizpahiru eskaintza. Fundazioan sartzea eskaini didate, baina ez dakit... Aspergarrigi gure adrenalina-jario mailan ohituta gaudenontzat, ez duzu uste?

- Zalantzarik gabe...

- Noan lekura noala, nirekin nahi zaitut, jakina. Hori ez da negoziagarria.

Eskumuturretik heldu dio Fontechak Beleni. Honek xanpain kopa telebista gainean utzi du, probatu gabe.

- Zer gertatzen da, Belen?

- Esan: andrearekin ospatu duzu jada, edo gero ospatuko duzu? Beste Tattinger botila bat daukazu autotan? Zuk erosi duzu edo norbaiti erosarazi diozu? Kuriositatea daukat, jakin nahi nuke horren berri...

- Ez dut ulertzen... Patricia uztea nahi duzu? Aurki utziko dut... Jabetuko zinen epaiketari ez dela nirekin izan.

- Hara... Ez naiz itzulinguruka ibiliko: Presidentzia Ministeriora joatea eskaini didate.

- Madrilera? Nork?

- Fuchs-ek eta bere taldeak.

- Ez dut ulertzen...

- Zurrumurruek diote bera izango dela hurrengo hautagai sozialista hauteskunde orokorretan. Zuk kanpo geratuta, Erviti eta Subiol erretiratu egingo dira ziurrenik.

- Fuchs beti izan da itzaleko gizon... Bera ez zegoen hautagaien artean...

- Ez, baina kontsentsua eragingo duen hautagai baten premiak akuilaturik aterako da.

Fontechak bera ez zen eta gustuko ez zuen norbaiten larruan topatu du bere burua, bereak ez diren hitzak esaten.

- Ez duzu onartzea pentsatuko, ezta?

Isilik geratu da Belen. Hasieratik igarri behar zuen Fontechak. Berari *laguntzen* ibili zen azken hilabetee-tan, bai zera. Bera karriletik atera ez zedin *zaintzen*, seguruago. Norbaiten enkarguz. Alberto Fuchs eta bere taldearen enkarguz. Eta Fontechak dena irentsi.

Apur bat gehiago estutzea erabaki du, neskaren erantzunari itxoin gabe.

- Ez zaude prest.

- Norbait freskoa behar dutela esan didate, Javier.

Fontechak ezin izan du irribarre mingotsa ezkuta-tu. *Ustela ez den norbait behar dute, Javier*, hori izan da neskak esan nahi izan duena. Neska birjina behar dute, hautesleengan ilusioak eta ispilukeriak sortzeko. Ilea belarri atzean jarriz hautesleria konkistatzeko gaitasuna duena. Egin lekua gazteriari. Bizitzako legea. Partidua ez zen hauteskundeak irabazteko makina besterik, zertan harritzen zen orain Fontecha?

Amorrua eta jelsi-sumendi bat dauka barruan: Alberto Fuchsek ez daki ingelesez. Badaki Fontechak nork xuxurlatuko dizkion itzulpenak belarrira.

- Ez zaude prest eta badakizu.

- Inoiz ez dakizu prest zauden igerilekura jauzi egin arte.

- Beraz... erabakita daukazu.

- Alberto Fuchsi buruz ari gara... Inkestak kontra ditugu, desafioa izango da kanpainan parte hartzea, benetan bera aurkezten bada... Estatu mailako kanpaina bat, Javier, ezin diot uko egin.

Begiak dirdirka ditu, inoiz ez du Belen horrela ikusi. Etsitzen hasi da Fontecha.

- Presidentzia barruan aritzeaz gain... beste zer-bait eskaini dizu, ezta?

- Hautagaitza ateratzen denean bere prentsa kabinete osoa eramatea nahi du.

- Eta irabaziz gero, ministerio bat. Bolada-bolada-ko ministro gaztea, eta gainera emakumezkoa. Bingo. Berdintasun Ministerioa, beharbada?

- Ikaragarri gustatu zaio Fuchsi zurekin egin dudana, beti izango nauzu zorretan, Javier. Zu gabe ez nuen inoiz...

Javier esaten dion bakoitzean kolpe bat gehiago mailukatzen du garunaren erdian daukan iltzea.

- Zer dakizu zuk Fuchsi buruz? Ez duzu ezagutzen, Belen. Itzalean ibili da beti orain gutxira arte. Laurogeietan ere bai, itzalean zebilen. Badakizu zer esan nahi duen horrek? Baduzu horren berri?

- Harremanetan segituko dugu, ez dago zertan gure artekoa...

Ez du itxura desesperatuegia eman nahi, baina jarriera aldatzeko momentua iritsi dela begitandu zaio Fontechari, desesperatuta baitago, egiaz. Erruki pixka bat piztu nahi dio, nahiz eta badakien ez duela funtzionatuko, ez dela bera, Patricia ez bezala, erruki dosi justua ziztatzeko trebe izan sekula.

- Zu gabe ez naiz zuloatik aterako, Belen.

- Nire aukera da: nork daki horrelakorik berriz izango ote duan. Tren batzuk behin bakarrik pasatzen dira.

- Lehen ez zenuen horrela hitz egiten... Asko aldatu zara Toledon partiduak egin zuen Ezohiko Kongresutik hona.

- Lehen ez neukan garbi zer nahi nuen. Begiak zabaldu ditut orain, zuri esker...

- Azkenaldian ez dizut arretarik jarri, badakit. Ikasi dut lezioa. Ulertu dut. Gauzak aldatu egingo dira.

- Sentitzen dut, Javi.

Javier Fontechak gas-burbuilak apaldu zaizkion Tattinger kopa hartu du telebista gainetik. Komunikatzen behera hustu du, suminez.

- Birrintu egingo zaituzte. Ez al zara konturatzen?

Patetiko sentitu da Fontecha behiala Patriciari entzundako hitz mailegatuak esaten. Minotauroak nes-

katila gazte bat nahi du eta Belen izango dahari. Edo agian ez. Agian ez dute birrinduko eta onik aterako da. Javier Fontechak baino aukera gehiago izango ditu neskak, arrazoi du, gaztea da, freskoa da, hori baloratzen da egun, eta barkatu egingo dizkiote hanka-sartzeak. Manager on bat behar du, besterik ez, konbate errazak jarriko dizkion agente bat, gailurrera emeki-emeki eta erre gabe heltzeko. Eta hori Fuchs da. Belen ote da horretarako hautatua, alderdiko baroiek eta estrategek faktore asko aintzakotzat hartu ondoren hartzaz seinalatutakoa, gaur hautagaiaren prentsa-buru, bihar ministro, etzi Espainiako presidentetzarako lehen emakumezko hautagai? Belen ote zen benetan tortura bide horretarako hautatua? Beharbada, bai. Beharbada arrazoi izan zuen Patriciak hasieratik, erratu egin zen Fontecha Belen laguntzaile gisara jarri ziotela uste izanda: *Fontecha* zen laguntzailea, eta ez alderantziz. Zekien guztia erakutsi zion oharkabea, ongi egiten zuena, eta, batez ere, gaizki egiten zuena. Hilabete asko lehenagoko elkarrizketa bat irudikatu zuen Javier Fontechak, Fuchs eta Belenen artean gauzatuko zena: «Beha harekin zaudenean honetan eta honetan, bere puntu ahulak harako hura eta haratagoko beste hura dira, zaindu bitarte horretan guztian

egindako kontaktuak. Agenda on bat izatea da garrantzitsuena. Duda kasuan, isiltasuna. Ez esan ezer. Hobe da isiltasunaz damutzea esandakoa atzera bota behar izatea baino. Apurka-apurka joan behar dugu zurekin, aingeru pausoequin».

Bai, hasiera-hasieratik erabili zuten, eta orain, erabat zukutu zutelarik, bazterrean lagatzen zuten emandako zerbitzuak eskertu ere gabe.

Azken tiroa, desesperatuena da beti.

- Taldekoa zen Fuchs... Pistola eta guzti etortzen ziren Madrildik hiletetara laurogeietan... Trotaren hiletan... Bere mezu bat jaso genuen... «Garantiak»... Bazenekien hori?

Ez dago erantzunik.

- Hitz egin dizu horri buruz, Belen?

- Epaiketan zeneukan esateko aukera, Javier.

Orain beranduegi da.

Umiliatuta sentitu zen Javier Fontecha. Birrindua.

Belen ikusi zuen orduan, jendez betetako *hall* batera heltzen, berandu, egia, baina jendeak gustura jasaten duen itxaronaldi gozo horietako bat sortzeko magiaren jabe; ikusi egin zuen, bihar edo etzi gertatuko dela badakigun zerbait ikusten dugun argitasun berearekin, klarki, ikusi egin zuen Belen jendeari boste-

koa estutzen, makinalki baina natural itxuran bereak ez ziren hitzak errepikatzen, irristakor, amu guztiei uko egiten dien arrain, bere gurasoek nerabe zela hortzak zuzentzen gastatutako dirua zein ongi justifikatuta zegoen erakusten zuen irribarre zabalarekin, «pozten naiz, oso gauza onak entzun ditut zutaz».

Paper requiem

Luziok barrez topatu du Fede Epelde.

- Espetxetik deitu dute...

Ez zaio Luziori barre egiteko kontua iruditu.

- A, bai?

Barrez darrai Fedek. Gutxitan bezala. Inoiz ez bezala. Ez zen umoretsua editorea. Luziok barrearen zergatia atzeman ezinik jarraitu zuen.

- Kartzelakoentzat bidali genituen azken liburuak...

- Ez dira iritsi?

Baziren hilabete batzuk liburu soberakinak xehatu eta birziklatzera bidali beharrean espetxeetara igortzen hasi zirela. Saldu gabe zegoen stocka nagusiki, baina baita etxean zituzten hainbat liburu ere, sekula gehiago berrirakurriko ez zituztenak. Adin batetik aurrera arazo bihurtzen zen liburu pilaketa. Etxeko idazle eta lagunen artean mailing orokor bat egin eta haiek ere soberako *merkantzia* bidaltzen hasi ziren. Ezarian-ezarian, kutxa dezente pilatzen zuten hilaren amaierarako.

- Iritsi bai, baina ez zaizkie gustatu. Zer iruditzen zaizu? Martutenen ez zaizkie gure liburuak gustatu! «Estimatzen da bidalketa, baina zaborrik ez igorri, arren!».

- Ez da posible... Hori da hori muturra.

- Ez, ez, Luzio... Bai zera! Arrazoi osoa dute: kartzelan daude baina literatura unibertsaleko onena me-rezi dute, ez gure erdipurdiko autore hauek helduentzat idazten duten haur literatura modu hori!

- Bueltan bidaliko dizkigute?

- Ez. Baina hemendik aurrera *edozer gauza* ez bidaltzeko eskatu didate, mesedez eta otoi. Zer deritzozu? Kartzelan seriooki hartzen dute irakurketa. Nork daki, agian ekibokatuta gaude, agian bada oraindik esperantzarik...

- Mailing berri bat egitea nahi duzu, etxekoek ez dezaten *edozer gauza* bidali?

- Ez, hobe ez. Irainduta sentituko lirateke... Idazleak lorontzi txinatarrak bezalakoak dira; okerragoak, hauskorak izateaz gain oihu egiten dizute... Hori bai, editoreak zeloak eragin behar dizkio batzuetan bere buruaz seguruegi edo bertan goxo dagoen sortzaileari, horretarako beste autore batzuen liburuak goraipatuz, bera ez beste idazleek erabat betetzen zaituztela

esan behar diezu, gezurra izan arren, berak ere hurrengoan onena ipin dezan...

- Eta ez dizute alde egiten halakoetan, jelsiak jota?

- Kontuz ibili behar, soka noiz tenkatu eta noiz askatu, Luzio: autoestima gutxiko idazlearekin kontrako lana egin behar da, haren kolegak gutxietsi bera gora etor dadin.

- Editore bezain psikologo zara, beraz.

Julio Virado egunkariko zuzendariak bilera batera deitu zituen Idoia, Victor eta Roger. Ikusia zuten lehenago ere askotan telebistan eta argazkietan, urteroko afari jendetsuetan. Lehen aldia zen, ordea, aurrez aurre zeukatena. Idoiak eta Rogerrek bai behintzat, aurki ohartu dira-eta Victorrekin egona dela lehenago ere, konfiantzaz tapakatu baitio sorbalda. Horrelakoetan sarri gertatu ohi denez, uste baino txikiagoa begitandu zaie Virado. Madrildik etorri zen haiengana eta ez alderantziz, berri txarrak ekarriko zituen, seguru. Mahaiaren bueltan eseri orduko baieztatu da susmoa.

- Tamalez, berregituraketak datoz erredakzio guztietara. Garai berrietara moldatu beharrean gara eta

asko zaindu behar ditugu gastuak... Jakingo duzuen bezala, irrati bat ere badaukagu, lurreko telebista digitalean hiru lizentzia lortu ditugu eta hazten jarraitu nahi genuke. Horrek esan nahi du kazetari integralak izan beharko duzuela aurrerantzean, albisteak gure irratietan komentatzea eskatuko zaizue, momentuz...

- Estudioetara joan beharko dugu?

- Hau ez doa zuretzat Roger, Victor eta Idoiarentzat baizik. Eta ez, ez duzue estudioetara joan beharko: telefonoz egin ditzakezue aportazioak, RDSI konexio onak ditugu bulegoan, ezta?

Duda egin zuen Julio Viradok puntu horretara ailegaturik, eta idazkariaren begietan bilatu zuen honek eman ezin zion laguntza.

Enpresaren ildo estrategikoen gaineko erretolika irrigarria etorri zen gero, eta denak mahaitik altxatu eta Idoiak arnasa hartzeko aukera irabazia zuela uste zuenean, horra non ukondotik heldu dion Viradok.

- Zurekin hitz egin nahi dut, Idoia.

Gero eta nazka handiagoa hartu die elkarrizketak aurrera egin ahala, haren janzkera garesti baina gusurik gabeari, haren ezpain lehorregiei eta haren hortzoi hezeegiei, itxura gaztea eman nahian gehiegi orrazten ez duen kalpar beltzez tindatuari.

- Nahiago nuen hau bakarka esan: zu zara erre-dakzio honetan inpreszindibleena.

Dena xaribari hutsa zela jakinagatik, Idoiak defen-tsa-lerroak jaitsi zituen une batez, eta amorrua senti-tu zuen bere armada erretiratu izanaz. Halakoxea da geure ahulezia: mudatu egiten zaigu gorroto genuen jendearekiko iritzia, hark gure aldeko balaku merke bakana egite hutsarekin.

«Zer eskatuko dit orain», pentsatu zuen Idoiak, eta dardaraka hasteko motiboak zeuzkala ondoriozta-tu.

- Ahots ederra daukazu. Lan egin duzu sekula irra-tian?

- Bekadun nintzen sasoian, baina oso bolada labu-rrez, Herri Irratian.

- Herri Irratia?

- Radio Popular.

- A, Cope! Gure aliatu estrategikoak...

«Zergatik ez ote naiz isilik geratu», otu zitzaion Idoiari, Radio Popular eta Herri Irratia gauza bera ez zirela azaltzen hasteak merezi ez eta are gutxiago ko-meni zitzaiola jakinki.

- Orduan ez dago zalantzarik: zu zara behar dugu-na. Erredakzioko lana urrituko dizugu eta deskonexio-

etako albisteez arduratuko zara. Kaleko lana... Denetik pixka bat. Onartzen baduzu, jakina. Soldata igoko genizuke, erran gabe doa.

Ez zen igoera zenbatekoa izango zen galdetzen ausartu. Zergatik? Ez zuen balaku merke bezain zuriak jaurti zizkion hura dezepzionatu gura. Ez zegoen aise esaterik halakoxe autoestimu baxua izateak zenbat sumindu zuen Idoia. Non geratu zen ahozko pingongerako bere gaitasuna? Bostekoa eman zioten elkarri. Otzan Idoia Erro langileak, tinko Julio Virado zuzendariak.

Rogerrek zertaz aritu ziren jakin nahi izan zuen tabernan.

- Zer esan dizu Viradok?

- Lan gehiago egin beharko dudala: erredakzioaz gain, irrati buletinak, «kaleko lana, denetik pixka bat». Izorrai. Ez dut ezezkorik esateko barrenik izan.

- Soldata igoko dizute behintzat.

- Sinbolikoa izango da.

- Zenbat?

- Ez dit esan.

- Eta ez diozu galdetu?

- Ez...

- *Why not? Are you nuts?*

Rogerrek espantu nabarmenak egin ditu, laguna galdutzat ematen duenarenak. Amerikar batentzat ulergaitza zen diruaz aurrez aurre eta garbi hitz egiteko Idoiaren ezintasun hura, euskaldunek oro har nozitzen zuten eta tratatu freudiar bat idazteko ematen zuen jokabidea -eskuzabal izan eta diruaz ez arduratu-. «Kazetari integral izan beharko duzue aurrerantzean», bota du Rogerrek, Viradoren ahotsa imitatuz. Idoiak barre egin du.

- *The New York Times*eko erredaktore bat daukat etxean, ezagutu nahi? Agian beraiekin lan egiteko eskainiko dizu, *who knows...* Euskal Herriari buruzko erreportajea egiten ari da. Burger bana jan genezake elkarrekin...

- Sentitzen dut, baina Diego zain daukat. Autobusa hartu behar dut.

- Harreman zurrupagarriegia daukazu tipo horrekin, *you know?*

Senarra utzi berri zuen Idoiak, urte askoren ondoren, aspaldiko mutil-lagun izan zuen harekin itzultzeko. Idazle bat. Rogerrek bazekien oso gaizki pasatu zuela banatu bitartean, baina jada iritsia zen kontuari buruz txantxak egin zitezkeen garaia. Edo berak hala uste zuen, behintzat.

- Elkarrekin bizi gara, Roger. Ez hasi betikoarekin.
- Esaten nuena, zurrupagarriegia.

Goizeko seietan esnatzen zen egunero Fede. Kallean gosaltzen zuen beti, sei eta erdietan zabalik egon ohi zen auzoko taberna bakarrean: opil suitzar ttipiari azukrerik gabeko kafe hutsarekin bultzatzea gustatzen zitzaion, eta kafea kristalezko edalontzian zerbitzatzen ez zioten egunetan zerbait gaizki aterako ote zen errezeloa pizten. Goizeko zortziak eta laurdenetarako, ordu erdi igeri eginda, bere idazmahaiian eserita egoten zen jada, argialetxean.

Egun hartan, zorionez, ez zitzaion idazlerik bisitan etorriko. Goiz lasai bat, behingoz. Horren orde, Luzio maketatzaillearekin zeukan bilera. Garamond letra tipo berria erosteko konbentzitu nahi zuen, hark zekartzan aukerak zeintzuk ziren, maketatzeko proposamenak ekarriko omen zizkion: kaxa estutu egin nahi zuen eta lerro artea zein letren arteko espazioa apur bat handitu. Jendeak asko hitz egin ohi zuen sekto-rean letra tipo ezberdinez, baina gero denek berbera erabiltzen zuten, Times Roman zikin hura, edo Garamonda asko jota, pirateatua gainera, inoiz ez erosia:

diru galerez kexu agertu eta egile eskubideen defentsa sutsua egiten zuten editoreak beraiek ziren tipografiarenak ez errespetatzen lehenak. Zer espero zitekeen halako jokaerak zituen bandidu talde batez? Lucinda, Bembo... emakumezkoen izenak ziruditen letra tipo haiek kitzikatzen zuten Fede. Inbidia handiz begiratzen zien Italian eta Frantzian erositako liburuei, askoz ere hobeto maketatuak eta josiak, beste tradizio batetik arnasa hartu eta beste alegrantzia baten jabe zirenak. Herrialde bakoitzak -eta hizkuntza bakoitzak- bere ezaugarriak eta bere gustuak zituen letra tipoei eta hizkien tamainari zegokienean, eta baita hauen artean utzi beharreko espazio zuriari zegokionean ere. Batzuei, hitz batetik besterako tartea nabarmena izatea gustatzen zitzaien eta hizki batetik besterakoa txikia, oso garbi uztea non hasten zen eta non amaitzen hitz bakoitza, garbiegi Federen gusturako. Irakurlearen inteligentziari egindako iraina zen berretzat hitzak eta hizkiak modu horretara banatzea, nahiago zuen hitz batetik besterako tartea mantendu arren, hizkiak bata bestearen gainean hain pilatuta ez ikusi, arnasa pixka bat har zezaten.

- Apenas dago alderik, baina «f» eta «l» minuskula elkarren ondoan jartzen direnean espazio gehiago

geratzen da, hutsune bat sortzen da bien artean. Ikusten? Figura polita egiten du eta «f»-aren goiko kiribila luzatu egin denez, «l»-a ukitu egiten du, baina tartean espazio zuri asko utziz. Irakurleari, ohitu arte, espazio bat soberan den sentipena sor dakioko batzuetan. Zer iruditzen?

Luziok deboziaz begiratzen zien orrialdeari eta hizkien arteko tarteari, eskultura bati bezalaxe. Luzioren bisita jasotzea, piano-afinatzailea etxean izatea bezalakoa zela pentsatu zuen Fedek. Ofizio zahar eta xarmangarria, desagertzeaz zegoena.

- Ongi bereizten dira «l» minuskulak eta «l» maiuskulak?

- Horrekin ez dago arazorik oraingoan.

Jendea ez zen jabetzen zein garrantzitsua den hizkiak lehenbizi eta hitzak gero espazio doiarekin banatuta izatea. Eta gero letra tipoak zeuden, bakoitza bere historia luzearekin eta bakoitza bere garapenarekin; beti zegoen atzean artisau bat, Claude Garamond edo Sir Aldus Manutius bezalako norbait, gustu onaren zaindari. Hizkien biribiltasunean zetzan borroka nagusia, betidanik: makila itxura zurrunagoa izatera jotzen zuten letra tipoak zeuden batetik, eta biribiltzeko joera zutenak, bestetik. Bi horien artean, nahi adina

konbinazio posible. Fede zein Luzio, Bembo familiaren jarraitzaile sutsuak ziren, baina ezin argitaletxeko liburuei letra tipo hura jartzen ausartu, gainerako guztiengandik gehiegi urruntzeak irakurlearengan mesfidantza sortuko zuelakoan. Bai, *mainstream*aren menpe zeuden, horretan ere.

Beste zenbaitek moto zaharrez edo kotxe marka ezberdinez hitz egiten zuten modu berean mintzatzeko ziren haiek letra tipoez, hezi gabeko begiarentzat antzemanekinak ziren bariante txikiez, modu zinez apasionatuan. Goiz hartan Fedek denean eta batere eztabaidatu gabe ameto eman izanak harritu egin zuen Luzio.

- Ondo al zaude, Fede?

Fedek baietz esan zion, nahiz eta baiezkoa esateaz batera jabetu Luzio bikoiztu egin zitzaiola, bi Luzio zituela begien aurrean, eta bi ate, eta bi telefono eta lau esku. Dena ikusten zuen bikoiztuta.

Goiz hartan izan zuen estreinakoz begietan zerbait gertatzen ote zitzaion sentipena, igerilekuan, bere kaltetik ez ateratzeko finko so egin ohi zion piztina-zoruko marra urdin ilunari begiratzen ziola: marra urdin hura mugitzen sumatu zuen, alabastroaren kolorea hartzen eta, horren ostean, lerro bakar hura, orain

gertatu bezala, bi lerro bihurtu zitzaion, hasieran grazia egin zion bifurkazio akuatiko xeblean.

Luziok idazkariaren mahai hutsari so egin zion.

- Laguntzailerik gabe zaude berriro?

- Zaila omen naiz lanerako, sinets dezakezu, Luzio? Zaila! Nor eta ni! Jendearen nahiak asetzea da zaila: kolpe zorririk jo ez eta hilero soldata patrikarratu, horixe nahi dute denek. Ez dute ulertzen hau kultura enpresa bat dela. Dirua galtzea dela normalena. Mirakulua dela bizirautea.

- Inprenta digitalarena aintzat hartu behar zenuke.

- Ezta pentsatu ere. Hori inolaz ere ez.

- Gero eta zailagoa da offseta eta digitala bereiztea, Fede.

- Nik alderik ez bereiztea lortzen duten egunean, orduan aldatuko dut. Bitartean...

- Diruagatik esaten nizun, puskaz merkeagoa da. Argitaletxe askok eman dute pausoa eta irakurleak ez dira enteratu ere egin.

- Pikutara irakurleak. Ez nago haiengatik negozio honetan.

Irratirako egin behar izan zuen lehen lana Armadaren Nazioarteko Eguna zela-eta Espainiako ejertzitoak antolatzen zuen arte lehiaketaren oinarriak irakurtzea izan zen. Espainiako Armadak arte lehiaketak antolatzen zituen? Bai, nonbait; eta nola ez, gaia ez zen guztiz librea: «Se valorará que la obra ensalce los valores del ejército». Kronika haiek ez zituen sinatzen, baina garai bateko *Egineko* kolegaren batek entzun eta Idoiaren ahotsa ezagutu zezakeela pentsatze hutsak oilo ipurdia jartzen zion. «Radio María-n lan egitea baino okerragoa da hau», pentsatzen zuen.

Hura hasiera baino ez zen izan, ordea. Entzuteko zegoen birjintasunaren aldeko AEBetako mugimenduei eskainitako kobertura eta mugimendu hark Espainian izan zezakeen islaren kronika.

Ordura arte sekula egin ez zuen gauza, berak lan egiten zuen enpresako irratia entzuten hasi zen, ardurara profesional hutsez eta masokismoz. Manipulazioa hain zen agerikoa, lotsagorritu eta sutu egiten baitzen informazio buletin bat entzuten zuenero. Aurki jabetu zen, krisiaren latzak jendearen patrikak trikuz beterik zeuzkala probestuz, politikoki eta ideologikoki gaitzesgarria iruditzen zitzaien oro iruzur ekonomikoarekin lotzea zela nagusien estrategia. Ezin hobeto zegoen

pentsatua: abortuaren kontra zeuden, baina klinika abortisten ustezko maula ekonomikoa azpimarratzen zuten beste ezer baino lehen. Hori gutxi balitz, ez zen egia irratirako konexioak egunkariko erredakziotik egin zitezkeenik: aldirietan zegoen irratia eta hara hurbildu behar izaten zuen egunero, joan-etorrian.

Hondoa, hala ere, iragarkiak grabatzera derrigortu zuten egunean jo zuen Idoiak: Aita Santuaren bisitarren propaganda, errenta aitorpenean elizari zegokion laukitxoan gurutzea jartzearen garrantzia azpimarratzen zuen kortea... Bera esatari profesionala ez zela-eta, onartu egin zioten iragarkiak egiteko bikoizleei deitzeko proposamena. Diegok eman zion *la bella* Inesen arrastoa, «Biriaturko peajea lan egiten du». Etxera deitu zionean, lanean zegoela esan zion gizonezko batek. Hala ere etorri zen, telefonia enpresa bateko promo bat grabatzera. Telefonicako egoitzari molotov koktelak botatzen zizkioten garaiak aritu ziren gero Ines eta Idoia, garagardo artean. Haiek bai garaiak haiek.

Lanetik eta lanera beti, begi-zuloei beren onera etortzeko aukerarik eman gabe, irratia utzi eta egunkariko erredakziora doa berriro ere Idoia. Espainiako hauteskundeetarako PSOEko hautagai posibleen ze-

rrendarekin dihardu: izatez, hautagai bakarraz hitz egiteko eskatu diote, euskal hautagaia, Fontecha, berak inolako aukerarik ez duela uste duen arren. Euskaldun bat Moncloan? Pentsatze hutsak barre zantzoak sortzen dizkio. Beltzarana, arraia alde batera ongi orraztua, bazuen Fontechak fotogenia, egonarria eta poker aurpegia 80etan; hainbeste politikari galbidera eraman ohi dituen suminaldi erraza saihesteko talentua, hizketarako erraztasuna, aurkariarekin *gentlemen agreement*ak sinatu eta gero adostutakoa ez betetzeko gerria eta azala, bere aurpegiko giharren kontrola. Europako Parlamentuko desterruan iragan ditu hainbat urte, ordea, eta Ajuria Eneko hitzarmenaren garaiko zurrunbiloan igeri egiteko zuen gaitasuna galdua du honezkero. Fontecha hautagai? Nekez halakorik. Aldeko baino kontrako puntu gehiago ikusten dizkio Idoiak, baita beti aipatu eta sekula frogatu ez den gerra zikinarekiko bere lotura baztertuta ere.

Javier Fontecha Alberdi, Bilbon jaioa, dibortziatua eta kardiologo batekin Getxora berriro ezkondua, berrogeita hemezortzi urte, hiru seme-alaba, hirurak hogeita hamar urteak bete aurretik izanak, aurreko emaztearekin («Gustura elkarrizketatuko nuke emazte ohia»). Zuzenbidean lizentziaduna. Bi urtez lan egin

zuen abokatu Fontecha & Cía aitaren bulegoan Bilbo-ko zinegotzi hautatua izan aurretik. Hortik Bizkaiko diputaziora eta gero Espainiako gobernuaren delegatu bezala lau urte laurogeiko hamarkadako urterik gogorrenetan. Horren ondotik, atsedena, spa eta hidromasajea Estrasburgon, eta buelta Erkidegoko parlamentura.

Pilar bekadun berriari laga dio argazkiak bilatzeko ardura: duela aste bikoak dira artxiboan dauden argazki berrienak, baina ez da lehen planorik. Sei hilabete atzera jo behar izan du zoomarekin handituta kalitaterik galtzen ez duen Fontecharen buru bat topatzeko. Burua moztu eta burua itsatsi. Giza Eskubideen Auzitegiko prentsaurreko batean ateratakoa da argazkia, aspaldi samar. Arraia lehen bezalaxe orrazten jarraitzen duen arren, ia erabat zuritu zaio kalparra. Erantsi horri aurpegi puztua eta zenbait substantzia legezko edo ez legezko kontsumitu izanaren traza -kortisona?, kokaina?, biak?- . «Ez du, inolaz ere, hautagai itxurarik», pentsatu du bekadunak ere.

Denbora kontua izango omen zen. Erretinosi pigmentarioaren aldagai bat. Pigmentuekin eta pigmen-

tazioaren interpretazio neuronalarekin eta batek daki zerekin gehiago zuen gaitzak zerikusia. Kronikoa, progresiboa eta atzera ezinezkoa. Hitz haiek entzunda, gainerako guztia soberan zegoen Federentzat. Zer abiadura hartuko zuen ikusmenaren galerak? Hori ez zekiten zehazten. «Denok gara ezberdinak». Sendabiderik ez zuela, hori behintzat, argi eta garbi utzi zioten. Eta baita gaitzaren amaiera zein izango zen ere: erabat itsutuko zen, itzalen bat ikusiko zuen gehienera jota. Zientziak etengabe egiten zuela aurrera, eta akaso inoiz lortuko zutela gaixotasuna geraraztea, «beha bestela zer gertatu den hiesarekin», baina momentuz begiaren osasunari zegozkion aholku orokorrak baino ezin eman ziezazkiokeen: bitaminarik ez zedila falta, alkohola erabat baztertzea hobe, hilean behingo txeko bat, gaitzak zer abiadura hartzen zuen ikusteko.

- Zertan lan egiten duzu, Epelde jauna?

Argitaletxe handi hartan lan egin zuen sasoiak akordatu da Fede: nola aholkatu zuen audioliburuak bilduma hura ez egiteko. Arrazoia: itsuentzako luxu bat besterik ez zela, itsuentzako eta alferrentzako gutziaz bat, ez zela errentagarri aterako, AEBetan funtzionatzen bazuen jendeak autoz zein autobusez bi-

daia luzeak egiten zituelako zela. Ez zioten kasurik egin, baina denborak arrazoa eman zion; egitasmoak porrot egin eta bilduma bertan behera utzi zuten, nagusiek aski diru galdu zutela deliberatu orduko. Bera jada ez zegoen argitaletxe handi haren aterkipean, ordea. Ezta argitaletxe handi haren aseguru estalduraren pean ere, tamalez.

Urteetan pilatutako liburu andanari begiratu zion. Berriak, zaharrak, maskalduak. Urtez urteko bere aldarteen eta urduritasunen bilduma, bere kezka eta irritsen katalogoa, bere insomnioen arrazoi zein sendabidea, kalera hain gutxitan ateratzeko koartada, bizitza sozialik ezaren ifrentzu damurik gabea, bere xahutzearen sinbologia, bere inbertsio ekonomiko galgarria. Bizitza oso bat liburutan. Batetik bestera eramandako hainbeste pisu mortu, patrikari egindako hainbeste hozkada. Hainbeste otordu galdu eta uko egindako, gazte zelarik eta pobre, bazkaria ala liburua hautatu behar izan eta liburua aukeratzen zuen garai-koak. Handik gutxira biblioteka hark guztiak ezertarako balioko ez ziola pentsatzeak bi puska egiten zion arima. Argia itzali eta Pucciniren opera bat jarri zuen disko-jogailuan. Lortuko ote zuen bizitzen segitzeko arrazoiren bat topatzea? Lortuko ote zuen bere bizi-

tzako pasio zaharrari uko egin, eta, demagun, beti gustuko izan arren sekula haren gainean amateur batek baino haratagoko irizpiderik izan ez zuen operara zaletzea?

Oftalmologoak nahi baino lehenago aitatu zion berak inolaz ere entzun nahi ez zuen hitza: Braille. Jakina, ikas zezakeen hizkuntza berria eta hatz puntekin literatura unibertsaleko hainbat liburu irakurtzen eta berrirakurtzen segitu... Baina orijinalak? Idazleek ez zituzten argitaletxeetara orijinalak braillez idatzita igortzen! Itxi egin beharko zuen argitaletxea. Edo, bestela, orain arte frakasatu zuen lekuan garaile atera: laguntzaileetan onena kontratatu beharko zuen, markatik fuerako norbait, ozenki irakurriko zizkiona jasotzen zituen eskuizkribuak.

Idoiak sesioa izan du Rogerrekin, infografiaren kontura. Sutzeraino eztabaidatu eta akordioa lortu ondoren -«ez hain kolorista, soilagoa hobeto ulertzen da»-, Victor, kiroletako erredaktorea sartu da: euskal txirridulari batek Turrean positibo eman eta orrialde bat gehiago eskatu du. Eskatu ez, exijitu. Hark zeukan lehenetasuna. Lelo aurpegiarekin geratu dira Idoia eta

Roger, maketatzailaren diktadura apur zezakeen diktadore handiagoaren agerpen zerutarrarekin: Idoiaren albistea sartzeko lekurik ez, ez infografiarekin eta ez gabe.

Victor hantxe geratu zen, telefonoa belarri gingilari kateatuta; behingoagatik hark itxiko zuen erredakzioa. Baina gozaten ari zela zirudien. Zergatik eta txirrindulari bati Celesemine txute bat atzeman ziotelako. Hori zen beretzat ikerketa kazetaritza. Nor bere emozioen esklabo.

- Garagardo bat hartzera gonbidatzen zaitut -esan zion Rogerrek.

- Berradiskidetzeko? Ez, eskerrik asko.

- Victor larrutzeko, besterik ez bada.

Idoiak hasperen egin zuen: ados, berak ere bazuen horren premia.

Estatubatuarra zen Roger, Budweiser garagardoa edateko bezain gatzgabea, baina urte asko zeramatzana jada Bilbon. Sanferminetara etorri, Iruñeko neska batekin maitemindu eta harekin bizitzen geratu zen Arrotxapean. Arrotxapeako neska eta Iruñea bere bizitzatik desagertu zirenean, Bilbon aurkitu zuen lana. Idoiarekin batera sartu zen egunkarian, erredakzioak izen hura merezi zuen garaian, hasiera-hasiera-

tik, baina modu gogaikarrian joan zen kazeta barruan pisua irabazten. Irudiaren garrantziak gora egin zuen azken urteotan, eta testuarenak behera. Gustatu edo ez, hala zeuden kontuak.

- *Fucking sports.*

- Hemen beisbolik ez dagoelako esaten duzu hori.

- *I hate baseball:* aita setatuta zegoen, ona nintzen pilota jotzen, korri egitea zen gustatzen ez zitzaidana.

- Sedentarioa hi? Ez esan...

Ehun kiloak ez zituen urruti ibiliko, erraza zen umetan ere Roger antzeko irudikatzea. Haur baten aurpegi biribila zuen oraindik, begi urdinak, urdin amerikar arruntak, sobera Budweiser edandakoan banderaren gorriarekin mintzen zitzaizkionak. Wisconsin ile horaila.

- Prestatu duzu arrain handiaren elkarrizketa?

- Gauean bukatuko dut, etxean. Gauza batzuk irakurri nahi ditut lehenago. Estrategia on bat pentsatu.

- Ez zenuke lana etxera eraman behar. Ohitura txarra da autobusean ere lanean segitzea... Bizitza eta lana banatzen ikasi behar duzu. Beste bat? Budweiser bat eta Voll-Damm bat, *please.*

- Ez dakit nola edaten duzun garagardo hori.

- Gaztetako ohitura, ahosabaian daramadan *stasetetako* oroitzapena, *bad habits die hard...* Nola zen, *about that bird...*

- Orhiko txoriak Orhira nahi.

- *That's it!*

- Ez dakit zuzen zauden, hala ere: emigranteak izan gara beti.

- Bai, baina txinatarrak bezalakoak: *Basquetown* bat eraikitzen duzue, *wherever you go... the txistu goes with you...*

- Ez derrigorrez. Ikusi egin behar, zenbat eta non.

- *You say that because you're a Basque separatist...*

- *And proud of it...*

- Madrilgo nagusiek jakingo balute... Pilar bekadunari emango liokete zure lana.

- Eta nola jakingo dute? Zuk esango diezu? Ongi disimulatzen dut, ez duzu uste?

Hiru egun eta hiru gau opera entzuten eta negarrez pasatu ostean, zirt edo zart, Federi miserableegia eta krudelegia iruditu zitzaion patuak eskaintzen zion bide murrizta, zuzen-zuzenean amildegira zihoana. «Bizi-

tza eman zieat liburuei, bost urte falta zaizkidak jubilatzeke, honaino iritsi gaituk, beranduegi duk niretzat beste ezertan hutsetik hasteko». Dramarik gabe eta aski zerebralki, bere burua hiltzeko erabakia hartu zuen. Bainuontzia urez bete eta bizar-xafla handi horietako bat hartu zuen, hiru egunetik gorako bizarra eta patillen beheko aldea mozteko erabiltzen zuena, aho bakarreakoa baina alde bietatik mozten zuena, lege zaharreakoa. Ur beroak aurki lurrindu du komune-ko ispilua. Inertzia hutsez, xaboa ere bota du, eta aparrez gainezka jarri bainuontzia. Txorrota itxi eta bizar-xafla utzi du bainuontzi ertzean. «Aparra desagertu arte itxoin, Fede»; berak oroitzen zueneino, ez da sekula inor aparrez betetako bainuontzi batean suizidatu. Ez berak ikusitako filmetan, bederen. Desesperazioa ez zen aparraldiarekin bateragarri. Edo agian aparra erabili bai, baina odolusturik aurkitzen zituztenean jada apar hura desagertua izaten zela zen kontua?

Kontuak kontu, loak hartu zuen Fede bainuontzian. Atean kax-kax egiten zutela sentitu arte: Yolanda zen, astean behin etxea garbitzen zion emakume ekuadortarra.

- Pasa naiteke?

- Segundo bat!

«Egunero ikasten duk zer bait, Fede, baina borondate handiagoko nor bait hintzelakoan nengoan ni», aurpegiratu dio bere buruari, eta «aparrarena izan duk errua», pentsatu du gero, bere buruko errotatibak letra molde handietan egunkari titular erraldoia irudikatzen duela: *Garbitzaile ekuatortarrari esker suizidiotik salbatua*.

Ez zen hain erraza ere suizidioa planifikatzea, eta Fedek zerrenda bat egin beharko zukeela pasatu zitzaion burutik. Kontuan hartu beharreko kontingentzien zerrendan lehena zen hura: buruaz beste zeure etxean egitekotan, apartamentua garbitzen dizun andrea etortzeko eguna ez dela ziurtatu. Detaile hartaz jabetu ez bazen, hura bezalako eta hura baino askoz ere garrantzitsuagoak ziren zenbat xehetasun ahaztu izan ote zituen? Bere buruarekikoak fundamentuz egiteko deliberoa hartu eta lotsatu egin zen bizar-xafla bainuontzi ertzean ikusita. Egin beharrekoa egin aurretik, gauzak lotuta uztea komeni zen, ez zion bere ilobari lan gehiegi eman nahi, eta argitaletxeko egi-leak ere ezin besterik gabe umezurtz utzi, askok me-rezi zuten arren editorerik gabe geratzea.

Itsu geratuko zen, bai, baina itsu geratu aurretik bazeuzkan hilabete batzuk oraindik. Etekina atera behar zien hilabete horiei. Jada existitzen zen bilduma baterako liburu zentzugabe baten izenburu zentzugabea etorri zitzaion burura: *Itsu geratu aurretik ikusi behar dituzun 1.000 gauza*. Edo, dramatikoago jarrita: *Hil aurretik ikusi behar dituzun 1.000 gauza*.

Beretzat, itsu zein hilda, biak ziren gauza berbera.

Zerrenda hura egin behar zuen. Mila gauza horiek ikusi eta gero hil. Edo agian, hain ondo hornituta izango zuen bere iruditeria mila gauza preziso horiek ikusi ondoren, gomutan ongi iltzatutako mila ikono horiei esker bere buruaz beste ez egitea erabakiko baitzuen. «Horra hire desafioa, Fede».

Yolandari begira, haren gizentasun ekuatortar zaparroa inoiz baino biziago zitzaiola, aste hartan etxea garbitu beharrik ez zeukala esan, eta horren ordeztan, liburu bat eskuratu zion, ozenki irakur ziezaion eskatuz. Ezustean harrapatu zuen eskaerak Yolanda, nola ez, eta une batez izutu ere egin zen, ezezkoa ematekotan bere nagusiaren perbertsio hari; bere lanak ere mugak zituela eta ez zegoela *edozer* egiteko prest otu zitzaion beharbada, liburu bat ozenki irakurtzeko eskatzen dizun pertsonak beste zein joera makur izan

ote zitzakeen baloratu bitartean. Baina aspaldi ezagutzen zuen Fede, eta ez zion hari ageriko arriskurik ikusten. Behin hasierako lotsak gaindituta, irakurle trebea eta bizia suertatu zen Yolanda. «Lastima euskaraz ez jakitea», otu zitzaion Federi, ederra baitzen haren azentu ekuatortarrarekin Hemingwayren *Hil-tzaileak* entzutea.

«Itsu geratu aurretik ikusi behar ditudan mila gauza (ikusi bakarrik ez, zehatzagoa litzateke esatea ikusi eta buruko zoko batean blindatu egin behar ditudala, itsu geratu naizelarik haiengana jo eta haiek *ikusi* ahal izateko, argi eta garbi, begien aurrean banitu bezala). Zerrenda: Durerren grabatuak, Tizianoren pietatea, Vermeerren esnezalea, Goyaren koadro beltzak, Rothkoren garai ilunenekoak.

«Rodinen pentsalaria, Rodin museoan. Ez du balio erreprodukzioetara jotzeak, Parisera bidaiatu beharko dut derrigor. Kokotsa eta masailak ikusi nahi dizkiot, brontzearen baitan sortzen diren itzalak eta sartu-irtenak ikasi nahi ditut buruz, barailezur itxiaren presio doia prozesatu nahi dut, hatzen luzera.

«Kathleen Turner eta William Hurtek *Body Heat* filmean ibai baten ondoko txabolan larrua jotzen dutenekoak, bere garaian hainbeste eragin zidana, pantaila

handian, kosta lain kosta. Zinemak ez nau bereziki kezkatzen, maite ditudan film gehienak berdin-berdin goza nitzake entzute hutsarekin (Marx anaiak, *In the Mood for Love*). Salbuespenak badira, hala ere: Fellini-ren filmak (bereziki *La dolce vita*), Dreyerren filmak (bereziki *Ordet*). Film mutuekin zer egin pentsatu: agian haiek ikusi eta soinu bandetan bereziki erreparatu...

«Aralarrera igo eta zapaltzen dudan orbelari erreparatu. Hosten zainei. Erreparatu bordetatik ateratzen den keari, haren loditasunari, loditasun hori beste zerbaitekin konpara ote daitekeen pentsatu.

«Arreta jarri errezil sagarren azaleko orban herdoil itxurakoei.

«Arreta berezia jarri azazkalak pintatzen dituzten emakume hegoamerikarrei, keinu gogobildu horri, pintzeltxoaz azazkalak margotuz nola pasatzen duten, pultsu trebez, sekula hutsik egin gabe.

«Ez ahaztu euren edertasunaz kontziente ez diruditen nerabeen ibilera arakatzea. Parrandatik etxera bueltatzean igogailuan nola kentzen dituzten takoidun zapatak.

«Moda aldizkariak hostokatu, ile-mozketa ezberdinak. Tweedaren ehundura.

«Itzasoko ekaitzak Paseo Berrian. Buenos Airesen eta Hong Kongen ateratako argazkiak. Nire eskolako lagunak argazkiak eta nire neska-lagun izandakoen argazkiak. Nire emazte ohiaren argazkiak. Nire ilobaren adin guztietako argazkiak. Ni izan nintzen umearen argazkiak.

«Buruz ikasi etxea. Buruz ikasi nire aurpegia. Buruz ikasi etxetik lanera eta igerilekutik etxera dagoen guztia, betaurreko beltzekin bide hori egiten saiatzeko gero, begiak itxita. Egoerei aurre egiten ikasi. Itsu izateko entrenatu.

«Itsu izateko entrenatu».

Zerrenda absurdo samarra atera zitzaion. Frustragarria zen. Hori zen ikusi nahi zuen guztia? Ez zegoen beste ezer? Ez, ez zegoen. Itsu geratzea bere buruaren turista izateari uzteko modu bat zen, agian. Zabor prezindiblea baztertzeko modua. Aukera bat, zergatik ez. Goiz hartan, igerilekutik lanera bidean, atzeratu egin zen apur bat Amarako suhiltzaile-etxean. Ume batek bezala, suhiltzaile kamioia irentsi zuen, bere gorri bizi esmaltatua eta lohi-babes zilarkarak. «Egina zagok, buruz ikasi diat» edo «memorizatua» esan zion bere buruari bost minuturen ostean, argazki bat su goriz betsarean markatzen duenak bezala. Gero, lane-

ra iritsitakoan, begiak itxi eta xehetasunik ahaztu ote duen ziurtatu behar. Ez. Dena zegoen. Suhiltzaile kamioia, oso-osorik. Bere erretinan. Bere buruko kutxa beltzean.

Buruz ikasi, ikusiko ez duzun guztia. Buruz ikasi pieza guztiak, gero pieza horiekin konbinazio infinituak egin ahal izateko. Alfabetoko letrak ikastea bezalaxe. Baina begiak itxita.

Lagun baten e-maila zeukan Idoiak, Europako hauteskundeetako saio berezia medio zorionak emanaz.

Harri eta zur geratu zen. Inoiz ez zioten adiskideek idazten, eta are gutxiago bere lanagatik zorionak emateko. Marka zen gero. Behin idatziko eta, berak egin ez zuen saio bategatik zoriontzen zuten: hauteskunde-gaua ez zuen berak egin, Pilar ordezkioak bai-zik. Gorrotatu egin zuen laguna, propio egin izan balu bezala zorion-emate faltsu hura, bera mintzeagatik.

Irratia piztu zuen, Pilarren ahotsa benetan berearen hain antzekoa ote zen jakin-minak jota. Ordubetez entzun zuen, etxean batera eta bestera zebilela, irratia topera jarrita. Eta aitortu beharra izan zuen baietz, berak onartu nahi izango zukeena baino askoz ere an-

tzekoagoak egiten zirela irratiz entzunda bi ahotsak. Ez zen hainbeste tinbre kontua -leunagoa zuen Pilarrek- doinuarena baizik. Isiluneak egiteko era, isiltzeko modua mintzatzekoa baino areago, hitzen kadenzia, barre egiteko era, erabiltzen zituen makulu-hitzak -«erositako prezioan saltzen dizuegu», «gure entzuleek ulertzeko moduan esanda», «tira, amaitze aldera»-; agurrak ere berberak egiten zituen. Odol hotza behar zen neska hark egiten zuena egiteko: ez zuen beretik deus jartzen, ez zion lanari bere nortasun propioaren igurtzi minimoenik ere ematen. Ez zen hori nahigabe egin zitekeen zerbait, delibero osoz eta propio baizik. Orduan jabetu zen gaizki egin zuela bere ordezeko gaztea gutxietsita, luzaroan Idoiaren saioak entzun zituen norbait zela hura, proba-saio asko egin zituen bere itzal kloniko bilakatu aurretik. Ez, ala? Paranoiko ote zegoen benetan? Miresmena eta ikasi nahia ez, mapatik bera ezabatzeko gogoia sumatu uste izan zuen haren jarreran. Mehatxu desatsegina bihurtu zitzaion geroztik bere ahots-bikia. Tripak nahastu zizkion, ahituta sentitu zen bat-batean, norbaitek odola xurgatu izan balio bezala.

«Ahotsa lapurtu didate».

Zer egin zu bezain zu edo zu baino zuago zen norbaitek zu ordezkatzeko ahalegina egiten duenean? Zeure egiteko modua goitik behera kopiatu eta egiten zenuena zeuk bezain ondo -edo hobeto- egiten duenean? Norekin hitz egin horretaz? Lotsagarria zen: kontu handiz ibili behar, aise lepora ziezazuketena eta ego puztu batek jotako izaki obsesibo baten harrokeria. «Hain ezberdin, bakar eta imitaezina zarela uste duzu, ala? Ahaztu al duzu zerorri ere beste norbaiten kopia hutsa zarela? Ez zara munduaren zilborra, zuk edan zenuen iturri beretik edaten ari da zuk *zeure imitatzaile* jotzen duzun hori ere, biok zarete kopiatzaile eta ez bera bakarrik». Nola frogatu? Nori kontatu? Norekin hitz egin kontu horiei buruz barregarriro neurotikoko agertu gabe?

Lanera zihoan egun batez, erredakziora sartu aitzin, Victor ikusi zuen bere aurrean oinez. Kiroletako prentsa irakurtzen zihoan, eta behingoagatik, zerbait erakargarria ikusi uste izan zuen Idoiak lankide gogai-karriaren baitan. Pausoa apur bat azkartu eta haren parera iristea ebatzi zuen, baina une hartan Victorrek berak ere, egunkaritik begirada apartatu eta pausoa luzatu zuela jabetu zen. Norbaiten atzetik zihoan, itxuraz.

Argi eta garbi entzun zuen noren atzetik zihoan:

- Idoia!

Izoztuta geratu zen Idoia: «Ni naiz Idoia eta atzetik noakizu, ez aurretik». Jiratu egin zen Victor baino lauzpabost metro aurrerago zihoan neska. Pilar zen eta Idoiarekin nahastu zuen Victorrek. «Ni naiz Idoia», oihu egin nahi izan zuen... Ilearn kolorea eta janzteko era ere kopiatzen zizkion aspaldion. Victorren enbarazua sumatu zuen Pilar jiratzean, baina aurreztu egin zion bigarren enbarazua, gaizkiulertuaren lekuko izan zela jakinaraztearena. Lanerantz segitu beharrean, kafetegi batean ezkutatu zen.

Zeren beldur zen Idoia, *jatorrizkoa* bera bazen?

Orijinalak entzun ahala hautatu eta baztertzea zen errazena. Izatez, boz gora entzunda inoiz baino garbiago *ikusten* zuen Fedek noiz ez zegoen orijinal bat inondik inora argitaratzerik. Kaxkarkeriak ez zuen ozen irakurtzerik ametitzen. Jakin izatera, askoz lehenago jarriko zuen martxan sistema hura. Jasotzen zituena nobeletako lehen bi folioak norbaiti grabarazi eta orijinalarekin batera grabazioa igortzea merezi zuten sasi-idazleek, ohartxo batekin: «Entzun hau, benetan

uste duzu zabor hau lotsarik pasatu gabe argitaratze-ko modukoa dela?»». Arazoa hautatutako orijinalekin izaten zuen: hauek hobetzen hasita, esaldi narrasak edo ilunak berehala detektatzen zituen arren, kosta egiten zitzaion Federi entzute hutsarekin sintaxi eta ordena aldaketak proposatzea. Horretarako, ez zen aski irakurle bat ondoan izatea; irakurtzen jakiteaz gain, idazten ere bazekien norbait beharko zuen.

Lau idazkari astebeteko probaren ondoren galdu ondotik -hiruk euren kabuz alde egin zuten, bakarra bota zuen berak-, Diego Lazkanori deitzea erabaki zuen, hark aurkeztuko ziolakoan bere ametsetako emakumea.

- Neska izan behar dik derrigor?

- Badakik besoz beso eta nirekin lanean jasan dezakedan gizonezkoen kopurua mugatua dela: zero. Nahikoa diat nire burua agoantatzearekin, eta hori ere...

- Utzi apur bat pentsatzen, deituko diat norbait bururatzen bazait.

- Ondo ordainduko niokek.

- Hori bai dela nobedadea.

- Edo hori edo enpresa ixtea. Bide batez, hurrengo liburua ez diagu offsetean aterako. Ahaztu horretaz.

- Inprenta digitalean sartuko haiz heu ere?
- Zer erremedio.
- Hago lasai: ez duk aldea igartzen.
- *Nik* behintzat ez... Eta horixe esan nian behin: igartzen ez nuen egunean, offseta utzi eta digitalera aldatuko nintzela. Ez nian espero hain azkar izango zenik, baina ailegatu duk eguna.

Telefonoa zintzilikatu zuenean *la bella* Ines etorri zitzaion burura Lazkanori. Idazten ez zen oso trebea, baina irakurle bezala primeran egokituko zen lan hartara. Ahots ederra zeukan. Hots egin ziolarik, beldur zen bezala, dei profesionala baino zerbait gehiago zela ulertu zuen hark.

- Lan kontuengatik deitzen dinat.
- Etorriko haiz etxera bazkaltzera, ezta?

Bere burua harrapatuta ikusi zuen Lazkanok. Onartu egin behar izan zuen.

Saiatu zen bazkaritan kontua bideratu eta arratsaldean goiz alde egin behar zuela adierazten, baina alferrik. Nola oso ongi jakin gabe, Inesen izterrak bere masailetan zituen derrepente, eta bi esku urduri zebilzkion gerrikoaren belarria askatzen. Larrua jotzea baino atseginagoa izan zen elkarri egindako zupaldi geldia, zertan uka, nahiz eta Lazkanoren sudur-tren-

kadak egunak beharko zituen milikaldi bikoitz haren ondotik bere onera etortzeko.

- Interesatzen zain lana, orduan?

- Ezagutu egin behar Fede hori, ezta? Erabat itsua duk?

Lazkanok ez zuen jakin zer erantzun. Erabat itsua zen? Itsua ez balitz bezala portatzen zen, *ikusmen urritua* zuela esaten zien denei, baina Diego konbentzitura zegoen itsu konpletoa bilakatzeko bidean zela, jada bide horren amaierara heltzear ez bazen.

- Ikusten din oraindik, baina kostata.

- Eta gaztetan emakumezale amorratua izan zela diok?

- Hori eragozpen ez izatea espero dinat... Urte batzuk baditin...

Laneko uniformeak janzten hasi zen Ines.

- Alde egin behar diat, axola ez bazaik...

Lazkano iraindua sentitu zen. «Neu naun hemen alde egiteko gogoak duen lehena». Aurrea hartu zion Inesek, ordea, arratsaldeko txandan sartzeko ordu erdi baino ez omen zitzaiolako geratzen. Eta Diego, artean erdi biluzik, lila usaineko ohantze hezean onartu nahi lukeena baino gozoago.

Inesen eta Federen artekoa, hala esan badaiteke, lehen begiratuko maitasuna izan zen. Bizitza soziala gorroto zuen gizona leku guztietara azaltzen hasi zen, Inesen besotik beti.

Lazkanok Inesen ipurmasail guriak irudikatu zituen Federen sudur puntan eserita.

Ez zitzaion horregatik editoreari izaera goxatu, ez horratik.

Izan ere, Kupidoren gezi gupidagabeak gorabehera, Ines eta Fede ez ziren lanean ongi moldatu. Garaiz jabetu ziren, zorionez, euren artekoa mila zatitan zartarazi baino lehen. Harrigarriro, eskerrak eman beharrean, errieta egiteko deitu zion Fedek Lazkanori, ez zelako bere betebeharrak egokitzen zen inor aurkitzeko gai izan. Idazkari bat baino zerbait askoz hobe, etxean jasango zuen norbait aurkitu zion, eta hala ere ez zuen editore hark kexua eta purrustada besterik.

- Irakurle bat behar diat... Lehenbailehen!

Ezin espero zezakeen Fede kaskagogorra aldatzerik, behin hartaz gero. Gainera, Lazkanok ongi zekien koskabiloetatik ondo helduta zeukala. Irain sorta irentsi beste erremediorik ez zuen izan.

- Saiatuko nauk beste norbait aurkitzen, baina ez diat ezer agintzen.

«**Joan** zen urtean Rafa Nadal etorri zela esan didate, ikusi duzue kirolaririk batere?», galdetu zuen Victorrek, bere idi-begirada murriztarekin. Rogerrek, ordea, kanapeentzat zeukan gordea begi bat, eta Madrilgo *neska errazentzat* beste bat. Idoia berriz, burbuila baten barruan sentitzen zen, bere ondoan paratzen zenean mutu geratzen zen Pilar bekadunaren ondoan deseroso, baina ez zekien burbuila hura nola zulatu.

- Opus Deiko prebosteak besterik ez ditut nik ikusten. Eta horiek ez dira tenisean aritzen.

- Ez, horiek padelean aritzen dira -bota zuen Rogerrek.

Barregarri ikusten zuen Idoiak bere burua soineko harekin. Ez zegoen bera dantzarako. Pilar berriz, eskurik esku zebilen... batarekin dantza eta bestearekin solas. Agerikoa zen: pertsona berbera ziren, baina neke maila ezberdinekin.

Urtezahar egunean izan zen, egunkariak urtero langileei eskaintzen zien jaian. Lehen aldia zen Pilar, Roger, Idoia eta Victor bertaratzen zirena, eta Victorren seta izan zen, gainera, hirurak hara joateko motiboa. Idoia damutu egin zen baiezkoa esan orduko,

baina Diegorekin ez zegoen ondo, eta edozein aitzakia zen ona egun haiek harekin ez pasatzeko. Gogo behar zen Urtezahar gauean zure nagusiaren mahatsak kontrako eztarritik jateko, hala ere.

Madril erdigunean zegoen egunkariaren egoitza, urte hartan berritu eta terraza kristalezkoa jarri ziotena, gutizia garestia krisi garaietarako. Modu oso amerikarrean antolatua dena, zuzendariaren *speech* eta guzti.

- Oroituko duzueenez, joan zen urtean lobbyan ospatu genuen jaia. Aurten azken pisuan gaude. Zuek atera ondorioak, baina jakizue ez dela zuzendariaren bere buruaz beste egiteko borondatea aldaketaren arrazoia.

Jendeak barre egin zuen, txalo ere bai zenbaitek, txispatuta ordurako. Xanpain koktelak edateaz batera konfiturazko gerezi azukretsuak jateak hortzak airean jarriak zizkion Idoiari.

Julio Viradoren *speech*aren ondotik, dantzaldia berri. Victor eta Pilar ikusi zituen, zuzendariarekin kalaka animatuan, eta Roger, bi neska gazteren konpainia doblean. Idoiaren senaren arabera, konga ez zen asko atzeratuko. Ondo, denak zeuden beren lekuetan bera izan ezik. Erretiratzeko garaia. Igogailua hartu zuen,

hotelerako bideari ekiteko. Eskuetan zeraman enpresaren oparia, errekanbiorik gabeko luma bat. Esanguratsua hori ere. Idazten ez zuten lumak leku guztietan, halakoak ziren garaiak.

Titiburuen geometriari erreparatzeari ezin laga. Mardulak bezain erorixeak zituen titiak Inesek, baina titiburu haiek, ze titiburu. Bular-punta haiek bezalakorik ikusi gabea zen Fede artean, eta bazekien sekula ikusiko zituen azken titiburuak izan zitezkeela: zutak biak eta ezker-eskuin apuntatzen zutenak, nork bere aldera, estrabismoak jotako titiak balira bezala, bera-gandik urrun zeuden bi fuga puntu sortuz, ezin kontzentra zitekeen jardunean bi fuga puntu haiei beha. Burua okertu zuen apur bat, fuga puntu haiek noraino iritsi ote zitezkeen ikertze aldera; ezker titiburuak gezi baten muturrak legez egiten zuen leihorantz, eta leihotik kanpoko horizonterantz, kaleko hirugarren fatolaren gainetik justuki, Poliziaren kuarteraraino iritsiko zatekeen Inesen titiburuaren fuga puntu balizko hura, laser bat balu titiaren puntan, hala kalkulatu zuen. Eta zer esan eskuinekoaz, erabat bestaldera jotzen zuen eskuin titiburuaren fuga puntuak, norantz

eta Federen etxeko bibliotekarantz. Zein liburutarantz zehazki? Hirugarren apala seinalatzen zuelakoan zegoen Fede, nahiz eta jada lausotuta ikusten zuen biblioteka, hasia zen gaixotasuna bereak eta bi egiten, pigmentazioa eta ikus-eremua urritzen.

Inesen gerri kolpeak medio gero eta zailagoa zaio bere kasa mugitzea, Federen leposagarra irtetear, Inesena ere halatsu, eta neskaren eskuineko titiburua bibliotekako hirugarren apala modu erakuslean seinalatuz, Cristobal Colon hatzarekin Amerika nola, «literatura eta plazera beti eskutik ikusi izan ditiat nik», darabil Fedek buruan, Gallimard argitaletxeko liburuak zeuzkan apal harainoxe ez ote doa bada, agian, eskuin titiburu horren diagonalara?

«Gallimard liburuetan pentsatu eia kulazioari eusteko, eutsi horri, Fede... Vive la France! Titiburu frantximanta inondik ere, Gallimard, hourra!», Claude Garamonden ikuspegi biribila darabil burutan mihi puntaz bularra milikatu ahala, titiburu hura zer letra tipotara asimilatuko ote lukeen asmatu ezinik, zer letra eta zer letra tipo, eta atzerantz erortzen utzi du gero burua, neskak indartsu zamalkatzen duela, Inesen aho ireki erraldoiaren zulo beltza bere etorkizun ilunaren oroitarazle. Titiburu frantximanta dela pentsatzeak

areago berotu du Fede. Bititiburu eta bi fuga puntu erabat ezberdin, comme il faut!, komisaldegirantz doan diagonalata bata eta bibliotekara doana bestea, promiskuitatera zeramaten bi geometria; zamalkatzen zuen emakumea titiburuekin ezfidel zitzaiola sentitzen zuen, hura gozamina, Federi ere ezfidel izatea ahalmentzen baitzion hark une hartan. Ordea, Inesen azpian ezfidel izatea ezinezkoa zela eta, hustu zen azkenik haren barruan.

Utziko ote zion geroago, buztana bularren kontra igurzten? Baietz suertatu zen, eta Fedek bere zakilarren puntatik titiburu haietako bat sartzea desio izan zuen. Penetrazioa Inesek egin zezala, bularreko txortan frantximanta Federen glandeko erretentxoan sartu eta atera, horixe desio zuen. Baina ez zen hainbeste eskatzera ausartu.

Polizia Nazionalaren komisaldegira eta Gallimardeko bildumari begira ziren, hurrenez hurren, Inesen titiburu estrabikoak, eta gehiegi eskatzea zatekeen harremanaren hastapen gozo hartan.

Kazetari lanak urteurren-bildumatzailearen itxura hartua zuen aspaldi. Ehun urte halako pintorea jaio

zela, berrogeita hamar halako hura hil zutela, hogeita bost halako polemika piztu zela... Begi batekin orainari eta bestearekin iraganari begiratzea, estrabikoki, horrela ulertzen zuen bere lana Idoiak. Aspaldian ez zen urteurrenen morrontzatik eta prentsaurrekoen automatismotik haratagoko kazetaritarik. Lehenbizikoak aitzakia politak ziren erreportaje mamitsuak egiteko, baina hogeitaka urte zeneramatzean lan bera egiten eta zerorrek edo beste norbaitek idatzitako Hitchcocken urteurren ezberdinetako hamaika karpetak zeneuzkanean erreportajez beteta, gero eta neketuago bihurtzen zen zerbait berria, edo, besterik gabe, zentzu minimo bat zuena esatea. Nagikeria sartzen zitzaizun, berridazlearen konplexua. Bigarren eskuko merkantzia zenerabilen esku artean, ebakin birziklatua, mikrouhingailuan doi epeldutako janari aurrez izoztua. Zenbait urteurren urtero ospatzen ziren, iritziak eskatzen zitzaizkion boladan zegoen jendailari, orrialde osoak eskaintzen zenbait gertaera gogoratzeari. Baina urterik urte karaktere kopurua murrizten zihoan, eta denboraren poderioz, gertaerok urteurren biribiletan baino ez gogoratzera pasatzen zinen. Albis-teen eta hildakoen zilar-ezteiak, diamante-ezteiak ospatzera soilik. Ehun urte barru, zeren urteurrena go-

goratuko genuen? Iraultza Frantsesarena? Auschwitzeko itxitura-eremuen askapenarena? Dorre Bikiak eraitsi zituztenekoa? Hiruretan zerk izango ote zuen gurean indar mediatiko handiagoa? Urteurren horietako zein izango zen gehiago ez aipatzen lehena?

Prensaurrekoena besterik zen, ukuilura joan eta askatik jatea, askara zer pentsu botatzen zizuten bati ere galdetu gabe irensten zenuen dena, eta gero informazio trakets hura hala moduz digeritu eta libratzen. Eta horri deitzen zioten kazetaritza.

Eszedentzia hartzekotan egon zen Idoia, baina berriemaile berezi «malgu» bat eskatu zutenean egunkarian, bere buruari aukera bat ematea erabaki zuen. Bere ama hilberri, Diegorekin gauzak konpontzea ezinezkoa izango zela jabetu zen garaian, hain justu. Txema Santamaria argazkilariarekin afera izan ondotik. Lokarriak apurtzeko modua izan zitekeen.

Aparteko kasta behar zen berriemaile berezia izateko. Kazetaritza modu ezberdinean bizi zuen hark, eta horren truke, erredakzioan izan ohi ez zuen askatasunaren jabe zen. Finean, bera zen herrialde oso bat interpretatzeko erantzukizuna hartzen zuena, berak hautatzen zuen zein ikuspegi eman, kontserbadorea edo liberala, itzalia edo koloretsua, aldekoa edo kon-

trakoa. Berriemaile bereziak hiri oso bat eta are estatu oso bat ere *asmatu* egiten zituen... Hortik gerra korrespontsalen fantasia eta existitzen ez ziren batailak kontatzeko joera hura, literaturara nahita edo nahigabe hurbiltzekoa, berriemaile bereziek zuten kazetari kasta apartekoaren ondorio. Hortik, baita ere, berriemaile berezi ezkertiarrek medio kontserbadoreetan lan egiteko aukera: haietako askok borondatez eskatua zuten trasladoa, edo zigortuta konfinatu zituzten hara, bestela.

Parisera bidali zuten Idoia. Aurki ohartu zen politika albisteak ez zitzaizkiela interesatzen. Bestelako berriak espero zituzten beragandik: filmen errodateak, liburu aurkezpenak, pentsalarien arteko eztabaidak. Pozarren hartu zuen Idoiak zeregin berria, bere betiko alorrera, kulturara, bere gustuko aldapetara itzultzea esan nahi baitzuen, Houellebecq eta Beigbeder elkarriketatu eta Parisko kontzertu, museo eta antzokietan zenbat goza lezakeen irudikatuz.

Aurki jabetu da, baina, Madrilgo kulturako buruari bidaltzen dizkion proposamenak ez zaizkiola interesatzen. Bi astean behin baino ez dio bakarren bati amestorik ematen. Horrek esan nahi du bere soldata -burutuko zituen piezen araberakoa- alokairua ordaintzeko

doi-doi iristen den oinarrizko kopuruan geratzen hasi dela, eta Idoia dirua galtzen ari dela Parisen. Saiatu da zuzendariari deitzen, baina Julio Viradok ez dio telefonorik hartzen.

Fede Epelde bakarrik zegoen berriro bulegoan, laguntzailerik gabe. Pigmentazio arazoak izaten hasi baino dezente lehenago gertatu zen, oraindik bakarrik moldatzeko gai zen sasoiari. Ezaguna egin zitzaion atetik sartu berri zen gizon ilegorria. Egunkarietatik? Telebistatik? Ez zekien esaten. Idazlea behintzat ez zen, hori seguru. Vikingo aurpegia zeukan. Agian, besterik gabe, deigarria egin zitzaion haren ile gorria, motz-motza eta zuritzen hasia, ukitzeko gogoia ematen duen ile puntaduna, militar hasiberrien eran moztua ia. Eta militar hasiberria izateko adina aspaldi pasea zuen arren, bazuen gizasemeak halako aire kastrentsea.

Ez zen orijinal bat eskura ekartzen zion adineko lehen idazlea izango, baina ez zuen idazleen ohiko soslaia ere. Bere bizitzaren erdia pasea zuenean memoriak idazteari ematen zion idazle frustratua? Ez zirudien hori ilegorriaren kasua.

Bere itxura gogorxkaz aparte, besapean zekarren karpetarena zegoen, jakina. Aspaldikoa inondik ere, izokin kolore itzalikoa, eguzkiaren edo denboraren higadurak errukirik gabe eragin ziona. Litekeena zen beste norbaiten orijinalak izatea, otu zitzaion Federi, ustekabean aurkitutako liburu bat agian, aurkitzaileak ebaluatzen ez zekiena eta argitaletxe bati interesa zekiokeela uste zuena. Tiraderetan nekez azaldu ohi zen maisulanik, baina inoiz ez zen jakiten noiz. Ezer baino lehen, profesionala zen Fede.

- Eseri, arren.

Eseri da ilegorria, baina esertzeaz batera aulkia hormaren alderantz mugitu du apur bat, bere jarleku-tik sarrerako atea zaintzeko moduan. Fedek aurki ulertu du keinu haren esanahia: talde armatu batean militatutako gizona dauka aurrez aurre. Nekez hiltzen dira tik zaharrak.

Mahai gainean laga du izokin koloreko karpeta. Irrist inguratu dio Federi, karpeta hura beretzat dela eta bueltan ez duela nahi esan nahi balio bezala.

- Xabier Soto. Ezaguna egiten zaizu izena?

- Xabier Soto... Soto eta Zeberioneko Xabier Sotoz ari zara?

- Berbera.

- Hark idatzitakoak daude karpeta honetan?
- Bai.
- Antzerkia idazten zuela entzun dut...
- Antzerkia batez ere.
- Guk... ez dugu antzerkirik argitaratzen.
- Hau argitaratu duzue bada... Nahi gabe, agian?

Posible da hori, nahi gabe liburuak argitaratzea, Epelde jauna?

- Ez dut ulertzen.

- Irakurri testuok, ezagunak egingo zaizkizu asko eta asko. Zuk ikusiko duzu gero zer egin.

- Barka baina..., zuk..., nondik atera dituzu pape-rak..., karpeta hau?

- Kopiaak dira, kalko-orriekin ateratakoak. Garai hartan dena bikoizten zen. Diego Lazkanok dauzka ja-torritzkoak. Bere liburuak argitaratzen dituzue, ala?

Buruaskitasunez mintzo da Julio Virado, ohi due-
nez.

- Itzuli egin nahi duzu, beraz. Ez duzu asko iraun. Ez diozu zeure buruari egokitzeke astirik ere eman... Zergatik ez probatu pixka bat gehiago?

- Ez dut nire burua eroso aurkitzen, giroa, ez dakit...

- Ulertuko duzu zure lanpostua hartua dagoela. Sei hilabeteko kontratua egin diogu... nola izena zuen zure ordezkioak?

- Pilar.

- Ezin kaleratuko dugu bera, ezta?

- Ez...

- Ea, bada: altxa burua emakumea, telefonoz bestalde ere burumakur sumatzen zaitut-eta. Albiste onak dauzkat zuretzat: Victor Madrileren dator.

- Victor Irigoien?

- Berbera, Kantauri isurialdeko kirol kazetaririk onena.

Zuzendariak *cornisa cantábrica* esan zuen, okagura eman zion espresioak Idoiari.

- Bere postua libre geratuko da.

- Kirolak?

- Dagoena dago, gerrikoa estutzen ari gara, bada-kizu ondo.

«Badakit, bai: niri lepoan estutu didazue, putakumeak»; pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

- Boladan dago kirol kazetariak emakumezkoak izatea. Garai batean gizonezkoen mundua zen, baina

kontuak asko aldatu dira, askoz ere dibertituagoa da orain. Zalea zara?

- Ez naiz bereziki futbol zalea.

- Dena futbola ere ez da, Idoia: txirrindularitza, atletismoa, tenisa... Zerbait gustatuko zaizu... Victor hamabost egun barru dator, besoz beso aritu zaitez-kete bera Madrilera etorri artean.

- Eta irratia?

- Irratian jarraituko zenuke: han ere behar dugu kirol esatari bat.

Listua irentsi zuen Idoiak. Telefonoaren linea zikin-tzen zuten txinparta txikietan krudelkeria zantzuak bi-latzen saiatu zen, listu-kliskaren bat, telefonoaren ka-bleari egindako kiribilen bat. Zuzendaria antzezten ari ote zen iruditu zitzaion, bere bulegoan bakarrik ez ba-lego bezala, eta Idoiaren lepotik barrez ari bailitzan publiko gonbidatua.

- Partidak erretransmititzea tokatuko zait?

- Ez, hori momentuz soluzionatuta daukagu... Gus-tatuko litzaizuke, ala?

- Ez, ez bereziki.

- Ongi da. Hartu libre aste osoa eta astelehenetik aurrera Bilbon berriz.

Aste osoari ez zitzaion asko geratzen. Ostiral arratsaldea zen. Garestiago atera zitzaion arren, larunbat goizeko TGVA hartu zuen Idoiak.

Izokina izan nahi luke Diego Lazkanok. Denboraren gezia alderantzikatu, atzera egin, damutu. Karpeta hura hartu eta bere lekuan laga. Karpeta hura sekula ez irekitzeko. Nola ez ote zuen hori kontuan hartu? Denaren kopia egiten zuela Xabier Sotok.

- Bere bizitza bizi. Ez zeneukan egin duzuna egiteko eskubiderik.

- Zergatik ez? Ez dut bere bizitza bizi, hori ez da egia; izatez, bere apunteak erabili ditut, bere zirriborroak, bere ametsak, besterik ez, Fede...

- Besterik ez? *Besterik* ez...! Gutxi irudituko zaizu.

- Zirriborro haietatik abiatu naiz nire obra propioa eraikitzeko, eraldatu egin ditut haren...

- *Eraldatu? Zirriborroak?* Antzezlan bat hartu eta nobela bihurtu duzu, ederra zirriborro eraldaketa!

- Hura salbuespena izan zen, gainerako ideia gehienak garatu gabe zeuden.

- Ipuinak puztu eta nobela bilakatu dituzu... Sotori zor diozu zeure arrakasta. Oso-oso!

- Hori ez da zehazki horrela, eta ondo dakizu.

- Banan-banan irakurri ditut paper guztiak, paragrafo osoak daude, hitzez hitz kopiatuak, berdin-berdin... Baina zer diot paragrafo osoak, orrialdeak eta orrialdeak! Zeure uztakoak diren pasarteak dira ahulenak... ala beste norbaiti kopiatuak dira? Ez, zureak dirudite: ez dute piperrik ere balio! Ezin uka gozaldi itzela hartu dudala batak eta besteak konparatzen... Hartu ditudan neke guztiak hartuta, epaileak deituz gero aise egin nezake peritu lana.

- Milaka orrialde idatzi ditut azken hogeitun urteotan. Eta Sotoren karpetan ez zeuden berrehun folio ere. Ez daukazu arrazoirik.

- Horregatik ez zaizu inportako egunkariak zure benetako «inspirazio iturrien» berri jakitea...

- Nik ez dut hori esan, Fede... Abiapuntu bezala hartu nuen.

- Jakina, *kokreazioa* zer den azalduko didazu orain... Picassok esaten zuena: erdipurdiko artistek kopiatu egiten dutela eta benetakoek lapurtu. Edo David Foster Wallacek esana: artista modernoak gustu oneko kleptomanoak direla eta zabor hori guztia, Google, hipertestua, eta abar.

- Fede...

- Nire jatorri humanista zaharkituak izango du akaso errua, Lazkano, baina aitortu beharra daukat oso zaila egiten zaidala hau ulertzea: Soto martiri bat izan da zure jendearentzat, eta zuk egin duzun hori, zuk egin duzun hori martiri bati egin dakioken okerrera da: haren erlikiak hartu dituzu, profanatu egin duzu martiriaren hilobia eta hori interes pertsonaletarako erabiltzea nahikoa ez balitz, dirua egin duzu erlikia horrekin, erlikia denik ere aitortu gabe... Lukratu egin zara! Egiaz, nik ez dakit halakorik nola...

- Zu ere lukratu zara, zeharka, niri esker.

- Epaitegietara eramango gaituzte!

- Ni ere torturatu ninduten, nik ere badakit zer...

- Hori esaten duzue denek.

- Egia da, ordea. Alferrikakoa da infernua bizi izan ez duenari azaltzen saiatzea...

- Nola esaten duzue bada...? A, bai: *begia begi truk*.

- Torturatu egin ninduten, hori da egia. Aske dabil-tza nire torturatzailleak, batek daki non.

- Oraingo zure bekatura egin aurretik ordaindu zenuela esan nahi didazu horrekin? Torturatua izan zinez gero eskubidea duzula zure bekatu errazionamen-

dua aukeratu eta erlikiak profanatzeko? Faborez...

Pena eman nahi didazu?

- Lan asko egin dut. Nik... badakit zer den sufritzea.

- Eta merezi duzu sufrimenduaren ordaina: inoribizitza lapurtzea. Lehengoetan gaude, ulertu dut zure ikuspuntua.

- Ez diot inori bizitzarik...

- Plagiatzaile bat zara, usurpatzaile bat, idazlanak bakarrik ez, larrua lapurtu diozu larrurik ere ez zeukanari.

- Zer egitea nahi zenuen? Zer egingo zenukeen zuk?

- Editore bezala galdetzen didazu? Lagun bezala? Konfessore bezala? Esan..., zer egin behar dut *nik*? Orain arte bezala segitu? Konturatzen al zara zer atakan utzi nauzun?

- Zer...

- Ez da giza jendearengan fede gehiegi dudarik, ez jendearengan eta ezta pertsonengan ere... *Salbuespenetan* bakarrik sinetsi izan dut nik, baina... sinisgaitza egiten zait, hori da dena: egin duzuna egin eta gero, dena *haren omenez* egin duzula esateko azalik ez duzu behintzat izango...

- Zuk pentsatu baduzu, ez da hain burugabea ere izango.

- Burua daukagunok ere badakigu burugabekeriak pentsatzen, gai naiz zure larru burugabearen sartzeko. Eta entzun ondo: beldurgarria duzu larru barnea.

- Berrero galdetuko dizut: zer egitea nahi zenuen?

- Erraza: haren lanak txukundu eta haren izenez argitaratu, adibidez, hitzaurrean zeure bost minutuko gloriatxoak eskuratuz? Max Brodek egin zuena!

- Soto ez zen Kafka eta ni ez naiz Max Brod.

- Erran gabe doa... Ezta ni Gaston Gallimard ere.

- Nik ikusten dudan moduan, zerbait biziduna egin dut bere errautsekin. Hobetu egin ditut bere lanak...

- Zeure apaltasunak ez dauka mugarik, Lazkano.

- Zeudeneantxe argitaratzea arkeologia ariketa fosila egitea izango zen. Ez al zara jabetzen? Nik ez nuen hori nahi.

- Ez, haren lepotik bizi nahi zenuen.

- Haren lepotik ez, *harekin* bizitzeko modu bat izan da! Larru bereko mami ginen, anaiak bezala... Ezin imajinatuzko moduan. Bera eta biok. Elkarrekin egin dugu bidea. Urte hauetan guztiotan.

- Bost urte daramatzazu ezer argitaratu gabe. Utzi asmatzen: bulkada agortu zaizu... ala karpetako edukiak dira gehiago ematen ez dutenak?

- Litekeena da Diego Lazkanoren nobela gehiago ez izatea, arrazoi duzu horretan. Kronika bat idatziko dut, hori bai, Soto eta Zeberioaren epaiketaren kronika... laster da hastekoa... lekuko bezala deklaratuko dut.

- Hilobiaren azken hezurra ere sakailatu duzu honezkero. Lastima karpeta bakarra zen...

- Saldu egingo nauzu? Prentsari emango diozu karpeta?

- Jakina.

- Ez hori egin. Arren eskatzen dizut. Biok hondoratuko gara.

- Ez al zara jabetzen? Nik edozer egiten dudala ere... tipo horrek... ilegorriak... kopiak izan litzake.

Kirol kazetari izateak eternitatea bermatuko zion, hala iruditzen zitzaion Idoiari: egun bakoitza mende baten neurrira luzatzen zitzaion. Pilotarien prentsaurrekoa, material-aukeraketa, futbol-entrenamendua... Bat entzunez gero, denak entzunak. Victorren kultura-

rekiko ezinikusia berak kirolekikoa zuen adinakoa izango ote zen? Bai, ziurrenik. Kirol kazetariak eta kultura-kazetariak garunaren parte ezberdinak jorratzen zituzten, horrela behar zuen, ez zeukan beste esplikazio posiblerik. Gurutzebidea ez zen, ordea, batetik bestera ibili beharra. Eguneroko kronikak idatzi eta elkarrizketak transkribatzean hasten zen okerrena. Nekagarria zitzaion hitz bakoitza, kultura-kronika bat idazteko behar zuen denbora halako bi pasatzen zuen karaktere kopuru erdia okupatzen zion iruzkina idazten, eta beti geratzen zitzaion halako erridikulu gorriaren sentipena, idatzi zuena ezertarako balio ez zuen zaborra zen irudipena.

Idoiak ez zuen sekula Victorren lana jarraitu -ezta ezein kirol kazetarirena ere-, mespretxatu ere egin zuen bere kasa zihoan kazetari hantustea, eta orain, haren laguntzaile izatea tokatu zitzaion, bi astez.

- Ez zaituztet inoiz ulertu: zuen koloreekiko adskripzioa, nazioarekikoa... Posible al da kirol kazetari izatea ultranazionalista izan gabe?

Harrituta begiratu zion Victorrek.

- Itxurakeria da, Idoia... Tentsioa sortu behar da futbol partida bat kontatzean, jabetuta egongo zinela

uste nuen. Trikimailuak erabiltzen dira; morboa, heroiaren igoera eta erorialdia... Shakespeare hutsa.

Shakespeare! Nor eta Victor, antzezpenari buruz hizketan, paper bat errepresentatzeari buruz hizketan. Victorrek Shakespeareren obrak ezagutzen zituela sinetsi behar al zuen Idoiak?

- Beti bazka bera nahi du irakurleak, izenak aldatzen doaz, baina beste guztia ez. Nor libratuko da gaur lehoietatik? Nor da enperadore berria? Nahikoa daukazu kompetentziak irratian esan duena entzunda.

- Bizitza ez konplikatzea da zure aholkua, orduan.

- Zuek, kulturakook, koma bat jartzen duzue goizean eta arratsaldean kendu. Egunkari bat da hau, jainkoarren! Irakurketa diagonal, titular pipertsu pare bat irakurleak kafea hartzen duen bitartean, kito, ez da besterik!

Roger ez zegoen bera baino hobeto: ingelesa ikasteko metodo bat eginarazi zioten irratirako, lehengo lanez gain. Haiek zukutzen ari ziren, nabarmen. *Eginen* jarraitu izatera bere bizitzaz zer izango zen hausnartzen zuen askotan. Zoriontsuago izango ote zen? Ez, ziur aski. Idoiaren ideologiaren eta bizimoldearen guztiz kontrakoak ziren jende hark eta ideia haiek ematen zioten jaten. Mingarria zitzaion hori onartzea.

Zenbat denbora zeraman bere burua engainatzen? Zer izango zen hurrena, bere egunkari eta irratia- ren il- doekin enpatizatzen hastea?

Gutztiz kontrakoa gertatu zitzaion. Pilarren oporrak tarteko irradi buletinak bere gain hartu zituen lehen egunean izan zen -bizitzaren lezioak: orain bera zen bere ordezkoren ordezkot-. Somalian Nazio Batuetako kasko urdinen uniformeak lapurtu eta haiek soinean zituztela herrixka bat inguratu ostean biztanle guztiak tiroz josi ondoren herrixkari su eman zion talde paramilitar bati buruzko albiste lazgarria ematen ari zela, mutu geratu zen mikrofonoaren aurrean. Minutu erdiko isiltasun luze eta jarraitua izan zen, irratian hain hausgarri eta jasanezin den horietakoa, harik eta teknikariak kantu bat jarri zuen arte.

Depresioagatik baja hartu eta hura gehiago luzatu nahi izan ez ziotenean eszedentzia eskatu zuen. As- teak eman zituen etxetik irten gabe, egunkaririk irakurri gabe, lur jota, bolada batez kanpoan zen lagun batek utzitako ganbara txikian. Negargura sortzen ziz- tzaion noiznahi. Hondorik gabeko putzua zen bere hura. Rogerrek sarri deitzen zion hasieran, baina Idoiak telefonorik hartzen ez ziola ikusita, apurka- apurka amore eman eta hots egiteari utzi zion.

Goiz batez, aspaldikoa zen berripaper bat topatu zuen etxea utzi zion lagunak birziklatzera jaitsi ez zuen paper mordoiloan.

Konpetentziako egunkari bat zen, hala otu zitzaion, «konpetentziakoa», eta amorrua eman zion pentsatzeak, lan egiten zuen egunkari hura oraindik bere sentitzen zuela. Bertan begiztatu zuen Idoiak albisteak, bere egunkarian halako titularrik gutxitan irakurri izanaz penatuta:

Pornografia, terapia bezala.

Txema Santamariak akordatu zen -«benetako argazkilaria, benetako artista fartsanteen mundu honetan»-, argazki pornografiko sorta batekin egin nahi zuen egitasmo hartaz. Burutu ote zuen? Alta, txorakeria galanta iruditu zitzaion hasieran erreportajea, amu hutsa. Saltzen zuen gauza bakarra sexua zela uste zuten kazetari ezdeusen trikimailu merkea. Kosk egin zion, ordea, amuari.

Zenbait psikologok arazo afektiboak eta haustura sentimentalak gainditzeko pornografia nola aholkatzen zuten azaltzen zuen artikuluak. Porno izarrena asko aldatu zen aspaldion, jakina. Garai bateko gorputz eta kurba perfektuak baztertuak izan ziren, «benetako» gorputzen eta aurpegien errealismo eta

egiantzaren mesede, genero amateurrek eta gonzoak sinesgarri eta domestikoa zen sexu gigabyte mordoa sarean erabiltzaileen esku jarri zutenetik. Modu oso sistematikoan sailkatuta, beste inongo arlotan parekorik ez zuen afinitate-menu sofistikuak sortu ziren joera sexual eta apeta bizarroenak aintzakotzat hartuz. Zigarreta erretzen zuen bitartean mendi errusiar batean elkar masturbatzen zuen bikotea bazen berotzen zintuena, huraxe teklaz jo besterik ez zenuen, *et voilà!*

«Pornografiaren arazoa da, behin horretara ohituz gero adiktiboa izan daitekeela, eta jakin behar dela garaiz haren kontsumoa murrizten, sexua bizitzeko modu birtual horrek gain har ez diezaien erabat benetako giza harremani. Pornografia kontsumitzaile ohikoa dena kontrola bere esku eta soilik bere esku izatera ohitzen da, eta gero nekeza suerta dakiokete beste norbaiten beharrizan sexualak asetzera berriz ohitzea; ez gaudela, alegia, bakarrik ohean». Agi denez, ez zetozen psikologo guztiak terapia horrekin bat. «Zenbait kasutan eraginkorra izan daitekeen arren, ezin esan errezeta orokorgarria denik. Balio lezake agian maitasuna sexuarekin soilik identifikatzen duen jendea ohar dadin, pornografiarekin bere irrits sexua-

lak asebeterik ez duela pertsona haren falta sentitzen, baina gehienetan ez da hori izaten kasua. Pornografia neurrian erabiltzea osasungarria da, gehiegikeria litzateke arriskua, hortik kanpo beste ezer dagoenik ahaztea».

Interneten sartu eta zenbait orrialde pornografikotan barrena ibili zen Idoia, jakin-minez, harrituta jendearen pudore faltarekin, garraio publikoetan eta patrikako telefonoekin grabatutako milikaldiekin, lokal ilunetako hormetan egindako zuloetatik ateratzen ziren zakil anonimoak itsumustuka jezten zituzten kolore eta adin guztietako atsoekin, ohe elastikoan baileude legez jauzika ageri eta pantailaz bestaldetik zamalkatzen zintuztela zirudien nerabe desbridatuekin, kamera internauta birtualki zamalkatuaren begietan kokatzen zuten ezin zenbatu ahala bideorekin. Gaztetan inoiz begiztatu izan zituen aldizkari pornografikotan bezala, interneten ere gizonaren ikuspegi menperatzailea erabat nagusitzen zela iruditu zitzaion hasieran, ez zuela han beretzat kilikagarri izan zitekeen deus topatuko, kanpaia jotzeko estimulazio andana baino ez. Baina batetik bestera zebilela, piercingez jositako bi neska gazte ikusi zituen elkarri alua jaten, modu basan, plazeraren mende erabat. Haien gorputz

biluzi, ttipi, eta bular zapal erakargarriez haratago, aurpegiak ziren kitzikagarrienak, haien masailetakoa arrebola eta aurpegiko giharretako kontrolik eza. Ez zen han itxurakeriarik, benetako plazera baizik. Ohartu zenerako begiak pantailara itsatsita eta begi aurreko irudia maximizatuta zeukan Idoiak. Neska haien masailetakoa pixel gorrikara bakoitza milikatu nahi zuen. Pantailako aho ireki haiek musukatzeko gogo emanen zuen. Zerbait falta zitzaion, ordea: audioa kenduta zeukala jabetu zen. Eta bolumena igo zuelarik, ez zuen gauza handirik behar izan oharkabean jeansen botoiak emeki-emeki askatu eta bere burua laztantzen hasteko. Irudia errepikakorregi suertatzen hasi zenean, begiak itxi eta jiratu egin zuen aulkia: bi nesken hasperenak, marruak eta arnasak entzute hutsa aski izan zuen amaierara heltzeko.

Denboraren poderioz, bilatzailean sartu beharreko hitz egokienak zeintzuk ziren ikasten joan zen, eta bere buruari porno-menpekotasunaren atarian zegoenik onartzea kosta egiten zitzaion arren («nahi dudanean utz dezaket»), afalosteko telebista ahaztu eta gauero ordenagailuaren aurrean paratzen hasi zen, aldiro maitale ezberdin bat bilatuz. Haiekin ez zuen hoteletan geratu beharrik («Orly hotelean nago, deitu»;

«Okurritu ere ez niri minik egiterik, bale?»). Haiek ez zioten disgusturik ematen.

Irakurri zuenez, «ispilu-neurona» izenekoak ziren ikusitako ekintzak eragindako emozioak norbere buruari sentiarazten zizkiotenak -nahiz eta norberak ekintza horiek ez egin-, eta pornografiaz bereziki gozaten zutenak hainbeste gozaten ez zutenak baino «ispilu-neurona» gehiagoren jabe zirela uste zuten ikerlariek.

Bere burua ere halakotzat jo zuen geroztik Idoiak. Aberats sentitzen hasi zen, aspaldiko partez. Soslaia berritu beharra zeukan: kazetari ohia, odola zero negatibo, emaile unibertsala, berrogeitaka urte, emakume banandua, seme-alabarik ez, hautsari alergia, ispilu-neuronak barra-barra, donazioan emateko adina.

Norbaitekin mintzatzeko gogoia erne zitzaion. Egunkarira deitu zuenean, ordea, erantzungailu mekanikoak telefono zenbaki hura ez zela jada existitzen esan zion.

Geroago jakin zuen itxi egin zutela Bilboko bulegoa eta kaleratu egin zituztela lankide guztiak.

Luziok Albrecht Durerren liburu baten gainean makurtuta topatu du Fede. Koadroa zurrupatu edo hura esnifutzen ari dela dirudi, lupa batekin ia begien pare-raino ekarrita.

- Zoragarria da, hara...

Liburuko grabatu bat erakutsi dio: *Melencolia I*, 1514koa, askoren ustez Errenazimentuaren hasiera markatzen duena. Malenkonia aingeru eseri bat da, tormentatu itxurakoa. Amaitu gabeko etxe bat du atzealdean, eta panean objektu pila bat: hareazko erlojua, luma, balantza, tintontzia, eskailera... Bertan behera utzitako lanen lekuko diren objektuak.

- Malenkonia, sasoi hartan, ez zen zehazki gaur ulertzen duguna: lau humoreetan estimazio gutxien zuena baizik...

- Halaxe duk, Luzio: eromenarekin zian zerikusia, lurraren kolorearekin, udazkenarekin, haize Borealarekin, hotzarekin eta lehortearekin, sortzaileei hainbeste eragiten dien Saturnorekin, gizonezkook hirurogei urteak betetzen ditugun sasoiarekin...

- Hire eta nire sasoiarekin, beraz.

- Malenkonia nagikeriarekin lotzen zuan beti... Baina ez Durerren grabatu honetan. Hara: egia, laga egin zio lanari Malenkoniak, baina ez alferkeria hu-

tsez, haratago joateak jada zentzurik ez daukala ohar-tu delako baizik.

- Bitxiena duk ez dagoela *Melencolia II* edo *III* zenbakikorik.

- Artelan galduak...

- Ezezkoan nagok... Beti uste izan diat / hori ez dela zenbakia, inbokazio bat baizik.

- Inbokazio bat?

- Bai: «Malenkonia, zoaz!», latinez... Utikan! Erdi Aro ilunari agur esan eta Errenazimentuko argia besarkatzeko borondatea...

- Garaitsu horretan argitaratu zian gure Aldus Manutius maiteak lehen liburua Bembo tipografiaz...

- Baita Garamonda ere, sasoi hartakoa duk. Badakik, Luzio? Oraintxe jabetu nauk lehen aldiz zergatik gustatzen zaidan Bembo tipografia Garamonda baino gehiago: Garamondak begiak itxiagoak ditik, «a» eta «e» hizkien barruko begiak zimurtuta izango balitu bezala...

- Lo luze batetik esnatu berri balitz bezala...

- Bemboak aldiz, zabal-zabalik ditik begiak... Bemboa duk esnatu ondoren erne dagoen lehen tipografia. Garamonda esnatu berriei zegokiek, nagiak atera gabe ditik oraindik, logale duk.... Makarrak kentzea

falta dik... Durerren koadro hau ikusi ondoren, lasai itsu gera naitekeela uste diat.

Kontsumitzaile izatetik sortzaile izatera pauso txikia zegoen. Ematen zuen baino txikiagoa askoz. Webcama piztu eta bere burua lepotik behera enfokatzeko moduan jarri zuen -bere *burua* ez zuen enfokatu, beraz, bere *gorputza* baizik-. Sarean ikusitako emakumezkoen masturbazio ariketa gehienetan ez bezala -jeansak, bainujantziak edo gona solteak izan ohi zituzten gehienek, zuzenean eta hasieratik biluzik ez zeudenetan-, soineko bat bakarrik jantzi zuen, zuria eta arina, titiburu ilunak ikusteko bezain gardena. Bere burua laztantzen hasi zen, han publiko bat zegoela irudikatuz. Antzoki pribatu batean ari balitz legez. *Peep show* batean. Bularrei sendo eusten zien oihal mehearen gainetik, zilborra erakusten zuen eta gero ezkutatu, oinak lekutik mugitu gabe aldakak eta sorbaldak kulunkatuz. Hatz luzea sartu zuen apur bat gero bularren artean, titiburuaren ingurua laztanduz, titiak elkarrengana estutu eta sagarrago irudikatuz, balizko publikoa haiek hartzera gonbidatuz, beheko ez-painarekin webcama ukitzeraino ia. Hasperenka hasi

zen, hasperen exajeratuak jaulkiz, benetakoak ez zirenak, baina apurka-apurka, bere burua hasperenka entzutearen poderioz, kitzikagarri suertatzen hasi zitzaizkionak: hasperen berberak egiten jarraituko zuen aurki, baina benetan plazera sentituz. Posible zen beraz, norbere buruaren konduktista bilakatzea, ispi-lu-neuronek funtzionatzen zuten, baita aktore imitatu norbera zenean ere. Autosugestia? Bai, baina zerbait gehiago ere bazen hura. Soinekoaren goiko aldea erantzi eta bularrak kamerarantz inguratu zituena berriz.

«Zatoz» esan zuen. Aste askotan esan zuen lehen hitza.

Hasperenetik sortutako hitza.

Hiruzpalau egun iraun zuen grabatutakoa ikusteko errezeloak. Ikusi zuenean, ordea, lotsatzetik urrun, kitzikatua sentitu zen osterera ere. Berotu egin zen bere hasperen faltsuen sinesgarritasunarekin, berotu geroxeago benetako bilakatu ziren suspirio horiekin. Bere buruarekin gozatzeari ezin utzi. Sexuan horixe bilatzen zela iruditu zitzaion: plazer ezagun baten errepi-kapen etengabea, bariante ezezagunekin. Bariante ezezagun horien faltak eragiten zuen bikote askok elkarrekiko grina sexuala galtzea, bariante ezezagun

horiek ziren etengabe, eta askotan modu burugabea, ohiko bikotea ez zen beste norbaiten besoetara bultzatzen gintuztenak. Pantailan ikusitakoa imitatzen hasi ahala, bere intziri benetakoak intziri grabatuekin nahasten joan ziren. Grabazioan ez bezala, hizketan hasi zen, bere bariazioaren bila: «Hau bai dela ona, urtzera noa, azkarrago, ai ama, azkarrago...».

Deliberoa hartu aurretik behin eta berriro ikusi zuen grabazioa, ezpaineekin kamerari musu eman eta une batez, objektiboa lurruntzen zuen unean, bere aurpegia aski itzalean geratzen zela ziurtatzeko. Ez zuen inork ezagutuko. Gero, orrialde pornografikoen doako menuak zituzten webgune horietako batera igo zuen bere ariketa onanista. Bideo bakoitzak zenbait lu bat zeukan: klikatzaile kopurua zehazten zuen mar-kagailua. Afalosterako, mundu osoan zehar barreiatu-tako mila eta bostehun zibernautek bere bideoa ikusi eta lau izarreko batez bestekoarekin puntuatu zutela baieztatu zuen, zurtuta.

Egunik egun, bere masturbazio ariketa zenbat jende-
dek ikusi ote zuen begiratzen jarraitu du, jakin-min pa-
tologiko egolatra ikaragarritz, porno-menpekotasuna
aski ez eta, bere arrakastaren menpeko ere bilakatuz.
Webgunera igo eta lehen hogeita lau orduetan baka-

rik, hogei mila pertsonak deskargatu edo ikusi zuten streaming bidez. Astebeteren buruan, ia ehun milak. Puntuazioak bost izarretatik laukoa izaten jarraitzen zuen.

Zenbat emakumezko gazte eta zahar berari begira, mundu osoan. Zenbat mutiko nerabe buztanari eragin eta eragin. Roger bera irudikatu zuen, Julio Virado, Diego, Mikel senar ohia. Munduko gizon eta emakume desesperatuak, eta ez hain desesperatuak, atsedentxoak eta barealdia *-la petite mort-* behar zutenak euren lanetan.

la hogeita hamar urtez egunkarietan lan eginda sekula lortu ez zuena lortu zuen: jendearen arreta. Audiencia esaten zioten horri, eta berea ikaragarria zen. Lehen ez zuen inork irakurtzen, orain askok irakurtzen zuten bere larrua.

Zuloa utzi, mundura atera eta lana bilatu beharra zeukan Idoiak, ordea.

Diegorekin harremana apurtu aurretik izandako elkarrizketarekin akordatu zen:

- Fedek beti behar izaten ditin irakurleak argitaletxean...

Hilabeteak joan ziren geroztik, baina auskalo. Deitzea erabaki du. Erokeria bat da, baina hitz egiteagatik ez da ezer galtzen. Dirua behar du.

Gauzak modu baikorrean ipintzeko modua zen Fedek ikusmen arazoak zituela baieztatzea. Zehatza goa litzateke Fede itsu geratzen ari zela esatea. Taxian egiten zuen etxetik argialetxerako bidea, eta han doi-doi aurkitzen zuen bere bulegorainokoa, automatikoki, ongi ikasia zuelako. Idoiak argialetxea lehen aldiz bisitatu zuenean, estonatuta geratu zen: supermerkatuko orga metalikoz beteta zegoen korridorea, eta hauetako bakoitzean neurri handiko zientotika gutunazal pilatzen ziren, postatik iritsi ahala sailkatuko zituen inor gabe. Orga hauetako zenbaiten hondoan, kolorea erabat galdua zuten sobre zigilatuak, sekula irakurriak izango ez zirenak.

- Horixe litzateke zure lana -esan zion Fedek-. Utzi senari gida zaitzan, hartu bat, zabaldu eta irakurri lehen orrialdea. Esaldi batekin aski izaten da ia beti. Egun erdiko lana litzateke, eguerditik aurrera nekagarria suertatzen hasten da... *Ulises* bera ere zaborretara botako nuke. Badakit ez dela esker oneko lana, baina arratsaldeetan materiala sailkatzen gera-

tuko bazina, sei hilabeterako egun osoko kontratua egingo nizuke. Mila eta bostehun hilean.

Ez zen egunkarian kobratzen zuena baino askoz gutxiago.

- Erdi itsua naizenez, beltzean ordainduko nizuke. Idoiak ez zuen iruzkina ulertu.

- Itsuen txiste bat, ez egin kasurik.

- Lehenbizi, nola irakurtzen dudan entzun nahiko duzu...

- Balekoa zara. Entzun izan zaitut irratian.

«*Radio María-n?*», gorritu egin zen Idoia, Fedek, bere itsutze erremediorik gabekoa gorabehera, naba-ritzeko moduan. Hala iruditu zitzaion berari. Bere irra-ti lokuzioak sekula inork ez entzun izanaren itxaropena izan zuen beti.

Supermerkatuko orgaz beteriko korridorea zeharkatu zuen Idoiak.

Fedek mahukak bildu zituen, otarrain haztegi batean eskua sartzera balihoa bezala. Eserita geratu zen, ordea. Idoiari zegokion arrantza.

Idoiak ez zekien nondik hasi: bi asteko lanaren ondoren jasotako dataren arabera sailkatu zituen iritsita-

ko orijinalak, baina egunero iristen ziren gehiago, organo literatura potentzial geruza berriak sortuz. Harrigarria zen zenbat idazten zuen jendeak, eta zer gogo zeukan idazten zuen hura argitaratzeko. Gutunazalik zaharrenetik hasi behar luke, modu hertsia eta diziplinatuan? Ez zeukan zentzurik: hiruzpalau urte lehenago bidalitako orijinalak zeuden han, egileek etsia hartua izango zuten, ez ziren jada besoa besoaren gainean argitaletxearen erantzunaren zain jarrita egongo. Edo beste argitaletxeren bat topatu eta argitaratuak izan ziren jada haietako asko, edo ogibidez aldatzea erabakia zuten idazlegaiak. Zein zen, ordea, modu arrazoizko eta logiko batean, editore batek erantzuteko epemuga? Urtebetez zain geratzen zen jendea? Sei hilabeteko epea nahikoa zelakoan, hortik aurrera hastea erabaki zuen Idoiak. Sentitzen zuen lehenago bidalitakoengatik.

Dozena erdi orijinal hartu eta ozenki irakurtzen hasi zen.

Lehen hirurak izenburua entzute hutsarekin baztertu zituen Fedek.

- Ez, ez! Nola ba? Ezta pentsatu ere.

Laugarrena, sarrerako aipuaren egileagatik utzi zuen alde batera.

- Nola idatziko du ondo lapurretan egiten ere ez badaki?

Beste biak, lehen orrialdea osorik irakurri aurretik kondenatu zituen sutara. Petrikilo batek bezala egiten zuen oihu:

- Hurrengoa!

Edo:

- Non sartu dira benetako idazleak, jainkoarren!

Edo:

- Cheeverren plagioa!

Edo:

- Edipo berriro?

Edo:

- Bidali egiozu Virginia Woolfen *Gela bat norberarentzat*.

Edo:

- Zergatik ez dute irakurtzen idazten hasi aurretik?

Edo:

- Zergatik ez dira bizitzen hasten idazten hasi aurretik?

Edo:

- Hori ez da literatura, hori karaokea da! Kalkoa!
Bestek egindako melodia txistukatzea; eta ondo egin-
go balu, behintzat!

Edo:

- Zaborra!

Edo:

- Palangana bat! Oka egitera noa!

Bi asteko lanaren buruan, idazle gazte ezezagun baten nobela laburra irakurri zion Idoiak, oso-osorik. Entzuna zuen Kuban puruak biltzen zituzten emakumeen lantegietan izaten zela irakurle bat, besteek lan egin bitartean nobelak ozenki irakurtzen zituen. Haxe sentitu zen nobela hura boz gora leitzen zuen bitartean. *Moby Dick irakurtzen zuen eskolta* titulatzeko eleberria.

- Gustatu zaizu? -galdetu zion Fedek.

Idoiak ezin izan zuen tranpa batean erortzen ari ote zen sentipena saihestu. Ikaragarri gustatu zitzaion eleberria, baina aitortzeko beldur zen. Zeharka erantzutea erabaki zuen, atzera egiteko zirrikitu bat utziz.

- Ni hasieratik harrapatu nau...

- Deitu egileari orduan. Nola diozu izena duela?

Zortea izan zuten: egileak ez zuen liburua beste inora bidali. Pozarren hartu zuen deia.

Hurrengo sei asteetan ez zen halako zorterik izan. Modu desesperagarrian, espantu eta irainen artean, dozenaka lan baztertu zituen Fedek, lehen ataletik aurrera ia sekula ere pasatu gabe. Hasierako Idoiaren beldurrak irribarre bilakatzen joan ziren: editore hura, Fede, bera zen nobelako pertsonaia.

Txantxa errazegia zen: Fede itsua. Beste ezeri ez, baina literaturari baziona.

- Tira, lagunduko didazu atarira? Deitu taxi bati: gaur Ines ez da etorriko... Txanda aldatu diote peajeen...

- Jakina, horixe besterik ez genuen behar.

Isilik geratu da une batez Fede. Gabardina soine-ratu eta lepoa zuzen jarri du, ispiluaren ordez horman txintxetaz josia duen Durerren grabatuaren aurrean bere burua ipinita. Gertatzen da: tristezia bat-bateko batek erasaten digu batzuetan, gutxien espero dugun unean.

- Esan egia, Idoia, pena ematen dizut? Ez dut pena ematen diodan inor niretzat lanean eduki nahi.

- Batere ez. Oso gustura nago hemen.

- Pozten naiz, ze, nik ere ez baitiot nire buruari batere penarik ematen. Jendeak gehiegi balioesten du ikusmena. Askoz ere okerragoa da gor geratzea.

Arraroa begitandu zitzaion hasieran Idoiari burutazioa, batez ere betazalak liburu artean kiskali zituen norbaiten ahotan.

Hotz dago kanpoan, gabanak sudurreraino altxatu dituzte biek. Eroso dago Idoia bere nagusiaren ondoran. Zain.

- Iritsi da taxia, Fede.

Sorbaldatik heldu dio nagusiak Idoiari, gozoki.

- Asko erraztu didazu lana, urtea primeran amaitu da.

Gutunazal bat luzatu dio. *Moby Dick irakurtzen zuen eskolta* eleberriak salbatu die urtea. Ez hau bakarrik: datorrenaren zati bat ere bai.

- Mutil hori zaindu egin beharko dugu. Ea hurrengo nobela ez dion argitaletxe handi bati ematen, denek egiten duten bezala.

Gutunazala zabaldu du Idoiak. Billete gutxi dira, baina koloretsuak.

- Diru asko da hau...

- Inork lortu ez duena lortu duzu: sei hilabeteren buruan oraindik enpresan jarraitzea.

«Enpresa», hitz potoloegia iruditu zitzaion bulego ziztrin hari deitzeko, baina ez zion ezer esan.

- Ikus dezaket hemendik zure irribarrea, badakizu? -taxitik eta bizkarrez esan dio, sorginkeria hura egiteko gai balitz bezala.

Gai zen agian.

Ondo sailkatzen hainbeste denbora igarotako gutunazalak nonahi barreiatuak, apaletako liburuak lurrean zapalduta, entxufeetatik askatutako lanparak mahai gainean trabeska, hormetako Durerren eta Klimten laminak tarratatuta... Hankaz gora topatu zuen bulegoa Idoiak. Itxuraz ez zen ezer falta, dirua biltzen bazuten okerreko lekura etorriak ziren. Dirua literatura ateratzen zuen argitaletxe batean? Lapur serioek jakin behar lukete hori ezinezkoa dela. Eta ordenagailuak ez zituzten ukitu ere egin. Txukuntzen hasi aurretik Federi deitu edo ez, zalantza egin zuen. Hura alferrik suminaraztea ere ez zen kontua. Gero, behar bada, gauzak zeuden hartantxe utzi eta Ertzaintzari parte ematea izango zela logikoena otu zitzaion. Erabaki zezala Fedek, zer arraio. Berea zen argitaletxea.

- Fede, ez ikaratu, baina bisita izan dugu bulegoan. Ez dirudi ezer eraman dutenik.

Umorearen aldera lerratzea erabaki zuen, Fede sobera sutu ez zedin:

- Tira, eskuizkriburen baten bila zebiltzan agian.

Konpetentziakoak izan direla uste duzu?

Fede isilik zegoen, arnaska sumatzen zuen Idoiak, hasperen luzeak egiten.

- Ondo zaude, Fede?

- Entzun ondo: nire mahaiko lehen kaxoia zabal-tzea nahi dut.

Giltzaz ixten zuen kaxoi bakarra zen hura. Ez zuen Idoiaren aurrean sekula zabalitzen. Ezagunak zituen halako maniak: Diegok gauza bera egiten zuen.

- Giltzarik ez daukat, ordea.

- Begiratu badaezpada, saiatu irekitzen.

Ezetz ematen zuen hasieran, tiradera itxita zegoe-la. Baina heldulekutik tira egindakoa leun-leun zabal-du zen: hutsik zegoen. Behartu egin zuen sarraila nor-baitek. Eta gero tiradera hustu.

- Ez dago ezer, hutsik dago.

- Ez dago izokin koloreko karpeta bat? Karpeta zahar bat?

- Ez dago ezer. Zer zeneukan karpeta horretan? Inportantea zen?

Ready-made

- **Laurogei** amonak banatzen gaitiztek neolitiko arotik. Laurogei amonak urruntzen gaitiztek kobazulotik. Bestela esanda: laurogei amonak gerturatzen gaitiztek leizera. Laurogei amona, laurogei hanka pare, laurogei magal, laurogei erditze. Laurogei, hala zioen Jorge Oteizak. Asko iruditzen? Zenbat dituk heure odolvide bizidunak? Ez dituk askoz gehiago, ala? Gu-txiago agian? Esku bete lagun? Sei, zortzi, hiru baino ez? Bada, pentsa heure sendian beste nolabait, pentsa heure hildako arbaso gertuko eta ez hain gertuko-etan, pentsa amonaz soilik osatutako leinu batean. Aise kabitzen dituk denak etxepe batean, autobus artikulatu bakarrean sar daitezkek laurogei amona bakan batzuk zutik lagaz gero, antzoki txiki bateko lehen lau lerroetan sartzen dituk laurogei amona, irudika ditzakek? Besaulki bakoiti eta bikoitiz osatutako lau lerro baino ez, jubilatuen dantzaldi bat kiroldegian, eta hara, horiek dira denak. Pentsa hire laurogei amona horietan, amaren aldetikoak denak, amen amak denak, irudikatu haien hazpegiak hire hain antzeko eta higandik gero eta urruntzenago -izatez gaiz-

ki ipini diagu sorburua, hi haiz haiengandik urruntzen ari haizena eta ez alderantziz: herorri haiz fotokopia gero eta higatuagoa, gero eta karikaturizatuagoa, gero eta sinpleagoa, gero eta bakteria ezezagunagoen menperago; ahaztu Darwin eta ahaztu eboluzioa eta etengabeko hobekuntza, ehiztari urrun baten txantilo hutsa haiz, beltzeko moldea, edozein herri-tako frontoietako horman espraitu daitekeena-. Laurogei amona eta gero hau, laurogei amona eta gero hi, oroit ditzakek laurogei izen? Bai, ala? Zenbat emakumezko izen zaudek hire agendan, zenbat emakumezko topatu dituk bidean urteotan haiekin bizitza berri bat hasteko ametsa izateraino? Laurogei baino askoz gutxiago, baina Don Juan bahintz izan zitezkeen laurogei: heure laurogei amonak adina. Laurogei emakumezko izen? Gogoratzerik ez banan-banan? Egin dezagun ahalegina eta jarri aurpegi bana laurogei amona horiei: Katherine, Oihana, Elisabeth, Lurdes, Viviana, Tatiana, Begoña, Lide, Laura, Tannia, Larraitz, Karmele, Margarita, Miren, Olaia, Irene, Dolores, Leire, Kattalin, Ursula, Martine, Teresa, Neus, Vanessa, Eneida, Tarsila, Paula, Elena, Lucia, Suzanne, Jennifer, Juana, Aizpea, Julene, Alejandra, Nora, Marilar, Cristina, Maria del Mar, Agurtzane, Lierni, Goizar-

gi, Myriam, Ainara, Koro, Gabriela, Maria, Esther eta Maria Esther, Isabel eta Maria Isabel, Yolanda, Joana, lagunentzat Visi den Visitacion, Ruth, Monica edo Monique, Maialen, Reyes, Arantxa, Maite, Ingrid, Rosa, txikitan Esperancita zen Esperanza, Ainhoa, Olga, Monse, Izaskun, Blanca, Zuriñe, Ihintza, Nerea, Amaia, Nagore, Eulali, Lola, Frida, Brigida, Alfonsina, Paz eta Mari Paz, Marijo eta Marijose, Idoia, Maribel, Luisa, Eva, Asun, Iratxe, Mercedes, Irati, Alaitz, Itziar, Eider, Naroa, Angelines, Olatz, Marta, Marie Ann, Clementina, Anna eta Ana eta Ane eta Anne... Kito. Laurogei baino gehiago zaudek jada hor bakar bat errepikatu gabe eta ez diagu Marina aipatu...

Gloriak bere laurogei amonen historia kontatu bitartean, Marina Abramovitxen *performance* bati ateratako argazkiaren parera heldu ziren Lazkano eta biak. *Rest Energy* lanari ateratako erretratua zen. Izatez argazki hura zen Lazkanok erakusketatik oroitzen zuen gauza bakarra, Marina Abramovitx eta haren laguntzaile Ulay, arkua tenk, geziari eta arkuari eusten, bere obrarik ezagunenaren une izoztu bat: Abramovitx eta Ulay zuribeltzez jantzita, biak apur bat oker, apur bat atzerantz erortzear, Ulay laguntzaileak gezia sostengatzen du soka tenkatua eta Abramovitxek ar-

kuaren egurra. Aurrez aurre daude biak. Ez dago han jolasik, punta zorrotzekoa da gezi hura, zuzenean Marina Abramovitxen bihotzera zuzendua. Ulayk soka tenkatua askatzea aski, geziaren muturra Marina Abramovitx artistaren bihotzean iltzatu eta instantean hiltzeko. Biak elkarri begira daude, gona luze beltza eta galtza pare ilunak, alkandora zuri bana soinean, ikaragarria da argazkia. Bi orduz eutsi zion Ulayk geziari -bi orduz eutsi zioten elkarri- horrek eragiten zuen tentsio, gogoeta kateatu eta suspense sostenuto jasanezinarekin. Mikrofonoak ere ipini zizkieten artistei arropapean, bihotzaren taupadak harrapatu eta emanaldiak aurrera egin ahala nola azkartzen ziren entzuteko. Beste zuzeneko arte ekitaldi askotan ez bezala, honako honetan argazkiak ederki islatzen zuen *performance*aren indarra eta intentzioa. Arte garaikide eta kontzeptualarekin edonor berradiskidetzeko moduko irudia: zertarako artea, zertarako idatzi, horra erantzuna. Arkua tenk eduki eta gezia gertu izatea zen kontua, helburu bat begi-puntuaren xedean, hiltzeko arriskua, eta hala ere bizirik ateratzeko grina eta desioa, buruargitasuna eta eskuzabaltasuna, apaltasuna eta harrokeria. Gezia tenk eta diana norbera, *zen* arkularien leloa gogoan: ehiztaria eta ehizatua,

bitez biak bat. Urteak ziren Lazkanok argazki hura lehen aldiz ikusi zuela eta Gloria tarteko zen orduko hartan ere: bere hozkailuan, egunkari ebakin ziztrin bat zeloz itsatsia, duela hogeitaka urte, Gloriak beste estudiante batzuekin (orduan oraindik ez zuten *ikasle* hitza erabiltzen) konpartitzen zuen pisuan. Panazko eta patilla lodiko urteak haiek, idatzitako poema kaxkarrak eta zuzendariari gutunak kalko orri beltzetan errepikatu eta kopia bat egunkarira bidali ondoren bestea kartoizko karpetatan etxerako gordetzen zuten garaiak. Panfleto eta fanzine urte zoragarriak. Uniformeen kontrako bonba atomikoak ziren gandor eta gal-tza estuekin Londrestik lehen punkiak etorri ziren urteak.

Orain Gloriak motx-motx zeraman ilea, zuritze bi-dean. Ez zen ezkondu, ez zuen haurrik izan, Bartzelonara bisita egiten zion lehen urteetan kontaktzen zion zer edo zer bere noizbehinkako bikoteez. Alta, urteak ziren Gloriak bere ibilera sentimentalen berri ematen ez ziola, horretarako adina pasea balu bezala, edota Diegori jada bere bizitzako alderdi hura interesatzen ez zitziola usteko bailuen. Ez zekien Gloriak gizonezkoekiko interesa erabat galdu ote zuen, edo, sinpleki, berarekin beste gai batzuek gusturago aletzen zitue-

nez, elkarrekin pasatzen zuten denbora apurra hobeto baliatzeko egiten ote zuen, Diego ere ez zenez sasoi hartan sobera bere ibilera amodiozkoen gainean hitz egin zale.

Bitxia da zenbait adiskidetasunen oinarrian zer dagoen: zein gai eta zein premisa, eta zein tonu, eta zein arau idatzi gabeko. Gloriarekin arteaz hitz egiten zuten bereziki, ikusitako azken filmez eta irakurritako azken liburuez. «Zer ari haiz itzultzen?», galdetzen zion lehen bisita haietan, eta Diegok kontatu egiten zion zertan ari zen, zer itzuli zuen joan zen urtean eta zer asmo zuen datorrenerako: itzulitako liburuak ziren Diegoren biografia, horixe zen egia. 1987. urtea Tols-toiren urtea izan zen, 1988a Nikolai Gogolena, Anna Akhmatovarekin bizi eta maiteminduko zen urtea 1989a... Gero, Diego Lazkano bere eleberri propioak argitaratzen hasi zenean, sekula idatziko ez zituen liburuen gainean aritzen hasi ziren.

Politikaz garai batean etengabe mintzatzen ziren arren, apenas ukitzen zuten jada gaia, politika neoliberalak ipurtzuloan hatza sartzeko zuen gaitasuna edota Iberduerora bidali beharreko bonba-pakete irudikatuak aipatzeko ez bazen. Apasionatuak ziren arlo horietan -ahoberoak, esango luke norbaitek-, baina

inoiz ez zitzaien burutik pasatu apasionatuak izan zitezkeenik sentimentalki elkar katigatu izatera. Edo hain aspaldi pasatu izan zitzaien hori burutik, jada ez baitziren gogoratu ere egiten. Diegoren garai bateko harekiko hurbilketak hain izan ziren herabeak, nekez hartuko bailituzkeen Gloriak hurbilketatzat. Gloriak ez zekien, edo Diegok ez zuen uste zekienik behintzat, unibertsitatean antzerki talde baterako lagunak bilatzen zituen paskina itsasten ikusi zuenean gustuko izan zuelako eman zuela berak izena. Gloria gustuko, ez antzerkia. Bertigoa sortzeraino gazte zirela begitantzen zaio orain, Oteizaren laurogei amonak baino gehiago pasatu izan bailiran geroztik euren artetik. Diegoren gaztetako zalantzak izan ziren gehiegizko zuhurtziaz portatzera eraman zutenak. Zalantzak? Gazte lañoaren inozokeria lau eta singlea baino ez zen izan, akaso, adiskidetasun hura gordetzea merezi zuela esaten ziona, edo beharbada, besterik gabe, ezezko biribila jasotzeari zion beldur klasikoa soilik. Hizketaldi sutuak eta erakargarritasun haragikoiak bat egin zezaketen, baina bat egin ez zuten harreman mota horietakotzat jotzen zuen haien artekoa garai batean, eta gorputzak eta intimitatea partekatze gaitasunak nagiegi edo atzenduegi bilakatuak zitzaiz-

kien orain; jada ez zuen Diegok garai bateko tentsio-gezi hura nabaritzen, Gloria Bartzelonako bere etxean bisitatzen zuelarik. Jada ez zen sentitzen Ulay bezala, zuzen-zuzen Marina Abramovitxen bihotzerantz zihotan geziari eusten. Lasaigarria ere bazen, nondik begiratzen zaion.

Familian diru asko izanagatik hemezortzi urte bete orduko etxetik alde egin zuenetik ez zuen Gloriak haiekin harreman handirik izan. Dirua eskatzeko ez behintzat. «Fatxa» zen Gloriak bere familiari buruz mintzatzean gehien errepikatzen zuen hitza. Bizitza nahiko espartarra zeraman, bere antzerki esperientzia ahaztu eta artista bilakatzeko asmoz Bartzelonara ihes egin zuenetik. Antzerki taldean elkarrekin ibili ziren garaian taldeak zuzentzen gaitasun handia zuela erakutsiagatik, bakarrik lan egiten zuen orain beti. Jendearekin lan egiteaz nazkatu egin bide zen, ez zegoen prest jende *egomaniakoa* jasateko -hitz hori sarri erabiltzen zuen-. «Badaukat aski orkestra nire buruarekin», esan ohi zuen. Artista plastiko bezala, ordea, bere *opening* jendetsu pare batean egon zen arren Lazkano, ez zuen arte merkatuaren oihanean aurrera egin, hori zen Diegoren susmoa, bere obra hainbat galeriatan erakutsiagatik gutxi saltzen bai-

tzuen, eta, Diegok zekiela behintzat, ez zioten museo edo korporazio handiek sekula haien fondoetarako deus erosi. Lagunak galtzen ari zen azken boladan, ohartua zen Lazkano, aspaldiko urteetan ez bezala, ez zela Gloria bisitatu zuen hartan telefono hotsik apenas sentitzen, isolatzen ari zela bere adiskidea Bartzelonan.

- Irekiko diat beste botila bat?

- Nigatik ez, gutxiago edaten dinat azken aldi honetan...

Loft bat zeukan Montjuic altzoan: lanerako lekua eta bizilekua, bizitza eta artea dena bat, Marina Abramovitxen ildoan. Sukaldean aritu ondoren ere, aspaldian pintatutako koadro abstraktueta izerdi akrilikoaren usainak gain hartzen zion egun hartako alberjina erregosiari. Lazkanok atsegin zuen, hala ere, bertan afaltzea, batez ere udan, kafearekin batera dastatuko zuten laranja ukituko marihuana landare erraldoiak terrazan ageri, trafikoa eta hiriko argiak han behean, biak zurrumurruek mailan, belarrientzako zurrumurru eta zurrumurru luminiko.

Barkamenaz aritu ziren egun hartan. Lotsaz eta erruaz. Bere burua eskultore baldar bihurtu zuen Enola Gayko kopilotuaz.

Errudun sentitzea baino zerbait gehiago behar zen, ordea, Hiroshiman bonba bota ondotik.

- Eta zer egin behar zian hire ustez, bere buruaz beste egin?

- Batek baino gehiagok egin din.

- *Errudun sentitzea* gauza bat duk, baina, errudun al zen? Zertaz, ordea? Ofizio bat hautatu izanaz? Soldadu sartu izanaz errudun? Bera hegazkin batean egokitu zuan, funtzio zehatz batekin: ez zekien bonba atomiko bat jaurtitzen ari zirenik. Enola Gayko kopilotua zuan, besterik ez... Zeren errudun zen? Kentuckyko artoarekin whiskia egin beharrean soldadu ofizioa aukeratu izanaren errudun?

- Hasi haiz heure uztako loreak jartzen, Gloria: ez dinat uste Kentuckykoa zenik, preziso. Robert Lewis New Jerseykoa zela jartzen din hemen... Eta *soldadua*.

- Bost axola: bost axola gasolindegi bateko langile edo soldadu...

- Niri ez: horrek bereizten gaitin.

- Soldadu izatea aukera bat duk, heziketa batek eta bizi igurikapen mugatu batzuek hala behartua,

estua, halabeharrezkoa edo xaloa izan daitekek auke-
ra hori edo guztiz askea, maltzurra eta bokazionala...
Batek zakik zein zen bere kasua... Inkontzientzia
hutsa izaten duk gauzak egitera eramaten gaituena
hamarretik bederatzitan. Nork bere motibazioa izanen
dik: baina oker habil soldadu guztiak zaku berean sar-
tuta.

- Petate berean, esan nahiko dun.

- Parte hartu zian lehergailu hori Hiroshima gai-
nean jaurtitzen, bai, eta zer? Ez zekian zehazki zer
zen, ezin pentsa zezakean bonba atomikoaren eragi-
netan. Bere lana egin zian nolabait...

- Naziek ere bai, horretara jartzen bagara.

- Naziek ere bai: agindu-katea, oso ongi pentsatua
zagok hori. Denok zaramaagu esaneko gizon edo
emakume bat barruan, denok deabruaren esku bat.

- Nik askatasun indibidualean sinesten dinat, bo-
rroka egin ninan bere garaian gauzak alda zitezen...

- Eta aldatu ziren?

- Ez agian... Ez behintzat espero genuen zentzu
eta norabidean. Gauzek... gauzek posible ziruditenan
garai hartan. Baina borrokatu ezean ez zunan gaur
egungo egoera dena izango, otzanago jokatu izan ba-
genu...

Inurriak ikusi ditu Lazkanok bere buruan. «Dale una pasara con esto». «Aske utziko diagu, ezta?». «Murgil gaitezen subjektibitatean». Beste modu batera agian, baina bera ere sentitzen zen errudun. Gurutzatu ote zen inoiz berak batere jakin gabe kalean ingeniariaren familiako norbaitekin, haren lagunen batekin?

- Soto eta Zeberio dauzkak buruan, ezta?

- Haiek ez zitenan borrokatzeko aukerarik ere izan... Banketxe bat atrakatu zitenan... jostailuzko armekin...

- Ni ere akordatzen nauk haiekin... Ohartarazi nizuen, esan nizuen gaizki amaituko zenutela...

Deseroso dago Diego Lazkano. Ez du hortik jarraitu nahi. Hitz beste egin nahi du.

- Lekutara joan gaitun. Bonba atomikoaz ari gintuan...

- Robert Lewisekin: bonba bota eta hogeita bost urte geroago bere etxeko garajeon marmol zati bat lantzen hasi zuan, eskultura bat zizelkatzen...

- Artea deitzen dion horri? Zabarra dun irudia...

- Bere larritasunari eman zion aterabideak eta eskultura hari jarri zion izenburuak inporta dik: *God's Wind at Hiroshima?* Galdera ikur eta guzti, zalantza

izan zuelako *God's Wind* ala *Devil's Wind* jarri... Robert Lewisek ez zekielako, ezin zuelako esan, jainkoa edo deabrua ote zen erantzule. Bere diarioan idatzi zituen hitzak gogoratzea ere komeni duk: «Jainkoarren! Zer egin dugu?».

- Eta horrekin erredimitu zela uste dun? Marmolezko bloke bat zizelkatzen pasatu zituen hilabete horiei esker sendatu zela soldadua? Terapeutikoa izan zela? Faborez! 100.000 pertsona hil zitinan...

- Keinu bat egin zian behintzat. Ohartu zuan barruan zulo latz hori nolabait behar zuela estali...

- Semiotika merkea, sinbolismorik ez niri gero.
- ...harri sinboliko bat behar zuela, ez zuela edozein harrik balio, eta bere eskuez landutako harri bat...

- ...perretxiko atomiko barregarri bat.
- Eskultore bihurtu zian bere burua lan hura egiteko. Ez al duk ulertzen? Transformazio erabatekoa izan zuan!

- Baina soldadu amerikar petoa izaten jarraitzen zinan funtsean.

- Hori ez zakiagu... Kontu nuklearraren hori, bada-kik Bikini atoloian egin zituztela frogatzen nuklearrak... Energia nuklearrak beti izan dik alde hilgarriaz aparte,

halako alderdi sexy bat, jostaria... Lehergailu nuklearren irakurketa positibo hura, bi piezako bainujantzia bera proba-saio nuklearrak egiten ziren atoloiaren izenarekin bataiatzera eraman zuena, espero izatekoa zelako bi piezatak bainujantzi hark lehergailu nuklear baten efektu bera izatea garaiko emakumearengan... Hara... Begira hau...

Gloriak erakutsitako portatileko argazkiari begiratu zion Lazkanok.

William H.P. Blandy almirantea eta haren andrea agertzen dira bertan, adineko militar musugorri bat alboan dutela, onddo atomiko itxurako tarta ikusgarria mozten. Ez da edozein tarta, ezkongairik gabeko eztei-tarta dirudi. 1946koa da argazkia, Hiroshima eta Nagasakiko sarraskiaren ostekoa, beraz. Dotore dago Blandy almirantea, galoiak eta izarra mahukan, eta dotore haren andrea ere; merenge edo natatz egindako tartako onddo atomikoaren antzekoa du kapelua andreak. Kapelua eta tartako onddoaren arteko antzekotasun estonagarriak egin du hain ezagun argazkia, friboloa eta sakratua denaren arteko talka ikaragarriak, sarraski baten ikonoa zenaren berrinterpretazio gastronomiko arinak odola izozten duela ez aipatzeagatik. Krimena estetika bihurtua, onddoa modak

asimilatutako gertaera *chic*. Bikinia, pastelak. Senar-emazteek alegera eusten diote onddo atomiko itxurako tarta zatitzeko kutxiloari, esku banarekin biek eta elkarren eskuak laztanduz, pattar-bisajeko hirugarren militarra den arren, beharbada, han gehien dibertitzen dena.

- Blandy delako pertsonaia hori lege zaharreko almirantea zuan, nonbait: Iwo Jimako lehen bonbardaketetan parte hartu zian, eta ezaguna zuan kanoiei eragin aurretik bere barkuak kostatik ahalik eta gertuen kokatzea gustatzen zitzaiolako, itsasontzien segurtasuna arriskuan jartzeraino. «Etsaiaren begietako zuringoa ikusi nahi dut», esan omen zian behin... Pentsa, Diego, etsaiaren begietako zuringoa! Gerra amaitu zenean Bikini atoloietako froga nuklearretan parte hartu zian, ezagun egingo zuen beste esaldi bat ere berari atxikitzen ziotek: «Ez naiz *playboy* atomiko bat».

Wikipediako lotura erakutsi zion portatilean Gloriak.

- Hara, Diego, irakurri hemen Blandy handiaren hitzak: «Lehergailuak ez du kate-erreakzio bat eragin eta inguruko ur guztia gas bilakatuko. Ez dira ozeano guztiko ontziak hondoraino joango. Ez du itsasoaren

hondoa leherrarazi eta zuloan behera urez hustuko leherketak. Ez du grabitatea birrinduko. Ez naiz bonbak bere apetak asetzeko erabiltzen dituen *playboy* atomiko bat, nire hainbat areriok esan duten bezala».

«Ez naiz *playboy* atomiko bat», esan zuen, baina argazkiak guztiz gezurtatzen du hark esandakoa.

- Merengezko edo natazko perretxiko atomikoen irudiekin, eta onddo atomikoen itxurako emakumezkoen kapeluez aparte... kantu dantzagarriak ere egiten zitiztean gai atomikoa tartean zela... eta jendea inguruan pozik tarta partitzen, ezkontza batean balego bezala... Friboloa eta sakratua denaren artean hari fin bat zagok, bertan erori gabe kulunkatzen asmatzen duenak irabazten dik beti.

Mendebaldeko gizarteetan lotsa galdu zela, lider musulmanek askotan errepikatzen zuten hori: errudun sentitzeko joera zegoen mendebaldean, baina lotsa aztarrenik ez. Ekialdean, ostera, ez ziren errudun sentitzen, baina lotsaren sentimendua zuten barneratua, eta haien parametroen barruan moralki modu gaitzesgarrian obratzen zuten kasuetan erruari gailentzen zitzaion lotsa hau.

Gloriak buruan zeukan *performance* berri baten harira hasi zen dena. Esther Ferrer artistaren obra az-

tertzen ari zen aspaldion, eta sarri deitzen zion Diegori gauerdia jota, marihuanaren eragin euforikoaren pean, arratsalde hartan bertan bururatu eta hurrengo egunean zabor hutsa irudituko zitzaion ideia *jenial* bezain iragankorren bat kontatzeko.

- Demagun hau: hogeita lau ordu arte galeria batean aitagurea errezatzen. Hantxe geldirik, mugitu ere egin gabe, hieratikoki eta errezatzen... Fisikoki ongi prestatu beharko nikek, hori bai. Baina erredentzio kristauaren kritika egingo nikek hartara... Izenburu probokatzaille bat topatzea bakarrik falta zaidak, *6 hilketen erredentzioa* edo horrelako zerbait. Zer iruditzen? Hago, ez, probokatzailleagoa are: benetako krimen bat hartuko nikek aintzakotzat, demagun: *Atochako hilketen erredentzio kristaua*... Agian sail oso bat egin zezakeat, aldiro izenburua eta errezo-aldien iraupena aldatuz, krimen ezberdin bat purgatuz eta otoitz-egileak borrero bezala irudikatuz... Kontxo, urtebete pasa zezakeat galeriaz galeria Europa guztia zeharkatzen, Europa kristaua bederen, eta gero nire esperientzien berri idatzi! Herorrek lagunduko hidake liburua idazten... Zer diok, Diego?

Berak esaten zuen dena, ez zegoen une haietan Gloriak esandakoari ezer askorik eransterik, lantzean

behin, idazle mexikar hark Jorge Luis Borges bisitatu ostean bezala, «isilune esanguratsuren bat» tartekatu besterik ezin zuen egin Lazkanok, gehienera jota.

Goizeko hirurak ziren Lazkanoren etxeko telefonoak jo zuenean.

- Lo hengoen?
- Hiri zer iruditzen zain?
- Berri txarrak ditiat, Diego, berri oso txarrak...
- Zer gertatu dun? Ezbeharren bat?
- Rauschenberg hil duk.

Gloria mozkortuta zegoela iruditu zitzaion.

- Artista... Rauschenberg?
- Zein bestela?

Zaborrarekin, animalia disekatuekin, autoen gurpilekin, bizikletekin, irrati zaharrekin eta gasolindegietan, bide bazterretan eta txatartegietan bildutako puskekin artea eta umorea egiten zuen gizona hil zen.

- «Nostalgia-rik gabeko souvenir», horrela deitzen zien bere lanei.

- Eta hi nostalgiaz gainezka dagoen edukiontzia haiz gaur, Gloria...

- Ez duk egia... Erreskatadore bat zen... Rauschenberg! Benetako artista! Nire artista faboritoa.

Hori ere ez zen guztiz egia, baina sentimental jartzzen zenean, halako hiperboleetan aurkitzen zuen Glorriak aterpe. Saiatu da Diego penak uxatzen: hurrengo goizean mintzatuko zirela, ez zela hainbesterako ere, bazituela Rauschenbergekin laurogei urte..., baina ez zeuzkan Gloria bezalako lagun asko, eta hura sentimental jartzzen zenean, hobe izaten zen aingeru pausoekin ibili, bere gaztetako joera depresiboak azalera ez zitezen sobera.

- Hi ondo hago, Diego?

- Hainbestean, eskerrik asko galdetzeagatik. *Eta hi?*

- Edaten aritu nauk telefonoa hartu aurretik.

- Ezagun dun: eta afalosteaz geroztik etenik gabe, sumatzen dudanez...

- Ez duk guztiz asmatu: ez diat afaldu. Zertarako? Disolbatu egin nahi diat, Joseph Beuysek bezala.

- Ohera sartu behar huke, eta bihar goizean goiz ogi txigortua tomatea eta olioarekin gosaldu, terrazako argitan.

- Euri zirina ari dik, Lazkano, ahaztu ezak behingoz hire Mediterraneoko irudi idealizatua. Hau zabor hutsa duk...

- Rauschenbergekek egingo liken zerbait zaborrarekin, ez dun uste?

- Haren talentua eduki behar.

- Hots egingo dinat bihar goizean.

- Ez diat hartuko.

- Eguerdian orduan.

- Ez, ez deitu. Beste gauza bat ere esan nahi nian, Lazkano... Badakik asko maite haudala, ezta?

- Baita nik ere.

- Hik esateagatik esaten duk, baina nik benetan maite haut. Eta beste gauza bat: Mirori buruz...

- Miro?

- Joan Miro, badakik... Azken aldian izan genuen eztabaida hura: koloreen eskapista zela esaten huen hik eta nik ezetz eta ezetz.

Lazkano ez zen gogoratzen. Hainbeste eztabaida izaten zituzten zaila baitzen kontua eramatea.

- Bai, gogoratzen naun -esan zion.

- Bere katalogo bat topatu diat, Francoren kontra zer egin zuen galdetu ziotenean esan zuena aurkitu diat. Hago... Oraintxe esango diat nola izena zuen ti-

poak... Georges... Georges Raillard duk. Hark galde egin zioan zer egin zuen frankismoaren kontra. Bada-kik zer erantzun zuen?

- Ideiarik ere ez.

- «Gauza askeak eta bortxazkoak». Entzun duk?

Katalogoan jartzen dik, Lazkano. «Gauza askeak eta bortxazkoak...». Gazteleraz zagok: «Cosas libres y violentas»...

- Leher eginda nagon, Gloria...

- Eta beste gauza bat ere esan nahi diat: *Bodegó amb sabata vella* ezagutzen duk? Miroren koadro bat, 1937koa, *Miro-ren Gernika* esaten ziotean... Eta Errepublikaren pabilioiarentzat mural handi bat egin zian, *El segador*, orain galduta dagoena... Zer iruditzen zaik?

- Arrazoi dunala.

- Caixaren logoa egingo zian, baina Miro ez zuan inondik ere saldu bat, hik esaten huen bezala.

- Nik ez ninan halakorik esan.

- Bai, esan egin huen.

- Ba oker nengonan.

- Ba hori.

- Gabon, Gloria...

- Hago, hago... Eta 70eko hamarkadan? Puig Antich garrotez hil zuenean Francok? Hari ere erantzun zioan *L'esperança del condemnat a mort* lanarekin. Eta badakik zer gehiago? Miro basati bat zuan, baze-kian modu basatian ere pintatzen...

- Konbentzitu naun, Gloria...

- Ze ordu duk? Berandu duk, ezta?

- Jabetu haiz...

- Zer nahi duk? Ez duk nire errua! Rauschenberg hil duk.

- Esan didan hori lehenago ere. Hire artista *fabori-toa*.

- Agur eta ohore, Rauschenberg!

Azken tragoa zirudiena edan zuen. Hala iruditu zitzaion Lazkanori, zerbait irensten duenaren antzeko itomen-hotsa ailegatu zitzaion telefonoz bestalde.

- Barre egingo huke ni ikusita, Diego...

«Edo negar», pentsatu zuen Lazkanok. Pentsatu eta esaten ez diren gauzak.

- Barre egingo huke; salako lurra dena liburuz beteta zaukaat, katalogo zabalduak, liburu hauek zabal-tzea emakume bati izterrak irekitzea bezalakoa duk, ala? Bakanal bat duk hau! Ederra orgia! *Partouze!*

hemen ganean lo egingo diat, liburu artean zilipurdi-ka... Zer iruditzen zaik?

- Bihar bizkarreko min galantarekin esnatuko hai-zela. Lo egingo dun orain apur bat?

- Bai, behin honetaz gero, ez zagok ezer askorik egiterik, ez?

- Ezer askorik ez.

- Gainera, Rauschenberg gizajoa... Hustu diat azken botila.

- Egin kasu behingoz, Gloria: hoa ohera.

- Erreserbakoa zuan. *Erreserba Federaleko* botila, Lazkano.

- Arrazoi gehiago ohera sartzeko.

- Miro bezala Normandiako gotorlekuan giltzape-ratu eta izarrak eta koloreak marraztu... Lurrean es-kailerak landatu, gero haietan gora zerura iristeko, Lazkano, esan diat zenbat maite haudan? Miroren *La masia* diat begien parean, zakur pare txortan, eta hi eta ni ikusten ditiat aldi berean, ez galdetu zergatik...

Hurrengo gauean telefonoz deitu zionean ez zen ezertaz gogoratzen.

- Telefonoz deitu? Nik? Ziur ez zela beste norbait izan?

- **Hara**, Lazkano: Roman Ondak Venezian, Eslovakia-ko pabilioiaren barruan kanpoko lorategien kopia zehatza egin dik, halako eran non kanpoaldearen erreplika zen pabilioi barrua ere... Kanpoan lorategiak; barrura sartu eta kanpoko lorategien berdinak. Lorategi gehiago eta lore-joko gehiago! Barruan zein kanpoan! Zertara etorri gara hona? Artea ikustera? Zer espero dugu? Eta museoaren kanpoko aldearen eta barruko aldearen artean dauden ezberdintasunak ezabatuko bagenitu, ez kanpoa arte bihurtuz baizik eta barrua arrunt? Dena balitz lorategi edo dena arte edo dena museo edo dena hirigune, nahas-mahas? Zergatik konpartimentatu? Ispilu joko bat, espazio hutsei egindako omenaldia...

- Errepikapena *ad infinitum*...

- Horrelako zerbait egitea diat burutan. Imitazioa ez duk ezer berria. Serializazioa, apropiazioa, artean oso boladan dagoen zerbait. Eskatuko diagu jateko zerbait? Plantxan erretako arraina ona izaten duk hemen.

- Urraburua nigatik, erdi bana.

- Arrainarentzat... Sumarroca ondo?

- Laranja zukurik ez behintzat.

- *Laranja...* bitxia duk laranja kolorearekin gertatu dena: modernitatearen kolorea izan zuan garai batean. Gogoratu 60ko hamarkadaren amaiera eta 70ekoa: altzariak, lanpara biribil handiak, soinekoak eta horma-paper estanpatuak.

Laranja kolorea oso presente zegoan, gero zaharkitu-edo egin duk... Etorkizuna proiektatzen duen kolorea izan zuan sasoi batean, gogoratu *Star Trek*-eko uniformeak... Etorkizuneko kolorea aldatzen joan duk: urrea, titanio zilarkara, zuria gero, berdea *Matrix*ekin jarri zuan modan, baina pasatu duk berriro ere... Hollywoodeko espaziontzien barrualdeko dekorazioari arreta jartzea duk kontua, fikzioan agertzen diren ordenagailuetako pantailetakozko hizkiak eta grafikoak zein koloretan egiten diren.

- Oso jantzita ikusten haut kolore kontuetan. Berriz ere koadroak pintatzen hastekotan, ala?

- Ez, faborez. Inork ez dik pinturarik nahi hemen. Pasatutako kontua duk. Gero kafea hartzen duan birtartean mandatu bat egin behar diat, axola ez ba-zaik...

- Lagunduko dinat.

- Nahi duan bezala. Pakete bat hartu behar diat postan.

Urraburuaren hezurak buru eta guzti zurrupatu eta bina grappa hartu ondotik, Bartzelonako portuko temperatura atsegina utzi eta postetxera abiatu ziren biak. Alemaniatik zetorren paketea jaso behar zuen Gloriak, bere aitarentzat, itxuraz. Lazkanok ezin saihestu izan zuen bere aita desagertuarekin akordatzea, «okerreko lekura etorri nauk, Diego», aita liburutegian mailegatutako liburuak itzultzekotan postetxera joan zenekoa, bere burunahasketaren hasiera mingotsa.

- Hemengo helbidea erabiltzen dik beti atzerrira erosketak egiteko, ez zakiat zergatik.

- Bisitan joaten haizenean etxetik derrigor pasatzeko aitzakiaren bat sortu nahiko din.

- Balitekek.

- Bai pakete bitxia.

- Bildumatzaile porrokatua duk aita. Ez galdetu zer bildumatzen duen, nahiago diat ez jakin. Dirutza gastatzen duela, ez zakiat besterik.

- Ez dun tentaziorik izan sekula paketea zabaltzeko?

- Ez nauk idazlea, muturra leku guztietan sartzeak ez zidak hiri adinako plazerik ematen.

Bartzelonako Mutt galeriara eramán zuen arratsaldean Gloriak Lazkano, honek bart kontatu zionean adarra jotzen ari zitzaiola uste baitzuen.

- Nola zaldi margolaria?

- Herorrek ikusiko duk.

Napoleon izeneko zaldiaren argazki bat dago erakusketaren sarreran. Kontua zertan datzan azaltzen duen bideoa ere bai: bere «entrenatzaileak» -*martistanteak*?- pintzela jartzen dio hortzen artean eta zaldiak trazo basaz margotzen du oihala, zirriborro abstraktu koloretsua burutuz. Argazki horren segidan, erakusketako koadroak: Napoleonen dozena bat laneatik gora, bakar bat ere ez hiru mila euro baino merkeagoa.

- Eta jendeak hau erosten din?

- Ez hadi hasi betikoarekin, Diego: «Idea brillante bat komunikabideei grazia egiten diena. Horratx, gustatu edo ez, arte modernoa...».

- Agian geure buruaz aspertu gaitun eta delegatzea besterik ez zaigun geratzen: makinetan eta ordenagailuetan ez bada, animalian.

- Vargas Llosak artikulu bat idatzi dik aspaldi ez dela.

- Ez dinat deus ulertzen... Saldu ezean San Juan sutan bere lanak erretzen zituen pintorearenak bazin zentzu bat, baina honek... Zaldi baten subkontzientea aztertu nahi duen psikiatra batentzat egokia akaso, halakorik balego, baina hortik aurrera...

- Egin izan dira lehenago ere halako saioak: zoeetako tximuei kamerak erabiltzen erakutsita... Ez dituk artearen historiara igaroko, hala ere, hori onartzen diat.

- Mozkortzeko gogoia piztu zaidan derrepente.

- Hago: alkoholaren ahaztura irabazi egin behar izaten duk. Idazleei gustatzen zaien expo batera eramango haut lehenbizi. Asetzen ez bahau, nire kontu gaurko afaria.

- Ez daukan errukirik nirekin...

Arte portugaldar garaikideari eskainitako erakusketa zen, Portugalgo idazle eta artistei eskainia bere osotasunean. Abagune egokia zelakoan, Lazkanok Gloria inpresionatu nahi izan zuen zita bat portugesez esanda.

- «Cheguei a Lisboa, mas não a uma conclusão».

- Fernando Pessoa, hortxe daukak hire idazle kuttuna.

Futbolin bat seinalatu dio Gloriak, Jose João Brito artistaren instalazio bat. Bi talde elkarren kontra, ohikoak denez. Talde batean João Gaspar Simoes da atezain eta garai guztietako beste hamar idazle portugesek osatzen dute taldea. Kontrako ekipoan, hamaika egurrezko figuratxoak bat eta berberaren kopia dira: Fernando Pessoaarena. Soto eta Zeberiorekin akordatu da: Bidarteko hondartzan bordelesen kontra jokatu zuten partidaz.

- Pessoa versus Portugal, ederra. Hainbeste heteronimo ezberdin sortzeko gaitasuna duen pertsonak, berak bakarrik eta bere kasa borroka dezake munduaren kontra.

- Banekian gustuko izango huela.

- Zortea izan dun: erdi bana afaria...

- Ez al diagu esan gustatuz gero hik ordainduko huela?

Gloria Donostian zen, aspaldiko partez. Lazkano eta biak elkarrekin bazkaltzekoak ziren, baina aitari Barzelonatik ekarritako paketea eraman behar zion aitzakian, biak gonbidatu zituen etxean otordua egitera.

- Hitz eman behar didak ez duala barrerik egingo.

- Barre? Nola ba? Zergatik egin behar nuen bada barre?

- Eta ikustera hoana, bion artean gera dadila: aita fatxa duk, ohartarazi diat behin baino gehiagotan.

- Fatxei ez zienat barrerik egiten inoiz, ez zagon kuidadorik.

- Ez nauk hitaz fio.

Zur zahar lustratuz forratua zegoen egongela eta hormak natura-hil eta ehiza-paisaiez estalirik, baina, pentsa zitekeenaren kontra, ez zen leku iluna, hegoalde eskuzabalera ematen zuten leiho altuei esker ez baitzen argiaren faltarik sumatzen batere. Moketa oliba kolorekoaren soropilak itolarririk gabeko sosegua hedatzen zuen egongela osora, trabarik gabe hamar metro luzatzen zen sabairaino. Abegikorra ere bazen giro hura, ez aristokrazia heredatu deserosoa, ez gustu txarrekoa eta baldarra, baizik eta aristokrazia naturala puri-purian, belaunaldiz belaunaldi gozatu, etxejabearen gozamenerako eta haren gustuen arabera eraikia, antzinako gustuen hari eta karietara. Aise uler zezakeen Diego Lazkanok gurasoak seme-alabekin haserretzea gazteek pribilegioei uko eginda-koan; antzinako destilazio urtetsu haren lurrinari uko

egitea bazen edukazio falta bat, nolabait. «Errazegi gaitzesten diagu aristokrazia», bere kolkorako Diegok.

Fatxaren bulegoa zen hura, beraz. Aurrera ba. Durduzadura berezia eragin zion eskritorioaren atzeko tapiz erraldoi, bi bider bikoak: norenak ziren, Franco jeneralarenak ez beste, aginte makila eskuan, dikta-doreek posta-zigilu, kale-estatua eta argazkietan ageri ohi duten argizarizko itxura beldurgarriarekin aurrez aurre so egiten zioten eskala errealaz gaindiko begi haiek? Hasperen egin zuen Gloriak.

- Bale. Ikusi duk. Sinesten duk orain aita fatxa dela?

Ez zuen Diegok higuinik batere sentitu, aitzitik, guztiz kontrakoa: halako liluramendua eragin zion us-tekabean eta testuingurutik kanpo, garaitik kanpo agertzen zen tapizeko Francoren irudi hark. Erabaki zuen, nostalgia inofentsibo eta samur baten jabe behar zuela, inondik ere, Francoren irudia bere lantoki pribatuan hain modu agerikoan mantentzen zuen gizonak. Batere eskasa ez bazen lehendik Gloriaren aita ezagutzeko zuen gogoia, detaile hark areagotu egin zion.

- Inporta zaik sarreran itxoiten badugu orain?

- **Objektuek** biziraungo gaituzte. Gu joango gara, baina objektuek beren horretan iraungo dute. Bildumazalea nauzu.

«Ikusi dut bulegoko tapiza», pentsatu du Lazkanok, baina hari buruz ez du deus esan. Arrazoi zuen hala ere objektuen horretan, Pragan Kafkaren etxea bisitatu zuenekoaz akordatu zen, nola hunkitu zen bere burua Kafka ispilatu zuen mirail berean islatuta ikustean, eta nola izan zuen lipar batez haren erretratu mirail barruan ikusi zueneko fantasia ezinezkoa.

- Gustatzen zaizkit litxarrerria hauek: horra, berunezko soldadutxo hauek adibidez, Verdungo bataila irudikatzen dute. Oraindik ez ditut denak pintatu.

- Aitari bataila ospetsuak irudikatzea gustatzen zaio.

- Gustatu bakarrik ez, laztana, nire azken urteotako bizipoza dira.

Berriz ere antzerkia, pentsatu zuen Lazkanok, panpinatxoak, txotxongiloak, berunezko soldadutxoak, errepresentazioa. Edo agian zahartzaroan umezarrora bueltatzeko sindromearen arrasto bat baino ez zen: panpina batzuk utzi beste batzuk hartzeko. Tentea zen Gloriaren aita, eta garai bateko ile beltza zuri-

zuri eta indartsu mantentzen zuen arren, ez zuen zitu-
tuen hirurogeita hamabost urteak baino gazteago
ematen.

- Idazlea zarela esan dit Gloriak.
- Saiatzen naiz idazten, uzten didatenean.
- Ez horren apala izan, Lazkano jauna, interneten
begira aritu naiz eta ezagun da ongi doakizula.
- Kexarik ez dut, Furmica jauna.
- Errusiera ere badakizu.
- Atzendu samartuta daukat aspaldion, baina bai.
- Esan, gustuko duzu Txekhov?
- Ikaragarri.
- Ondo moldatuko naiz orduan zure lagun hone-
kin, Gloria... Hara...

Gloriak Bartzelonatik ekarritako paketea zabaldu
zuen orduan. Ongi enkoadernatutako liburu zaharra
eraman zuen sudurrera, gutziatsu. 1923ko liburukote
bat zen, karaktere zirilikoz idatzia.

- Bere teatro lan guztiak, gutzizatxo bat.
- Dirutza balioko du.
- Dirua, jakina. Garrantzitsua da dirua. Txekhoven
obretan ere bai: pertsonaiak etengabe ari dira estuta-
sunak pasatzen, dirua lukurreruei maileguan hartzen,
haien etxalde hipotekatuak galtzeko zorian beti... So-

bornoak ere ez dira falta, ustezko dote gizenen truke ezkontzen diren pajarook... Oso gaur egungoa, alde horretatik begiratuta.

- Hala ere, teatroa ez diot hainbeste ezagutzen. Nahiago ditut bere ipuinak.

- Hor dugu, beraz, zertaz eztabaidatu... Narrazioak nahiago? *Short story*ak, *racconti brevi*?

- Baietz esango nuke.

- Egin kontu Anton Txekhoven ipuinak nondik datozen. Arrastorik baduzu?

- Sendagilea zen, harat-honat zebilela entzun eta ikusitakoak izango ziren asko eta asko...

- Bai eta ez... Txekhovek nerabe zela zuen afizio-etakoa zen antzerkia: pieza komiko laburrak egiten zituzten, etxean eta etxekoentzat, berak eta bere anaiak. Teatro inprobisatu txiki horietako pertsonaiak bilakatuko ziren gero bere ipuin ospetsuenetako heroi. Zer iruditzen? Ipuin askoren oinarrian antzezlanak zeuden.

Kontrako eztaeratik joan zitzaion Diegori bazkalaurreko ardo goxoa.

- Barkatu.

- Ez dago ona, ardoa? Beste bat ateraraziko dut... Gisele, mesedez...

- Ez, ez da hori... Ardoa primerakoa dago.

- Egia da *Kaioa* estreinatu zenean jendeak ez zuela ulertu... Baina bigarren aukera bat izan zuen, bizitzan denok izan behar genukeen zerbait; eta orduan bai, berealdiko arrakasta lortu zuen... Ezkondu ere, Olga Knipper, Moskuko Arte Teatroko aktore batekin ezkondu zen... Ez da kasualitatea izango...

- Bere umore etsia preziatzen diot nik.

- Antzezle eta zuzendariek ez zuten inoiz jakiten drama umoretsuak edo komedia dramatikoak antzezten zituzten. Ez zekiten barre edo negar egin.

- Biak batera, ziur aski.

- Biak batera, hala izaten da bizitzan ere.

- Askotan esan izan diot Gloriari Txekhoven antzezlan bat zuzendu behar lukeela, garai batean egiten zuen moduan.

- Aita, ez hasi berriz horrekin...

- Ez, ez, utzi bukatzen: serio ari naiz erabat. Ona zinen, bazenuen eszenaratzeko bisioa... Neronek finantzatzeko nizuke.

- Teatroa artifizioa da...

- Ez *teatro gehiegi* egiten ez badute aktoreek, laz-tana. Txekhov isil samar egoten zen bere antzezlanen proba-saio gehienetan, baina galdetzen ziotenean

eman ohi zuen bere iritzia: «Teatro pixka bat gutxiagorekin, hobeto legoke... Erabat soila egin behar da... bizitzan egiten den moduan».

- Gauzak asko aldatu ez badira... ez da hori hementengo antzezlanen joera. Baina ez naiz ni egokiena hori epaitzeko, hogeitau urte baino gehiago daramatzat eta antzokietara joan gabe.

- Zuk ere bai, Lazkano jauna? Eta zergatik halakorik?

- Gaztetako trauma bat, batek daki.

- Edonola ere... Gloriak Txekhov zuzenduko balu... Ez zenuke zure antzez-baraua eten beste erremedio-rik, *n'est-ce pas?*

- Hori gertatuko balitz...

- Noiz egingo didazu kasu, Gloria?

- Egunen batean, aita.

- Aurrera arren, prest dago dena -ohartarazi die Gisele zerbitzariak.

Schnapps bana hasteko. Gero, legatza almendrekin. Rhin ibarreko ardo zuri gutziatsua lagun, ongi afaltzen zen etxe hartan. Beste garai batekoa begitandu zitzaion Lazkanori dena, baita Francoren tapiza eta armiarma-lanparak bere buruko ertz batera zokoratzeari lortu eta beste guztiaren abstrakzioa egin ondo-

ren ere. Sukaldaria, zerbitzaria... Londres victoria-
rrean sentitzen zen. Aurretik irudikatu zuen agian di-
bertitu ere egingo zela Gloriaren zaharrarekin, baina
sufrikario bat izaten ari zen. Gloria ez zegoen bera
baino erosoago. Ezagun zen aspaldiko urteetan gal-
dua zuela aitarekin otorduak egiteko ohitura eta,
batez ere, zerbitzariaren presentzia jasatekoa.

- Alda ezazu musika, faborez, Gisele. Aria hau ez
da egokia legatzarentzat.

- Nik aldatuko dut, aita; zoaz lasai, Gisele.

Hain zoldatsuak ez balira Gloriaren aitaren mane-
rak, komikoa begitanduko zitzaion agian Diego Lazka-
nori egoera. Gloriak ohartarazi zion, behin eta berriz:
«Badakik fatxa bat dela, probokatu egingo hau, hik se-
gitu hari korrontea eta kito. Errazagoa duk horrela».
«Ikusiko dinat», erantzun zion Diegok bihurri.

Tipo hura benetan zen fatxa bat. Azkarra, edo
azkar-ustekoa, baina enkanturik gabea. Eta okerragoa
zena: disimulurik ere ez zuena.

- Oraingoan ere Alemania eta Frantzia ari dira Eu-
ropako gurdia tiraka. Lotsagarria, ezta? Lastima apur
bat iparralderago ez jaio izana...

«Hik ahal duana egiten duk», Lazkanok bere ar-
tean: Rhineko ardoa, opera alemaniarra, *schnapps*.

Jaiotzen garen lekuan jaiotzen garella, gero hauta genezake nora nongotartu, baita etxetik atera gabe ere. Lillen literatura unibertsaleko liburuak saldu eta diru harekin alkohola erosten zuen sasoiak akordatu da Diego. Fernando Pessoren *Desoseguaren liburua*, porto botila baten truke.

- Aukera ederra galdu zuten jeltzaleek naziekin akordioa egiteko okasioa zapuztu zutenean.

- Baina gerra galdu egin zuten...

- Jeltzaleek? Bai, arrazoi duzu.

- Naziek ere bai...

- Hmmm, esan liteke. Baina zenbat diru gastatzen duen oraindik AEBetako zinemaren industriak naziei buruzko filmak egiten, ezta? Edonork esango luke ez zela gerra irabaztea nahikoa izan, ahosabaian halako gustu garratza utzi ziela garaipenak, edo ez zutela sinetsi irabazi zutenik. Oraindik gerran jarraitzen dute, aspaldi desagertu arren inoiz baino presenteago da goen etsai baten kontra.

- Leviatana ez berpiztea da helburua, agian -esan zuen Lazkanok, eta Gloriak hortik ez jarraitzeko keina egin zion, ardo kopa kolpe batean hustuz. Lazkanok, ordea, arrastoan sartuta zegoen jada-. Gernika

Batailoia izan zen Parisen sartzen lehena, euskaldunak...

- Izenaren sinboloagatik, auskalo: marexalen batek erabakiko zuen, «utzi vascoei pasatzen, Picasoren koadro zatar horrekin zorterik izan ez dutenez, kontsolagarri», batek daki.

- Ardo gehiago, aita?

- Gisele, ardo gehiago.

Gloriak keinua egin dio Giseleri, egoteko lasai, arduratuko dela bera. Lazkano jabetuta dago zerbitzaria ere atezuan dagoela, jabetuta dago Gloria eta biak bere ohiko errutina apurtzen ari direla, nahiago zuela hark gauzak bere erara egiten uztea, alegia, ardo botilak Lazkanok eta Gloriak ukitu ere gabe. Hobe beharrez aritu arren, zerbitzuari enbarazu besterik ez zioten egiten.

- Rhineko ardo hau... Afrutatua benetan, gustatzen zait, aita.

Gloria elkarrizketa desbideratzen ikustea, hain bere aitaren mende, amorragarria zitzaion Lazkanori. Orain ulertzen zuen zergatik hautatu zuen gazte-gaztetatik gurasoen etxea uztea, eta zergatik izan zen bere amaren heriotza Bartzelonan behin betirako geratzeko behar izan zuen azken bultzada. Baina alferri-

kakoak dira Rhineko ardoei buruzko Gloriaren iruzkin guztiak elkarrizketaren korrontea bere ubidetik desbideratzeko.

- Diziplina handiko jendea ziren naziak, ez dago ongi ikusia orain haien alde ezer esatea, berehala botatzen dizkizute zakurrak, baina gaur egun Alemanian errepideetan hain jende gutxi hiltzea ez ote da nazien meritua? Errepiderik onenak eta autorik onenak, eta abiadura mugarik ez autopistetan... Zenbat jende hiltzen da gurean? Zenbait ideia muturreraino eramantuzten, ados; baina ez al genizkieke nazien kanpoetan hildakoei azken hirurogeita hamar urteotan Hitlerren errepideetan hil ez diren guztiak deskontatu behar, adibidez? Eta hemengo errepideak tranpa mortalak izatea, terrore mota hori, noren erantzukizuna da? Mediokreak gora aupatu eta egia esaten duenari krudelkeria leporatzen diogu, triste da, baina horrela funtzionatzen du munduak. Eman buelta pare bat horri, Lazkano, zergatik demonizatzen den zenbait jende eta ez beste zenbait.

Ez ziren nahi ordurako etorri etxean egindako *pana cotta* izoztua eta kortesiak derrigortutako kafea.

- Diziplina falta da, Lazkano jauna. Autoritatea. Alemanian gazteekin *gymnasium*etan egiten zen lana,

gazteria hitlertarrak... Ezaguna egingo zaizu Gunter Grassen kasua, noski.

Diegok ez zuen segitzeko indarrik. Bera zen orain, ardo zuri botilari naufragoaren botilari bezala heldu eta kopa betetzen zuena. Ez hitz egiteagatik, edan. Zenbat lotsati eta zenbat koldar bihurtuko ote ziren alkoholiko, begitandu zitzaion.

- Likorerik ez? Pattarra, grappa? Ni ez naiz oso zale, baina patxarana ere badaukagu, etxekoa...

- Ez, eskerrik asko.

«Etxekoa», otordua hasi zutenetik hura izan zen euskaraz esan zuen lehen hitza.

- Plazera izan da, Lazkano jauna. Itzuli nahi duzunean. Ez da aise topatzen elkarrizketaren hariari eusten dakien jendea gizarte mengel eta belaxka honetan.

Otzan makurtu zuen burua Diegok, deus esateko kemenik gabe, Gloriaren aitaren bosteko autoritarioak bizkarrezurra makurraraziko balio bezala.

Gloriak lagundu zion atariraino.

- Badin bere xarma hire aitak.

- Botatzen dituen astakeria guztiek ilea lazten ez dutenean, esan nahi duk? Orain xahartuta zagok,

baina irudika ezak duela berrogei urte, umea nintze-
nean -murmurikatu dio.

- Gurasoekin beti sortzen dun txokea, faszistoide
izan ez balitz ere, hire aitarekin ongi moldatuko hin-
tzela uste dun?

- Ez daukak disimulatu beharrik, fusilatu egingo
nikek batzuetan.

- Gurasoak ez ditun aukeratzen, ez haiz hi haien
erantzule.

- Baina gurasoak badituk seme-alaben erantzule,
ala? Horrekin bizitzea erraza izan dela uste duk? Sen-
titzen diat, Diego. Esan egin behar nian. Aita Meliton
Manzanasen laguna zuan.

Hasperen egin zuen Gloriak.

- Tira, esan diat, lehertuko ninduan bestela.

Badira odola izozten duten izenak. Jende askoren-
tzat horietakoa zen Meliton Manzanasena. ETAk deli-
beratuki hil zuen lehen polizia. Legenda beltz bat he-
datzen zen gizon haren inguruan. Torturaren probe-
txuak aski ez eta, atxilotuen emazte eta arrebei egin-
dako faboreak bere modura kobratzen zituela. Polizia-
ren barruko lankideek ere ezin omen zuten begien bis-
tan ikusi. Sadikoenen eskolakoa.

Lazkanok entzuna zuen naziekin kolaboratu izana ere leporatu izan ziotela Manzanasi, artean gazte bizargea baino ez zenean, hogeita hamar urte ere ez: judutarrak entregatzen ei zizkien naziei, Espainiako Gobernuari interesatzen zitzaion jendearekin trukatu.

Gloriak horren aditzerik ba ote zuen galdetu zion Lazkanok bere buruari. Ez izatea espero zuen, bere onerako. Bazuen nahikoa bere adiskideak aita frankistekin eta torturatzailleekin lotzearekin. Baina orain aiseago ulertzen zuen Gloriaren aitaren erretolika filonazia. Entzutekoak izango ziren Meliton adiskidearekin batera, *schnapps* bana eskuan, elkarri kontatuko zizkioten gerra-osteko pasadizoak. Lazkanok nahiago izan zuen buruan zerabilena bere kolkorako gorde. Ez, hobe zen Gloriak deus ez jakitea. Nahiago izan zuen ez esan nola lotzen zen bere aitaren adiskidantza hura XX. mendeko sarraskirik handienarekin. Nola etxe ondoan daukagun, uste baino askoz hurbilago, munduaren krudelkeriarekin nahi gabe lotzen gaituen hari-muturra. Hasi tapiz single batean solte dagoen haritik tiraka eta ustekabeko lekuetara iritsiko zara. «Objektuek biziraungo gaituzte».

Glaziala da giroa bat-batean eta ez dirudi ezerk hobe dezakeenik hura.

Besarkatu egin du Gloriak Lazkano, aspaldian inork besarkatzen ez zuen bezala. Ispilukeria bat izan da agian, baina Giselek une horretantxe Diegoren jaka luzea ekarri eta eten izan ez balitu, ezpainetan musu ere emango ziola iruditu zaio.

Egun hartan Gloria ez zitzaion Santsera bila etorri. Harritu egin zen Lazkano, baina ez zion beste munduko garrantzirik eman: berandutu egingo zitzaiola pentsatu zuen. Egunkari pare bat erosi eta tren geltokiko kafetegian zain geratu zen. Etorri gabe jarraitzen zuela ikusita, telefonoz hots egin zion. Erantzungailuak salto egin zion bestaldean. Bere lan kontzeptual ezinezkoren batean murgilduta ibiliko zen, ez soilik hitzorduarekin eta geltokian jaso beharreko bisitarekin ahaztuta, baizik eta urteko sasoi azkeneko munduaz ezaola ere bai, ziurrenik. «Artista hauek, erremediorik ez».

Gloria orduz edo egunez deskuidatu zelakoan, taxi bat hartu eta haren etxera hurbiltzea erabaki zuen Lazkanok. Etxeko txirrinari sakatu zion. Inor ez. Auzo-

ko pizzeria batean afari legea egin eta iluntzean jo zion berriro ere atea. Ez zen han inor sumatzen.

Hirugarren mezu bat utzi zion erantzungailuan, auzoko pentsio batean zegoela esanez. Hurrengo goizean, gosalduta ostean Gloriaren deirik jaso ez zuela ikusi eta interfonoari ere erantzuten ez zionez, Gloriaren aitari deitzea bururatu zitzaion. Ez zeukan agendan telefonoa, baina aise aurkitu zuen cyber pakistandar batean sartuta, orrialde zurietan. Donostian ez zegoen Furmica deiturako jende asko.

Giselek hartu zion arren, berehala agertu zitzaion Gloriaren aitaren ahotsa.

- Ez dakizu ezer?

Susmatu behar zuen Lazkanok zerbait Gloriak balikoian zituen landare guztiak ikusita. Gehiegi ziren norbere kontsumorako. Baina zer daki batek... lagunen-tzat ere izan zitekeen... Bere artelanak salduta ezer askorik ateratzen ez zuela agerikoa izan arren, ez zuen Diegok asko uste Gloriaren egoera horren larria zenik.

Ezin saihestu izan zuen Lazkanok Gloriak proba-saioretara berandu heltzen zirenean esaten zizkienen akordua, Soto hainbeste sutzen zuten gaitzespen haiek denak: «Zuek gaizki bukatuko duzue», «Ez es-

pero kartzelara joatea zuek ateratzera», «Abokatua ordaintzeko gaudek ba».

Fidantza pagatua zuen jada aitak, baina bankuko transferraren ordezkagiriarekin burofax bat bidali eta hainbat paper-kontu egitea falta zen oraindik. Eixampleko komisaldegian zeukaten.

- Ez nekien han bertan zinenik, Lazkano... Gloriak estimatuko du norbait ezaguna zain izatea. Eskertuko nizuke askatzen dutenean hots egitea.

- Jakina.

Komisaldegiko itxarongelan bota zuen goiza Diego Lazkanok. Urduri jartzen zen oraindik ere halako lekuetan. 80ko hamarkadako arrastoak.

Bazkalosteko txandako harrerako poliziarri berriro azaldu behar izan zion Gloriaren kasua, goizekoak alde egin orduko. Bostak baino lehentxeago askatu zuten. Ez zeukan itxura txarrik.

- Sentitzen diat, Diego. Dei bakarra egiten utzi zidatek, eta ez zuan kontua dirua hiri eskatzea. Non pasatu duk gaua?

- Ondo al hago?

- Primeran... Bulgariako bi prostitutarekin izan nauk... Oteizaren amona horietakoak ematen zitean... Sinesten didak Bulgariako hiriburua zein zen ere ez

nintzela akordatzen? Ba al dakik jada ez dituztela hatz markak tintarekin hartzen? Akabo hori ere.

Gloriak ez zuen bere dealer *Ianaz* hitz egin nahi izan. Hasiberria omen zen «ezagunen ezagunei» pasatzen, eta kalez jantzitako polizia bat egokitu zitzaion tartean. Zorte txarra. Ofizioko abokatuaren arabera, ez zuen arazorik izango, lehen aldia zelako eta atzemandako kopurua ez zelako handia. Aitari fidantza ordaintzeko dirua eskatu behar izana, horixe zen bere buruari barkatzen ez ziona.

- Bizitza osoan moldatu nauk hura gabe. Eta orain bat zor zioat. Bazakiat, gainera, kobratu egingo didala. Ederra duk, bada, zaharra.

- Larri bahabil... eskatu besterik ez daukan, Gloria... Dirua behar dun?

- Ez, baina Boadaseko Martini erronda ordaintzen utziko diat nahi baduk.

Macbako areto nagusian eseri zen Heiner Stachelhaus profesorea. Aulki gehiegi jarri zituztenez, etorri zen jende urria ikusita, antolatzaileak egurrezko eserleku tolesgarriak gordetzen ari ziren, disimulurik gabe. Gloriak puztuta zituen begi-niniak.

- Tira, neska, ezta David Bowie balitz ere...

- David Bowieri buruz gehien dakienetako bat baduk behintzat.

Josep Ramoneda zen aurkezpen lanetan, bere termita-ahots sarkorrarekin. Lazkanok maite zituen haren irrati-iruzkinak, inoiz hura aurrez aurre ikusi gabea zen arren. Vichy ura edan eta katalanez agurtu zuen publikoa Heiner Stachelhaus profesoreak, bertaratutakoei eskerrak emanez, gero alemanez segitze-ko. Aldibereko itzultzailea oso ona zen, nahiz eta paperetik irakurtzen ari zela gehiegi nabaritu.

«Gangster baten eta pailazo baten arteko gurutzaketa zen Beuys. Kapelua, gabardina, itxura erkina, ekintzarako grina aseezina. Badago halako jendea, atsedetik hartu ez eta ahitu arteko lanak sosegua ematen diona, nekea bera gasolio bihurtzen duena: «Indar-xahutzea bera da nire energia», esan ohi zuen Joseph Beuysek».

Sotorekin akordatu zen Lazkano. Halakoxea zen bera ere, goitik behera. Hura ari zen deskribatzen.

«1921eko maiatzaren 21ean jaio zen Beuys, Krefeld herrian, Dusseldorfetik gertu. Batxilergoa amaitu aurretik urtebete pasatu zuen harat-honat, zirku batean laguntzaile: igeltsero, giza iragarki eta animalia

zaindari lanetan. Zerbait normala bailitzan onartu zuen gazteria hitlertarretan bete beharreko zerbitzua, bai eta gerran soldadu izan beharra ere. Patuan sines-ten zuen...».

- Hire aita gonbidatu behar geninan, Gloria.

- Isilduko al haiz?

«Posenen irrati-telegrafista heziketa jaso ondoren, gerra-pilotu gisa trebatu zuten, Erfurten lehenbizi eta Königgrätzen gero. 1943ko neguan Krimean izan zuen istripuak markatuko zuen bere geroa. Aire-erasoen kontrako kanoi errusiar bateria bat bonbardatu os-tean, igoerako maniobran altuera hartu aurretik, tiro-katu egin dute berak pilotatzen duen Ju 87 hegazkina. Pronostiko guztien kontra, Beuysek eta bere kideak hegazkina etsaien lerroetatik bestalderaino eramatea erdietsi dute. Haatik, altimetroak huts egin die eta lurrera amildu da hegazkina elur ekaitzaren erdian. Lurra jo ondotik, Beuys hegazkinetik kanpora jaurtikia izan da, eta hegazkinaren isatsaren pean harrapatuta geratu. Bere laguna hilik dago. Nomada tartariar talde batek hegazkinaren hondakinen artean aurkitu eta harekin eramango du, larriki zaurituta: zortzi egun luzez zainduko dute euren kanpamentuan. Zauriak animalien gantzarekin igurtzi dizkiote eta feltroz bildu

dute Beuys, haren gorputza bero mantentzeko. Esnea, gatza eta gaztanberarekin elikatzen dute. Alemania-
rrek erreskatatu ondotik, frontera bidali dute berriz, mendeku gisara, zenbaiten ustez, hasiera-hasieratik ez baita diziplina militarra ongi egokitu. Beste lau aldiz zaurituko dute borrokan eta dominaz josiko. Degradatu ere egingo dute, birritan, diziplina ezagatik. 1945ean britainiarrek preso hartu zutenean, sakaila-tuta zeukan gorputza».

- David Bowie, osoko heroia... -xuxurlatu dio Lazkanok Gloriari.

- Eutsi mihiari, Diego.

«Fluxus taldearekin batera egingo dituen ekintzetan, jende asko suminarazten duten emozioak probokatzen ditu: detergente hautsez bete ondoren motozerrek birrintzen dituen pianoak, bihotza zuzenean erauzten dien animalia hilak, gantza, telebista ñirñir-kariak, oiher primitiboak, danbatekoak... askotariko erokeriak. Gehienetan, jendeak ez du Joseph Beuys egiten duena ulertzen, baina bost axola zaio berari. Trantze betean egiten ditu bere ekintzak.

«1954an, bere emaztegaiak, Beuys baino askoz ere gazteagoa eta Dusseldorfeko postetxeko langilea berau, ezkon eraztuna bueltatu dio. Depresioaren

malda beheran sartuko da Joseph Beuys; lagunek leihotik sartu behar izan zuten haren etxera hura erreskatatzera, eta ilunpean topatzen dute: «Disolbatu egin nahi dut» esaten die, ahots-hari ahul batekin. Lurrean, marrazki apurtuak. Kutxa bat eginarazten dio Krefeldeko arotzari, hura breaz estali eta bere burua bertan «lurperatzeko» intentzioarekin. Depresioa purifikazio bezala ulertu eta aurrera aterako da, azkenean.

«Koiotearekin bere interbentzio ospetsua egin aurretik ere, harreman berezia izan zuen beti animaliekin. Horren lekuko, *Eztizko lehergailua lantokian* obra. Rudolf Steinerrek bezala, erleak miresten zituen, antzinako animalia sakratuak zirelako: «Sakratuak, erleen patuak adierazten duelako zein izango den giza-kiaren patua... Erlearen argizari puska bat hartzen dugunean, zer daukagu esku artean, izatez? Odolaren, giharren eta hezurren nahasketa bat»».

- Gloria...

- Zer duk orain?

- Badakin erleak desagertzen ari direla aspaldion, ezta? Ez zakiten zergatik, baina desagertzen ari ditun...

- Isilduko al haiz behingoz?

«Baina animalia batekin baldin badu lotura estua Beuysek, erbia da animalia hori. «Ni ez naiz inolako gizakia, erbia naiz» adierazi zuen behin. Ondorioz, *Nola azaldu koadroak hildako erbi bati* ekintza gauzatuko du Dusseldorfeko Schmela galerian: erakustaretoan batetik bestera dabil hildako erbiarekin, aretoan zintzilikatutako koadroak hari azalduz, samurtasun eta kontzentrazio handiz.

«Beuysek dioenean gizaki guztiak direla artistak, ez du esan nahi gizaki bakoitzaren baitan margolari bat edo eskultore bat dagoenik, baizik eta gizaki orok duela sormenerako gaitasuna, eta gaitasun hori aintzakotzat hartu eta hobetzen saiatu behar dugula. Sormena askatasunaren zientzia da beretzat.

«Bere ekintzen izate xamanikoa asko azpimarratu den arren, Beuysek ez zituen bere pentsamendua eta ekintza antzinako egoeretara itzultzeko erabili nahi izan, baizik eta etorkizunera begirako zantzuak bilatzeko. Ukaezina da, bestalde, xamanaren ezaugarriak zituela, baita kanpotik begiratuta ere: Beuys arrantza-txaleko batekin, feltrozko txapel batekin eta alkandorra zuri batekin janzten zen beti, blujeanekin batera.

«Zer da xamana, finean? Xamana ez da gaixo bat bakarrik: bere burua sendatzeko gaitasuna duen gaixoa baizik.

«1967ko ekainaren 2an, Pertsiaiko Sha-ren bisita dela eta antolatzen den manifestaldian, Benno Ohnesorg ikaslea hil dute Berlinen. Handik hogeai egunera, Joseph Beuysek Ikasle Alemaniarren Alderdia sortuko du. Bere arima zirikatzaileak ez du mugarik: «Nirea munduko alderdirik handiena da, bere afiliatuetako gehienak animaliak dira». 1971n, Dusseldorf inguruko baso batzuetan egitekoak diren tenis zelaien kontrako protesta arrakastatsua antolatuko du: erratz erraldoekin *garbituko* dute basoa.

«Joseph Beuysen lana estuki loturik dago Kasselen ospatzen den Documenta jaialdiarekin: 1982ko Documentan, bost urtetan zazpi mila haritz landatzea proposatzen du, hiri batean sekula egin den interbentzio artistikorik eraldatzaileenetakoa, ziurrenik».

Atezuan jarri da Lazkano: 80ko hamarkadara doa-
kio oharkabean burua. Beuysek haritzak landatzen dituen bitartean, gauzak gertatzen zaizkio berari: Soto eta Zeberio ezagutzen ditu, Idoiak utzi egiten du, Anarekin bizitzen hasiko da aurki, atxilotu egingo dute eta torturatu, ihes egingo du, Lena ezagutuko du Lillen...

«Beuysek aldarrikatzen duen gizarte aldaketa bortxarik gabea da: «Bortxarik gabea, ez orain bortxak, zenbait arrazoi tarteko, eraginkor eta arrakastatsu izateko aukerarik ez duelako, baizik eta giza moral espiritualagatik eta arrazoi politiko-sozialengatik. Bate-tik, gizakiaren duintasuna pertsonaren bortxaezinta-sunarekin lotuta dagoelako eta hau ahazten duenak abandonatu egiten duelako giza izaeraren esparrua. Bestalde, eraldatu nahi ditugun sistemak pentsa dai-tekeenik eta modu guztietan adierazitako bortxaren gainean egituratuta daudelako. Horregatik, edozein bortxa adierazpenek, sistemaren portaerarekin bat datorrenez, ahuldu ordeztatu egiten du deusezta-tu nahi duen hori»».

- Asko falta al da, Gloria?

- Alde egin ezak nahi baduk, ni hemen geratuko nauk.

«1964an Beuysek Berlingo harresia bost zentime-tro altuago egitea aholkatu zuen, probokazio gisara, hartara askoz ere proportzio hobea izango zuelakoan.

«1969an, belarra jaten ari zen zaldi zuri batekin konpartitu zuen eszenatokia...».

- Napoleoni buruz ari al da?

- Hoa antzarak ferratzera, Lazkano.

««Artista eta gaizkilea», zioen Beuysek, «bidai-deak dira biak, biek baitute sormen zoroa, biak dira moralik gabekoak, askatasunaren indarrak baino ez ditu bultzatzen». Ez dira, jakina, hitzez hitz hartu behar Beuysek erranak... Probokazioa dago hor ere.

«Baina 1974an New Yorkeko René Block galerian gauzatzen duen ekintzak garbi uzten duen bezala, Beuys ez zen probokazioarekin bakarrik konformatzen. *I like America and America likes me* izena du ekintza honek eta Beuysez aparte badu beste protagonista bat ere: Little John koiotea. Artista alemaniarren ekintzarik ezagunena eta komentatuena. Feltrozko alfonbra batean bilduta heldu da Beuys JFK aireportura. Ohatila baten gainean etzanarazi eta arte galeriara eraman dute anbulantzian, AEBetako lurrik zapaldu gabe. Han, zain du Little John koiotea, lasto artean. *Wall Street Journal* egunkariaren ale pila dago bertan eta feltro zatiak ere bai. Bastoi bat dauka, bere betiko feltrozko kapeluz aparte. Lurrean esertzen da, koiotearekin mintzo. Beuysek bere burua estaltzen du feltrozko oihalarekin, bastoiaren punta baino agerian geratzen ez dela. Koioteak feltroari tira egiten dio orduan, urratu egiten du oihala. Egunek aurrera egin ahala, Beuys da lasto artean dagoena; feltro eta egun-

karien artean koiotea. Noiz edo noiz, Beuysek «musika» egiten du lepoan zintzilik daraman triangeluarekin. Hiru egunen buruan, elkarrekin bizitzera ohitu dira. Beuysek estuki besarkatzen du Little John koiotea hura agurtu aurretik. Animaliarekin konpartituen lekuan lasto eskutadak barreiatzen ditu. Etorri den modu berean bueltatuko da JFK aireportura, ambulantiara sartuko dute ohatilan etzanik, feltroz bilduta, lurra oinekin zapaldu gabe, eta badoa New Yorketik eta AEBetatik, hirian koiotearekin partekatutako espazioa beste ezer ikusi gabe.

«Solomon R. Guggenheim museoaren gonbita onartu eta, bere lagun min eta ezagunen harridurarako, kabiara, Cadillac eta luxu garestiekin zaletuko da. Thomas Messer, garai hartan New Yorkeko Guggenheim museoak zuen zuzendariak, honela interpretatu du Joseph Beuysen jarrera aldaketa: «Beldur nintzen Joseph Beuysi Guggenheim museoa triskatu eta desgitea, bere ikuspegitik, berealditako artelana zela ez ote zitzaion burutik pasatu... Zorionez, egun batetik bestera bere jarrera aldatu zuen, nahikoa teatro egin zuela jabetu izan balitz bezala derrepente...».

«Eva emazteak esan ohi zuen, Beuys hilik egon zela beti. *Beuys* deitzen zion senarrari andreak, eta

Wenzel eta Jessyka seme-alabek ere ez zioten aitatzko edo aita esaten, baizik eta *Beuys*, beti. «Bizitza guztia hilik egon zen», esan ohi du Eva Beuysen, «baina aldi berean beti egon zen oso bizirik. Beuys ez zen eguraldiaz kexatzen sekula, beti esan ohi zuen: edozein delarik ere, ona da eguraldia».

«Napoliko Museo di Capodimonten egingo du bere azken instalazioa, 1985eko abenduaren 23an. Hilabete geroago hilko da.

«Arraroa oso, Joseph Beuysen mamua han eta hemen gehiago ez agertzea. Litekeena da gaur arratsaldean Ravaleko horma batean ikusi eta Beuysen ere sinatuko lukeen pintada horrek arrazoi izatea: «Pentsatzen dut, beraz, soberan nago». Akaso gu gara Beuysen besoetan dagoen hildako erbia, eta oraindik ez gara enteratu.

«Mila esker denoi».

- Ez dion autograforik eskatuko? Heiner Stachelhaus handia dun!

- Hoa pikutara, Diego... Azken aldia duk hitzaldi batera hirekin natorrena.

Gau giro ona egiten zuen Bartzelonan eta terrazaren batean afaltzea merezi zuen arren, lihozko mantelak zituen leku isil bat hautatu zuen Gloriak.

- Ziur afaldu nahi dunala? Nik aseta ikusten haut.

- Aspaldian asko miretsi nian Beuys, beti izan duk nire idoloa, baina urteotan ahaztuxea izan diat, egia esan. Zoragarria izan duk, nahiz eta bonbillarena kontatzea ahaztu...

- Erabaki dute jaun-andreek zer nahi duten?

Escalivada eskatu dute hasteko, eta muxar handi bat, erdi bana. Edateko ardo zuria, jakina, kamareroari nahi zuena aukeratzeko esanez, Penedeskoa izatekotan. Muxarra ateratzerako eskatu behar izan dute bigarren botila.

- Estufa bateko hodia buxatuta zeukaan nonbait, eta bera aulki baten gainera igota hura garbitzen saiatu: oreka galdu zian eta itzelezko bizkarrekoa hartu. Halakoa izan zuan kolpea Dusseldorfeko ospitalera eraman behar izan baitzuten. Etxera itzultzean, bonbilla gorri bat jarri zian etxeko jangelan: «Esna egon beharra dago beti» esaldiarekin.

- Galdera-tartea baliatzea besterik ez heukan, anekdota hori kontatzeko...

- Ez nauk hi bezain exhibizionista.

- Heiner Stachelhausen konplizitatea irabazteko modua izango zunan... Akaso anekdota horixe zunan Ramoneda eta Stachelhausen konpainian afaltzeko

hire giltza! Bi arrain handirekin egongo hintzen hartara, München hire lanak erakusteko kontaktuak egiten, eta ez bi muxarrekin orain hagoen bezala!

- Hoa pikutara.

- *Hoa pikutara, hoa pikutara...* Ez al dakin besterik esaten? Heure burua errepikatzen ari haiz, eta hori ez dun bizitzeko modu sortzailea, ez litzaioken gustatuko Beuysi!

- Oker hago: xamanak errepikatzaile hutsak izan ohi dituk. Errepikapena duk trantzearen giltza: *Hoa pikutara, hoa pikutara...!*

- Gehiago gustatzen zaidan: «*Esna egon beharra dago beti*». Edo: *Heiner Stachelhaus, Heinerstachelhaus, Heinerstachelhaus...* Ez al dun izen ederra? Ez al dun abantaila berealditakoa halako izen bat? Ez al zain iruditzen izen horren jabe izan eta jendearen barrailezurak hitz horiek esatera behartzeak konexio neuronal konplexuak eragiten dituela halabeharrez? Hizkuntzak eskulpitzen gaitin gu eta ez alderantziz!

- Ez genian bigarren botila hori eskatu behar, Lazkano. Hordi hago.

«*Esna egon beharra dago beti!*».

Logurak jota zegoen Lazkano. Muxarrak, ordea, ardo zuritan igeri, grabitatea eta beruna kentzen ziz-

kion gaueko nekeari. Hurrengo egunean ajea izango zuen, baina Beuysek hori eta gehiago merezi zuelakotan, energia xahutzen segitu zuten berbetan, grappa di Trentino baten atzetik bestea edanez, indarrak eta sosak ahitu zitzaizkien arte.

Balantzaka heldu ziren biak etxera. Sofan etzan zen Lazkano, zapatarik erantzi gabe.

- Ez duk nire ohera etorri nahi?

Diego Lazkano, altxatu eta Gloriaren ohean etzanda.

- Et, et, et... Zapatekin lo egitea debekatua.

Zapatak eta galtzak kendu dizkio. Gero, barruko arropa hutsean geratu da Gloria: beltzaran dago, terrazan eguzkia hartzean bainujantziak zuriune gutiziat-suak egin dizkion arren han eta hemen. Lo egin izan dute horrela lehenago elkarrekin, sexurik gabeko ohaide, baina urte asko iragan dira. Nondik heldu badiuen emakume hori bere neskatila plako eta erkinen kanonetik urrun egonagatik, kanon hori aldatzen hasi zaiola jabetu da Lazkano. Bitxia nola mudatzen diren gustuak urteekin.

Gloriak ipurtaldea estutu du Diegoren hankartearen kontra, bi oihal geruzen azpian haren zakilaren erreakzioa sentituz.

- Oraindik arnasa hartzen dik -gaztigatu dio Gloriak, sexuarekin zerikusirik ez duen tonu lasaian.

- Motiboak ematen dizkiotenean -erantzun du Lazkanok, eta Gloriaren gerria besoekin inguratuta lokartu da, hurrengo goizean jaikitakoan, biak aldi berean lokartu izanaren sentipen baketsuarekin jaikitze-ko.

- Ez diok inoiz galdetu heure buruari zergatik ez dugun sekula larrutan egin?

- Lagun onak garelako.

- Horrexegatik, hain zuzen...

- Bartzelonara etortzen naun etxean emakumeekin asmatzen ez dudalako, eta hirekin oheratzea nahi dun? Norengana joango naun gero ihesi hi nitaz enkapritxatu eta gainetik kendu ezinda nabilela esateko?

- Hain banidosoa haiz... idazlea ematen duk. Alkoholik gabeko larru pasara batek, ez al hau kitzikatzen?

- Ajea pasatzeko?

Gloriak bere hatz moztakak jarri zituen Lazkanoren hankartean.

- Arnasa hartzen dik oraindik.

Irribarre lagunkoi hari, eta klima harekin, zertan esan ezetz. Gezurra zirudien hiri handi bateko terrazan zeudenik ere, hots txikienik ez zen Montjuic altzoko etxe hartan sentitzen, txepetx eta buztanluzeen kantuz haraindi. Gloriaren izter zabalaren barruko aldean jarri zuen Lazkanok eskua, hatz puntekin bilatuz. Alkandorako botoiak askatu eta saihetsak laztandu zizkion Gloriak, hatzekin eta ezpain axalekin. Sekula pentsatuko ez zuen modu batean galarazi zion burua lepoan egin zion lehen koskak. Guraize-aulki egurrezkoetan eserita zeuden biak, eta Gloriak berea utzi zuen barruko arropak erantzi eta Lazkanorenak orkatiletaraino jaisteko nekerik hartu gabe haren zakil-palanka gomaren bestaldetik ateratzeko. Gainean eseri zitzaionean, brusatik bularrak atera eta titietan murgildu zuen Lazkanok burua, zurezko aulkia bertan erori eta apurtzen ez zelako harrituta. Gloriak denbora hartu zuen zakila laztandu eta pubisaren kontra igurzteko. Bat egin zuten bien ahoek. Estuagotu egin zen Gloria Diegoren kontra, honek ipurmasailetatik heldu eta aldeetara tiratzean. Gloriaren erreteneko lurrina sakona izan zen istant batez. Bere gainean zamalkatzen zela, orgasmotik urrun kokatzen zen ongizate ikaragarria sentitu zuen Diegok, eguzki izpiek

izter biluzietan kilima egiten ziotela. Hiruzpalau minutu egon zen horrela, haren barruan, eta Gloria orgasmoa harrapatzeko bidean aurrea hartzen ari zitzaiola jabetutakoan soilik hasi zen bera ere gerriarekin kolpeka.

Pozeko barre zantzoen antza zuten Gloriaren arnas hots eta azantzek, eta estasia eta barrea sekula elkarrekin parean jarri behar ez diren bi plazer euren kasako, autonomo eta inpreszindible zirela iruditu zitzaion arren beti ordura arte, biak aldi berean eman zitezkeela ikusteak liluraz bete zuen Diego. Hitz lizunak entzutea baino hobea zen gozaldi hura, edo agian zerbait berria eta ustekabekoa izan zelako egin zitzaion hain gozagarri.

- Ez daukagu zertan ezin errepikatu...
- Eta hirekin maitemintzen banaun?
- Hara, arriskua ni maitemintzea zela uste nian.
- Humanoa naun ni ere.
- Oker hago: idazlea haiz, deabrua beraz. Trena galduko duk. Ondo egin etxerako bidea eta ez deitu iritsitakoan.

Bihozkada bat izan du Gloriak atea ireki ez diotanean.

Oraingoan zuzenean hots egin du Eixampleko komisaldegira.

Asmatu du. Bingo.

- Epailearen aurrean deklaratu eta kartzelan pasatu du gaua.

- Komisaldegian?

- Ez: *kartzelan*.

- Kartzelara bidali dute? Belarra pasatzeagatik?

Poliziak hasperen egin eta norekin mintzo den jakin nahi izan du.

- Haren ordezkari legala zara? Familiakoa?

- Ez... Adiskide bat.

- Kasu horretan ezin dizut ezer gehiago esan. Sentitzen dut.

Azkar pentsatu behar du Lazkanok:

- Aizu, bere senargaia naiz... nolabait esateko... Ez dauka beste inor.

- Epaitegietatik pasatu, abokatu batekin. Komeni zaio.

Izen-deiturak eta karnetaren zenbakia eman behar izan dizkio epaitegiko idazkariari hark konformidadea eman aurretik.

- Yago Lascano?

- Ez, Lazkano: Diego Lazkano.

Izerdi hotza sentitzen du bizkarrean. Leku haiek, jende hura.

- Noiz askatuko dute... duzue?

- Defcondos bat da...

- Barkatu?

Lazkano ez dago polizi-jergaren jakinaren gainean.

- Defcondos... Ez dela lehen aldia.

- Baina belarra da, ezer gutxi.

- Berrogeita hamar estasi dosi atzeman dizkiote.

Eta aurrekariak dauzka.

«Zuek gaizki bukatuko duzue».

«Ez espero kartzelara joatea zuek ateratzera».

«Abokatua ordaintzeko gaudek ba».

Afaldu aurretik lortu du Gloriarekin aurrez aurrekoa.

- Zertan habil, Gloria?

- Negozio eredu berriak, badakik... Argindarra ordaindu beharra zagok.

- Ez huen nahikoa eskarmentu hartu aurrekoan?

- *Aurrekariak* ditudala ziotek. Marihuanagatik...

Baina orain ez duk maria izan, ez? Pentsatzen nian ez

zutela belarrak eta pastillek berdin kontatzen. Gainera... aurrekariak ez al dira ba iraungitzen?

- Ez hiru hilabetetan, Gloria.

- A...

- Nondik atera dun estasia?

- Jendeak jendea aurkezten dik eta jende honek jende gehiago. Ez duk hain zaila ere. Zer ba, interesatzen zaik?

- Ez dun txantxetako kontua. Aitari deitu dion?

- Fatxa horri? Ez. Ez zakik ezer.

- Hamar mila euroko fidantza eskatu dute oraingotan.

- Hamar mila! Jode...

- Prest nagon erdia uzteko nahi izatera... baina hamar mila lortzeko egun pare bat beharko ditinat.

Lur jota geratu da Gloria. Ez zuen hain fidantza gizona espero.

Hitz egin nahi ez duen harekin hitz egin beharko du berriz ere. Puzten ari da zor dion mesedea. Eta badaki interes eta guzti kobratuko diola.

- **Erromako** erakusketa ez duk atera.

- Sentitzen dinat.

- Berdintsu izango duk, azkenean, ez nagok hain seguru instalazioek funtzionatzen ote duten ala ez.
- Ez zagon beste nonbait egiteko aukerarik?
- Ez, ez diat uste. Trukean, badiat beste notizia bat ere... Lotsa ematen zidak... Txekhoven antzezlan bat zuzentzeko eskatu zidatek.
- Txantxetan ari haiz...
- Garai zaharretan bezala. Eta garai zaharretako prezioekin.
- Antzerkia gorroto *genuela* uste ninan.
- Txekhov Txekhov duk, ez? Gainera, *Platonov* taularatu nahi ditek, karamelu bat.
- *Platonov*? Ez dinat ezagutzen.
- Bere lehen antzezlan. Antologia batzuetan ez duk agertu ere egiten, Txekhovek erdi uko egin ote zion esaten da. Izatez, auzitan zagok erabat amaituta ote dagoen ere.
- Askatasun osoa daukan nahieran zuzentzeko?
- Bai eta ez. Bakarrera ekarri beharko ditiat jatorrizko lau ekitaldiak. Konpainiakoez zerbaitek berria egin nahi ditek... Proba-saioetarako lokala, etxea Aldamar kalean... Dena jarriko zidatek. Aita duk traba bakarra.
- Hire aita? Berak jarri din dirua, ala?

- Dirua jarri eta zuzendariaren izena proposatu. Zer iruditzen? Berriro ere aitaxoren marasma-sarean. Gainera, lagun zahar bat kolokatu nahi zidak aktoreen artean, bere filatelia taldekoa... Gaixorik dagoenetik xantaia guztiak onartzen zizkioat.

- Ez zaidan ordaindu beharreko hain prezio garestia iruditzen. Sarriago ikusiko dinagu elkar, badun zer-bait. Zergatik galdu halako aukera?

- Nire frakasoak gehiago dezepzionatuko hinduela uste nian. Zer eta Gloria, artista alternatibo anarkoa, aita frankistaren eskutik jaten, Victoria Eugenia antzokirako lantxoak zuzentzen, enkarguz...

- Ez zigortu heure burua. Beti berdina egiten dun: hi heu haiz herorren borrero.

- Ez al gara denok denon?

- Baliteke.

- Baiezkoa esaten badiot... Itzulpena oso txarra duk. Hik berriro itzultzea nahi nikek.

- Ez hori eskatu, Gloria.

- Faborez... Non topatuko diat errusiera dakien norbait?

- Erdi ahaztuta dinat. Urteak ditun ez dudala...

- Esan bi egun hartuko dituala pentsatzeko. Irakur ezak... Ale bat ekarri diat hiretzat.

- Ados, baina ez izan esperantzarik.

- Etorriko haiz behintzat estreinaldira, tramoia-soketan nire burua urka ez dezadan?

- Gorroto ditinat antzokiak.

- Baina ni maite nauk. Sakrifikatuko haiz nigatik, ezta?

- **Diego** Lazkano?

- Nor da?

- Interesa dakizukeen zerbait daukat.

- Norekin ari naiz?

- Demagun Javier Fontecharen partez ari naizela.

- Fontecha?

- Zurekin elkartu nahi du.

- Sentitzen dut, baina Bartzelonan nago.

- Bera ere bai, a zer kasualitatea.

Diego Lazkano izutu egin da: itzal bat jarri diote.

- Apuntatu helbidea.

Hotel bateko *halla* da. Zaratatsua eta turistaz betea. Belarrira hitz egin behar diote elkarri. Mikrofonoak saihestu nahi dituzte, agian.

- Oso sinplea da: uko egin deklarazioari eta zurea izango da karpeta.

Gauza asko nahasten zaizkio buruan: Zapoa, haren alaba Cristina, Idoia, Ana... Bitxia da, baina Soto eta Zeberiori gehiago kostatzen zaie oraingoan azaleratzen.

- Estatu terrorismoa egin zenuten.

Isilik geratu da Fontecha. Ez du inoiz baiezko bat hain ozen entzun Diego Lazkanok. Ez du, hala ere, inolako plazerik sentitu. Pena eta nazka besterik ez. Errukia, ia-ia.

- Buka dezagun behingoz.

- Errudun zinela aitortu duzu.

- Eta aitortu banu ere zer? Orainak errugabe egiten gaitu. Batzuetan gauzak egin egiten dira, eta gero etorkizuna etortzen da errudun zarela esatera. Ongi begiratzuz gero, ez da beti justua hori.

- Nirekin ez daukazu desenkusatu beharrik. Epaitegiek esango dute esan beharrekoa, aurrez hura erosi ez baduzue, jakina.

- Traturik ez duzula egingo esan nahi duzu? Ez zara aingeru bat, Lazkano... Jada eginda zeuden lanak hartu zenituen zeureak balira bezala... Gu errudun eginda zure erruak garbituko dituzulakoan?

- Ekarri duzu?

- Karpeta, epaiketa amaitutakoan.

- Hutsaren hurrengo zara, Fontecha. Patetikoa. Ez zara jabetu? Jada ez duzu ezer pintatzen... Zure partiduak ere baztertu egin zaitu... Ez dakit zer egiten dudan hemen zurekin hizketan. Ez dago hildakoak berpizterik. Ezin dizkidazu hil zenituzten lagunak bueltatu.

- Lagunak ez.

- Zer, orduan?

- Zer edo nor...

- Elkarrizketa honek ez dauka ez hanka ez buru.

- Esaten dizu zerbait Santiago Cervera izenak?

Atezuan jarri da Diego Lazkano. Espero ez zuen eszenatokia eta espero ez zituen aktoreak agertu zaizkio begien aurrean.

- Zure aitaren laguna. Konfiantzazko medikua.

- Ze zerikusi dauka Cerverak honetan?

Fontechak, apurka-apurka, kartoi-paper hutsez egindako txorimalo izateari utzi dio. Emeki-emeki mintzo da, bere bizitzako prentsaurrekoa ematen ariko bailitzan.

- Ofizio guztietan dago horrelako jendea, Lazkano. Jende iluna eta makurra, zaborrontziak miatzen tre-bea, era guztietako mesedeak egiteko prest beti. Zure

aitaren lagun hori, Cervera, Rodrigo Mesaren aldeko lekukoetako bat izango da.

Estonatuta geratu da Lazkano.

- Bai mundu txikia, ezta? Hezurrei begiratuta ikuspuntu neurologiko batetik torturatuak izan zirenik ziurtatzea ezinezkoa dela defendatuko du, esaiozu zure abokatuari kontuan hartzeko. Dallastik ekarrarazi dute espresuki, ikaragarri luzitzen du kanpoko ikerlari batek... Cerverak zor asko dauzka nonbait partiduarekin, ez galdetu zergatik. Frankismo garaian desagertutako umeen kontua, auskalo, tartean zegoela entzun dut. Heriotza ziurtagiri faltsuak, ez dakit oso ondo nola...

- Haur lapurtu horietako bat naizela esan nahi didazu?

- Ez, ez doa hortik kontua, Lazkano. Pentsatu apur bat. Ez zintuzten zu lapurtu. Beste norbait lapurtu zizuten, zuri. Zenbat urte dira aita ikusten ez duzula?

- Dementziak jota hil zen aita.

- Ziur zaude? Legez bai, baina dakizun bezala, legeak ere baditu bere tranpak.

Fontechak gutunazal bat luzatu dio.

- Ez noa hau negoziatzera, Lazkano. Jarrai dezala aurrera epaiketak eta bedi Jainkoak nahi duena... Ne-

katuta nago ni ere beti gauzak ezkutatzeaz. Maskarak erantztea zer den jakin nahi dut, azpian maskara gehiago besterik ez ditugula jakin arren.

Gutunazala zabaldu du Diegok. Gabriel Lazkanori buruzko txosten bat da. Gizon baten zuri-beltzezko argazki erre samarrak, lorategi bat ureztatzen: ez du inon kapelurik erantzten, klima hartara egokitu izan ez balitz bezala botatzen du izerdia. Benetan bere aita balitz, Diegok berak argazkiko haren antza izango luke hogeita bost urte barru.

- Ongi ikertu zaitugu, ikusten duzunez. Zu eta zure ingurukoak.

- Ez da posible...

- Ez da hainbeste ere aldatu, ezta?

- Nork...? Nondik atera dituzu argazki hauek?

- Mexikon dago.

- Ez da egia...

- Egiozu bisita, nahi izatera: txostenean duzu hel-bidea. Badakit honekin ez dudala zorrik kitatzen, baina jakizu, behintzat, gauzak ez direla batzuetan diruditena. Karpeta eskuratu nahi baduzu, badakizu zer testifikatu behar ez duzun.

Urpeko munduak

Garraio publikorik ez da heltzen haraino, ez urtearen sasoi honetan. Udako denboraldian, agian, baina asko falta da oraindik. «Ziur ez duzula auto bat alokatu nahi?». Hamaikagarrenez, ez. Horren ordeaz, Puerto Vallartako aireportuan autobus bat hartu du eta gero beste bat. Mismaloyan pasatu du gaua, denboraren nozioa erabat galduta, esna eta lo igaro dituen orduak elkarrengandik ezin bereizirik, klimaren hezeak loa eta esna-aldia ore berean nahasten dizkiola. Sei kilometroko bidea omen dago, Banderasko badia atzean utzi dutela berrogeitik gora joan direla esango lukeen arren berak, autoaren taximetroari begiratzuz gero. John Hustonek filma grabatu zuen bertan, «*La noche de la iguanagatik zatoz?*», galdetzen diote. Biribilgunean uzteko esan dio taxistari, «hondartzatik gertuen dagoen biribilgunean», zehaztu dio, baina goikoan utzi du. Oinez egin behar izan du hondartzarainoko bidea, gorakoan malda piko hark eragingo dion izerdia gogotik apartatu ezinik. Arrokarari koska kendu behar izan zioten bere garaian errepidea behearaino heltzeko, ia gorria da harkaitz ebakia, okela xerratu berria-

ren gisakoa. Eskailerak daude gero hondartzara jaisteko. Pazifikoa ganoraz ikusiko duen lehen aldia dela otu zaio, eta une batez okerreko bidea hartu ote duen begitandu, sasiek eta landareek estalitako harmailak baitira eskailerok, jende gutxik erabiliak itxuraz. Jendea autoz jaitsiko da edo motorrez. Edo agian batere ez da jaitsiko, antzeko mila txoko izan behar ditu kostaldeak, aspertzeko lain. Harmailen saihets batean, miniaturazko hilobi azteka baten erreplika ikusi uste izan du, sastrakek hartua. Aztekek hemen? Bere ezjakintasuna aitortu beste erremediorik ez du izan. Baina zuloa ikusi du gero eta ohartu da, bai zera aztekek, abandonatutako mini-golf bat dela, bere arranpatxoekin eta bere kiribilguneekin, pilotak aise gainditzen dituen minilabirintoz osatutako mini-golfa. Huts egindako *resort* turistikoa, beraz, batek daki noiz eta zergatik. Hondartzatik gertuen dagoen etxea, esan diote, eta bizpahiru jo ditu begiz.

- ¿El güero Juan? El señor Bicho vive no bien alcance usted la playa.

El Sr. Bicho. Zamorroa. Txomorro zorrotz. Mozorroa. Zomorroa. Juan. Joan. Zein ondo asmatzen duen jendeak goitzenekin, miretsita geratu da Lazkano. Harriz eta kaktusez osatutako lorategitxo txukunei

jarri die arreta, harrietan eta loreetan bailegoen identifikazioaren giltza.

Soropil berde-berdea, ingurukoak baino hagitzez zainduago. Kanaberak etxeko leihoak kanpotik ez ikusteko moduan estaliz. Gotorleku itxurarik eman gabe sortu du ezkutaleku egokia. Arrosak ureztatzen ari da gizona, lastozko kapelua buruan, praka motzak, txankletak. Hormara begiratzean euli mardul bat ikusi du Diegok karean bele eginda: begiak gorri-gorri eta bizkarra marra paralelo urdinez zeharkatua, Torinoko Juventusen kamisetaren gisara. «Euliak ere dotorea-goak dituk hemen», pentsatu du.

Denbora-pasako galdera: gai zinateke aita galdua ezagutzeko bizkarrez eta loreak zaintzeko duen maneiuagatik? Hura ikusi gabe urteak igaro diren arren, aise ezagutu du, mangerari eragiteko moduagatik, giza aspertsore mekaniko baten pare. Halaxe banatzen zuen pozoia baratzetan, Diego haur zela.

Dezenteko tarte egin du hari begira. Patioan aulkiak dauzka ipurdiz gora: haiei lixa-papera pasatzen hasi da. Hipnotikoa egin zaio lixaren karraka, hunkitu egin da ia aitak garai batean zuen brikolajerako kuida-berdina duela jabeturik. Zerbait ureztatzea ahaztu balitzaio bezala, mangera hartu du berriro lixa utzita.

Jiratu eta handik hanka egiteko tentazioa izan du Diego Lazkanok.

Baina desagertzea, hori ez dago barkatzerik. Ezta norbere buruari ere. Ez, bera ez zen aita bezalakoa.

Lazkanok desagerraraziak zeuzkan buruan. Desagerraraziak izan zituen gogoan urte luzetan: egunero, gauaren erdian, txortan ari zenean, idazten, ametsetan, plazer masturbatorioak eteten, desagertuak beti, nonahi eta noiznahi, supermerkatuko apalategi alkoholikoetan haiei bizkarra ezin emanda, zer aukeratu ez zekiela. Ez zen norbere kabuz desagertzea inola ere haizu, nola bada? Soto eta Zeberio, bi desagertu bazituen lehendik ere buruan eta gero aita desagertu zitzaion, ez modu zentzuzkoan orain zekienez, ez gaitxotasunak jota, baizik eta etxekoen lepotik eta haien abandonuak eta sufrimenduak batere axola gabe, estekak oro hautsita bizimodu berri bat hasteko desagertu. Ez, hura ez zegoen barkatzerik.

Nola zuzenduko zitzaion aitari? Zer izen edo izen-goiti erabiliko zuen, «arratsalde on aita» esan behar-ko ziokeen, beharbada?

Señor Bicho? Güero Juan?

Ez, horrelako ezer ez.

- Egia zen, orduan.

Mangera berdearen xirripa agortu egin da, Diegok aita txorrota ixten sumatu ez duen arren.

Horixe esan dio: «Egia zen, orduan».

Jiratzeko une bat hartu du aitak, ezuste-aurpegia mudatzeko denbora doia, auskalo. Agian lehen egunetik bertatik espero zuen bisita hura. Espero baino gehiago: ezkutuki desio. Ez baitago ezkutatuarentzat aurkitua izateko izuari gain hartzen dion ezer, ezpada sekula aurkitua eta sekula bilatua ez izatearen izua.

- Diego...!

Gogor plantak itxuratu nahi izan ditu Diegok, eta asko kosta arren, lortu du gogor plantari eustea. Aitak ez du gerturatzeko keinurik egin. Mangera berdea eskuetan du oraindik, bospasei metro soropil bien artean. Harritu egin da Diego zakurrik ez egoteaz.

- Hementxe garbitu behar zintuzket, paradisuko zure partzelatxoan.

- Ongi merezita, ez nauk hori eztabaidatzen hasiko.

- Nola ausartu zinen?

- Eseri mesedez, utzi begiratzen... Gazte hago oraindik... Hartuko duk zerbait edateko? Zer moduz zagok Josune...?

Etxearen izena ikusi du orduan Diegok: Casa Morel.

- Badakik zergatik aukeratu nuen leku hau? Izenagatik: *La invención de Morel*, ezagutzen duk Bioy Casaresen liburua, ezta?

- Literaturaz mintzatzera etorri naizela uste duzu?

- Zer besterik dago bizitzan, literaturaz aparte?

Heure elkarrizketa bat irakurri nian aspaldi ez dela, sarean... Horixe esaten huen, gutxi gorabehera.

- Txantxetan ari zara?

- Txantxa infinitua duk bizitza.

- Ez iezadazu hika egin...

- Zuka, orduan.

- Ez zitzaizun beste modu hoberik bururatu?

- Nahiko orijinala izan zela esango nuke.

- *Orijinala?* Hori da bururatzen zaizun hitzik zehatzena?

- Zu zara idazlea, esadazu zuk.

- Ama, Josune, ni... nobela merke bateko pertsonaiak garela uste duzu?

- Nobelarena pasatzen utziko dizut, badakidalako zuretzat garrantzitsua dela fikzioa. Merkearena aldiz, ez dizut barkatzen. Nonbaitetik datorkizu idazle bokazioa, ala?

- Aktorearenak gain hartzen dio zure kasuan. Inpostore bat zara, putakume bat.

- Et, et, et... Zure aita naiz oraindik, ez nizun nik erakutsi horrela hizketan. Errepara diezaiogun mamiari, hori da inportanteena: istorioak asmatzearena geneetan daramagu biok. Gezurrezko bizitza hitsa neraman, zerotik hasi nahi nuen, zuen amak ere bizimodu berri bat izan zezan.

- Eskuzabala zarelako egin zenuen...

- Nondik begiratzen den. Berekoia izatea norbere buruarekin eskuzabala izatea da. Eta pentsatu nahi dut nire buruarekin bakarrik ez, gainerakoekin ere eskuzabal portatzen jakin izan dudala.

- Dibortzioa existitzen da!

- Paperak, epaitegiak, drama... Dibortzioa gauza itsaskorra da: berrirotik hasiko zarela ematen du, baina lika hori beti daramazu zurekin. Zerbait kontundenteagoa nahi nuen.

- *Drama* diozu? Paperak? Epaitegiak? Zureak ez dauka mugarik! Paperei buruz entzun nahi? Zenbat paper eta zenbat bisita egin behar izan ditugun epaitegietara, morgera, ospitaletara? Jakingo duzu hilik zaudela legalki...

- Hori zen asmoa.

- Ba al dakizu amak zenbat sufritu duen?

- Sufritu du, baina lasaitua hartu ere bai, esan egia. Badakit orain zoriontsuago dela. Arduratu nintzen bere pausoak segitzeaz, bestela ez nintzateke hain lasai biziko. Bere lasaitasuna ere bada nire lasaitasuna.

- Lasaitasuna? Nola eduki daiteke halako azala? Minbizia dauka... Valiumak hartzen daramatzen urteak ez aipatzearren...

- Sentitzen dut hori entzutea.

- Burutik zaude dementzia dibortzioa baino drama txikiagoa dela uste baduzu.

- Definitiboagoa. Sinetsiezadazu: posible da zero-tik hastea. Nik behin baino gehiagotan egin dut. Probatu behar zenuke inoiz.

- Angeles hura, Eivissa, egia zen dena, orduan?

- Pentsatu benetako idazle batek bezala, Diego: Angeles izena du baina Fuerteventurakoa zen, ez Eivissakoa. Iraun zuena iraun zuen, gero Mexikora etorri nintzen, bakarrik. Egiatik urruntzen gara, baina ez hainbeste. Egiatik asko urruntzen bagara harrapatu egiten gaituzte, egiatik batere ez urrunduz gero ere bai. Neurrian asmatzea da kontua. Poeren *Gutun eba-tsia*, agerian zegoen.

- No me jodas, literatura tailerrak ematen dituzu orain?

- Esango zizuten herrian: jakingo duzu honezkero esterminadore nabilela oraindik. Irakurle amorratu bihurtu naiz, hori bai. Aspaldi ez duzu ezer argitaratu...

- Hor atzean, biblioteka bat daukazu, nire liburuak eta guzti? Dedikatoria bat eskatzea bakarrik falta zaizu.

- Eskatzeko asmoa nuen.

- Eta noren izenean sinatuko dizut?

- Zer iruditzen, «lagun zahar bati»?

- «Hildako nire aita putakumeari», zehatzagoa izango litzateke.

- Jarri nahi duzuna, ez dut orain eztabaidatzeko asmorik. Denean arrazoia emango dizut eta gero bakean utziko nauzu.

- Tratua eta baldintzak ezartzeko egoeran zaude-la uste duzu?

- Proposamen bat zen. Prest nago zurea entzuteko.

- Eta zure andrea, non dago?

- Zergatik uste duzu badudala?

Gabriel Lazkano derrepente jabetu zen. Arrosen ondoan zeuden emakumezko arropak zintzilik. Bikini koloretsua. Barregarria berrogeita bost urte baino gehiago lituzkeen edozein emakumeren gorputzean.

- Benetan ezagutu nahi duzu?

- Argazkikoa al zen?

- Ez, ez zen argazkikoa. Argazkikoa Amsterdamen ezagutu nuen hegaldi-azafata bat zen. Angeles, esan dizut... Gonamotx horietako bat. Gau bateko gutzia. Fuerteventuran geratu zen hura... Haria galtzen ari zara, ulertzekoa da: ez da jende guztia sargori hone-tara ohitzen.

- Hementxe bertan garbitu behar zintuzket, nire eskuekin. Ito eta kito. Bakea.

- Zertarako, ordea? Pentsatu ondo: ni hil eta egia azalaraz dezakezu. Gutxiago sufrituko du amak? Gutxiago Josunek? Gutxiago zuk? Nork nahi du egia? Gauza zabarra da... Bizi zure bizitza eta poztu uste baino aukera gutxiago izango dituzulako hogeita hamar urte barru dementzia harrapatzeko.

- Cervera doktoarearena...

- Mesede bat zor zidan, beti dago ondo mesedeak zor dizkizuten lagunak izatea. Zintzoki: ez al zara zure zaharragatik pozten? Margaritak, eguzkia... Nire sa-

soiari ez dagozkion lantxoak egiten segitu arren, denbora motel igarotzen da hemen. Jendeak edozer gauzari esaten dio erretiroa: benetakoa nahi nuen nik.

- «Okerreko lekura etorri nauk»... Postetxean zakur alderraiarena jotzen, nola engainatu ninduzun?

- Paperean sartu nintzen.

- Amari esaten zenizkionak, nola izan zaitezke hain miserablea...

- Esan egia: gustatu egiten zitzaizun zure aitaren alderdi sinzero hura, desinhibitua, satiroa... Nik esandako esaldiak irakurri izan ditut hitzez hitz zure liburuetan: «Noiz utziko didazu berriz zure errapeetan korritzen, Angelines?».

Diego Lazkanok ukabila estutu eta aitaren sudurra kolpatu du, urte asko atzera eginez indarra biltzeko. Aita lurrera erori da, udako mahaia txikituz bere erortzean. Odola dario sudur-leihoetako batetik, Señor Bichori, Zomorro jaunari.

- Sudurra apurtu didak.

- Bizitza berri, sudur berri...

- Ados, umea, mereziko nian hainbeste... Orain, hoa. Hori duk tratua.

- Salatu egingo zaitut.

- Ez nauk salatuko.

- Poliziarengana joko dut.

- Ez haiz ausartuko.

- Apustu egin nahi? Poliziarengana joko dut, epai-tegietara, ez dut zu birrindu arteko bakerik izango.

- Ez duk egingo: ez haiz inoiz poliziaren laguna izan. Orain hasiko haiz harreman berri horrekin? Berandutxo, ala? Zeretik hastea baino erradikalagoa lukek hori. Gainera, zer polizia, Diego? Mexikokoa baldin badaukak buruan, nik uste baino pitzatuago hago...

Zorabiatuta sentitu da Diego. Bernizaturik dagoen aulki bakarrean eseri da, bernizatu berria dela ohartarazi diezaion baino lehen bere aitak. Itsatsita geratu da aulkian.

- **Urpekaritza** deskubritu diat Mexikon, probatu behar huke inoiz. Hor behean, arindu ederra hartzen diat ikusten dudan urpeko zomorroetarik bat bakarra ere garbitzeko eskatuko ez didatela jakinda... Beste modu batera bizi nauk hor azpian, Diego, beste bizitza bat topatu diat. On duk inork hirekin zorrik ez duen leku bat izatea. Hik inori deus zor ez dioan toki bat.

Diego Lazkanok urtegia gogoratu du. Nola miatu zuten alferrik. Nola bertan ez ziren agertu ez Soto, ez Zeberio eta ezta bere aita ere. Eta gero Zapoa oroitu du, abokatua, haren alaba Cristina: murgil gaitezen subjektibitatean. Murgil gaitezen.

- Urpean dena argiago ikusten duk, baita norbere burua ere. Ez dakik zer lasaitasun ematen didan arrainak eta koralak ikusi ahal izateak, mantarrainen joan uhintsuak, dena duk harmonikoa urpean, ez zagok abiadurarik, kamera geldoan bizitze hori, bizitza luzatzeko modu bat... Itsasora sartu eta begiak ixten ziztuen horietakoa ninduan ni, aukeran nahiago zeren gainean igeri egiten nian ez jakin. Begiak zabaldu eta mundu berri bat deskubritu nian arte, Diego... Probatu egin behar huke.

- Hori esan didazu lehen ere. Zeure burua errepi-katzen ari zara... Ziur ez zaudela dementziak jota?

Gabriel Lazkanori ez dio azken iruzkin honek bate-re graziarik egin. Aitaren ahulunea baliatu nahi izan du Diegok hizketan segitzeko, baina zaharrak hartu dio aurrea:

- Ironikoa litzateke, ezta? Lehenbizi antzestu egiten duzu eta gero antzesten duzuna egia bilakatzen da. Bizitzan askotan gertatzen da hori.

Ez zaio arrazoirik falta, baina Diegok ez dio aitari arrazoia emango, ezertan.

- Egun horretan urpera sartu eta bertan geratuko nauk. Atseginagoa duk eguzkiak argitutako hondo hareatsuetan hutsari begiratzea, uretatik kanpo hutsari begiratzea baino. Urpeko landaredia... hondarretan sortzen diren pubis erraldoiak dituk... urteekin sexua ez dagoen lekuetan bilatzen diagu sexua... jan-edanean, ikusmenean eta usaimenean... Urpean asko zagok horretatik.

Zapoa oroitu zuen Lazkanok, hark dutxa hotzei buruz zuen teoria. Zapoa eta bere aita ongi moldatuko zirela otu zitzaion. Baldin eta ez bazuen aitak hura esterminatzen, jakina: Zapoa ere zomorroa zenez, finean, eta ez itsaspekoa, zehazki.

- Zure bizitza berria. Miretsi egin beharko zintuzket lortu duzunagatik?

- Gogotik lan egin diat, ez uste. Zerotik hasteak baditik bere desabantailak: ezin izan diat erretiroa hartu. Zomorroekin jarraitu behar: mota guztietakoak zaudek hemen, etxe-jabeei ez zaizkiek gustatzen inurriak gosaritan. Alferrik duk, ordea, inurrien kontra borrokatzea: koitaduak ez dituk jabetzen ez direla inurriak sarkin geure etxeetan, gu baizik beraienetan.

Kaioenak eta zomorroenak ziren itsas-labar hauek, espekulatzaileak etekina ateratzera etorri arte. Eta, hala ere, ongi etorri zaidak niri zomorroekiko ezinikusi hau. Danimarkarrak, alemaniarrek, holandarrak... eskuza-balak dituk eskupekoak emateko orduan. Amerikarrak, eta haiek dituk gehiengoa hemen, ez hainbeste.

- Zomorroak akabatzen segitu duzu beraz, zure betiko bokazioa.

- Bokazioa ere ez niokek deituko, ez duk hirea bezalakoa. Baina bai, gai bat menperatzen duanean, izan bokazioz edo ez, kariñoa hartzen diok azkenean hire errutinari: karraskariak, intsektuak, mikroorganismoak, *psychoda alternata*, onddoak, *mus musculus*, *blatta orientalis*, *hofmannophila pseudospretella*... Arratoi beltzak *rattus rattus* edo *rattus norvegicus*... *Blattella germanica* labezomorroa, *ctenoccephalides canis*... Askok jantzen dik latinak, esku-orrian halaxe jartzen ditiat... *Periplaneta americana*, *musca domestica*, *lasius niger*... Horiek denak esanda Oxfordeko irakasle ematen diat, ez al zaik iruditzen?

Lazkanok gorroto zituen latinkeriak. Baiki, ondo moldatuko ziren bere aita eta Zapoa.

- Izen bat edo beste, ez dituk zomorroak baino... Eta esku-orrietan denak segidan latinez ipintzeak, ha-

lako lasaitasun bat ematen ziek bezeroei, bereziki latinezko izenaren ondoren plaga negatiboa edo lausoa dela ipintzen dugunean, horiek guztien artetik bat edo bi baino ez direla aurre egin beharrekoak etxe bakoitzean... batetik bostera, bikoia dela intzidentzia, salbu daudela...

- Horrela irabazi duzu soldata, horrela erosi zenuen etxe hau.

- Hutsetik hasi behar izan nian, zomorro asko akabatu etxe hau egiteko. Adreilu bakoitzaren truke zenbat ezabaketa...

- Tartean gu.

- Ez hain melodramatiko jarri.

- Egia da eta.

- Nik beti jarraitu izan diat hire lana, irakurri ditiat hire liburuak, internetez erosi izan ditiat, postaz iritsi zaizkidak. Lepoa egingo nitek postan utzi dudan arrastoak izan duela ni aurkitzearekin zerikusirik. Barragarria ere baduk, nondik begiratzen den, ez? Donostiako postetxeko bulego nagusian hasi zuan hau dena, liburu batzuk tarteko...

«Okerreko lekura etorri nauk». Diegok ez zuen zirkinik ere egin. Murgil gaitezen subjektibitatean.

- Harritu egin izan nauk nire semearen ibilbidearekin, aukeratu dituan bideekin, gutxi usteko genian hire amak eta biok... Nik ere kontatu nahi nikek nirearen berri: azaldu nahi nikek, adibidez, eta urte haue-tan guztietan ez diat izan nori azaldu, Toxikologia Institutuarekin dugun harremanaren berri, nola aldatu den zomorroak akabatzeko modua, inspekzio preben-tiboak nola egiten ditugun, nola gero bitarteko kimiko, biologiko, mekaniko edo pasiboekin konbatitzen dugun izurritea, nola etxe barrukoa eta kanpokoa be-reizten dugun ezer baino lehen... Inurriak, adibidez, oso setatiak dira...

Zertara dator inurriak etengabe aipatu behar hori? Gogoratzen ote zuen bere aitak hainbeste urte lehe-nago egin zion dei arraro hura? Zulo gaizto horietako-ren bat. Fumigatzea onena. Lagunak etxean. Habia handi samarra.

Ez, ezin zuen gogoratu. Diego kezkatzen hasi zen, bere aitak jakingo balu bezala zenbat eta nola gorro-tatzen zituen inurriak. Baina ez, bere paranoia zen de-rrigor, aitak ezin zuen ezer jakin. Inurriak, ingeniaria. Nola zaindu zuen berak zuloan, eta nola zaintza hura alfer-alferrikakoa izan zen azken buruan. Edo ez. Ez guztiz.

Badago zerbait, arroka tarte hark eragindako tiradizo bat, arropetan itsatsita daukan bernizaren lika, bertan geratzera behartzen duena. Bere aita aurkitu zuen eta bere aita onik zegoen, baina ez zen aitari barkatzeko gai. Izan behar ote luke? Estuegi jokatzeko ari ote zen? Ez, aitak egin zienak ez zeukan barkamenik. Ihes egin eta zerotik hasten saiatzea barkaezina izango zen jada, baina gaixotasun endekatzailea itxuratzeari, hura atzera bueltarik gabeko ankerkeria izan zen. Ez ziren ama, arreba eta bera fikziozko pertsonaiak.

- Nahi duk herrira laguntzea?

Aitak azken ahalegina egin zuen, alferrik. Diego Lazkanok deus esan gabe jarraitu zuen oinez, eta aitaren ikusmenetik aparte zegoela ziur jakin zuenean soilik atera zuen sakelakoa, taxi bat eskatzeko.

Hura izan zen bere aita ikusi zuen azken aldia. Esternatu egin zuen bere bizitzatik, hark beraiek lehenago esternatu bezala.

Mamuak bakean utzi behar dira, baita mamu bizi-dunak direnean ere, nahiz eta bazekien urtez urte, bere aitaren antz handiagoa hartuz joan ahala, haren itxura eta paraderoa irudikatzen jarraituko zuela, armairu batean gordetako Dorian Gray urpeko hark zein

itxura izango ote zuen kuriositatearekin, bere zahartzaroaren ispilu aurreratu hori gabe.

Lazkano harrapatuta zegoen. Ez zioten beste bideirik utzi. Edo Fontecharen tratua onartu, edo karpeta-
ren kontua azalera zedin utzi eta Fontecha eta bere gaine-
koak zipriztintzeko aukera urriak zituen epaiketa batean justizia egiteko azken egokiera probesten saiatu. El Cerro ezagutu zuen berak; ez zeukan, ordea, Fontecharen kontrako frogaz zuzenik, egiaz. Epaitegiak aipatu zizkion aitari, baina arrazoi zuen hark, aita ez zuen sekula epaitegietara eramango, eta izatez, Soto eta Zeberio-
ren epaiketan ere ez zuen testifikatu azkenean. Bakarrik utzi zituen Agirre Sesma eta bere alaba, akusazioaren lekukoetako bat azken unean erretiratzeko ataka lotsagarrian. Fontecha onik ateraz-
en epaiketatik, ozta-ozta; haren manupekoak, ez hainbeste. Lan ona egin zuen Zapoak bera gabe ere. Beste bat izango zen epaiketaren emaitza berak testifikatu izatera? Hori ez zuen sekula jakingo. Zikoitzak gara eta gure etxeko lorategitxo-
a hautatzen dugu ia beti, baita Cristina bezalako neska eder bat eta Agirre Sesma bezalako abokatu erostezin bat salduta utzi

behar baditugu ere. Gauzek berdin-berdin segitzearen alde egiten dugu ia beti. Errepikapenaren beilariak gara. Bolada baterako etxez aldatzen garenean, hotel batera izan arren, etxeko ohiturak, moduak eta taxuak eramaten ditugu hara: objektuekin geure etxea berreraikitzen dugu. Eta objektuekin bezala errepikatzen eta berreraikitzen geure jatorrizko miseria zekena ere. Zoroak ginen eta geure zorotasunaren haraindiko narratzaile orojakileak, denok buruan genuenak, ondo zekien hori. Arrazoizko miseria zainduko zuen bista laburreko deliberoaren alde egiten genuen geure bizitza zen erokeria erraldoiari eusteko, geure lotsak tapatzeko. Faulknerren aipua oroitu zuen Diegok: «Baina ez dut ulertzen, bestalde, inork eskubidea izatea nor dagoen erotuta eta nor ez erabakitzeke. Gizaki bakoitzaren baitan osasun mentalaz eta eromenaz haraindiko nortasun bat dagoela lirudike, eta nortasun hark gizaki horren ekintza arrazoizkoak eta zoroak izu-laborri eta harridura berberarekin begiratzen dituela».

Mundua gainera erori zitzaion Lazkanori: bere aitaz akordatu zen, hainbeste gorrotatzen zuen gizonaz, inpostore hartaz, bere krudeltasun neurri ikaragarriaz, hari Casa Morelen eman zion sudurrekoaz,

«nonbaitetik datorkizu idazle bokazioa, ala?», nola ez zuen ordura arte ikusi, nola egon zen hain itsu, zergatik ari zen bera, bere modura, aitaren portaera errepikatzen, usurpatzen, hari leporatu zion jarrera berbera, okerragoa ez bazen, bereganatzen? Hotzikara ikaragarri batek zeharkatu zion bizkarrezurra, aitak bere benetako istorioa ezagutu izan balu egingo lukeen barre algara irudikatze hutsarekin. Nola ez ote zuen gozatuko korrontearen kontra egiteko gaitasuna zuten izokinen koloreko karpetaen berri izatera? «Ni bezalakoa zara, harro egon naiteke zutaz», esango zion, bere globo aerostatiko itxurako margarita erraldoia zerurantz altxatuz, kaio, pikero eta albatros zaratatsuen artean, bere arroketo aterpetxe atzemanezinean, bere eguzkipeko ezkutalekuan.

Mundua gainera jausi zitzaion Lazkanori bere aitaz akordatzearekin bat, eta bere DNAk berari buruz berak baino gehiago zekiela jakiteak amorruez eta inpotentziaz bete zuen. Hori zen orduan dena. Ez zegoen besterik: inoren zirriborroetan oinarrituta modu kontziente edo inkontzientean norbere bizitza bizitzea, bizitza faltsua edo benetakoa, dei iezaiozue nahi duzuen bezala; maileguan hartutako larruak baino ez

ginen, alferrik zen dena, mundu guztia engainatzen dugun usteen ez dugu geure burua baino limurtzen.

Dena bukatzen zenean -dena ez zen inoiz bukatzen baina-, erredentzio posible bakarra geratuko zitzaien Lazkanori: behingoagatik bere larrutik idazten saiatzen hastea, Soto eta Zeberio nola ezagutu zituen, zer gertatu zen haiekin konpartitu zituen uneetan eta zer gertatu zen haiekin konpartitu ez zituen uneetan. Haiek lurpetik atera. Soslaiei forma eman. Oihan ilunetan sartzen saiatu. Haria berregin. Hura dena papezaren gainean berreraiki. Bere larrua utzi horretan. Larrua larru truke. Dena esan. Bere kiratsean biluztu. Bere burua irentsi eta suge-azalaren mudantza baino ez laga. Miseriarik ez ezkutatu. Liburu hura idatzi eta bere burua sendatu. Erredimitu esaten zaio orain sendatzeari, zer axola dio berba bat edo beste.

Arrazoi duzue: axola dio.

Egia esateko gogoia zeukan Lazkanok, bere benetakoko larrua bilatzen hasteko irrika. Lehen lerroak idazten lehenbailehen hasi nahi zuen, gau hartan bertan, ahal balitz. Baina beste gau bat gehiago ere itxoin zezakeen, behin hartaz gero egiak itxoin egin beharko zuen, Gloriaren antzezlanaren estreinaldia baitzen

gau hartan, eta han ere ezin hutsik egin, mailegatuta-ko bere axalarekin joan behar bazuen ere.

Lazkanok ez zuen *Platonov* obra ezagutzen, baina hasiera-hasieratik atrapatu zuen antzezlanak: *Kaioa*, *Osaba Vania*, *Hiru ahizpak* edo *Gereziondoen lorategia* bezain ezaguna ez izan arren, haiek guztiak baino gehiago gustatu zitzaion Diegori, eta are gehiago Anton Txekhovek *Platonov* idatzi zuenean hogeit hamar urte eskas zituela jakin zuenean. Hogeit hamar urte besterik ez, eta han zeuden jada idazle errusiar handiaren kezka eta joerak oro: umore garratza, euren lurrak eta etxaldeak uztera behartutako familia zorpetuak, alkoholak eta patuak galbidera bultzatutako pertsonaia apasionagarriak, edozein gizagaixo auto-suntsipenera eramateko moduko elkarrizketa distiratsuak, gizakiaren disezio gupidagabea... Dueluetarako desafioak bota eta negarrez hasten ziren zaldun patetikoak, biek batera ihes egiteko promesak elkarri egin eta sekula ongi ateratzen ez ziren maitaleen egitasmo zapuztuak, basoko enkontruak; jauntxoek mespretxatzen zituzten gaizkileak, bueltan-bueltan haien eskulan kriminalaren bezero bihurtzeko azkenean. Txekhov

maisua handia. Txekhov sasikume galanta. Txekhov kabroi puska. Zein txiki sentiarazten zuen edozein idazle halako munstro jenial batek. Hogei urte besterik ez zituen Txekhovek hura idatzi zuenean, Sotok eta Zeberioak desagerrarazi zituztenean zuten adin bert-sua, hain zuzen. Parekotasun hilgarriak badira: berrogeita lau baino ez zituen Txekhovek tuberkulosiak jota hil zenean eta berrogeita lau urteak paseak zituen Lazkanok jada. Antzezlan luzea zen *Platonov*, oso-osorik egitekotan bospasei ordu iraungo zuena, bazekien Gloriak hura asko laburtzeko asmoa zuela, zaleena ere ez zegoen sei orduko *tour de force* teatralak *jasa-teko* gertu.

Mikhail Vassilievitx Platonov eskola-maisua zen obrako protagonista. *Don Juanen* bertsio bat argi eta garbi. Berba limurtzailearekin xaramelatuta, taula gainean agertzen diren emakumezko guztiak, berdin ezkondu, nerabe zein alargun, bere eskutik jaten dauzka Platonovek. Honek ez du bere izaera seduktorea ezkututzen, eta bere oinetara dituen emakumezkoiei ohartarazten die zoritxarreko izango direla bere ondolan, gizon ezkondua dela, erabili egingo dituela eta gero utzi, baina hauei berdin zaie, berdin maite dute eskola-maisua. Pertsonaietako batek horrela deskri-

batzen du Platonov: «Eleberri garaikiderik oneneko heroia. Zoritxarrez, eleberri hori oraindik ez da idatzi».

Bazen beste zerbait Diego Lazkano obra harekin estuki lotzen zuena. Antzezlanaren idatzitakoan -izenbururik ere ez zion jarri Anton Txekhovek-, idazle errusiar handiaren anaiak Maria Ermolova aktore ezagunari helarazi zion libretoa. Honek, espero izatekoa zen bezala, ez zuen aintzakotzat hartu. Eta Txekhovek, atsekabe handiz, birrindu egin zuen eskuizkribua. Txekhov hil ostean topatu zuten lehen borradorea, eskuz idatzia. Kopia desegina egiteko erabilitako origi- nala, hain zuzen... Korrontearen kontra doazen izoki- nak, berriz ere. Izokin koloreko karpetak. Berea ziru- dien istorioa, ehun urte lehenago gertatua. Zorioneko kopia zorigaitzokoak.

Telefonoa hoska. Gloria zen.

- Zer iruditu zaik?

- Ez hidan esan *Don Juanen* bertsio bat zenik.

- Zer ba? Heure burua Platonovekin identifikatuta sentitu duk?

- Ezta batere, baina aitortu behar dinat Anna Petrovna emakumezko protagonistari hire aurpegia jar- tzen niola tarteka: «Mundu honetan ezin fida gaitzke etsaiez, eta lagunez ere ez, itxuraz...».

- Gehiago gustatzen zaidak Annaren beste hau: «Inteligentea izan eta gero eta inteligenteago izan nahi duen jendea dagoen bitartean, berez etorriko da gainerakoa».

- Herorrek egin behar huke Annarena.

- Ezta pentsatu ere: Sara Fernandezek baiezkoa esan zidak. Eta hik, egingo duk itzulpena?

- Saiatuko naun.

- Diego! Egundoko poza eman didak!

Itzulpena egitea ez zen sobera korapilatsua izan. Ahozko hizkera, finean, baina 1900. urteko diskurtsibitate landua zuena. Txekhov ez zen, ordea, batere erretorikoa. Orbel gutxi haren testuetan. Lazkanok onartu beharra zeukan gustura ari zela zeregin hartan, halako arintasun bat sentitzen zuela aspaldiko partez bere burua sorkuntza utzita itzultzaile bilakaturik, ahots baten bila. Ez zen egia Gloriari esan ziona: tarteka sentitzen zen Platonovekin identifikatuta, eta ez haren Don Juan izaerarekin hain justu, Platonoven bizi ikuspegi fatalistarekin baizik. Ez zen Platonov fatalista bakarra, jakina, gehiago ere bazeuden obra

hartan. Fatalistaz josita zegoen, zertan uka. Pasarte asko azpimarratu zituen, itzuli ahala:

GLAGOLIEV: Zaldun prestuenen gisan maite genituen guk emakumezkoak, fedea genuen haiengan, gurtu egiten genituen... haiengan ikusi genituelako gizakiaren bertute onenak... Emakumezkoa gizaki hobea baita gure aldean, Sergei Pavlovitx...! Lagunak ere bageneuzkan... Nire garaian, adiskidetasunak ez zuen orain bezain xaloa eta alferrikakoa ematen. Nire garaian, elkarteak geneuzkan, bilkurak... Bestelakoa zen orduan ohitura: tartean adiskideak zeudenean, zeure burua adiskide batengatik sutara botatzea beharrezkoa bazen, sutara botatzen zenuen eta kito...

VOINITZEV: (aho zabalka) Garai onak ziren...!

GLAGOLIEV: Gure garaian ez ginen halako malkoekin lotsatzen, eta inork ez zuen haien lepotik barre egiten... Zuek baino zoriontsuago ginen. Gure garaian, musika ulertzen zuen jendeak ez zuen antzokia uzten, amaierara arte geratzen zen...

Deigarria egiten zitzaion Lazkanori Platonovek bere burua mespretxatzeko zuen modua, auto-erruki falta, auto-suntsipenaren kontzientzia eta hari aurre egiteko borondate askirik eza. Pertsona kaltegarritzat du bere burua, baina ez du bere izaera toxikoa alda-

tzeko asmo sendorik sekula erakusten: «Jaun-andreak, beldur naiz zuoi ere nire adiskidetasunak malakoak baino ez ote dizkizuen ekarriko. Edan dezagun adiskidetasun guztien amaiera zoriontsuagatik, baita geureagatik ere! Bedi geure adiskidetasunaren amaiera hasiera izan zen bezain atsegina eta pixkanakakoa!».

Apenas dago ezer ezkutuan. Platonovek maitaleztat hartu dituen emakumezkoen senarrak jakinaren gainean daude ia beti. Ossip lapurra aurkezten zaigunean ere, disimulurik gabe egiten da. «Denok ezagutzen duzue Ossip: zaldi ebaslea, bizkarroia, hiltzailea eta bide-lapurra». Errusiari eta errusiarrei buruzko Platonoven ikuspegia tesi bat egiteko modukoa da: «Zikoitza izan eta horren kontzientziarik hartu nahi ez izatea da errusiar zitalaren ezaugarri izugarrienetakoa».

Aulkitik altxatu eta kafea prestatu zuen Lazkanok. Gero alkandora pare bat lisatu zituen eta itzulpena biharko utzi. Klasiko bat, gauzen biharko uztea. Irakurtzen jarraitu zuen, ezer itzuli gabe. Honela esaten zion Platonovek Sofia Egorovna gazteari, obraren amaieran errebolberaz tiro egin eta hilko duen maitaleari:

PLATONOV: Ez nau berorrek ezagutzen, Sofia Egorovna? Harritzekoa ere ez da. Lau urte eta erdi igaro dira, ia bost, eta arratoiek hozka setatsuan arituta ere zizelkatuko ez luketen moduan zizelkatu dute nire giza irudia azken bost urte hauek...

SOFIA EGOROVNA: Historia zaharregia eta hutsalegia da hari buruz gehiago mintzatu eta hari gaur garrantzia eman diezaiogun... Gainera, ez da hori kontua... Baina berorrek iraganari buruz hitz egiten didanean... Zerbait eskatuko balit bezala egiten du, lehenago, iraganean, berorrek merezi zuena jaso izan ez balu bezala, eta orain huraxe eskuratu nahi balu bezala...

Bere bizitzako emakumeekin oroitu da Lazkano: Idoia, Ana, Lena, Gloria bera... Irrikak nola eraman zituen elkarren besoetara. Nekeak nola eraman zituen elkarren besoetara.

Izaten dira halako liburuak. Une egokian harrapatzen gaituztenak. Lepotik harrapatu ere. Elur erori berrian izterretaraino nola, halaxe hondoratzen zaigu zangoa liburu horien lerro artean. *Platonovekin* horixe

gertatu zitzaion Diego Lazkanori. Berari buruz ari ziren pertsonaia haiek:

TRILETZKI: *Mezulari errusiarra* egunkarirako pres-tatu nuen artikulua irakurriko bazenute jaunok, irakurri duzue? Irakurri du berorrek, Abram Abramitx?

VENGEROVITX: Lastima artikulua hori berorrek ez idatzi izana, Porfiri Seminovitxek baizik.

GLAGOLIEV: Nola dakizu hori?

VENGEROVITX: Badakidalako.

GLAGOLIEV: Bitxia. Neronek idatzi nuen, egia. Baina nola jakin duzu?

VENGEROVITX: Edozer jakin liteke. Beharrezko eskizak egin behar.

«Gertatzen da batzuetan, adiskide maitea, norbait gorrotatzeko premia sentitzen duzu, zure letaginak norbaiten lepoan iltzatzekoa, zakurkeriaren bat egin dizute eta hura mendekatu nahi duzu...».

Han zegoen dena, bere plagio lotsagabearen afera, bere adinaren krisia, krisi horrek kontenplatibo bihurtu beste kontsolamendurik ematen ez diguneko egia:

PLATONOV: Posible ote da jada oroitzapenekin soilik laketzeko garaia heldu izana niretzat? Gauza ona dira oroitzapenak, baina... Posible ote da niretzat jada

amaiera iritsi izana! Ene Jainkoa, ene! Hobe nuke hil, hortaz... Bizi beharra dago... Bizitzen segitu... Gazte naiz oraindik...

Diego Lazkanok Platonoven bakarrizketa melodramatikoak itzultzen zituelarik, Txekhoven aurpegia jartzzen zion eskola-maisuari lehenbizi, eta, inoren larruan sartzea zenez kontua, Txekhoven aurpegia be-rearekin ordezkatzzen zuen orrialdeetan aurrera egin ahala, egun askotako itzulpen lanaren poderioz. Noiz ari zen narratzailea narratzailearen larrutik eta noiz idazlearenetik? Deabruak zurrupatatuko narratzaile bilakatzen zenean funtzionatzen zuen ondoen edozein idazlek, ondotxo zekien hori Lazkanok, baina interfe-rentziak saihestezinak ziren, eta egunak pasatu ahala, itzulitako elkarrizketak birpasatzen zituelarik, sendotu egin zitzaion Platonov zen ustea, Platonov Sindromea-ren pean erori zen erabat, Anna Petrovna Gloriaren ahotsean entzuteko joera sendotu zitzaion bezala.

PLATONOV: Estimaten zaitudalako. Eta estima-tzen dudalako zuri dizudan estimua, halako moduan estimatu ere, nahiago baitut lurpean egon, estimu hori gabe bizi baino. Adiskide, gizon librea naiz, ez daukat deus denbora-pasa atsegin baten kontra, ez naiz harremanen etsai, ezta ohandze nobleen etsai

ere, baina... zeurekin abentura txiki bat izatea, nire di-
bagazio hutsalen objektu bihurtzea, nor eta zu, ema-
kume argia, zoragarria, librea. Ez! Gehiegi litzateke
hori. Aukeran nahiago antipodetara desterratzen ba-
nauzu. Hilabete elkarrekin pasatu eta gero... lotsatuta
bereizi? Ahaztu dezagun elkarrizketa hau... Izan gaite-
zen adiskide, baina batak bestearekin jolastu gabe...
Hori baino gehiago balio dugu gu biok!

Platonovek Anna Petrovnari esandako hitz haiek,
erdi egia, erdi desenkusa merke, koldarkeriaz eta au-
sardia faltaz blaituak egiaz beste, zenbat aldiz ez ote
ziren errepikatu lur azalean, Txekhov hil ondotik ere,
azken ehun urteotan? Fikziozko drametan jaiotako hi-
tzak dira, ala bizitzari maileguan hartu eta dramam
txertatuak? Ez dago jakiterik.

Lazkanok asteak iragan zituen Platonovek erabat
bereganatuta, beste ezerentzat eta beste inorentzat
ez begi ez indarrik ez zuela. Bizarra egin gabe, lo ere
nekez, ohearen tapakiak eta izarak aldatzeko indarrik
gabe. Bere ohantze bakartiak hartua zuen izerdiaren
kiratsa jasanezin bihurtzen hasi zitzaionean, sofam
atseden hartzen hasi zen. Ez Platonov bakarrik, an-
tzezlan hartako pertsonaia guztiak sartu zitzaizkion
etxean, Ossip gaizkilearekin eta hark kontatutako isto-

rio ilunekin batera; ironia latza, teatrorik zapaltzen ez zuenaren etxeko salan gonbidatuak zeuzkan orain, edozein Pirandello balitz bezala Lazkano; ez zen agian bere izerdiaren kiratsa ohean jasangaitz zitzaiona, bere koltxoian orain Platonovek lo egiten zuela baizik. Platonovena zen izerdi sunda.

PLATONOV: Inork gure iraganeko orban txiki bat gogorarazten digularik, ze nazka ematen digun pertsona horrek!

ANNA PETROVNA: *Orain* nahi dut nire bizitza, eta ez nire aurrean...

PLATONOV: Bai ederra zarela! Baina ez nizuke zorionik emango. Nire oinetara makurtu ziren emakume guztiekin egin nuen gauza bera egingo nuke zurekin ere... Zorigaitzeko bihurtuko zintuzket!

ANNA PETROVNA: Zeure buruaren ideia exajeratua duzu. Hain izugarria zara, Don Juan?

PLATONOV: Ezagutzen dut nire burua... Ni agertzen naizen eleberriak ez dira ongi amaitzen...

ANNA PETROVNA: Zer gehiago esatea nahi duzu? Erre nazazu zigarreta bat bezala, limoi bat bezala zukutu, apurtu nazazu mila zatitan... Gizon portatu! Bai arraroa zarela!

Eta aurrerago, Ossipek: «Ez izan beldurrik, nik es-trangulatuko dut».

Diego Lazkanok edanari eman zion sasoi batez Lillen. Ahaztu egin nahi zituen Soto eta Zeberio, ahaztu egin nahi zuen bere konfesioa, jasan zuen tortura, «nostalgia-rik gabeko souvenir» bati bezala so egiten zion karpeta, gomak sarri laztandu arren oraindik zabalzera ausartzen ez zena, maitale bat biluzteko beldur dena bezala. Ahaztu egin nahi zituen bere anbizioak eta ametsak, zonbi baten pare bizi zen. Kariño handiz pilatutako liburuak saltzen zizkien bigarren eskuko liburu-tratulariei, miseria baten truke, eta gero edan egiten zituen bere liburuak, egunero liburu bat edaten zuen, batzuetan bi liburu ere bai, «*Odisea* edaten ari naiz, bere truke eman dizkidaten sos guztiak», «zein azkar edan dudan Martin Amisen *Diruaren* patrikako edizioaren truke eman didatena», literatura alkoholarekin trukutzen hasi zen, horrela *Robinson Crusoe* Baileys botila bilakatzen zitzaion, *Karamazov anaiak* Smirnoff vodka botila, orain zintzurreratzen ari zen hiru gintonik hauek *Tormesko itsu-mutila* ziren. Lagavulin botila garestia erosi du behiala Anak oparitu zion

James Joyceren *Ulises* erraldoiaren larruzko edizio zaharraren truke; Montaigneren saioak saldu bazituen egun hartan -ez zuen egunean liburu bat baino gehiago saltzen, errituala errituala zen- Bordeleko ardo gorria oparitzen zion bere buruari, izan zezala bere edanak ere zentzu bat: *Madame Bovary* salduz gero, haren parajeetatik gertuko, Flaubertek dastatutakoe-tatik gertuko isurkinak zituen bilatzen. Italo Calvinoren *Geure arbasoak* liburuaren truke chiantia edo Saluzzoko *pelaverga* botila, beharbada. «Nork esan zuen literaturak ez duela elikatzen, ez dituela izpiritua eta arima berotzen?». Apenas jaten zuen Diego Lazkanok deus sasoi hartan. Delirium tremensaren atarian ikusten zuen Lena izutuak eta hari aitortzen zion albiste-giak ikusten zituela etengabe bere buru barruan, hasiera bai, baina amaierarik ez zuten albistegiak zirela, gerrillen gerra, Kennedy eta Nixon, Margaret Thatcher eta Mitterrand agertzen zitzaizkiola, eta ez derrigor bakoitza bere paperean. Mitterrand ikus zezakeela zinta bat buruan jarrita AK-47 fusil batekin oihanaren erdian, eta gero albiste gehiago, ezin zuela iturri hura eten, telealbistegi hura itzali, zinema erraldoi eta ilun batean bakarrik sentitzea bezalako zela hura, antzoki terrible bat, albistea albistearen atzetik tai gabe,

eta halako batean albistegi haiek amaitu egin ziren, eta Diego Lazkano berak ezagutzen ez zuen Lilleko aldirietako pabilioi industrial batean esnatu zen egun-senti batez, karterarik gabe eta alkandora urratuta, jaka galduta eta oka egiteko gogo ikaragarriarekin.

Orain ez bezala, alkoholak larrua jotzeko grina pizten zion orduan, garai hartan bazuen arrakasta, bazuen nori deitu, bazuen nori mina eragin. Diego Lazkano ikasle, errusiera itzultzaile eta mutil lotsatiak gustuko zituen neska asko topatu zituen, bere harri-durarako. Eta egin egiten zuen: larrua jo, telefonoz deitu eta telefonoz deitzeari utzi, aitzakiak asmatu edo ez, mina eragin eta besteek eragindako mina me-rezi zuelako hura gozatzen zuela sinetsi.

Eta non zegoen arrastorik ez zuela oraindik, oka egin zuen gasolindegi mortu batean, pneumatikoak puzteko bonbaren ondoan, eta bera hustuta, hondora iritsi zela sentitu zuen, hondorik ilunenera, txahala egin ondotik bere bezperako janari murtxikatuei begira topatu zuenean bere burua, bota berri zuenak bere azken afaria non izan ote zen pistaren bat emango ziolakoan. Baina ez zen ezertaz gogoratzen, ahaztua zuen, ezabatua zitzaion burutik bere azken hogeita lau orduetako ibilbidea.

Etxean zituen liburuak saltzeari utzi eta zinemara asteen hirutan joaten hasi zen orduan.

Ettxeko botilak harraskan behera hustu zituen (*Gulliverren bidaiak, Parisen sabela, Sargazo itsaso zabal*) eta gizon berri bat izateko promesa egin zion Lenari. Beranduegi, ordea: gehiegi jasan zion ordurako Kurskeko neskak.

Diego Lazkanok whisky irlandar botila bat gorde zuen soilik, garaikur gisara. Lilletik hona, etxe-aldaketa guztien biziraule, egundo ez zuen edan. Prezinto eta guzti zeukan oraindik, oso-osorik, James Joyceren *Dublindarrak* merke-zurrean salduta ateratako sosekin erositako botila hura. Edale sozial izatea erabakia zuen aspaldi, bakarrik ez edatea. Baina orduko hark merezi zuen salbuespen bat.

Izan ere, aizto bat badago etxean, aizto hori erabili egiten da goiz edo berandu. Berdin whisky botila bat ere. «Ez izan beldurrik, nik estrangulatuko dut».

Ohartu zenerako erdiraino hustua zuen jada. Glo-riarekin hitz egiteko premia erne zitzaion. Telefonoz hots egin zion, garai bateko ohitura alderantzikatuz.

- Aurrekoan bidali ninan atalean... Oraintxe zalantza sortu zaidan, azken aldaketak sartu ote nituen edo

ez, inporta zain Platonov eta Anna Petrovna elkarrekin mozkortzen direneko zatia errepasatzea?

- Jakina, Lazkano. Eutsi hor apur bat, ordenagailua piztuko diat.

«PLATONOV: Ez dut gehiago edango...».

- Bai, ongi da, has gaitezen hortik.

- «Hamarkada batzuen buruan elkar topatuko dugu berriro, beharbada, gaurko egun hauei buruz barre eta negar egiteko gaitasuna daukagunean, baina orain... Ssshhh! Isilik!».

- Bai, horraino berdin zagon, beheraxeago segitu, «Emakume inmorala naiz» dioen lekutik.

- «Emakume inmorala naiz, Platonov... Ez? Eta inmorala naizelako maite zaitut agian... Galbiderantz noa... Ni bezalakoak direnek beti amaitzen dute horrela». Koinziditzen dik?

- Bai, Gloria, *koinziditzen din*. Hitzez hitz.

- Hasiak gaituk orain arte bidalitako materialarekin irakurketak egiten. Biharko proba-saiora etortzeko eskatzen badiat...

- Ezta ametsetan ere, Gloria.

- Tira, saiatu beharra neukan...

Telefonoa zintzilikatu duenean Ossip agertu zaio Lazkanori balantzaka: «Dama jeneralarekin zabilta

orain... Eta zergatik etorri zen gero bestea? Eta emaztea, non duzu emaztea? Hiru horien artean, nor da benetakoa, Platonov? Ez daukazu maltzurtzat zeure burua, hala ere?».

Ossipi ukabilkada ematen saiatu da Lazkano, bertan balego bezala. Ez du asmatu. Lurrera erori da, lepoa bihurritu nahi izan dio alfonbrari. Gero bere burua bertan kiribildu eta lo geratu da.

Litro beteko kafe termoa eskuinean, litro eta erdiko ur botila ezkerrean eta ordenagailua parean. Sagua-
ren ondoan, katilu bat.

Gau hartan amaitzea erabaki zuen Lazkanok. Nalgikeriagatik edo talentu faltagatik itzuli gabe utzi zituen pasarte guztiak itzuliko zituen lehenbizi. Gero, trakets itzuliak zituen ustean gorritz azpimarratutako pasarteak zuzenduko. Egunsentiarekin batera azken puntua eman nahi zion bere gau luzeari. Itzulpen lan hura, suplantazio hura, hain gustura hasi zuena, tormentu hutsa bihurtu zitzaion. Munduari Platonoven larrutik eta Txekhoven begietatik begiratzeari utzi nahi zion.

Platonoven emaztea, Sasha, pospoloak irentsita bere buruaz beste egiten saiatuko zen antzezlanaren amaieran. Baina garaiz aurkituko zuen medikuak, ez zen hilko. Erredimitzeko baliatuko ote du aukera hori Platonovek?

Errebolberra jarri du bere lokian.

«*Finita la commedia!* Animalia inteligente bat gutxiago egongo da lur azalean!».

Platonov ez da, ordea, bere buruaz beste egiteko gai.

Grekova neskatila bere sareetan dago oraindik. Hark lagundu dio ez suizidatzen.

PLATONOV: Mila esker, neskatxa ernea... Zigarrotxo bat, ura eta ohea! Euritan da kanpoan?

GREKOVA: Euritan da, bai...

PLATONOV: Sophie, Zizi, Mimi, Masha... Gudarostea zarete... Denok maite zaituztet...

Lazkanok Oteizaren laurogei amonak dauzka akorduan.

GREKOVA: Zein da zure oinazea?

PLATONOV: Platonov da nire oinazea! Zuk maite nauzu, ez da horrela? Bene-benetan... Ez dut asmo ezkuturik... Esan hori bakarrik, maite nauzula...

GREKOVA: Bai...

PLATONOV: Denek maite naute... Sendatzen naitzenean, perbertitu egingo dut... Lehen, erredimitu egiten nituen, eta orain, perbertitu...

GREKOVA: Bost axola... Ez dut asmo ezkuturik... Zu soilik... gizaki bat zara.

Sofia Egorovna da pistola desarratzen duena azkenean. Platonov lurrera erori da, larri zaurituta.

Triletzki adiskidearen heriotzaren aurrean duen erreakzioa hamaikagarrenez berrirakurri eta hamaikagarrenez hunkitu da Lazkano: «Zu bazara hildakoa... norekin edango dut orain hiletan zure osasunean?».

Egunsentia etorri da. Hutsik daude ur botila eta kafe termoa. Portatilaren estalkia beheratu du. Amaitu da dena. Etxeko leiho guztiak zabaldu eta oheko izarak garbigailuan sartu ditu Lazkanok.

Ossip begira du garbigailu ondoan: «Zakurraren heriotza merezi du zakurrak».

- Zoaz -esan dio Diegok-. Pikutara, utikan. Zoaz. Ossip joan egin da. Umil, buztana hankartean. Isilik dago etxea, garbigailua zentrifugatzen hasi da.

Bizarra egin behar luke Lazkanok eta bizarra egingo du.

«Norekin edango dut orain hiletan zure osasunean?».

Diegok antzerkia zergatik gorrotatzen zuen galdeztzen ziotenean kontatzeko moduko errelato koherentea eraiki zuen, egia esatea eragozten duten errelato horietako bat, eroso, urteen poderioz sinetsi egiten duguna azkenean: ez zitzaizkion gustatzen aktoreek euren burua entzunarazteko egin behar izaten zituzten xuxurla modulatu zein oihu-durundia, eta, are gutxiago, antzokiratzeak suposatzen zuen erritual soziala, pasillo eta korridoreetan barrena, balkoi eta plateetan barrena, palko eta anfiteatrora bidean ezagunak topatzen zirenero bostekoa eman ez edo muxu pareta dispensatuz -dispensatu zen hitza, baiki- egin beharreko geldialditxo derrigortu bakoitza, jendetasun itxuratukoa beti, eta beraz, faltsua hura ere. Ez zegoen modurik inor ezagunik topatu gabe norbere eserlekura iristeko, hiria txikia zelako, eta beti zegoe-lako auzo, txikitako lagun, lankide ohi, aspaldian bertatik baja eman zenuen elkarte edo sindikatuko kide edo bestelako jende puska ez-desiragarriarekin tupust egiteko xantza. Zenbat eta hobe izan eserlekua, zen-

bat eta aurrerago eta erdirago egon kokatua norbere ilara eta besaulkia, orduan eta handiagoak ziren hiriko sasi-jauntxoak zein burgesia eskularruduna topatzeko aukerak. Eta ez dezagun ahantz hirian *denak* zirela gutxi-asko eta *luzapenez* burgesia eskularrudunaren partaide, nahiz eta soinean eskularrurik ez eraman. Gorroto zuen behin eta gorroto zuen mila bider besaulkiraino iristeko pasatu beharreko trantze hori. Baina beste guztiaren gaineratik zerbait gorrotatzen bazuen teatrotik, estreinaldi egunak ziren. Hauetan, hasierako trantze eta jendeketa topadizoak aski ez eta, beste inoiz baino mimosoago egon ohi ziren aktoreak amaierako txalo zaparradaren ostean, eta ez zuten oihalaren jauskeraren ondotik bi, hiru, lau edo bost aldiz irtetearekin aski izaten, audientziaren berotasun-adierazpena behartu egiten zuten banbalina atzetik behin eta berriz ateraz, jendearen txalo egiteko gogoia bortxatuz bastidore artetik, ikus-entzuleek txalo egiteari uzteko arriskurik txikiena belarri finez sumatu orduko kale-jiran ateraz ostera, publikoaren esker ona eta iritzia baino, beraien ego gose puztuen asean lortu arteko bakerik ez zutelako izaten. Garratza goa ere izan zitekeen trantzea, jakina: aktore haiek edota zuzendaria norbere lagunak zirenean kamerino-

etara joan behar derrigortua, muxuz eta lorez, zorionez eta balakuz, laudorioz eta gorazarrez betetzera haien belarri inoiz ez nahikoa ferekatuak.

Zaldiak orraztea, hala esaten zion Gloria ironia-tsuak euren burua izartzat zuten sortzaile ziurgabeek behar izaten zuten maite-maitea egiteari.

Baina batzuetan ezinezkoa zen estreinaldi gorrotagarri haietatik ihes egitea, haserretu egiten ziren gonbidatzaileak ezezko horiekin, ez zuten ukoa ulertzen, iraintzat eta interes falta barkaezintzat hartzen zuten errefusa. Egun hartan, adibidez, Gloria bere muntaia aurkeztera zihoalarik, Diegok ez zuen joan beste erremediorik izan, jakin arren bera, Gloria, Bulebarreko cocktail-tabernan geratuko zela estreinaldiak irauten zuen bitartean gintonikak edaten, aspaldiko erritua betez, hainbeste urteren ondoren.

Ezin ihes egin hitzorduari, are gutxiago obraren itzulpena Lazkanorena berarena zenean eta proba-saio guztietara joateari sistematikoki uko egin zionean.

Ahalik eta beranduen azaltzen saiatu zen. Damutu egin zen arropategian abrigoa ez utzi izanaz, kanpoan hotz eginagatik bero baitzen antzoki barruan, eta be-launen gainean eduki beharko zuelako abrigo handia.

Idazleen Elkarteko lehendakaria ez agurtzeagatik zuzendu du begirada proszeniora, eta orduan ikusi du Gloria bertan, zigarroa erretzen, ilunpean, erretzea hertsiki debekatuta dagoen lekuan, cocktail-tabernara abiatu aitzin: eskuarekin diosal egin dio kea uxatuz eta Lazkanok ukabila altxatu du, garai batean manifestazioetan egin ohi zuten keinura dezente hurbiltzen den ukabil bilduarena eginez: «Forza Gloria, sinesten dinat higan»; edo: «Kemena izan, Gloria, zoroa, laguna».

Bi besaulki baino ez daude hutsik bere ilaran jada, ezkerreko biak. Eserita dagoela eta abrigoaren tapa-kiak magala estalirik, esku-programa irakurtzeko ere astirik gabe, txirrinaren azken abisuak jo eta itzaltzen hasi dira argiak. Une horretantxe, bera baino beranduago antzerkira etortzen denik ere badela frogatuz, bikote bat ari da bosgarren lerrora sartzen. Diegoren ondoan libre dauden bi besaulki horiek betetzera dator bikotea. Emakumezkoaren lurrin gozoa sentitu du Lazkanok, haren xuxurla ilarakideei barkamena eskatuz. Esku-programatik begirada altxatu gabe, begi-ertzarekin zelatatu du hasieran emakumezkoaren magala, baina ezin bere intuizioa baieztatu, ez ditu haren esku zuriak besterik ikusi ahal izan estreinakoan.

Besaulki bat harago, senarra behar duenari hitz batzuk zuzendu dizkionean, ahots hura ezagun zaiolako atentzioa emanik altxatu du begirada Lazkanok, eta arnasarik gabe geratu da lipar batez nor den ikusi duenean. Tximista baten kolpearekin aurreikusi du gertatzera zihoana, «Lazkano, aspaldikoa», esanez hautsiko du bere durduzadura hogeitaka urte ikusi gabe daraman emakumezkoak, hortzadura perfektua, begi berde atxarolatuak, ilea tunel zuri baten marko beltz-beltza Anaren aurpegi zurbilean, muxu emango diote elkarri, deserosotasunez, dispentsatuz baino gehiago muxua *emanez*, atseginetik edo desatseginetik zenbat duen neurtzea zaila den sorpresa benetakoz bere senarra aurkeztuko dio, «hau Fidel da», edo «Fernando», edo auskalo zein izen absurdo izango duen halako emakume ezinezkoarentzat dudarik gabe terrenalegia eta neurritz beherakoa datekeen senar gorrotagarriak, bakarrik etorri ote den galdetuko dio, eta berak patetikoki baietz, «bakarrik etorri naiz», bakarrik etorri dela erantzun beharko dio, agerian utziz, ez bere autonomia bakartia, bere bohemia lubakitu interesgarria, baizik eta bere bakardade penagarriaren azpildura oro bere biluzian; «hogeitaka urte pasatu dira eta ez daukat teatrora nor ekarri, horra elkar ikusi

gabe igaro diren bi hamarkada luzeen laburpen erdiragarria», esku-programari batere begiratzeko premiarik gabe egindako sinopsia. «Zu izan zinen nire aukera galdua, nire aukera bakarra, hamar urte pasatu ditut nire bizitzako emakumea izan zinela pentsatuz, eta beste hamar nire bizitzako emakumea izan zinela pentsatuz hamar urte pasatu nituela pentsatuz, eta geroztik ez dakit jada zer pentsatu, zutaz zer eta nola pentsatu, esan nahi dut», hori guztia ez dio esango, jakina, baina begietan irakurriko ote dion esperantza dauka, tximistaren trazurik gabe tximistaren iraupena izan duen lipar hartan bere oroitzenak horraino errebobinatzeko xantza izan du Lazkanok, aurreikus-terko gerta zitekeena, eta azkenean gertatu ez dena, teatroko argi guztiak itzalita baitaude jada, eta orkestrarik ez denez batere han fosoan, tinbalena ez, baizik eta bere petxuko taupadana behar duen kolpatze azkarraren laguntzaz da oihal gorriluna zabaldu.

Ez zaizkio Lazkanori petxuko taupadak batere baretu, nahita ere ezin dio eszenatoki gainean gertatzen ari denari arretarik jarri, bere ondoan ilunpean duen emakumearengana joaten zaio behin eta berriz gogoia, berealdiko ahalegina egin beharra dauka lepoa zuzen mantentzeko, ezkertera ez egiteko, Anaren be-

girada berde eta txarolezkoa ez bilatzeko. «Ikusi ote nau?». Ez darabil beste galderarik buruan, «ikusi ote nau argiak itzali eta oihala irekitzen hasi den une horretan, ohartu ote da, jabetu ote da ni naizela, eta hala bada, ezagutu ote nau hainbeste urteren ondoren, eta ezagutu banau, ezagutu-ezagutu egin nau, batere dudarik gabe, ziurtasun osoz, ala erdi-ezagutu bakarrik, nor den oso ongi ez dakigun norbaiten antza hartzen diogunean legez norbaiti, bai-ote ez-ote badaezpadako batean? Gorrotatu egiten ote nau oraindik, deus esan gabe utzi nuelako, desagertu egin nintzelako bere bizitzatik?». Burutan ibili du ezagutu duela, egunkarietan ikusita jakin behar duela derrigor ze itxura duen orain, baina ezikusiarena egitea erabaki duela egoeraren deserosotasuna saihestu nahi duela, emakumeak azkarrak direlako halako gauzak detektatzen, festak garaiz uzten abilezia berezia dutelako emakumeek, desaparizioaren artea inork ez bezala menperatzen dutelako. Baina itsusia deritzo bestalde hori egiteari, hain gertu daude, eskutik hel diezaiokete elkarri nahi izatera, elkar usaintzen dute, agian hori da kontua, deserosotasuna da kontua eta berak ere maite duela da beharbada kontua; bestela natural dion egingo zion eta senarra aurkeztu, elkarren presen-

tziaz jabetu orduko, «hau Fernando da» edo «Fidel», edozein delarik ere emakume eskuraezin horiek senartzat dituzten ergelen izena. Burutan erabili du, halaber, ea ehuneko ehunean ziur egon ote daitekeen ondoan duen emakumearen nortasunaz, ez ote dion patuak ispilukeria makurren bat jokatu, ondoan zuen emakumea berak uste zuena ez izatea gerta ote zitekeen, traizio egin ote zion oroitzapenen eta norbere grina eta desio zoroen nahasketak, antzokietan gutxien esperotako harekin topo egiteko beldur eta aurrejuzkuek ez ote zuten bere subkontzientea trufa ankerrez engainatu. Baina ez, ziur dago, erabat ziur: Ana da.

Taula gaineko argi azul, akuatikoen pean, gizon bat eta emakumezko bat *-la bella* Ines berbera- isilik ari dira leihoak ireki eta ohe desegin bati izarak aldatzen, eta begirada bertan iltzatua izanagatik beste nonbait du atentzioa, oholtza gainean ikusten dituen mugimenduei buruan duen antzezlan gogoratuaren, bere gaztaroa izan zen antzezlan urrunaren istorioa gainjartzen dio, biak bat eta bera balira bezala. Hiri txiki madarikatu hartan, nork esan behar zion ondoko besaulkian bere bizitzako amodio galdua topatu behar

zuela, non eta Gloriaren antzezlan ditzosozkoaren estreinaldiaren egunean hain justu eta preziso?

Egun eta usain zoriontsu haiek, Anari esker: aldiro diferente izan zedin saiatzen ziren, laranja bat eskuekin jan ondoren elkarren aurpegia laztantzen, berdinezio hatzak hotz egotea elkarren izterren artean, eta gero Diegoren sudurrean, hotz eta laranja usainarekin. Kolean ikusita inbidia ematen duten bikote horietakoa dira, hain ongi elkarren tonura afinaturik, irribarre egiteko era bera dute: anai-arrebak bezala, itsatsi egin zaizkie, keinuak barik, baita elkarren zoriontsu izateko arrazoiak ere. Nola elkarrekin bizitzen jarri zirenean lehiatu egiten ziren, nork lehenago ontziak garbituko, nork lehenago ohea egingo, ezustean harapatzeko laguna, eta haren irribarrea ikusteko berak egin asmo zuen lana besteak egin duenean, eta gero larrua jo. Egin berri duten ohea deseginez.

Iraganaren revival etengabea izatera kondenatua zirudien denbora tarte hura, ordea, bat-batean eten zen Lazkanorentzat. Edo ez, ez zen batere eten zentzu horretan: revival izaten jarraitu zuen erremediorik gabe, baina bere ondoan arnasten zuen desosegu nahasgarri hartatik beste norabait aldatu zen arreta. Eszenatoki gainera igo den aktore horrek du errua,

haren jarrerak, haren aurpegiak, eszenara igo orduko piano aurrean eseri eta tekla batzuk sakatzeaz batera esan dituen lehen hitzek eta hitz haien eztarri tinbre hautsiak: «Bero dago!».

Vengerovitx da. Vengerovitx hezurmamitzen duen aktorea, Gloriaren aitaren filatelia taldekoa. «Bero honek Palestina gogorarazten dit, judutarra naizen aldetik. Han bero latza egiten duela esaten dute». Vengerovitx infernua deskribatzen ari zaio, bihotza izoztu zaio Diego Lazkanori.

Vengerovitx zaharra, Vengerovitx mendekatzaila, Abram Abramitx Vengerovitx plagio atzemailea. «Lastima artikulu hori berorrek ez idatzi izana, Porfiri Seminovitxek baizik... Edozer jakin liteke. Beharrezko peskizak egin behar».

Listua irentsi du Lazkanok eta sabela irauli zaio jauzi mortal batean.

Bera zen.

- Él es muy teatrero, ¿sabes? Lo suyo era el escenario, pero lo tuvo que dejar porque no le daba para vivir. Ahora es él el quien se encarga del reparto.

- ¿Te haces cargo de lo que quiere decir que soy yo quien reparte?

Ahots hura ez zen zahartu. Aurpegirik inongo unetan ikusi ez zion arren, bera zen: haren ibilera makurtua are makurtuagoa orain, haren eztarri erlastua bi hamarkaden zizelak are erlastuago orain. Baina zer egiten zuen gizon hark Gloriaren antzerki konpainian? Nola zitekeen? Haritik tiraka hasi zen buruko mataza desegin nahian: Gloria, bere aitarekin zituen harreman penagarriak, «nire aita fatxa bat duk, ez dakik ongi nolakoa eta ez dakik ongi zer egindakoa, eta hobe sekula jakiten ez baduk»; aitari egin behar izan zion kontzesio hura hark fidantza ordaintzearen truke, ezer ez delako doan eta batzuetan ezin delako ezezkorik esan: «Gainera, lagun zahar bat kolokatu nahi zidak aktoreen artean, bere filatelia taldekoa... Gaixorik dagoenetik xantaia guztiak onartzen zizkioat». Fabian eta Fabian.

Fabian zen Vengerovitx.

Minutuak aurrera joan ahala airean sentitzen da Lazkano. Petrin pertsonaiaren hitzak entzun ditu ezustean («jaiotzean, gizakiak hiru bideetarik bat hautatzen du: eskuinetik bazoaz, otsoek irentsiko zaituzte; ezkerretik bazoaz, zuk irentsiko dituzu otsoak; erditik bazoaz... zeure burua irentsiko duzu»), baina Platonov

eta Vengerovitz nagusitzen zaizkio, haiengan dauka betazalak beheratzea bera ere galarazten dion arreta:

VENGEROVITX: Zure premian nago... Neurri batean... Urrun gaitzen apur bat hemendik... Ez hain ozen... Ezagutzen duzu Platonov?

OSSIP: Maisua? Jakina.

Diego Lazkanok badaki zer datorren orain. Nola ez du bada jakingo. Berak itzuli du-eta. Bera izan da-eta Platonov azken asteotan! Ossip bide-lapurra eta Platonov eskola-maisua izan ditu bere ohean lotan, edanaren izerdiarekin izarak zikintzen. Badaki zer datorren, berak idatzi duelako. Eta idatzitakoa berari gertatu zaiolako.

VENGEROVITX: Bai, maisua. Munduari irainka aritzen baino erakusten ez diona. Zenbat kostako litzaidake hura jipoitzea?

OSSIP: Zer esan nahi duzu jipoitze horrekin?

«Zer esan nahi duzu jipoitze horrekin, Fabian? Zer esan nahi duzu jipoitze horrekin, Vengerovitz? Esan, esadazu arren zer esan nahi duzun».

VENGEROVITX: Hiltzea ez, jipoitzea... Ez da inor hil behar... Zertarako hil? Hiltzailea hain da... Jipoitzea, hau da, kolpeak eta kolpeak ematea bizi osoan gogorra dadin.

«Besterik ez orduan, Fabian? Hori da dena? Eta Soto eta Zeberiorekin zer? Gauza bera egin zenuten? Ala zu ez zeunden tartean?».

OSSIP: A, hori bai, nire esku dago...

VENGEROVITX: Zerbait apurtu, aurpegia desitxuratu... Zenbat kostako zait hori? Sssh... Norbait dator... Alden gaitezen apur bat...

Besaulkian iltzaturik, aulkiaren besoari fuerte heldu dio, nahiz eta ondoan duen emakumearen eskuari heldu nahi liokeen; objektu bat pertsona baten ordeztan, aldagai tristea, nola ahaztu bere ondoko besaulkiaren beso egurrezkoan dagoen esku hura, azazkalak hain ongi zainduak dituen huraxe bere gorputzean ibili zela, zamalkatzen zuen bitartean oharkabean atera zen zakila oratu zuela berriro ere aluan sartzeko, bere espermak likatsu egin zuela esku hura eta hatz tarte hura, betileak ere bai behin, nola ahaztu elkarri egindako hainbeste promesa, elkarrekin eraikitako etorkizun hura, zenbat gaztelu airean, kar-toizko maketak legez ezerezera plegatuko zirenak gero, laranja usaina eta kafea, nerabeen xalokeriak xalotasuna bunker bat denean, baina bai, ahaztu du: bat-batean ahaztu zaio bere ondoan duen emakumez-

ko hura Fabian Vengerovitx torturatzailera taula gainean entzun duelarik.

Izerdi hotza sumatu du lepoan, magalean duen abrigoa inoiz baino hertsagarriagoa begitandu zaio, handik alde egin nahi luke, baina nola, ezin du, irten ahal luke isilpean ertz batetik, baina zer esango dio gero Gloriari? «Torturatu ninduen gizonetako bat aktore enplegatu dun, ederra egin didan!». Horra hor aukera teatroko iluntasunean jaiki, zutik jarri eta oihu egiteko estreinaldi egunean bertan: «Gizon horrek torturatu egin ninduen, hiltzaile bat da gizon hori, nola dago kalean, nola ez da ezkutatu estolda zulo batean betiko, ez al du lotsarik mundura agertzeko, ez al zaio burutik pasatu antzokian hari begira daudenetatik norbait bere eskuetatik pasea izan zitekeenik duela hainbat urte, azala behar du gero gizonak, azala eta azala ez dena, nola liteke hau, noiz eta ondoan daukadan nire bizitzako emakumea, duela hogeitaka urte galdua, hamar urtez goizero akorduan izan dudana eta beste hamar urtez aurreko hamarkadan goizero akorduan izan nuela gogoratu nuena; eskutik hel niezaioke haren senarrak igarri gabe beharbada, eta esan: «Hola, ahaztu naun, ala?, ez dinat sinesten nitaz hain aise ahaztu haizenik»».

Badaki zer egin, jakina badakiela Diegok zer egin, hara zer egingo duen: eszenatokira igoko da eta torturatzailerik bat dela oihukatu ondoren asfixiaraino itoarriziko du Vengerovitz, lepotik helduta bertan itoko du. Ito eta kito.

«Baina zer ari zara pentsatzen? Ez zara hori egiteko gai, Diego, nola bada, antzezlekuan bolondres bat eskatzen zutenean beti zeure besaulkian hondoratzen zinen horietakoa izan bazara, halaxe da, butaka patio-ko argiak piztu eta eszenatokikoak itzaltzen zirenean aktoreek zu aukeratuko ote zintuzten beldur izaten zinen, nola aterako zara eta eszenatokira igoko, lekutan daude taula gainean ibiltzen zinen egunak, ez zara gai, eta gai izanda ere, uste duzu utzi egingo lizuketela eszenatoki gainean den aktore bat zeure eskuez asfixiatzen, pistola bat bazenu sikiera, hori bai, askoz ere errazagoa litzateke, zenbat atentatu ez ote dira bada egin teatroetan, Lincoln bera, ez ote zuten teatro batean hil?». »

Baina geldirik dago Diego, ez da mugitzen, ez da mugitzeko gai.

Ez zaio beste erremediorik geratu: gorputz eta arima dauzka orain eszenatokian gertatzen ari den horretan. Esku-programa hartu eta magalean ipini du,

aktorearen izenaren bila, «urteak pasatu ditut Dea-bruari izenik jarri ezinik, Fabian, eta orain jartzeko mo-duan nago», pentsatu du Lazkanok, baina ez du ikus-ten ilunpe hartan, begirada ilunpera ohituagatik ezin ditu izenak bereizi, ez eszenatokitik iristen zaion argi apurrarekin behintzat, nolakoa den bizitza, eszenato-kia hor, gertaerak hortxe, gauzak gertatzen doaz, baina argi gutxi iristen zaigu gertatzen den horretaz, benetako ekintzaileak eta antzezleak eta istorioa au-rrera mugiarazten duten horiek ez gara gu, ez gara gu eszenatokian gaudenak, ez gara gu iluminatuta gau- denak, eta hala ere, eta gainera, argi horretatik oso gutxi heltzen da gugana, apenas ezer.

Hilik datza Platonov:

«Norekin edango dut orain zure hiletan? Esan, no- rekin?».

«Kepa, Xabier, norekin? Norekin edango dut zuen hiletan?».

Eta jatorrizko bertsioan ez zegoen esaldi bat: «Denok ikusi duzue, suizidioa izan da».

Antzezlana bukatu denean txaloka lehertu da an- tzokia. Diego Lazkano ez da aspaldi teatroan izan eta ez daki txaloak benetakoak diren, erosiak, zintzoak, edo, besterik gabe, bere bizitzako azken bi ordu eta

erdiak alferrikakoak izan ez direla sinetsi eta sarreraren prezioa amortizatutzat emateko modua diren ikusleentzat. Hala ere arrakastatsua dirudi obrak. Loreak Gloriarentzat, txalo zaparrada luzea, zutik berriz publikoaren gehiengoa, Lazkano ere barne. Eta Lazkanok bere alhora begiratu nahi badu ere, bere ondoko emakumea ikusi nahi badu ere, benetan Ana ote den ziurtatu nahi badu ere, ez da jiratu, eta eszenatokian Vengerovitx bilatu du, Gloriari eskua emanda, publikoaren aurrean esker onez makurtzen dela. Eta beldurrez dago orain Lazkano, jendea teatroa uzten hasi delako, bere ondoko bi besaulkietako bikotea jendetzan galdu delako, eta ez zaiolako ia ezer falta beste guztiek antzerkia amaitu dutenean bera berea egiten hasteko, Gloriarekin kamerinoetan elkartu eta haren galdera entzun ondotik:

- Izan zintzoa nirekin eta esan egia, Lazkano: zer iruditu zaik antzezlanana?

Ohi zuenez, Gloriaren deiak lo harrapatu du Lazkano. Baina Donostiatik deitzen dio oraingoan.

- Hire laguntza behar diat.

- Aldamar kalean hago?

- Ez, hator aitaren etxera.

Nahikoa aztoratuta zebilen Gloria bere aitaren heriotzaz geroztik. Asko haserretu zen aitaren jokaldia agerian geratu zenean: antzezlan bat zuzentzeko baino, aita zaintzeko erakarri zuen Bartzelonatik alaba, leuzemiak askoz ere hilabete gehiago oparitu-ko ez zizkion jakinaren gainean. Haserreari baina, errukiak eta penak hartu zioten berehala gaina -aitak kalkulatu bezala- eta elkarrekin eman zituzten azken arnasarainoko azken bost hilabeteak. Estreinaldira ez zen heldu, baina proba-saioetako batean erabat jantzi ziren aktoreak emanaldi pribatua egiteko, Gloriaren aitarentzat soilik.

Zurbil harrapatu du Lazkanok Gloria.

Etxea husten ari zela ikusita (anabasa ikaragarri bat zen han, kutxaz eta zatar paperez bildutako objektuz gainezka), berehala bururatu zitzaion deiaren zergatia: Francoren tapiza. Gloriak ez zuen jakingo diktadorearen erretratu erraldoi harekin zer egin, nola desegin, nori eman lotsatu gabe. Hamar metro koadroko diktadore baten erretratua ez zen gauean kontenedoreen ondoan utz zenezakeen zerbait.

Baina Lazkanok ez zuen asmatu.

Francoren erretratuaren arrastorik ez zen inon -hain nabarmena zen haren hutsunea horman-. Kutxa artean gidatu zuen Lazkano Gloriak aitaren bulegoraino. Bertan, gotor-kutxa irekiaren gainean, barrualdea belusez estalitako kaxa erakutsi dio, zerbait preziatua gordetzen zuen seinale.

- Gotor-kutxaren barruan zegoan. Ni ez nauk ukitzera ere ausartu.

Belusezko tapakia kendu dio Lazkanok.

Modu ikaragarriro ordenatuan gordeta daude pixiak. Bildumatzailearen objektuak. Fetitxeak. Urteetan barrena Bartzelonara eskatu eta alabak zer garraiatzen zuen jakin gabe zintzo-zintzo ekartzen zizkion objektuak, zalantza izpirik gabe. Esbastika nazia, SS-etako kondekorazioak, Mussolini eta Francoren epokako argazki orijinalak. Memorabilia faxista. Terrorrearen merkatu beltza, zergatik ez? Ez zeuden bada pedofilia sare aski ongi antolatuak? Objektuekin bederen ez zitzaion jada minik inori egiten, egindako mina baliatzen zen garun makurrenen irrika gaixoak sustatu edo baretzeko, besterik ez. «Objektuek biziraungo gaituzte».

- Zer egin behar diat horrekin?

Paralizatuta zegoen Gloria, nahikoa modu ulergaitzean. Aita frankista zuen, ez zuen inoiz ezkutatu izan, normala begitantzen zitzaion Lazkanori bere fetitxisimo makurra nazien aldera lerratua egotea, halako piti-txietara bideratzea bere diruak, elkarrizketa ere hala-xe lerratzen zitzaion, nazien alde. Zergatik harritzen zen? Meliton Manzanasen laguna zen-eta!

- Zer egin behar diat horrekin?

- Zer zakinat nik. Museoren bati eman... zaborretara bota...

Lazkanok argi eta garbi bereizi zuen azken betilea nola lazten zitzaion Gloriari, izu-laborriak jota.

- Xaboaia ere bai?

Diegok ez zuen xaboi-pastilla hartan erreparatu. Domina eta argazkien azpian zegoen xaboi-pastilla bat zen, oso soila. Orain Lazkano zen harrituta zegoena, ulertzea kostatu egin zitzaiona. Eskuetan hartu zuen.

- Xaboaia?

- Ez al haiz konturatzen?

Derrepente jabetu zen: RIF hizkiak zeuzkan xaboi horietarik bat zen, Rudolf Spannerrek ustez judutarren gorpuekin egindako xaboi-pastilla zenbakituetako bat, tirada murriztua, liburuekin egiten zen bezala. Irakurri

zuenaren arabera, ez zen frogatutzat jotzen halakorik egin zenik modu sistematikoan, baina Spannerren pista zen sinesgarriena.

- Nire aita... munstro bat zen!

Alferrik zen ezer esatea. Lazkanok ere hitzik gabe jarraitzen zuen, ulertu ezinik baina bat-batean ulertuz, bazela hor nonbait -sarean, interneten, hor dena zegoen- gizateriaren historiako objekturik nardagarriekin dirua egiteko prest zegoenik, souvenirren gutziaren alde iluna ustiatzen asmatu zuenik. Izugarrikeriaren eta nazkaren artetik, galdera fribolo bat gailendu zitzaion Lazkanori: zenbat ordaindu ote zuen Gloriaren aitak xaboi-pastilla erdeinagarri haren truke?

Porlan zaku txiki bat erosi du Lazkanok, urarekin nahastu du, belus gorrizko kutxa gainera bota du zementu nahasia: memorabilia naziaren, argazkien eta xaboi-pastillaren gainera. Gero egun bete itxoin du, balkoian zementuzko bloke gotor bihurtu zaion arte. Diego Lazkanok autorik ez izatea madarikatu du, bere bizitzan lehen aldiz. Kirol-poltsa batean sartu du zementuzko blokea eta taxi batek eraman du urtegiraino. Kanoak non alokatzen dituzten galdetu du. Beldur da kirol-poltsaren pisua gehiegizkoa izango ote den. Arropak aldatu eta arraunean desbideratu da ur ertze-

tik. Giroa lainotuta dago eta ez da inguruan inor ageri. Urtegia handia da, baina ziur egon nahi du: urtegiaren erdi-erdian egon nahi du, nonbait zentratuta egotea zerbaiterako lagungarri bailitzan.

Haizerik ez dabil eta apenas kulunkatzen zaion kanoa. Geldirik egon da horrela, arrauna magalean hartuta, begiak itxita. Gero, espantu handirik egin gabe, kirol-poltsako kremlera zabaldu eta zementuzko blokea atera du. Zementuzko bloke bat dirudi, ez besterik. Bi aldiz pentsatu gabe jaurti du uretara. Aurki desagertu da bere begien bistatik.

Bera bezalako zenbat jendeke egingo ote zuen gauza bera? Uretara bota deserosoa dena, gehiago ur azalera aterako ez den esperantzan.

Etxeko iturrietatik ateratzen zaigun ura mamuz beteta dagoela pentsatu du Diegok: bere amaren ile-xerlo zuria oroitu du, nola buxatu zuen behin harraska propio, Diego etxera joan zekion. Gure mamuak eta herentzian jasotako mamuak. Errudun egiten gaituztenak eta errudun jaioarazten gaituztenak.

Etxeko iturrietatik ateratzen den ura mamuz beteta dago eta edan egiten ditugu mamuak. Hau bezalako zenbat. Auskalo. Mamuak edaten ditugu eta horrek

gu geu bihurtzen gaitu mamu. Garden eta mamu.
Izaki intermitente.

«**Sublimatu** daiteke artearekin tortura? Gainditu daiteke artearen bidez terrorea? Eta gainditzekotan, nork? Sublimatzekotan, nork? Torturatuak? Torturatzailerak da erredimitzen dena? Galdera hauek mahai gainean jarri nahi izan ditu Gloria Furmica artistak polemiko izatera deitua dagoen *Arratoiak* instalazioan».

- Hautsak harrotu ditun...

- Zer bestela, alfonbra bat tartean egonda?

Txekhovetikiko zorrak kitaturik, Gloriak atsedean eman zion bere antzerki-zuzendari karrerari. Lazkano ez zen sekula Francoren tapizarekin zer gertatu zen galdetzera ausartu, eta KM-ko erakusketa inauguratu zen egunean ulertu zuen dena. Non eta, KM kulturunean, postetxearen ondoan, hainbeste urte lehenago bere aitaren antzezpena, «okerreko lekura etorri nauk, Diego», hasi zen tokitik hain gertu.

Kristalezko kaiola horizontal handi batean sartuta zegoen tapiza, tapiza ez baizik eta alfonbra bat bailitzan. *Ready-made* bat, beraz, *object trouvé*, ez zekien oso ongi Lazkanok nola deitzen zieten artistek jada

existitzen ziren objektuak erabiliz eta haiei testuinguru berri bat emanez egiten ziren «artelan» haiei. Francoren irudia lurrean zegoen, eta dozena inguru sagu zebiltzan, batera eta bestera, alfonbraren gainean. Kristalezko kaiolan propio egindako tutu batzuetatik, bisitariak ura eta jatekoak ematen zizkieten Francoren irudiaren gainean batetik bestera lasterka zebiltzan sagu kumeei, aska garden txikiak nahieran betez. Janaria emateko tranpatxoak, Francoren irudiaren aurpegi eta gorputz-adar ezberdinen gainean zeuden, halako moldez non bisitariak berak nahi zuen Francoren gorputzaren atalera bidera baitzitzakeen saguak, dispositibo mekanikoen bidez jatena erortzen uzten zuen lekurantz, hain justu. Ikusgarria zen interakzioa.

- Zer iruditzen?
- Sadiko samarra.
- Hori zen asmoa.
- Hitz egin dun animalien protektorakoekin?
- Ez ditiat gaizki tratatzen.
- «Diktadore-dieta»...
- Arratoiei onena ematen zieat...
- Izatez, Gloria, saguak ditun, ez arratoiak.
- Eta zer diferentzia zagok?

- Aita fumigatzailea ninan, aldea nabarmena dun:

Rattus rattus ditun batzuek eta besteak...

- Zer nahi huen, zaborrontzietan bila hastea?

- *Erosi* egin ditun saguak?

- Jakina.

Irribarre egin du Lazkanok. «Artista hauek, erre-mediorik ez». Xanpain kopa altxatu du gero.

- Ospatzeko gauden hemen. Eta instalazioa oso ona dun.

- Hik eman hidan ideia: «Museo bati eman, zaborretara bota», gogoratzen? Zergatik ez biak, aldi berean? Hasieran zaborretara bota eta ezkutuko kamera bat jartzea pentsatu nian, jendearen erreakzioak behatu eta zabortegira nola eramaten zuten erakutsi, tapizaren prozesu osoa... Gero, ordea, zuzenean egitea askoz ere kitzikagarriagoa izango zela iruditu zitzaidan.

- Erraza heukan hala ere izenburuarena, *Arratoiak* jarri orde... zergatik ez *Sagu-tranpa*? Keinu bat Agatha Christieri.

- Ez nuke nahi *la bella* Ines etorri eta gaizki sentitzea.

- Denok ordaintzen dinagu peajeren bat.

Barre egin eta xanpaina edan zuten biek, ikusle batek Gloria besotik heldu eta erakusketaren beste gune batera eraman zuen arte, hura norbaiti aurkeztu asmoz.

Arratoiak ez zen erakusketa hartan polemika eragin zuen bakarra izan: *Penthouse* aldizkariko azal baten bertsioak ere zeresana eman zuen. Emakumezko porno izar bat agertzen zen bertan, gerritik behera biluzik eta hankak zabalik, Gustave Courbeten *Munduaren sorrera* koadroaren aldagai bat nolabait, soilik kasu honetan modeloak bere hankarteko pubis sarriari so egiten ziola. *Penthouseko* portada orijinalaren gainean, odolezko orban bat ipini zuen Gloriak Photoshop bidez, emakumearen hilekoaren gisan, mantxa odoltsuari Euskal Herriko zazpi probintzien itxura emanez. *Odolusten* zen konposizioaren izenburua.

Gloriari deus esan gabe, astero-astero bisitatuko zuen Diegok erakusketa, hark iraun zuen bitartean, *Arratoiak* instalazioari arreta berezia jarritz. Saguak gero eta gizenago zeudela ikusi, eta haietako batek kumeak izango zituen hirugarren astean. Astea joan eta astea etorri, Francoren aurpegia gero eta zirtzilatua eta difuminatuago. Usaindu egiten zen ia sa-

guen hesteen emaitza oparoaren sunda zaharmindua, kaiola isolatuta egon arren.

KM-ko expoa amaitutakoan instalazioarekin zer gertatuko zen galdetu zion Diegok Gloriari, hura lausengatzaileen besoetatik erreskatatzea lortu zuenean.

- Artium museoak erosi dik... Jakin nahi duk zenbat ordaindu duen?

- Esadan Napoleon zaldiaren lanak baino gehiago dela, behintzat.

- Askoz gehiago. Zer iruditzen zaik nire hurrengo antzezlanari Artiumi esker ekoitziko dudala esaten badiat?

- Izar bihurtu haizela.

Galderak sortu zitzaizkion Lazkanori. Lazkanori beti sortzen zitzaizkion galderak. Sagu eta guzti saltzen zuen instalazioa? Nork ordezkatuko zituen saguak haiek hiltzen zirenean? Kontratuan zehazten zen hori guztia?

- Hara, aitaren lagun bat aurkeztu nahi dizut: Roberto, Diego... Diego, Roberto...

Odola izoztu zitzaion Diego Lazkanori.

- Ezaguna egingo zaizu agian bere aurpegia, Txekhoven antzezlaneari parte hartu zuen.

Vengerovitx.

«Hiltzea ez, jipoitzea... Ez da inor hil behar... Zer-tarako hil? Hiltzea hain da... Jipoitzea, hau da, kolpeak eta kolpeak ematea bizi guztian gogora dadin...».

Horra hor bigarren aukera. Horra hor, azken aukera.

Bostekoa eman zioten elkarri. «Ez nau ezagutu», ondorioztatu zuen Lazkanok. Zergatik bizi da hemen? Ez ote du bera ezagutuko duten beldurrik? Nola izan dezake halako konfiantza itsurik zorian? Kapusaiaren pean egoteagatik salbu sentitzen zen, ukiezin? Haren ahotsa ezagutuko ez zuelakoan zegoen?

«Zerbait apurtu, aurpegia desitxuratu... Zenbat kostako zait hori? Sssh... Norbait dator... Alden gaitetzen apur bat...».

- Urte askoan -esan zion bere torturatzailleak.

Urte askoan. «Jakingo bahu zenbat».

Hortzoiak nikotinak horituta, portzelanazko hagin-ordeak. Ondo perfumaturik eta tantai, hala ere. Alkan-dora bertan erantzeko gogoia sentitu zuen Lazkanok, *chibato* hitzak sorbaldan jarraituko balu bezala: «Zergatik utzi zenion zure lagunari ortografia akatsa egiten, *Fabian?*».

Haatik, Lazkano ez zen mugitu ere egin, bere torturatzailleak zerbitzari bati airean kendu zizkion bi

ardo kopetatik adeitasunez eskainitakoa hartu eta edaten hasi zen, hurrupa txikietan. Erakusketari buruz galdetzea erabaki zuen.

- Zer iruditzen zaizu *Arratoiak*?

Ez da Roberto batere estutu.

- O, arte modernoa eta ni... Zaharregia naiz gauza hauek ulertzeko.

- Baina gustatzen zaizu? Batzuei gehiegizkoa iruditatu zaie.

- Ez naiz objektiboa. Gu bion artean -esan zuen ahotsa apalduz-, nik badakit nondik atera duen tapiza.

Jokoa jarraitzea erabaki zuen Lazkanok. Ez zuen harridura itxuratzen premiarik izan. Esan zionak baino, esan izanak harritu zuen Diego.

- A, bai?

- Generalisimoaren zalea zen Gloriaren aita, bazenekien?

- Arrastorik ere ez.

- Beste garai batzuk ziren, alferrik da orain hautsak harrotzea.

- Gloriak exorzismo bat egin nahi izan duela esan nahi duzu?

- Litekeena da. Baina bere aita frankistaren dirurik gabe ez zukeen sekula artearen munduan aurrera egingo. Hori da artista ezagun gehienen paradoxa: familian dirua izaten dutela ia beti.

«Horretan ez zaio arrazoirik falta», pentsatu du Lazkanok.

- Probokatzen duten artelan hauek, tira, nik ez diet ikusten, baina izan lezakete beren grazia. Nik aukeran, nahiago dut Tiziano.

Tipo zentzuduna ematen zuen Robertok. «Nire torturazailleak», derrigortu zuen bere burua pentsatze-
ra. Baina ezin zion okasioari alde egiten utzi. Oraingoa ez. Berriro ez. Gauzak ezin zuen horrela amaitu. Zerbait esan behar zion.

- Zuk ez duzu inoiz premiarik izan?

- Zertarako, exorzismoak egiteko?

- Bai, esan nahi dut, ez dakit, iraganeko damuren bat, sortzezkoa edo herentzian jaso, egoerak behartuta egin behar izan eta orain damu zaizun zerbait...

- Zorionez ez.

- Zorionekoa zu.

Dardara egin zion ahotsak Diegori une batez, zalantza izan zuen hura esateko indarrrik bilduko ote zuen edo ez. Azkenean bildu egin zuen.

- Eta esan, *Fabianek* izan ote du inoiz damurik?

Atezuan jarri zen Roberto. Bat-batean atera zitzaion barruan zeraman polizia.

- Ez nauzu ezagutzen, ezta? -Lazkanok bere eskuin sorbalda ukitu zion ezker eskuaz, eskuinarekin kopa eusteari utzi gabe.

Dardara lekuz aldatu zen: Robertoren ahotsean zegoen orain.

- Ez... Barkatu, ez naiz jabetzen...

Egia zioen agian. Okerrago, orduan. Bere eskuetatik pasatutakoak asko izan ziren seinale.

- Eta «Boger kolunpioa» esango banizu?

Listua irentsi du Roberto-Fabian-Vengerovitxek.

- Beste..., beste norbaitekin nahasten nauzula uste dut...

Kopa altxatu zuen Diegok, topa eginez bezala. Begietara begiratu zion, Robertok begirada apaldu arte. Gero, Gloria agurtu eta erakusketa utzi zuen, bere birikekin borrokan, bere buruarekin bakean. Josteko makina bilakatu zitzaion bularra, dena taupada, baina bazekien makina horrek deus gutxi josi ahalko zuela honezkero.

Hiru lagunak

«**Jolas** gaitzen hemendik hogeita bost urtera non eta zertan ibiliko garen asmatzera» epigrafearen pean sailkatuta gordetzen zuen egun haren akordua zen mingarriena Diego Lazkanoren buru-zokoan.

Xabier Soto kandela baten argitan dago, tarte estuko orrazi nakaratuaz ezkerreko marra markatu eta ilea behin eta berriro lixa-ildokatzen duela.

- Noizko argi hori, Zeberio?

- Fusibleak fundituko zituan, zer nahi duk? Hainbesteko arriskua al dik hire tupeak, Elvis? Ez hau utziko egun batean orraztu gabe joanda ere, gizona.

Adarra jotzen diote elkarri, beti bezala. Kepa Zeberio ohikoan baino berritsuago dago, gainera.

Lazkano bera atera da eskailerara, badaezpada. Birritan sakatu dio kontaktuari: eskailburuko perkuto-reak lehorki klaska egin du, alferrik. Ez dago argirik eraikin osoan. Matxurak eta grebak jeneralak diren garaia da.

- Begira ezak koadro elektrikoa, ea; hi haiz espezialista.

Pazientzia galtzen ari da Soto. Laster etorriko zaio neska –«zuek ez duzue ezagutzen», esan die- eta ez du oraindik bere kopeta gaineko olatuaren kiribila gobernatzerik lortu, hain du kalpar harroa.

– Jakina, koadro elektrikoak niretzat, ezta? Ez adarrik jo, bengaiok! Hik bestelako koadroak bakarrik ulertzen dituk, espresionismo alemaniarra eta... nola zen? Dunlop edo...

– Duchamp, Zeberio, Duchamp...

Pentsamendu konkretua eta pentsamendu abstraktua. Ekintzaren eta hausnarketaren arteko betiko gatazka.

Barrionuevo Barne ministroaren argazkia dator *Eginen* azalean, Intxaurrendoko kuartela bisitatzen izana da bezperan. Sotok errotulagailu beltzez karikatura egina dio gainerik. Barrionuevoren ondoan «Zaharrak Auxoberri» idatzia du, ministroaren izena euskaldunduz.

Orwellen *1984* dauka esku artean Lazkanok, eta itzalaldiak jarraitzen duen arren, begiak iluntasunera ohitu orduko, irakurtzen jarraitu du, kaleko argiaren babes zeharkakoarekin bakarrik. Soto eseri zaio ondolan, bere burua orrazteari utzi gabe. Barruan indarra du, jaiotzatiko ekintzailea da. Sumendi nekagaitza,

alaia. Gogaikarria ere suerta liteke bere energia sobe-
rakina, iraingarria batzuetan.

- Ochenta y cuatro... Urtebete falta duk. Batek zakik nola bukatuko dugun hemendik urtebetera... Eta hemendik hogeita bost urtera... Non ikusten duk hik hire burua hemendik hogeita bost urtera, primo?

Laburrak izaten ziren Lazkanoren erantzunak. Ki-
kildu egiten du Soto eta Zeberioaren presentziak.

- Nahiago horretan ez pentsatu.

- Ba nik asko pentsatzen diat ba: zerikusirik ez Or-
wellek dioen horrekin. Herrialde libre bat izango diagu
eta bizpahiruna emazte igual... Ditxosozko dibortzioa-
ren legearekin hainbeste kalaka... «Emazteak» ere ez,
larrua jotzeko irrikaz den emakume sortatxoa... Haiek
ere eskatuko ditek eurena, jakina. Eta guk eman egin-
go zieagu: motxina zurrupatzea gauza ederra duk,
batez ere zakila emearen bularretan tente estututa
badaukak aldi berean. Neskaren zilborreraino iristen
duk isuria horrelakoetan, aluko zukuaren gozoak hire
ezpainak bustita. Gorritu egiten haiz ni entzunda,
primo?

Lazkano gorrituta dago, baiki.

- Ze ezkertiar mota haiz hi sexuaz hizketan hasi
eta musu-abrikot jartzen dena? Bai, bazakiat... Kezka

intelektualak baretzeko ere bai, izango duk emakumerik, ez iezadak horrela begiratu. Akojonantea lukek larru-jotze intelektualak eta besteak eme berberekin egitea, ezta? Errape intelektualaren joritasuna, nola antzeman, ordea? Gehiegi irakurtzen duk, primo.

Zozoak beleari ipurbeltz: botila-ipurdiekiko betaurrekoak dituen gizona, Soto, nor eta bera, antzerkidazle promesa, ispilu parean orrazten edo idazmakina astintzen ez dabilenean irakurtzen ematen dituen gauak eta egunak, Lazkanok gehiegi irakurtzen duela esaten.

- Eta hori txarra duk?

- Ez txarra eta ez ona. Iruditzen zaidak jende askok irakurtzen dituen liburuen ostentazioa egiten duela, beste batzuek Marbellan dituzten yateen ostentazioa egiten duten bezala... Burgesen azturak iruditzen zaizkidak biak, zer nahi duk esatea. Ez irakurtzea, baizik eta irakurritakoaren ostentazioa. Ez ote dugu irakurtzen bandoa jotzeko? Esadak egia...

Lazkanok ez du ezer erantzun, ezta beharrik ere, aurki aldatu baitu Sotok elkarrizketa gaia.

- Argi hori! Konponduko duk ala ez, Zeberio?

- Ari nauk ahalegintzen...

Lazkano aurreko elkarrizketara itzultzen saiatu da:

- Hogeita bost urte barru... Ordurako seme-alabak hazita izango ditiagu.

- Nik alabak bakarrik ahal balitz, primo. Alabak bakarrik. Semeak itsustu egiten dituk ikaragarri adin batetik aurrera.

Ez zen erraza batzuetan Soto adarra jotzen noiz ari zen bereiztea. Alabaina, Sotoren aitortzak harritu egin du Lazkano. Berak ere pentsatzen du lantzean behin etorkizunean, beraz. Bere hizketa-modu harro, probokatzailerik, txantxazale eta hanpatua itxura hutsekoa da. Sukaldera sartu da, hala ere, Diego, elkarrizketa areago luzatu baino lehen. Zeberio topatu du bertan: patioko leihotik fusibleak goratu eta argia itzuli da berehala atari osora.

- Gaurkoz adarra nahikoa jo zioagu Sotori, Lazkano -xuxurlatu dio Zeberio-. Gainera, izozkailua argindarrik gabe utzi eta atzo ehizatu nituen eperrak alferrik galtzea besterik ez diagu behar.

Ikasle dira oraindik. Zeberio aitari egiten dizkion lantxoena da han soldata bakarra. Manifestazioetan korrika ibili eta paskinak bota zale dira. Oihu egiten dute. Gauza askoren atakan sentitzen dira.

Sentitzen dira eta daude.

Etxeratu direnerako eperrak lumatuta ditu Zeberriok. Bi balde harraskapean, bata ur hotzez betea, eta ur beroz betetzen ari bestea.

- Zatozte hona.

Zeberriok begiak herstekeo eskatu dio Sotori. Ia irakiten dagoen baldera sarrarazi dio eskua.

- Jode!

- Lasai, hire tupearentzako ona duk-eta! Agoanta!

- Erotu egin al haiz? Erretzen ari nauk, irakiten zagok!

Beste eskua hartu eta ur hotzetan jarri dio.

- Ostia, Kepa! Ze ari haiz?

- Esperimentu bat duk... Ur beroa daukak batean eta hotza bestean, bai, Soto? Bereizteko gauza haiz, seguru hago ongi dakiala zein den ur hotza eta zein beroa, ala?

- Jakingo ez diat bada!

- Baina luzaroan ariketa bera errepikatuz gero hire nerbio sistema erotu egingo lukek eta ez hintzateke gai izango. Azala erretzen ari zaiala irudituko litzaiake, baina ez huke jakingo beroagatik edo hotzagatik den. Jakintzak Txilen horrela torturatzen dutela jendea.

- Jode, Zebe, hau ez duk Txile!
- Hori duk hik uste duana.

Nekez irudika zezakeen Diegok garai hura Sotoren etengabeko antzerkirik, haren txantxa tai gaberik eta haren aldarte jostaririk gabe. Trebea zen imitazioetarako, berehala jabetzen zen jendearen tik, hitz errepikatu eta keinuez -berdin imitatuko zituen mahaiaren bueltan zeuden afaltiarak, garai bateko irakasleak zein telebistan ikusitako Soltxaga edo Carrillo, Manuel Fraga edo Felipe Gonzalez, Arzalluz edo Idigoras-. Ez zen afalosterik Telediaroan ikusitakoaren berrinterpretazio surrealista egiten ez zuenik. «Pailazoa», esan ohi zion beti Zeberio, baina hark ere Lazkanok adina barre egiten zuen Sotorekin, zertan uka.

Ikusmen txarra bezain belarri ona zeukan Sotok. Italiara zipitzik ere ez zekien, baina ama opera-zale amorratua izaki buruz ikasitako aria zatiak abestea gustatzen zitzaion, esaldi solteak, batzuetan kantatu eta beste batzuetan solemnitaterik handiz errezitatu egiten zituenak, mahaikideak estonatuak utziz. Dozenaka esaldi zekizkien -geroago jakingo zuen Lazkanok aria ospetsuen izenburuak baino ez zirela gehienak-, eta

beti aurkitzen zuen une egokia haietakoren bat solasaldian sartzeko: *Nessun dorma, lasciate ogni speranza, E lucevan le stelle...* Frantses hiztun trebea bazen, zekien frantsesagatik baino areago, bere entzumen zorrotzagatik zen. Ahoarekin eta aurpegiarekin bakarrik ez, gorputz osoarekin hitz egiten zuen frantsesez, erabat aldatzen zitzaion taxua, beste pertsona bat emateraino.

Miarritzeko bistro hartan, udatiarren babesean eta haiek kamuflaje bezala erabiliz, aspaldiko partez ahate erregosi on bat bazkaltzeko gutizia bete eta hura jatekotan eseri ziren eguna zeukan Lazkanok akorduan. Menua hartu eta Parisko tankerak imitatu zituen platerak eskatzeko; gustatzen zitzaion antzerkia, ez hura idaztea bakarrik. Lazkanok ez zuen sekula ahaztuko nola eta zein modutan puztu eta poztu zen Soto, kamarero gazteak paristarra ote zen galdetu zionean. Poz hori, gu ez garen baina une horretan izan nahi genukeen norbaitekin nahasten gaituzteneko, gu ez garen eta sekula izan nahi ez genukeen norbaitekin nahasten gaituztenekoak anulatzen gaituen adina harrotzen gaituena.

Gogoan zuen Lazkanok nola adiskide batek oporetara joan eta zakurra bere ardurapean utzi zion as-

tebetez, Soto bere antzezlan bat amaitzekotan zela -une kritikoa, beraz-. Idazmakina jo eta su ari zen bitartean ez zion zakurrak bakerik ematen. Hispano Olivetti zaharraren saka-taka hotsen erritmora belarri eta buru astintzen zituen, lurrari lotutako dantza tribal baten gisako trantzean.

- Literaturzalea atera zaiguk zaunkaria -bota zion Lazkanori.

- Musikazalea, esango nitek nik. Hire perkusioa gustatzen, nonbait.

- Balitekek: Bob Marley ipini zioat lehen eta zoratzten jarri duk. Gloriari galdetu beharko diok, antzezlanetan zakurrik behar duen.

Geroxeago galdetu egin zion Lazkanori: «Hi, zer jaten ditek zaunkariak?».

Serio galdetzen zuen. Kalekumea izan-eta, bereztat zuen xerra erdi bana ematen zion, gai zen arrautza frijitua eta bertan bustitzeko ogi kozkorak zakurrari emateko ere, edozein astakeria, ahozapia ere igual jarriko zion, kubiertoak, batek daki.

Artean iparraldera pasatu gabea, artean bere destinoaren ezjakin, artean Lazkanoren soziologia apunteak irentsi zale -hobby hutsez, esan ohi zuen; bere lagunak ikasten zituzten karreraren egarri zen, berea ez

zitzaion aski, apenas unibertsitatetera azaldu gabe nota altuekin gainditzen zituen filosofia eskolak gutxiegi ziren Sotoren jakin-gosearentzat-.

Karneta berritzera lagundu behar izan zion Lazkanok egun haietako batean Sotori. Lazkanori oraindik beldurgarri zaizkio karnetak eta pasaporteak ematen dituzten bulegoak, baina 1983. urtean askoz beldurgarriago are. Susmagarriak izan eta atxilotuak izateko arrazoiak zituzten, parte hartua zuten Lemoizen aurkako manifestaldietan, amnistiaren aldekoetan, eta esku hartu, ez oihuka bakarrik. Horregatik zen izutze-ko modukoa, nola eta modu bolondresean, zerekin eta norbere fitxa osatuko zuen argazki batekin, hara karneta berritzera joan beharra. Ez zen, inondik ere, trago atsegina kautxuzko zigiluen, tintaren kirats toxikoaren eta fluoreszente hodi txistukarien territoriora sartzea; gorrotagarria zen argindar estatikoak kargatutako aire hura arnastea bera, idazmakinak mokokatzten zituzten hatzen hotsa oro etxeko gozoaren pare egiten zitzaion arren ziurrenik Sotori. Lazkanori, aldiz, oilo ipurdia ipintzen zioten leku haietako gaizkile bilatuenen kartelek, Ducados zigarrokin zanpatu eta kafe zaharminduaren usainak zein aluminiozko artxibategien kirrinkak.

- Zakurrarekin joan behar al diagu?

- Zakurtegira goazak, bat gehiago ikusita jabetuko direla uste al duk?

Etengabeko txantxa haiek, goiz bakoitza, pauso bakoitza, eginbehar arrunt eta gogaikarri bakoitza gozatu eta hari printzaren bat ateratzeko grina estimatzen zion Lazkanok Sotori. Ez zegoen halako jende askorik. Ez zen kontua beti alai zegoenik bera, burumakur egonda ere bere gogo lausoari etekina ateratzeko bezain buruargia zela baizik: ez zion bere buruari ekin-tzarik eza barkatzen, eta idaztea eta hitz egitea zen Sotorentzat ekin-tzarik zuzenena. Nobela ibiltaria zen Soto, *performance* hitza gure artean sasoiko jarri aurretik hogeita lau orduz *performer* gisan jokatzeko zuena, ez agian modu kontzientean, horrelakoa zelako baizik, barrutik ateratzen zitzaion.

- Ez zigutek zakurrarekin sartzen utziko, Soto.

- Eta hi haiz Orwell irakurtzen ari dena, primo? Kontrolatuta eduki gaitzaten karneta ateratzera goazak txintxo-txintxo, hi; haiei egiten zieagu mesede eta ez alderantziz.

Lazkanok bere burua eskaini zion Sotori, geratuko zela bera kanpoan mihiluzearekin, baina Sotok, «ezta pentsatu ere», dibertitu egin nahi zuen, «estatuak

martxan jarri duen errepresio sistemaren barruan» ere dibertitu.

Sarrerako polizia uniformatuaz gain -aspaldi ez zela bi hildako eragin zituen komando antikapitalisten atentatu batek delegazio hartan bertan- ohartxo bat zegoen atean. Ez zuen Sotok debaldeko festarako askoz gehiago behar. Ohartxo bat aski.

- Están prohibidos los perros, joven -ohartarazi dio sarrerako poliziak.

Sotok, ateko ohartxoa seinalatu dio, xalotasun antzeztuarekin, apal antxa:

«Están prohibidos los perros, excepto en el caso de los perros lazarillos».

- Él es un perro lazarillo -bota dio poliziari, hari jada mila bider irakurria izango zuen txartela berriro irakurtzeko denbora aski eman bezala.

Lazkano urduriak, bere aldetik, ez dio polizia nazionalak zorroan duen armari begirik kentzen.

Poliziaren erantzuna, aurreikustekoa:

- Pero usted no está ciego.

Akojonatuta ez balego, «pero usted no está ciego», barre egingo zuen Lazkanok, Sotoren zazpi dioptriako betaurreko botila-ipurdiekikoak gogoan. Soto ere akcjonatuta dago, baina dioptriei eta bere

bista motzari buruzko txantxa egiteko tentazioari eutsiz, beste bide batetik erantzun dio, esaldia etxetik buruz ikasia balekar bezala.

- No veo que el cartel diga nada sobre estar ciego.

Horrelakoa zen Soto, poliziak «no me vacile» esan eta zakurrak azkenean Lazkanorekin geratu behar izan zuen arren kanpoan, azioarekin irribarretsu eta garaile sartu zen behintzat Gobernuaren delegaziora Soto, behartutako zerbait egiteari berari ere etekina ateratzen dakien pertsona ohiz kanpokoia, «pero usted no está ciego», «pero usted sí», hainbeste ateraldi, pentsatu eta esan gabe, pentsatu eta esandako.

«Están prohibidos los perros, excepto en el caso de los perros lazarillos».

«No veo que el cartel diga nada sobre estar ciego».

Soto eta Zeberioaren izenak betirako elkarren ondoan geratu diren arren, (sekula ez Zeberio eta Soto, beti Soto eta Zeberio), eta elkarren ondoan ikustera hain ohiturik bata bestea gabe pentsaezin zaizkigun arren, egia osoa aitortzera, oso ezberdinak ziren biak. Ofizio, giro eta bizimolde bereizia eramango lukete 80etako

hamarkada borborkarian ez beste edozein garaitan edo munduko beste edozein lekutan jaio izatera, eta hegazkin batean elkarren ondoan tokatuz gero -ez zuten inoiz hegaldirik hartu, aukera hori izan gabe hil zituzten- nekez izango zuten ziurrenik batak besteari zer esanik, kortesiazko lehen bi minutuez haraindi. Moltxo ezberdinen artean ere sortzen dira, aurreikuspen guztien kontra, gurutzatu eta ebakitzen diren sekzioak, udako maitasunari eusteko bezain setati diren bikoteak badira -gero damutzeko edo ez damutzeko-, elkar erabiltzen hasi eta elkar maitatzen amai dezakegu zenbaitetan, edo elkar jasaten eta jasatea maitatzea dela sinesten; gaitasun kontua da agian, gungandik aparte dagoen norbait gure esparrura erakartzen saiatzea eta esparru hori erakargarri suerta dakion ahalegintzea, edo alderantziz, bestearen baitan abandonatzea -abandonatzea zein ederra den, ez esan ez denik ederra zeure burua norbaiten edo zerbaiten besotetan abandonatzea-, abandonatzea hasieran aspergarri eta ezberdin iruditzen zaigun hurkoaren besotetan, bere munduan sartzea, bere denbora-pasa eta afizioetan, bere zaletasunetan, «hain txarrak ere ez dira, hain txarto ere ez daude, zergatik ez?», amore ematea, hari -lagunari, maitaleari, ezkontideari- gure

elkarrizketak eta planak eta egutegiak molda ditzan uztea, nork ez du egin? Sotok eta Zeberio, ingurua-barrak zirenak ez baizik eta beste batzuk suertatu izatera, lor zezaketen agian haien arteko harreman estu eta iraunkorrik, nork daki.

Agian bai, baina ez heriotza bezain estua.

«Beroa eta iraultza» moduko teoriak aletzen zitue-nean (iraultza guztiak udan izaten ei ziren), zein hiz-tun trebea zen erakusten zuen Sotok eta zein entzule trebea zen Zeberio. Biengandik hartu zuen zerbait Lazkanok. Aseezina zen Sotoren konspiratzaile arima, giza jardunak eta txarkeriak azaltzeko eta ulertzen saiatzeko bere grina. «Mussolini; gustura hartuko nuke kafe bat harekin», esan ohi zuen, «Silvana Man-gano; gustura hartuko nuke kafe bat harekin» esaten zuen ber eran. Hizketa eta eztabaida gustatzen zi-tzaizkion, epatatzea, «ilunak gaituk barrutik, baina ez gaitzala zahartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa» esan ohi zuen, momentuan bururatu eta Lazkanok hainbat urte geroago libreta batean hitzez hitz ez apuntatu izana damu zuen hainbeste esaldi eder, nor-baiti lapurtuak askotan, Soto betirako lagun izango zuela sinesteko bezain xalo zelarik oraindik, hainbes-te esaldi potolo hain modu naturalean jaulkiak, hura

gogoratzen zuen, hura bai, hura ez zuen Lazkanok ahaztu, «ilunak gaituk barrutik, baina ez gaitzala zahartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa», gertatzen ez diren gauzak, jada ezinezkoak diren gauzak, gauzatu ez direlako mingarri bilakatzen diren gauzak, horiek ez dira ahazten.

Lazkanok ez zuen zalantza izpirik: idazle handia izatera deitua zegoen Soto. Sotorentzat giza harremanak zirena, ostera, Zeberioentzat egitura elektrikoak ziren: kableak, instalazio singleak eta konplexuak, dinamoa, korrante segidakoa eta etena, entxufeak, etengailuak, argi-giltzak, transformadoreak, toma jeneralak, kobrezko kable zurituak eta lotuak. Gizakia-
ren koldarkeriaren jatorriaz edo bere distiraz zerbait jakin nahi izatera, galdetu Sotori. Itzalaldien jatorriaz edo molde eta eite guztietako eraikinak eta gelak argitzen zituen argindarraz zerbait jakin nahi izatera, galdetu Zeberiori.

Soto eta Zeberioen gaitasunak argi bereziak zuden, bai, eta ez zegoen gehiegi pentsatu beharrik sasia urte batzuk igaro izan balituzte nor arituko zen zertan etorkizunean. Agerikoa zen lan eta zereginen banaketa. Ez zuten, ordea, funtzio aurreikusgarri horiek praktikan jartzeko denborarik ere izan: ez damu-

tzeko, eta ezta damutzeko moduko ezer egiteko ere. «Beroaz eta iraultzaz» ari zela, «termodinamikaz» hitz egiteko gogoia piztuko zitzaion Zeberiori, eta etorkizuneko energia berriztagarriez (orduan oraindik ez zeukaten izen hori) leziatuko zituen, energia nuklearraren aurrean haizearen indarrak zenbaterainoko aukerak izan zitzakeen.

- Atariko haizea argindar bihurtu nahi duk, Kepa? Esadak, nola egiten duk hori?

- Oso erraz, Xabier: haize-erroten bidez.

- Haize-errotak? Ez al haiz hi On Kixoterena jotzen ariko? Gaztelan haize-errotak argindarra ateratzeko... Ez gaituk biziko hori ikusteko.

«Ez gaituk biziko hori ikusteko». «Ilunak gaituk barrutik, baina ez gaitzala zahartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa». «No veo que el cartel diga nada sobre estar ciego». Sotok garai hartan makinaz jo izan bali-tu bezala Lazkanoren buruko ikatz-paperean grabatuta geratu ziren esaldiak.

Etengabea zen Zeberioaren akordua ere Lazkanoren baitan, azken urteotan hainbeste ugaritu ziren haize-errota erraldoi horietako bat ikusten zuen bakoitzean begiak malkoz betetzeraino. *Ez gaituk biziko hori ikusteko*. Ze arrazoi zuen Sotok.

Gazte hiltzeak izan ditzakeen balizko abantailetan pentsatzera derrigortzen zuen batzuetan Lazkanok bere burua. Hotz-hotzean. James Deanen heriotzari buruzko dokumental bat ikustean telebistan, demagun, aktore amerikarraren mitifikazioa, zein neurritaraino zitzaion Soto eta Zeberioen hilketari aplikagarri? Zerikusirik ez haiekin, baina gazte hila hura ere, aukeraz betetako etorkizun distiratsua aurrean eta akabo: James Deanen zilar koloreko Porschea ez zuen parez pare zetorkion autoak ikusi, desagertu egin zen errepidearen grisean auto grisa, disolbatu, eguzkiak kontrako bidetik zetorkion gidariaren begietan urtu eta difuminatu. Auto gorri bat gidatu izan balu James Deanek, ikusgarriago zen koloreren bat kontrako norantzan zetorren txoferrarentzat, ez omen zen istripu hilgarririk izanen. Auto gorri bat edo beste edozein auto gidatzeko abildaderik balu Diego Lazkanok, bestelakoak izango ziren gertaerak. James Deanen kasuan erraz irudika genezake arrantxo batean bizitzen laurogei urterekin, kontserbadore, operatu, kaskagor, alkoholiko, markatik fuerako kokainazale bilakaturik. «Guapoagoa banintz, hilda nengoke», nork esan

zuen esaldi hori? Edo «naizen bezain guapoa izanda, eskerrak ez naizen oso altua: metro eta laurogei neur-tuko banitu, hilda nengoke». Nork esan zuen beste hori? Hori zen gutxienekoa. James Deanen heriotzari, baina, Paul Newmanen helduaro zoragarria gainjar-tzen zitzaion askotan Lazkanori buruan, bazegoen au-kerat bat, bazeuden zahartzen zekitenak edo jakin ez arren zahartzen ikasten zutenak, talentu handia behar da horretarako, edo belaontziak erosteko adina diru eta zorte apur bat, osasunarekin batera. Egin zezakeen zerrenda bat bizitzak dakartzan gauza gogaika-rriekin eta deserosotasunekin, jasan beharreko umilia-zio nardagarriekin, hanka-sartzeekin, norbere buruko leizeren batean ezkutatzeko zaigun ziminoaren ager-pen ezustekoarekin zerikusia duten sentimendu zikoit-zekin, «ilunak gaituk barrutik, baina ez gaitzala za-hartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa». Nork nahi zituen beretzat, desleialtasunak, gurasoen zahartza-roa, norbere larruaren laranja-azal bokazioa, ilearen galera edo zuritzea, erraien zaratak eta presentzia, gorputzak obeditzeari uztea, pixkanaka edo bat-ba-tean, nork nahi zuen seme-alabei -etorkizuneko pro-mesa ei diren paralitiko ttipi horiek- dena azaldu behar neketsua guk egindako akats berberak edo oke-

rragoak egin ditzaten funtsean, nork behar zuen hori guztia, organo bitalen traizioa, behiala isil eta diskretu ziren hezurren aldarri zurruna, inguruko minbizia edo norberarena, «analisi batzuk egingo ditugu badaezpada», hitz batean, nork behar zuen endekatzea, nork behar zuen hori dena, nork ez zeukan soberan bizitzaren erdia, edo hiru laurden. Itxurakeriaz ez mintzatzearren, egunez egun eta astez aste, hilabetez hilabete eta urtez urte geure borondatearen kontra egiten genituen gauzen zerrenda luze, amaiezina. Bizitzak onetik zuena ere, ongi zekien hori Lazkanok, errepikatu egiten zen une jakin batetik aurrera, bizitzak onetik zuenak ere ateratzen zintuen zeure onetik: larru-jotze bat edo mila, mozkorraldi bat edo mila, mozkorraldirik onena eta larru-jotzerik onena, adrenalina txuterik latzena igaroa zaizula dakizu adin batetik aurrera. Zertarako jarraitu, beraz? Soseguaren erreze-ta omen den jakinduria erdiesteko, jakinduriaren erreze-ta omen den sosegua erdiesteko, Paul Newman bilakatzen saiatzeko haren geneen jabe izan gabe?

Idazle kongresu guztiak ziren berdinak, pentsatzen zuen Lazkanok, ezagututako pertsona orok pizten zuen haren oso antzekoa zen aspaldi ezagututako beste norbaiten gomuta zehatza. Gizon-emakume

errepertorioa, psikologoez ongi zeukaten sailkatua, hogei tipo baino askoz gehiago ez, eta hogei horietako bakoitzetik hogeinaka ezagutuak zituen honezkero, Soto bera eta haren egarria asetzeko adina jende eta gehiago, hala bururatzen zitzaion. Ala bere burua en-gainatzen ari zen berriro? Soto ez ote zuen akaso bizi-tzak sekula aseko? Talentu kontua zen agian -Sotok handia zeukan, Lazkanok ez-? Horregatik egiten zi-tzaion aspaldion hain aspergarria editore, idazle, ira-kurle berriak ezagutzea? Eutsiko ote zion Sotok «no veo que el cartel diga nada sobre estar ciego» aldarte umoretsuari beste hogei urtez bizirik jarraitu izatera? Ez zegoen segur esaterik, baina ziurrenik ez.

Eta, hala ere, gazte hiltzeak izan ditzakeen balizko abantailetan pentsatzera behartzen zuen batzuetan Lazkanok bere burua, nahiz eta ez zen gauza bera, inondik inora ere ez, trafikiko istripua edo suizidioa edo tortura. Beren buruaz beste egiten zutenen kasuan beti zegoen haien eskubide baten egikaritzaren kontsolamendua, frogatuta ei dagoen arren beren buruaz beste egiten saiatu eta bizirik atera diren haien gehiengo zabala damutu egiten dela saiakeraz: «Ongi pentsatuko ahal zuen, pisatuko ahal zituen balantza-ren alde bietan aldekoak eta kontrakoak, ez ote da

agian arrazoizkoa izan bere erabakia, eskuzabala, neurtua, errepikapenaren errepikapenari alto esan eta planto egitea erabaki duenaren zentzuzko deliberoa?». Suizidak izan du aukera agurtzeko, azken hitzak idazteko edo ez idazteko, momentua eta lekua aukeratu ditu, gauzak lotuta utzi ditu edo ez, baina badaki lotuta utzi dituela edo ez dituela lotuta utzi. Askok jakitea da hori, bizitzara etortzea aukeratu ez duenak heriotzaren unea aukeratzen du, eskubidea du, horrek mina sortuko dien arren askori edo auzo-errua: berekoitzat hartuko dute bere erabakia, baina..., hala ez balitz ere errepika dezagun, norbere buruarekin eskuzabal izatea ez al da eskuzabal izateko modu bat?

Soto eta Zeberioaren kasua oso bestelakoa zen, ordea: bat-bateko heriotza -ez hain bat-batekoa azkenean, torturatzen zituzten bitartean segundoen barruan ezkutatzen diren mendeak bistatzera iritsi ziren, bizidunek nekez ikusi dituzten haitzak eta labarrak-, idazmakinan orrialde bat sartuta oraindik, lerro bat erdi idatzian, hainbeste espektatiba ezerezera murriztuak. Eta, hala ere, gazte hiltzeak izan ditzakeen babilizko abantailetan pentsatzera behartzen zuen bartzuetan Lazkanok bere burua, ataka gaiztoaren bat to-

katzen zitzaionean, otutzen zitzaionerik zentzugabea zela bizitza gauzarik handiena balitz bezala ospatzea, ez zela hainbesterako ere.

Baina bazen: bizitza bazen hainbesterako, zenik eta bizitzarik zerri eta miserableena ere bazen hainbesterako «no veo que el cartel diga nada sobre estar ciego»; beti zegoen zirto baterako aukera, umeen iskanbilak eta xalotasun une eternoak -segundoen barruan dauden mendeak, ahaztu egin zaizkigu agian, baina ezagutu zituen gu izan ginen umeak mende horiek-; maitasunaren eta sexuaren promesa -promesarekin nahikoa zen hainbestetan, baita norbera promesa horren lekuko hutsa zenean ere, baita promesa hori urliak sandiari egin eta norberak atearen zirrikitutik ikusten zuenean ere; begirada biziberritzeko premia duen azeri zahar batek edo jainko nekatu batek bezala, promesen lekuko izatea nahikoa zen batzuetan-.

Bizitza ez zen ezer eta dena zen, bizitza ihes-lerro bat zen, posible zen bakarra, «ilunak gara baina ez gaitzala zahartzaroak erokeriarik egin gabe harrapa», ahantz dezagun inork gu ez garen beste norbaitentzat idatzi zuen rol bat egiten ari garenik, ahantz dezagun bigarren mailako geure aktore ziztrinen izaera saihestezina, edan ditzagun izpiak, edan dezagun ihesa, in-

termitentea den arren eta iragankorra. Intermitentea delako eta iragankorra. Dena. Intermitentea. Dena. Iragankorra.

Pinuak hondartzaraino heltzen dira. Harearen gainean ohandze gorrikarak osatzen dituzte pilatutako pinu-orratz idorrek, bertan urteak daramatzatela ematen du. Bozgorailu ziztrin haieetatik ateratzen den bateriak edozer dirudi bateria bat salbu: gasolina lata kolpatua. «Come on, let's twist again, like we did last summer; yeah, let's twist again, like we did last year...». Ahotsek eta koruek -uh, uh; wah, wah- salbatzen dute abestia. Soto eta Lazkano etzanda dauden lekutik Zeberio ikus dezakete makurtuta, katuak eusten dion Volkswagen furgoitxo herrenaren ondoan gurpil zulatua bere ardatzetik ateratzen. Sotok irribarre egin du, begi izkinak gaizto zimurtuz.

- *Consumatum est, primo...*

- Nola?

- Zakuan daukala...

- Ez al genieke lagundu behar?

- *Ménage à quatre?* Bai zera! Utz iezaioke... Holan-darrarekin ongi moldatzen ari dela ematen dik. Eta

gainera, behingoagatik ez zioz neskari musika aldatzeko eskatu.

«...and round and round and up and down we go again! Oh, baby, make me know you love me so...». *Inperioaren* doinuak. Elkarrekin izan zituzten eztabaidak oroitu ditu Lazkanok: Victor Jara, The Doors. Gero Anarekin akordatu da: Echo & the Bunnymen eta Errobi. Mikel Laboa eta Patti Labelle. Zeberioaren ondoan soineko laranja erdi gardena eta lastozko sonbreirua dituen neska erkina zigarro bat erretzen ari da, haizeak bere ordeztu erreko balu bezala ia, azkar kontsumitzen ari da zigarreta, tabakoaren eta errautsaren arteko denbora laburra zerbaiten gaztigu. Zeberiori begiratzen dio neskak, goitik behera, eskuak gerrian, haizeak sonbreiruko xingola, soinekoaren oihal berberaz eginga, astintzen dion bitartean. Soinekoa eta xingola ez bezala, haizeak ez du pinuen magaletan pila-tutako pinu-orratzik altxatzen. Bitxia, zenbait gauzak nola aurkitzen duten euren lekua munduan, isilik eta bazterrean. Pinu-orratz horiek, esate baterako.

Piztuta dago VW furgoiko irratia eta Chubby Checkerren kantuera jostaria entzuten da, Supermanen telesail zaharretako offeko ahotsa parodiatzen duela:

«Who's that flyin up there? Is it a boy? No! Is it a plane? No? Is it the twister? Yeah!».

Saxo soloa hasi denean eskaini dio zigarreta nes-
kak Zeberiori.

Sotok eta Lazkanok utzi egin diote harantz begira-
tzeari eta ahoz gora jarri dira. Zerura begira.

«Do you remember when things were really hum-
min'?».

Berriz harantz begiratzeko jiratu direnean, gurpi-
lak aldatu gabe jarraitzen du eta lau orkatila ikusi di-
tuzte furgoitxoaren bionboaz bestalde landatuta; bi
ortozik eta bi jantzita. Eternala begitandu zaien une
batez, oin biluziak hanka-puntetan jartzen ikusi dituz-
te. Neskaren oin zola zikinetan pinu orratz gorrikara-
ren bat dago itsatsita.

Erraza zen irudikatzea: Sotok Zeberio esnarazi du
siestatik, edo esnarazi ez, Zeberioaren loa erbi-loa zen
beti eta ez zegoen hura esnatu beharrik, salto batean
jaikitzen zen, larrialdiren baten beldur eta defentsara-
ko prest beti, ohetik jauzi batez ateratzea errebolbe-
rra desenfundatzeko modua bailitzan, bera errebolbe-
rra eta izarak funda, errebolberrik ezean bere burua

desenfundatzen zuen bederen, «hemen nagok, neroni nauk arma, zer gertatzen duk?». Zeberioek siesta egi-tea laket zuen, baina beti zegoen esna bere erara, besteak baino lehen esnatzen zen goizetan eskuarki-ehiztarien ohiturak-, nahiz eta Sotok idazten pasatzen zituen gauak eta litekeena zen haren ordutegi desordenatua medio bart ohera sartu ere ez egin izana, «hi konpai, utzi siestak eta goazak Uztaritzeko jaietara behingoagatik, bizi ere egin beharra zagok»; horrelako zerbait, irakurtzen ari zen agian Soto eta aspertu egin zen edo festa giroa piztu zitzaion. Berrehun eta hamabosgarren orrialdean abandonatu du *Mientras agonizo* liburukotea, eskuetan dauka eta Zeberioek titulua ikusi dio, «a zer gauzak irakurtzen dituan, gizona, alaia ematen dik oso, hileta-oharren bilduma al duk, ez al duk agonia izateko luzetxoa liburua auke-ran, eta Faulkner hori bere bibotearekin, nor arraio zuan Faulkner burges hori? Horrelako idazlea izatea amesten al duk, Soto? Zergatik ez duk Maoren liburu gorriaren bertsio bat egiten, hura euskarara itzuli, fa-briketan banatzeko?».

Hitz asko ziren horiek Zeberioentzat, baina auskalo, lotsatiek ere izaten dituzte berritsu bilakatzen diren egunak.

Erraza zen irudikatzea eta zaila zen irudikatzea. Mila bider saiatu zen Lazkano. Egun hartan bertan egon behar zuelako hark ere haiekin. Egon zitekeelako haiekin edo haien ordeztan. Ez zegoelako haiekin edo haien ordeztan. El Cerroko ziegan zegoelako, haiek salatu berri.

«No controles mis vestidos, no controles mis sentidos...» abesten zuen Sotok, movida madrileñako txorakeria fribolo bat, gerria mugituz, dantzazalea zen dantzazalea bazen, ez zuen euskalduna ematen, horretan askoz baldarragoa eta askoz lotsatiagoa zen Zeberio, biak bizizale izanagatik modu ezberdinean adierazten zuten bizizaletasun hura; dantza, ehiza. «No controles mi forma de bailar» abesten zuen Sotok, letra gehiago ez zekien, eta behin eta berriro errepikatzen zion hilabete haietan modan jarri zen lelo txatxu berbera: «No controles, ino!», bi eskuak albo batera eta burua bestera mugituz, balantza ia hidraulikoa, apur bat makurtuz, swingaren urteetako dantzarien gisako. «Abestu ezak nirekin, Zebe», esaten zion, eta «hoa pikutara, pailazoa», Zeberioek arrapostu.

«Zorua», esango zion Zeberioek Sotori, zorua, *anaia* esaten duenak bezala, baina, *zorua*, zer esaten den da gutxienezkoa irribarre zabal batekin esaten de-

nean. Eta Sotok orduan paper zati bat, tren-txartel bat hartuko zuen eta berrehun eta hamabosgarren orrialdean utziko, *bihar* irakurtzen segitzekotan, *Mientras agonizo*, «zer arraio, behingoagatik, egun batengatik, gazteak gaituk eta ez gaituk beti izango», lagunarekin kalerako asmoa hartu du: «Baina ez dut ulertzen, bestalde, inork eskubidea izatea nor dagoen erotuta eta nor ez erabakitzeko. Gizaki bakoitzaren baitan osasun mentalaz eta eromenaz haraindiko nortasun bat dagoela lirudike, eta nortasun hark gizaki horren ekintza arrazoizkoak eta zoroak izu-laborri eta harridura berberarekin begiraten dituela». Asko gara buruan eta asko gara barruan, hori ulertzea da preziso. Baina kanpoan ere badira asko, eta ez digute denek ongi begiraten. Eta badago norbait beraiei begira, badago norbait zaintzen dituen, hain inportanteak ote dira bada, klean dago, itxoiten, gutxien espero duten lekuan, ez diete utzi kotxea hartzen ere, ezustean harrapatu dituzte, kapusai beltza jarri diete akaso, xuxurlatu egin diete zerbait belarrira, bai, hitzak dira gutxienekoa gorrotorik glazialenarekin esaten direnean, zerbait leuna eta izugarria, «sartu autora», kapusaia- ren pean atzerriko azentuaz agian -zein azentu ez da arrotz kapusaia soinean duzula esaten badizute?-.

Pailazoa, zoroa... hain gozo esan dio hori Sotori Zeberriok eta orain kapusaiaren pean hautsa arnasten du Sotok, zer gertatu da bien bitartean, zein zulo ilunetara erori dira, nork erorarazi ditu, eta beldurra, «ixo, ez esan ezer», biak daude berdin, ez dute euren burua defendatzeko aukerarik ere izan, arratoiak bezala ehitatu dituzte, zain zeuden, «hain garrantzitsuak al gaituk ba», «hi konpai, utzi siestak eta gozak Uztaritzeko jaietara behingoagatik, bizi ere egin beharra zagok», behingoagatik jaietara abiatu eta iritsi ez, «biharko utziko diagu dena», biharko, *Mientras agonizo, No controles*, berrehun eta hamabosgarren orrialdean, *pailazoa, zoroa, anaia*, «hau ez duk Txile».

- Nora garamatzazue?

- Cierra la puta boca.

- Guk ez dakigu ezer, ordea...

- Que cierres la puta boca, he dicho -eta oraingotan metala jarri diote hortzetan, zalantzarik egon ez dadin.

Ezer esan gabe, esan beharrekoak pentsatzea onena hemendik aurrera, norbere buruari esatea, haraindiko nortasun horri entzutea, gu izan gabe gu dena, indartsua eta kementsua dena, gu baino indartsuagoa eta kementsuagoa, geure eromena eta geure

zetzumena baino indartsuagoa, geure buruari hizketan: *Nora garamatzate?*

Jakin izan balute, baina ez zekiten, bestela begiratuko zioten gelari, etxea utzi dieten lagunei besarkada bat eman edo ohar polit bat utziko, *zoroa, anaia, zoroa*: «idazten geratu behar nian, redios, etxean gozo, nork esan zidak Uztaritzeko jai horretara joateko, baina bizi ere egin beharra zagok, ezta? Hil ere egin beharra zagok, ezta? Baina ez oraindik, goizegi duk niretzat, asko zeukaat oraindik idazteko, mese-dez».

Zeberio sentitzen du Sotok arnaska, «hago lasai», esan nahi lioke, baina ez dio ezer esaten, eta hau hasi besterik egin ez dela dakiten arren, ez dakite zehazki, *zoroa, anaia*, zer den hasi besterik egin ez den hori.

Ez dakite eta ez dute jakin nahi. Bizirik segitu. Horixe da nahi duten bakarra.

Eta bizirik segituko dutela uste izateko aukerak aletzen hasiko dira agian. Hasteko eta behin, ez dute bahitzaileen aurpegirik ikusi, bahitzaileek ez dute nahi nora doazen jakin dezaten... Horrek esan nahi ote du jakin nahi dutena jakin ondoren libre utziko dituztena?

Zertan bestela haien nortasunak eta doazen lekua ez-kutatzen hainbeste neke hartu? Jakin nahi dutena, bestalde... zer dakite haiek? Deus gutxi. Haiek hiltze-ko asmoa balute bost axolako litzaieke nortzuk diren eta nora doazen jakitea. Ala ez da horrela? Aurpegia tapatzea gizatasuna ezabatzeko modu bat ote da orduan, egin behar dituztenak kontzientzia zama handiegirik gabe egiteko modu bat? Bizirik segituko dutela uste izateko aukerak aletzen eta zerrendatzen hasi dira agian eta ez zaizkie bururatu. Tabako beltzaren usaina dago auto barruan, tabako beltzaren usaina, nahiz eta inork ez duen erretzen une hartan, eta izerditan daude kapusai beltzen barruan. «Vire à esquerda», esan du batek, portugesez. «Lado direito», esan du besteak. Nekez hartzen dute arnasa kapusaien pean, saiatzen dira kalkulatzeko zein errepidetan barrera ote doazen, berrogei minututik gora izan dira behintzat, nahiz eta zaila den ziurtatzen, oro baita luze egoera horretan, arrotz bahitzaileen hitzak, «hartu hor gora, geratu hemen, kontuz han». Birritan makurrarazi dizkiete buruak, autotik kanpoko norbaitetik ikusiko ote zituen beldur, hiriguneren bat zeharkatzen ari diren seinale. «Vire à esquerda», «lado direito». Portugesak? Ez dirudite poliziak, edo bai, zenbat

polizia ikusi eta entzun dituzte bada Sotok eta Zeberio-riok aurrez aurre? Hasi ikusten eta ikasten; hauek dira poliziak, Ducados, denak beltzaranak irudikatzen dituzte eta bibotedunak, «nora garamatzate, nora garamatzazue», eskumuturretako mina, eskuburdinarik ez, sokaz lotuta doaz, korapiloak egiten badakite, zergatik, ordea, soka eta ez eskuburdinak, ez dira beraz benetako poliziak, edo bai, bizirik segitu nahi dute, ez dira haiek izan lehenbizikoak desagertzen, Benelli subfusilekin egin dituzte lehenago ere atentatuak Iparaldean, ez dira azkenak izango, «aparca ahí, al lado de la pista de tenis, luego metemos el coche», esan du ahots irreal batek, autoaren kanpoaldetik datorrela dirudien ahots batek, honek bai, doinu euskalduna du, *aparca* esan du ahots honek Zeberio *Faulkner* esan duen ahoskera berarekin, *r* eta *k* espezial markatuz, eta, zer diren gauzak, ahotsaren inflexio horrek baikortasun printza bat eman dio Sotori, nahikoa izan da hori, hain gutxi daukate zeri heldu, nahikoa izan dela hori. «Euskaldunen artean, elkar ulertuko diagu», pentsatu du, «bazagok esperantzarik».

Pista de tenis hitz elkarketa bera, heriotzatik urrundagoena iruditu zaio, *terra incognita*n egon arren baidela, izan behar duela han inguruan zibilizazio zantzu-

rik, nahiz eta, hala begitantzen zaio Sotori, «vire à esquerda», «pista de tenis», «lado direito», datu gehiegi ematen ari diren euren paraderoari buruz. 1983. urtean gaudelako, eta ez daudelako hainbeste tenis pista ere lurraldeotan Angelun konpas-orratza zulatu eta berrogeita hamar minututako bidera erradioa zabalduz.

- Ondo al hago, Kepa?

- Bai, Xabier, eta hi?

Larria da egoera: izenetik deitu diote elkarri.

- Sí, decíos ahora que os queréis mucho, porque os hemos preparado habitaciones separadas.

Gazte hiltzearen abantailen zerrendan beste bat erantsi zuen Diegok, eta betirako galdu bere liburuak atzerrian aurkeztu behar zituenean hegaldiak hartzeko zuen beldurra: «dementziari itzuri egiteko modu bat duk gazte hiltzea».

«Hegaldi honetan, ni bezalako beste zenbat ote zaudek», otutzen zitzaion, «hegazkin istripua jasan eta bertan geratuko bagina hainbeste-hainbeste ere axolako ez litzaigukeenak bizia galtzeak, zenbat? Hain arraroa al naiz? Ez ote naiz hegazkinera igotzen erru-

leta errusiar burgeski eroso, pasibo eta inprobable batera jolasten duenak bezala?».

Soto eta Zeberio desagertu zirenean, Lazkanori hotzikara eragiten zion pentsatze hutsak, William Faulknerren *Mientras agonizo* irakurtzen ari zen adiskidea. Askatua izan eta Moulinaou karrikako etxera joan zenean, amaitu gabeko liburu hura topatu zuen haien gauzen artean: hortzetako eskuila, euskal familietan ohikoa zen eskuz egindako neguko jertsea -Ariadnaren hari, Peneloperen jarraipena-, eta kartoizko karpeta izokin kolorekoa. Eten hura azkena izango zenik susmatu gabe, berrehun eta hamabosgarren orrialdean utzia zuen Faulknerren liburuaren irakurketa Sotok, ez zioten aurrera egiten utzi. Berrehun eta hamabosgarren orrialde hari egin zion txakur belarria, eta ordura artekoa lapitzez egindako azpimarra urduriz gainezka zegoen arren, markatu gabe zeuden hortik aurrerako orrialde guztiak. Lazkanok bizitzari buruz zuen ikuspegia errotik aldatu zuen liburu hura erdizka irakurrita topatzeak, eta gizaseme ororen bizitza horixe besterik ez ote zen otu zitzaion, aurrez jakin gabe erdizka geratzen den liburu bat, amaieraraino irakurria izateko pribilegioa ukatu egiten zaiguna ia beti, jakinki pribilegio horrek ez duela zertan beti zer-

bait onuragarria izan: litekeena da dagokigun liburua-
ren amaiera ez gustatzea ere. Geroztikakoa du irakur-
gaia gustuko ez izan arren libururik erdizka ez uzteko
joera ia klinikoa Diego Lazkanok. Edonola zelarik ere,
patuaren jokaldi makurra eta gustu txarrekoa iruditu
zitzeaion *Mientras agonizo, As I lay dying* huraxe izatea
eta ez beste bat Sotoren azken irakurgaia, oraindik ur-
daila nahasten zitzeaion akordatze hutsarekin. Lazka-
nok ezin izan zuen sekula liburu hura ez William Faulk-
nerren beste ezein irakurri, ez idazle amerikar handi
hura begien bistan ikusi ere egin nahi izan. Ze kulpa
izango ote zuen, ba, William zaharrak.

Liburua jaso berritan, ordea, arkatzezko azken az-
pimarra bat irakurri eta gogoan geratu zitzeaion iltzatu-
ta. Hain zuzen ere, liburuiko azken azpimarra: «Baina
ez dut ulertzen, bestalde, inork eskubidea izatea nor
dagoen erotuta eta nor ez erabakitzeke. Gizaki bakoit-
zaren baitan osasun mentalaz eta eromenaz harain-
diko nortasun bat dagoela lirudike, eta nortasun hark
gizaki horren ekintza arrazoizkoak eta zoroak izu-labo-
rri eta harridura berberarekin begiratzen dituela».

Izokin koloreko karpeta eta beste jasorik Mouli-
naou karrikako etxetik atera zenean, Ilegorria ikusi
zuen pareko kafetegian, bere pausoak zaintzen, aur-

pegi gardena eta oreztaz betea, begirada gogorra. Bi kaletan barrena segitu zituen bere pausoak. Bere parrera etorri eta besotik helduko zion beldur izan zen Lazkano une batez.

Ez zuen, ordea, halakorik egin.

Baina Diego Lazkanok Soto eta Zeberioekin konpartitutako une bat gogoratzen badu oroz gain, bakar bat apartatu behar balu beste guztien artean, Bidarteko hondartzan topatutako udatiar frantsesekin futbolearen aritu zirenekoa da hura. Noiz gozo eta noiz mingots izan ohi ziren etxeko eztabaidak ahaztuta, pitzadura-rik gabeko taldea osatu zuten han hirurek behingoz Bordeletik etorritako lau gazteren kontra jokatzeko.

Hiru lauren kontra hondartza zabalean. Zeberioek hondarrez egindako balizko porteriaren zutabeak, eta umeak bezala haiek, larruzko baloi baten atzetik korrika, ortozik, saihets-bistan, zuriegi udatiarrak izateko, jeansak belauen peraino kiribilduta, arratsaldea karramarroak harrapatzen pasatu eta salabardoa alboratu berri balute bezala. Arnasa ahitu arte aritu ziren, elkarri sartzen zizkioten golak zenbatu gabe, jolasaren plazer hutsagatik, baloia aurkariari hankartetik pasa-

tzeak gola sartzeak adinako gozamina ematen zuen haurtzaroko sasoiaren gomutarekin, pase luze eta pase motz, korrikaldi eta ukabil-aldentze, bere adabakiak galtzen hasia zen baloi ez aski puztuaren zakarra hanka-zolan sentituz -haurtzaroko baloi haiek, beti zeuden erdi hustuak-, elkar topatu eta taldeak osatzeko hurrek duten joera berezko eta naturalarekin. Izaitez, nerabezaroak zuen baloiaren larrutik beste larru mota batzuetara pasatzeko sasoiatik, inflexio puntu hartatik hain urrun ere ez zeuden Soto, Zeberio eta Lazkano, azken honi beste biak beregandik ehun mila legoatara zeuden pieza bateko gizonak iruditzen zitzaizkion arren, nerabeak ez beste edozer. Soziologiako lehen urtean bera, filosofiako hirugarrenean Soto. Zeberio aurkariari buruz gain pasatu zion baloi harekin gogoratzen da bereziki Lazkano, kolpe lehor batekin harria bezala behera erori eta baloiari boterik ematen utzi gabe buelta erdia hartuta Soto portieriarantz abiatu zen jokaldi harekin, profesional ez direnei noiz edo noiz ateratzen zaizkien jokaldi dotore horietako bat; eta Soto itsu-itsuan doa aurkariaren portieriarantz, bere gerri jokoari atzeman ezinda ziztuan utzi du bordeles bat atzean, aise engainatu eta lurrera irrist eginda laga du bigarrena, korrika egiteari utzi

eta bizkarra zutituta begiratu dio aurrez aurre hirugaurrenari baloia hanka tartetik pasatu aurretik, eta harearen kosken txiripak lagundutako parabola itxurako autopase batekin utzi du atzean laugarrena.

Porteriaren parean dago, iritsi da, bakarrik egin du jokaldia, ate osoa du beretzat Sotok eta gozatzea erabaki du. Ez dio olatuen zurrumurruek Boca Juniorsen La Bombonera zelaiko publiko kartsuari inbidiarik, eta Sotok erretransmisioaren erdian bihotzekoa pairatzeko arrisku larria duen irrati-esataria bailitzan narratu du jokaldia, korrika joatea aski ez bailitzan, azentu argentinarrez emozioa eman nahian Bidarteko hondartza durduzatuari *-vibrante*, esan du-, Bordeleko udatiarrek ere ulertzeko moduko gazteleran, «chévere, pibe, Soto se interna, in-creíble, lo deja atrás, magnífico, Soto se deshace de uno, se permite sonreír, qué dominio, bárbaro cómo lo dribla» eta antzekoak botaz, eta bai, badirudi esan ahala indarra hartzen duela, arnasa kendu beharrean, hitz egiteak motibatu egiten duela, hitzak ez direla bere nekea -inoiz ez ziren izan- baizik eta bere erregaia; eta orpoa hondarretan sartuta egin duten porteriako marra okerraren parera heldutakoan oin puntarekin eutsi dio baloiari, atzerantz begiratu du, gola noiz sartu zain dauden bordeles

izoztuei so egin die, eta Zeberiori, eta are urrunago, kontrako porteria zainduz dagoen Lazkanori -hiruretan kontserbadoreena da Lazkano, beldurtiena, atezainarena jokatu eta bere areatik urruntzen ez zena, urteekin ere horrela mantenduko ote ziren hiruren rolak Zeberio eta Sotoren paraderoa beste bat izate-ra? Ez zegoen jakiterik-.

Bai. Mundua gera zitekeen oraindik garai hartan. Haiek gera zezaketen mundua. Posible zen baloi bat porteriako marraren gainean behatz puntekin geratzea. Eta baloia geratzearekin batera, geratuko ziren erlojuetako orratzak eta munduaren ardatza. Ez zen estadio jendetsuetako opioa futbola, baizik eta izpiritua asetzen zuen jolas betea. Posible zen baloia marraren muga haren gainean kokatzea, dibisio marra, banaketa marra, «ez bestaldera pasatu», «debekatua dago bestaldera igarotzea» zioen marraren gainean, eta gol errazari uko egitea han, lurrera makurtu eta hondar hezeari aita santuak lurrari bezala muxu emateko posturan jarrita kopetaz xuabe-xuabe baloi hura sarerik gabeko porteria barrura bultzatzea, Sotok orduko hartan egin zuen bezala, «mag-nífico, vi-brante, viste que, bárbaro cómo lo dribló», bere kristal lodiko betaurrekoen markoarekin ukituta bezala emeki-

emeki munduak eta baloiak marra zeharkatzen zute-
la.

Lazkanok beti horrela gogoratu nahi luke Soto. Gol hura sartu zuen unean zuen indarrarekin, kementsu, nekatzeko joera errazegia duen jendearentzat gogai-karria zen energia erakustaldiaren erpinean, hitza eta ekintza, biak bat, egin eta esan, egiten ari zarena kon-tatu eta egingo duzuna antzipatu, horrelakoa zen-eta bera.

Diego Lazkanok Xabier Sotorekin eta Kepa Zebe-riorekin konpartitutako une bat gogoratzen badu, bakar bat apartatu behar balu beste guztien artean, huraxe apartatuko luke, zorion blindatu batez eginda-ko unea delako, ez dagoelako itzalik, ditxa betea bai-zik, haurtzaroko une alairik gorenena, baina helduaro-ko arrazoimenetik iragazia egoteagatik biderkatua eta sakonago dastatua, zurea bihurtu den territorio eta denbora batetik behiala zurea izan zen eta bere ga-raian aski gozatu ez zenuen territorio eta denbora zahar bat dastatzen ari zaren kontzientziak azpima-rratua. Oraindik posible da jauzia. Eta jauzia posible bada, dena da posible oraindik.

Heriotzatik bizitzara etorritako norbaitek bezala ospatu zuen gola. Helduarotik haurtzarora etorritako

sarkinak bezala. Eta horrela saiatzen zen Lazkano aldiro une hura oroitzen, Soto bizitzara ekartzen, nahiz eta bolada luze batez eta Gabriel Lazkano onik agertu zen arte bere beldurrik handiena izan zen zuhaitz genealogiko pozoituak laga zion DNA endekatuak ez ote zuen azkenean dena ezabatu eta traizionatuko, oroitzapen hura barne, galdu nahi ez lituzkeen oroitzapenen artean azkena izatea nahiko lukeen arren hura, aitak ustez harrapatu zuen gaitz berak bera harrapatu eta oroitzapen preziatu hura ezabatuko ote zion beldurrak jaten zion barrua.

Nola izango zen oroitzapen haren ezabaketa, baldin eta Lazkano dena zirtzilatzeko zuen gaitz hain garraikide eta boladakoak harrapatzen bazuen? Dena ahaztuko zuen aldi berean? Edo lehenbizi protagonistak ahaztuko zituen, futbol partida hura modu abstraktuan eta emozio konkreturik gabe oroitzuz? Bere burua golegile bihurtuko zuen akaso Lazkanok, «chévere, pibe, Lazkano se interna, in-creíble, lo deja atrás, mag-nífico, Lazkano se deshace de uno, viste, se permite sonreír, qué dominio, bárbaro»? Ahaztu egingo zuen Soto, ahaztu Zeberio? Bidarteko hondartza ahaztuko ote zuen ezer baino lehenago, bere oroitzapenaren dekoratua eta horren ondotik gertaerak?

Ala, guztiz kontrara, dekoratu horixe besterik ez zion memoria traidoreak gordeko, protagonistarik, futbolik, baloirik eta bordelesik gabeko hondartza mortu eta bakartia? Zein kinada geratuko zitzaion azkenik buruko basamortuan, bere garuneko zelulak uzta biltzeko makina gainerik igarota bezala desagertzen joan ahala? Usainen bat, alga ustelena? Hondarraren ukimen umela, Joan Paulo II.a aita santuak lurra musukatzeko zuen ohitura geratuko zitzaion zahar-etxeko korridoreetan gauzez eta biluzik ihes egin eta erizainek besotik helduta bere gelara itzularazten zutelarik Lazkano? «Hau bai kristau sinestuna», pentsatuko zuten agian dibertiturik osasun-zaindarien, Diego zaharra lurra musukatzen ikustean, jabetu gabe beste zerbait oso ezberdina ari zela musukatzen, beste norbaiten larruan, Bidarteko hondartza batean, Soto lagunaren omenez. Agian idatzirik laga behar luke Lazkanok -agian idatzirik laga behar genuke denok-: «Memoria galtzen hasten naizenean eraman nazazue Bidarteko hondartzara, emadazue larruzko baloi bat, erdi hustua, adabakiak galtzen hasia, egin bi porteria harearekin, birsor ezazue nire oroitzapen fetitxea, blinda ezazue eszena hori, antzerki hutsa izan arren dena, behartu nazazue antzerki hori egitera, nik ez dakidan

arren zergatik egiten ari naizen antzerki hori, gera da-
dila zerbait mekanikoa eta fisikoa mentaletik eta oroi-
tzapen neuronaletik deus ez dagoen tokian».

Idazmakinaren aurreko haiek ziren Sotori buruz
zeuzkan azken oroitzapenak: Lazkanok ekarri zizkion
ikatz-orri haiek, kalko modura erabiltzen zituenak. Ti-
pula orria erabiliz denaren kopia egitea gustatzen zi-
tzaion. Nolatan ez zuen Diegok igarri, izokin koloreko
bi karpeta ezberdinetan gordetzen zituenik haiek guz-
tiak, kopiak batean eta orijinalak bestean? Sotok idaz-
le izan nahi zuen -idazlea zen jarreraz jada, goiztiar,
hemeretzi urte zituenetik-, baina zirriborro asko ida-
tziagatik apenas argitaratu zioten ezer bizi zelarik.
Gloriak muntatu zuen bere antzezlanana izan zen sal-
buespenik nabarmenena.

Sotok idatzi ez zituen liburuak etortzen zaizkio
Lazkanori burura. Bere liburuak idazten dituenean,
hark bezala idazten saiatzen da, baina ezinezkoa
suertatzen zaio. Haren ahots xuxurlaria oroitzen saia-
tzen da, baina jada ahaztua du. Haren irudia gogoan
duen arren, ahaztua du erabat Sotoren ahotsa. Ahots
berria asmatu dio urteekin, baina badaki ez dela bene-

takoa. Lazkanok bere buruari galdetzen diorean zergatik bilakatu ote zen idazle, ez dauka zalantzarik: Sotoren eraginez izan zen. Sotok utzitako lana berak hartzea erabaki zuelako, kontzienteki edo ez. Antzerkia gorroto du, ordea. Sotoren zaletasunetatik batzuk hautatu zituen eta beste batzuk baztertu. Hildakoen ordez gu bizi gara tarteka, hildakoek egingo lituzketen gauzak eginez haien gomutaz. Ez ote da gure nortasun haraindiko hura barrez ari, egiten ditugun gauza gehienak gu ez beste norbaiten partez egiten ditugun jakitun? Jatorrizko orrialdea ote gara, ala ikatz-orriaren azpiko orrialdea? Bata zein bestea, tarteka? Edo anabasa hutsa den kalko beltza, behin eta berriro erabilia eta irakurtezina? Imitazioen pilaketa hutsa baino ez, kalkoa kalkoaren gainean? Ba ote dakigu, gutxienez, noiz garen jatorrizko orrialdea eta noiz miresten genuen haren kopia? Ba ote dakigu benetan idazmakinaren kartutxoa higitu eta itzali ahala orijinala grisagotu eta lausoagotu egiten dela eta kalkoaren pean dagoena -kalkoa berria denean- jatorrizkoa baino ilunago agertzen?

Ezer izatekotan, tipo dibertitu bat zen Soto, ideien sumendi bat, dibertitzeko esandako esaldiek ere nor-

bere bizitza modu tragikoan amaitu denean beste pisu eta esanahi bat hartzen duten arren sarri.

«Zer egiten dik diktadore kontsekuente batek fusila dezaten baino lehen?».

«Ez dakik txiste hori, Lazkano? Iraultzaileen txiste bat duk...».

«Diktadore kontsekuente batek, primo, fusila dezaten baino lehen, agindu bat ematen dik: fusila nazazue».

Ahalegin berezi bat eginda, ahalegin bereziki mingarri bat eginda, Lazkanok irudika zezakeen Sotoren etorkizuna, desagerrarazi zituzten egunean hasi eta gaurdaino. Irudika zezakeen Soto erakundean gero eta sartuago, gero eta urrunago etxetik, Frantziako etxalde landatar batean ezkutuan, leku lasaiegi batean ezkutatuta ekintzara pasatzeko zain, itsasoari begira, talde armatuek bahitzen dituzten lehenbizikoak bere militanteak direla pentsatuz, autobahiketa bat dela hori eta ez dela sekula amaitzen, hil edo harrapatu edo desertatzen duten arte. Lazkanok irudika zezakeen Soto espioien nobelak eta bere eskuetan erortzen zen edozein liburu irakurtzen, egunkariak hasi

eta buka, kexu beti ez zeukalako nahikoa irakurgai, kexu beti haren komando kideak ere, bere irakurtzeko grinak ingurukoak arriskuan jartzen zituelako talde osoa errepide bazterretan liburu-bazka eroatera gertzen ziren bakoitzean, edo kalko paperak, ditxosozko kalko paperak, «hor bazagok libreria bat, ea, desbideratu hadi pixka bat», «vire à esquerda», «lado direito». Irudika zezakeen Soto ekintzara pasatzen, eta ekintza hark porrot egin ondoren itzultzen, eta atxilotua izaten edo doi-doi eta modu ia mirakuluzkoan polizien eta jendarmeen atzaparretatik ihes egiten, edo leherketa batek eragindako hildakoen gain zuen erantzukizun alikuota mentalki ingurukoekin banatzen, edo isilik gidatzen, edo erakundea uzten, edo kartzelan bere etorkizuna planifikatzen, edo dena uztear zegoenean ezustean buruzagitzara iristen, «zuk izan behar duzu, emergentzia bat da, beste egoera batean ez genizuke eskatuko, baina ez daukagu beste inor», eta sasian irratia entzuten, albisteak ia beti, baina tar- teka musika emisoraren bat, italiar opera eta France Culture, edo, guztiz kontrara, bide bakarra politikoa dela aldarrikatzen irudikatzen zuen Soto, edo politika- tik erabat aparte unibertsitatean literatur eskolak ematen, Gabriel Arestiri buruzko doktorego tesia egi-

ten, Gabriel Aresti espaziotik iritsitako birusa izan zela esaten, edo Gabriel Arestiren poemak eta David Bowie-ren kantuek erkatzen, sutuki, konparazio baterako, fantasia handiz.

Ahalegin itzela eginda, bere buru-osasuna arriskuan jar zezakeen saiakera demasa eginda, Zeberio irudika zezakeen gurasoen lanpara-dendan lanean, inbentarioa zorroztasun handiz eramaten, lanparena edo garajea pilatutako lehergailuena izan inbentario hori, tarteka iparraldera errekadutxoak eramaten eta iparraldetik errekadutxoak jasotzen, bere kasa lanean beti, atxilotuko zuten arte, eskuak lotuta eta jertse beltza buruan jarrita aterako zuten arte gauaren erdian bere etxetik, edo bere negozio propioa sortzen, eguzki panelen ingurukoa ziur aski, eta Euskal Herriko mendi eta lautadetan teilatuetara igo eta haiek muntatzen, aire librean lanean eta bere lana baliagarria zela sentitzen, eguzki panel haiek herria libreago egiten zutela, herriko zinegotzi, ilegalizatutako alderdi bateko apoderatu, edo kartzelan hamahiru urte pasatu ondoren omenaldirik nahi ez zuelako erkideekin haserre. Irudika zezakeen Zeberio La Santé kartzelan zeukan Soto laguna bisitatzeko, barrez eta negarrez eta eztabaida sutsuetan, «borroka armatuak ez dik

zentzurik gehiago», edo «bai», edo «eutsi horri», edo «gurea duk garaipena», edo «zenbat jende ari den erortzen aspaldian», edo «ez ote dik honezkero Espainiako Barne Ministerioak agintzen gure erraietan», «bai zera, CIAk izatekotan», «hoa popatik, ez etorri orain hi ere hagineta txipak jartzen dizkiguten kontuarekin», eta «hi nola hago horretaz hain seguru?», «Auxoberriren garaia joana duk», «Barrionuevo es una zona especial», «gure teilatuaren kontra ari gaituk harrika», «hik ez daukak perspektibarik, historiak absolbituko gaitik», «hori Fidelek esaten zian eta hura ere», «hura ere zer?», «ikusten duk nola dabilen», «esadak nola», «azkenetan, agonia hutsean», «bizilegea duk agonia», «agian bai», «indarrez sentitzen haiz, bederen, Soto?», «indarrez sentitzen nauk, Zerberio», «baduk zerbait hori», «kemena, anaia».

Esan nahian bezala: «zoroa, anaia, goazen, festa diagu Uztaritzen».

– **Oinez** jarraituko diagu hemendik aurrera.

Garrantzitsua omen da denek inguruko mendiak ezagutzea. Soto kexu da, ez da bera sobera mendizalea, baina ameto eman duenez, Lazkanok ere ameto

eman du, ezinbestean. Nor da bera beste bien esanak zalantzan jartzeko?

Eguraldia, ederra: udako eguzki printza eskergariak, neurriko brisa, zerua urdin. Motxila ttipiekin eta justuko jatenarekin abiatu dira, egun pasa egiteko asmoz. Aluminiozkoa izateaz gain aluminio kolorea duen ur kantinplora bana daramate, gailetaren bat, errezil sagarrak, ogitartekoak. Horrez gain, ardo botila hartu du Sotok isilpean, besteei ezer esan gabe. Astegun buruzuria izaki, ez dabil inor bidezidor haietan barrena. Hizketa alaian doaz pagoen itzal eskuzabalarren artetik, goroldioaren heze puntua presente, bideirik pikoeneri ekin aitzin. Joan Paulo II.a aita santua Loiolan izan zen neguan, ez zen beste konturik ibili irrati eta egunkarietan, ederra kalaka. Zeberio ez dago Aita Santuaren bisita haren guztiz kontra, bakea lortzeko mezuren bat ekarri zuelakoan.

- Vatikanok gure alde konspiratuko dik, jakina, euskal estatu independente bat sortzeko, no te jode. Dibortzioaren legeari kontra egin eta abortuaren aldekoa atzeratzeko etorri duk hura...

Elizarekin erasokor jartzen da beti Soto, ez die amiñirik ere barkatzen.

- Apaizak eta apaizak zaudek, Soto. Bitartekari bezala bere papera bete dik euskal elizak, euskararen biziraupena ere, nori zor zioagu?

- Ponteko euskara bada mintzatu behar duguna, popatik! Nahiago diat mila bider frantximanta izan... *Cherchez la femme*, mekaguendios!

- ETArek sorreran bertan eliza oso...

- Bai, eta Adam eta Evaren lehen txortaldian ere bai... Ezagutzen diat erretolika hori.

Elkarrizketa berotzen doan ahala, Zeberio hatzez seinalatzen dizkie lantzean behin bordak eta kobazulo ttipiak: «Hor, eta hor eta hor». Hor. «Eta hor ere bai».

Ez du besterik esaten: *hor*. Edo, agian, lantzean behin, zertxobait gehiago: «hor hezeegi», edo, «hor ezta okurritu ere». Gero, garbi samar geratzen da zer eta nola ezkutatzeko balio duen txoko haietako bakoitzak.

Paisaia soildu eta zuhaitzen abaroa desagertzen den heinean, elkarrizketaren sarria ere eskasten joan da. Indarrak ez daude sobera eta denak behar maldari aurre egiteko. Hiruretan gizenena eta bizar luzeena duena izanagatik, Zeberio da izerdi gutxien botatzen duena. Tarteka, Soto ahozabalka sufritzen ikusten

duelarik, pausoa azkartzen du apur bat Zeberio, atzetik datozenen martxa behartuz, bera nagusi dela sentitu eta kideen lepotik barre apur bat egiteko, dibertiturik. Boterearen hede zer den, eta nola erabiltzen dugun eskuetan dugula konturatu orduko, bote-retxoa eta hedetxoa izanagatik, modurik inozentee-nean batzuetan, gupida eta errukirik gabe zartailuari eragin eta laguna zigortuz beste batzuetan. Eta horrek gu gozarazteak ez du esan nahi lagun hurkoa maite ez dugunik derrigorrez, jakina, geure burua eta besteekiko kontrol-ahalmena hurkoa baino gehiago maite ditugula baizik. Tira, agian ez da zehazki horrela. Baina uneak eta uneak daude. Eta une batzuetan bazen horrela. Une hartan, adibidez.

- Urik nahi?

- Gorde heurtzat ur bedeinkatua, Zeberio. Nik badiat neurea.

Zeberio gaiztakeria txikia egin die: «Horra, hori duk gailurra», esan die.

Azken indar erreserbak eta geratzen zitzairen ur apurra ahitu dituzte beste biek.

Gailurrera iritsitakoan, ordea, Sotok eta Lazkanok motxilak erantzi bezain laster, aurrera segitu du Zeberio, txistuka.

- Hor atzean da: beste muino bat falta zaiguk.

- Beste muino bat dago?

Beste muino bat, eta beste bat. Zeberioak adarra jo die behin eta berriro. Eta ez dio esateari uzten: «Hor, eta hor»; edo: «Hor ezta okurritu ere»; edo: «Hor hezeegi».

Agian hori da lezioa: *beti dago beste muino bat*.

Lanbroa sartu da oharkabean. Goroldio puntua nagusitzen hasi da berriro. Logikaren kontra zerutik datorren goroldio lurruna.

«Maite ditut maite, gure bazterrak, lanbroak ezkutatzen dizkidanean», abestu du Zeberioak.

Lazkanok txistuka lagundu dio, konpartsa hutsa da bera, bigarren ahots urruna, beti izan da hori beste bien ondoan -«uh, uh; wah, wah»-.

- Euririk ez ahal dik botako...

- Ez, ateri eutsiko zio.

Baina ez dio eutsi.

Zeruak eta lurak urratuko dituela dirudien trumoi lehertu da. Durundiak tinpanoak zulatu orduko, erabateko soilgunean harrapatu ditu zaparradak, babesteko zuhaitz triste bat ere gabe. Oinetakoak blai, udako arropa mela-mela, kopetako ile tantakaria etengabe apartatzen duen arren, betaurrekoak behin

eta berriro lurruntzen zaizkio Sotori, lekutan da bere tupea. Praka motzak ekarri dituzte, Zeberio da artilezko galtzerdi luzeak daramatzen bakarra. Sotok eta Lazkanok ebaki txiki sorta ederra dute orkatiletan, sasi eta sastraken erruz. Birritan erori da Soto, lokatzetan laprast eginda. Sotok, ez eramateagatik, botarik ere ez baitarama, sekula erantzten ez dituen zapatilak baizik. Zeberioek eta Lazkanok lagundu behar izan diote altxatzen. Erortzen den aldiro, maldizio pare bat jaulki eta bere motxila haztatzen du, beste biei deus esan gabe hartu duen ardo botila puskatu ez dela ziurtatzeko. Ez du Lazkanok Soto sekula horren haserre ikusi.

- Ateri eutsiko ziola? Putetxeko madreak eutsi ziok ateri.

Zeberioek ezin die aitortu, baina ongi ezagutzen ez duen saihesbide bat harrarazi die, lehenago iritsiko zirelakoan. Galduta dago orain.

Biderik sigi-sagatsuenak propio hautatzen dituela dirudi, eta igoerakoan litekeena zen horrela izatea, baina jada ez. Bidearen ezagutza ezari zor zaio Zeberioen trakestasuna. Behe-lainoak, ordea -dena ez da txarra izango-, ezkutatu egiten dizkie Sotori eta Lazkanori Zeberioen laprastadak, haren larritasun aur-

pegia. Soto eta Lazkano bakarrik ez, bera ere baldar eta itsumustuan doa.

- Aurrekoaren oinei begiratu, ez galdu elkarren bistatik, bai?

Nahi baino izuago atera zaio gaztigua. Nabarituko ote zuten beste biek gidaren estualdia?

Lurrari musu eman dio halako batean irrist eginda Zeberioak:

- Lurrari muxu? Ohitura vatikanoarrak hartzen ari haiz -bota dio Sotok, irribarre egiteko indarrak gabe. Ez du giroa lasaitzeko balio izan zirtoak.

Bide ertz lokaztuan ez du Zeberioak espero zuen harri txintxarrik ukitu, arroka puskak baizik. Hor be-hean, pendiza. Eta pendiza baino okerragoa den zerbait: amildegia. «Hori da onena. Amiltzeko arriskua, eta berriro ere amiltzeko aukera izango duzula jakitea».

Geratu egin beharko lukete nonbait aterpetzeko. Non, ordea?

Marmarka segitzen du Sotok. Astindu ederra emango lioke Zeberiori galdurik daudela jakingo balu:

- Pneumoniak jota akabatuko gaituk, Wojtyla.

- Hago lasai: hor hartuko diagu babes.

- Hor? Non dago *hor*, ordea? Beti dago beste muino bat.

Beti dago beste muino bat. Ez gaituk biziko hori ikusteko.

Kanpaiak salbatu du boxeolaria. Heldu dira leku segurura. Hartu du Zeberioak lasai arnasa. Akabo hertsura. *Hor* hori ezaguna zaio; harri ilunez eraikitako borda bat, egurrezko langaz trabatua. Zein gauza ederra galdurik ibili zarela jakitea, jada galdurik ez zaudenean. Sartu dira barrura. Hontz batek habia egina du leihoxkako huts-tartean. Ez da haiek sartzean mugitu ere egin. Begiak zabal-zabalik ikuskatu ditu hontzak hiru lagunak, izurik gabe, jakin-minez, gurasokeriaz ia.

- Ostras!

Sotok ahoan du bihotza.

- Honek... piztiak ez al ziguk zorte txarra ekarriko?

Adarra jo dio berrindarturik Zeberioak:

- Hontza duk, Soto, animalia ederra eta jakintsua.

Zortea ekartzekotan, ona.

Ia hirurehun eta hirurogei graduko jira eman dio hontzak lepoari. Ikusgarria.

- Auxoberriren antza hartzen zioat bada nik... Ez ote duk Orwellen Anaia Nagusia izango?

Hilabete batzuk falta dira oraindik 1984ra iristeko.

- Erantzi botak eta laga arropak ate ondoan, lastoa umel-umel utziko diagu bestela.

Kanpoan zarra-zarra jarraitzen du euriak.

- Ez dik atertzeko itxurarik -ausartu da Lazkano, beti legez, informazio txatal bat ematera mugatuz.

Iluntzen ari du. Aterrunerik ez. Bertan pasatu beharko dute gaua.

- Manta pare bat bazagok hor.

- Ez diat ganaduak erabilitako manten artean lo egiteko asmorik, Zebe. Nahikoa potrozorri badiat hirekin.

- Nik ipini nitian hemen mantak, kalamidadea -bota dio Zeberio, artilezko tapakiak lurperatutako kaxa batetik ateratzen dituela, ez harrotasunik gabe, hotelean izara freskoak dakartzan zerbitzaria bailitzan.

Burdinak ere badaude han, eta pospolo lehorrak, lurpeko gordelekuan, Lazkano begiluzeak ikusi ahal izan duenez. Lehen gutxi miresten bazuen, biderkatu egin zaio Zeberio planifikatzailearekiko estimazioa.

Sotori umorea erne zaio derrepente. Manta eskoziarrek izan dute errua.

- Jode, Zeberio. Hire maitasun habiatxoak duk hau? Hona ekartzen dituk hire mojatxoak? Larru-pasara rupestreen zalea haiz, orduan?

- Geratzen zaizue jateko ezer?

Piztu egin da Soto. Mahukan gordetako karta ateratzeko unea dela erabaki du.

- Diego, atera nire motxilako ardoa!

- Ardo botila ekarri duk? -harritu da Zeberio.

- Beharko zerbait, bihar goizera iristeko.

- Botila irekitzekorik badaukak?

Zurbildu egin da derrepente Soto. Barrez lehertu, Zeberio.

- Hire gordelekuan ez al daukak? Hire guardia suitzarrari kendutako labana suitzarrik ez al duk ekarri, Wojtyla?

- Ekarriko nian *hik* ardoa ekarriko huela jakin izan banu, komandante...

- Jode, Zebe, ezustekoa eman nahi nizuen...

- Eta eman diguk, Soto, eman diguk... Ekarri zaha-toa hurrengoan!

Harriaren kontra botila muturra apurtu eta hatzak zauritzea pena litzatekeela-eta, ardoa beste okasio baterako gordetzea erabaki dute. Galleta bustien papurrak jan dituzte. Errezil sagar bana. Su txikia egin

eta espageti pakete bat atera du Ali Babaren kobazulotik Zeberio. Ez daukate ura irakiteko ontzirik eta espagetiak gordinik jaten hasi dira, horrek urdailaren orroak baretuko dituelakoan. Lazkanori espageti zurrunak sutan berotzea otu zaio, espagetiak zer ziztatuturik ez duten brotxeta-ziriak bailiran. Irudimen apur batekin, ogi-ziriak jaten ari ote diren iruditu zaie.

Lazkano harro dago berea izan delako espageti gordinak sutan berotzearen ideia. Behingoz baliagarri sentitu da bi liderrentzat.

Busti baina ateri urratu du egunsentiak.

- Hara!

Hor esaten duen bezalaxe esan du Zeberio: *Hara*. Hontza lo dago.

- Lepoa jokutzen diat, sekula hontz bat lotan ikusi gabeak zinetela.

Inork ez dio erantzun. Nahikoa lan, norbere loaren orratzak kendu eta belar izpiak ahotik eta kolkotik ateratzen.

Manta eskoziarrak astindu eta tolestu dituzte atzera gordelekuan uzteko, ahozabalka. Sotok begi txikiak ditu dioptria askoko betaurrekoak jantzi aitzin. Umeen edo agureen aurpegia dute Lazkanok eta berak, esna-

tu berritan. Zeberioak, osterak, betiko bisaje ernea, lagunak baino askoz lehenago jaiki den seinale.

- Lo-zaku pare bat gorde itzak hurrengorako hire maitasun habiatxoan. Mojarik ez zaik bestela birritan etorriko -bota dio Sotok.

- Zakuak eta kopa pare bat, hik ekarriko duan xanpaina zerbitzatzeko.

Makarrak kendu gabe oraindik, Sotok izan du hon-tza agurtzeko indarra:

- Aio, Auxoberri. Berriz arte.

Guardetxean geratu dira gosaltzen. Gorringo erraldoia duten arrautza frijituak, haragi egosi muturra, hirugihar errea eta salda, labetik atera berria den etxeko ogi azal ilunekoaz lagundua. Hitzik esan gabe egin dute hirurek gosari legea, naufrago erreskatatu berrien moduan, *bere mutilak* sasoian ikusten dituen guardetxeko andrearen pozerako. Gosaria bukatuta-koan, irri bihurritz, bigarren gosari-erronda bat eskatu du Sotok, etxekoandreari hiruren plater hutsen gainean hatz erakusleaz uztai bat marrartzuz. Motxila ireki du gero, ardo botila ateratzeko, ia-ia ahaztu egin izan balu bezala.

- Zabalduko diguzu ardo-wojtyla, etxekoandre?

Etxekoandreak ez du Aita Santuaren aipamenik ulertu, baina mutilek barre egin dutenean gogotik barre egin du berak ere, barre egin dute denek elkarrekin, eta gero haien barreari oihartzun, pozaldiarekin harro, barrearekin barrea omenduz, eta burua ezker-eskuin astinduz, *pailazoa, zoroa, anaia*, jaten segitu dute hiru gazteek, munduko teatroa platereko portzelana zuriaren gaineko zirkunferentzia hartara mugatuko balitz bezala, hirugiharrari saldarekin lagunduz eta saldari arrautzarekin, zuringoa ahoan murtxikatu ahala gorringo sumendietako jario librea ogi-muturrekin rally zoroan kontrolatu guran. Ogi puska ahora eraman aurretik laba laranja bidezidor ikusezinetan ildokatzeko saiakeran.

- Hor daukazue botila irekita.

- Non?

- *Hor, eta hor eta hor...*

Barre egiten dute berriro hiru lagunek, arrazoirik gabe.

Beti dago beste muino bat.

Hiruren adinak batuta ere ez dira etxekoandreaken hirurogeita bost urteetara ailegutzen. Paradisuko lurrina dario ardo merkeari.

Guardetxeko hiru leihoetatik bi bakarrik daude zabalik. Leihoek ez dute errezelik. Eguzki izpiek baikortasunez blaitzen dute bernizatu gabeko zorua, laukiluze itxurako argi putzu biziak sortuz, apurka-apurka hiru gazteen aurpegietara iritsi eta begietan min emateraino.

Itsutu egiten ditu argiak, eta ez die zorionetik aparta litzakeen deus ikusten uzten.